trimoteur bimoteur, **1594**
triple (composé de trois parties), **949/A**
triple (produit par 3), **949**
trolley, bus, **1352**
trombe, **44**
tromblon, **1740**
trompette, **1149**
tronc, **195, 341**
trône, **602**
trottoir, **1250**
troupeau (de moutons), **290**
troupeau de porcs, **289**
truelle, **676, 834**
truite, **312**
trusquin, **678/A**
tubercule, **203**
tuyau, canon (de la plume), **277**
tuyau d'arrosage, **1330, 689**
tuyauterie, **782**
tuyeau, tube, **781**

U

unisson, **1133**
unité (de mesures), **933**
unité (objet unitaire), **933/A**
urbanisme, **668**
usine, **760**

V

vacances, **918**
vaccin, **396**
vague, **31**
vaisseau sanguin, **184, 351**
valeur, **957**
valeur absolu, valeur relatif, **958**
valise, **531, 533, 1536**
vapeur, **105**
vapeur d'eau, **151**
vase, **628, 822**
vautour, **323**

végétal, **186**
végétation, **9**
véhicule, **1342, 1430**
vélodrome, **1263**
velours, **483**
vendeur, **1309**
vent de tempête, **45**
ventilateur, **626, 813**
ventilation, **625**
ver, **259**
verbe, **1109**
vernis, **603**
vernis à ongles, rouge à lévres, **544**
vers (en), **1127**
vers, **1127/B**
vert, **1176**
vertu, **1222**
verre, **641, 675**
verrière, **566**
vice, **1223**
victoire, **1725**
vigne (plante), **235**
vigne, vignoble, **236**
vilebrequin, **799**
vinaigre, **440**
viole, **1159/B**
violet, **1174**
violon, **1160**
violoncelle, **1161/A**
virgule, **1093**
vis, **801/A**
viser, centrer, **1192**
vison, **339**
visqueux, **109**
vitamine, **399**
voie, **1500**
voiture, **1344**
voiture-couchettes, **1511**
voiture-restaurant, **1510**
voiture-salon, **1509**
vol, **1586**
volcan, **52**
volant, **1456**
volume, **991**
vote, **1403, 1402**
vue, **361**

W

wagon, **1507**
wagon-lit, **1508**

Y

yacht, **1547**

Z

zéro, **932**
zinc, **140**
zone polaire, **81**
zone tempérée, **82**
zone torride, **83**

EUSKALTZAIN OSOAK (ACADEMICOS DE NUMERO)

Antonio Arrue, Oquendo, 4 - 4º SAN SEBASTIAN 943 - 414706
José Miguel Barandiaran, "Sara" ATAUN (Guipúzcoa)
Louis Dassance, Ingénier Agronome 64 USTARITZ (France)
Jean Louis Davant, Collège Hasparren, 64 HASPARREN (France)
P. Xabier Diharce, Abbaye Notre Dame de Belloc, 64 URT (France)
Eusebio Erquiaga, Maestro García Rivero, 4 - 3º BILBAO - 11 Etxea - 94 - 4417206 Banco de Vizcaya - 94 - 4216900
Juan Gorostiaga, Trinidad, 3 ALGORTA (Vizcaya) 94 - 4690380
Jean Haritschelahar, "Elorrieta" 24 rout de Lamigotte, 64600 ANGLET (France); Etxea Tfno. (59) 038506, Musee Basque - 250898;
P. Dámaso Inza, PP. Capuchinos, Errotazar, 42 PAMPLONA
P. Policarpo Iraizoz, LECAROZ (Baztan) (Navarra)
Angel Irigaray, S. Esnaola, 11 - 1 o SAN SEBASTIAN 943 - 417458
Alfonso Irigoyen, Avda. Ferrocarril, 2 - 5º B - BILBAO Tfno. 94 - 4422770
Federico Krutwig, (Agnes Caers) Bondgenotelaan 153 - B - 3.000 Leuven BELGIUM
Antonio María Labayen, San Francisco, 35 pral. TOLOSA (Guipúzcoa) 943 - 651082
Pierre Lafitte, Petit Sèminarie, 64 USTARITZ (France) 3310113
Emile Larre, Curè d'Ayherre, 64 LABASTIDE, CLAIRENCE (France)
Pierre Larzabal, Curè de Socoa, 64 CIBOURE (France)
Manuel Lecuona, Sacerdote, OYARZUN
José María Lojendio, Guetaria, 2 pral. SAN SEBASTIAN (Guipúzcoa) 943 - 355385 Salamanca 923 - 219158
Juan San Martin, Mekola, 6 - 3º EIBAR (Guipúzcoa) 943 - 712612
José María Satrustegui, URDIAIN (Burunda) (Navarra) 948 - 578012
P. Luis Villasante, Santuario de Aránzazu, OÑATE (Guipúzcoa) 943 - 781172
P. Antonio Zavala, S.J., Colegio S. Ignacio de Loyola, Ategorrieta. SAN SEBASTIAN 943 - 413623

EUSKALTZAIN OHOREZKOAK (ACADEMICOS DE HONOR)

Odón Apraiz, Plaza del General Loma, 3 - 1º VITORIA
Julene Azpeitia de Escauriaza, Grupo Juan de Iciar - Larresoleta, Chalet, 3 DURANGO
Karl Bouda, Haydustr, 6 ERLANGEN (Alemania)
Isaac López Mendizabal, Conde Ibar, 6 TOLOSA (Guipúzcoa) 943 - 661913
Gabriel Manterola, Presbítero. CEANURI (Vizcaya)
J.J.B. Merino Urrutia, Aiboa, 24 ALGORTA (Vizcaya) 94 - 4692165
Tene Mugika, Lersundi, 15 DEVA (Guipúzcoa)
Norbert Tauer, Vinohardská, 126 PRAGUE, 3 Tchecoslovaquia
Antonio Tovar, Seminar f. Vergl. Spraw, w. Mohlstr, 54. 74 TUBINGEN (Alemania)
Madeleine de Yaureguiberry, "Sibasia" Siba par 64 TARDETS (France)

EUSKALTZAIN LAGUNTZAILEAK
(ACADEMICOS CORRESPONDIENTES)

Jesús Acha, Apartado 268. PAMPLONA Etxea - 948 - 226862 – Ikastola - 948 - 231075
María Dolores Aguirre, Urbieta, 5 - 2 º SAN SEBASTIAN
Eugenio Aguirreche, PP. Franciscanos, Iralabarri BILBAO - 12 94 - 3411936
Gexan Alfaro, 64 Av. du Golf 64 - BAYONNE
Jacques Allières, 32 bis, Raymon IV TOULOUSE (France)
P. Francisco Altuna, S.J., E.U.T.G., Mundaiz SAN SEBASTIAN 943 - 421920
José Luis Alvarez Emparanza, 3 rue des Lauriers, 64. HENDAYE (France) 212993
Xabier Amuriza, Párroco de GUIZABURUAGA (Vizcaya)
Agustin Anabitarte, Gral. Primo de Rivera, A, 2 º SAN SEBASTIAN
Pierre Andiazabal, Petit Séminaire, 64 UZTARITZ (France)
P. Marcelino Andrinua, PP. Pasionistas, Euba - Amorebieta (Vizcaya) 94 - 6730486
P. Lino Akesolo, PP. Carmelitas, BEGOÑA - BILBAO
José María Aranalde, Párroco de Añorga, SAN SEBASTIAN
Xabier Aranburu, Miracruz, 28, A, 4 º dcha. SAN SEBASTIAN 943 - 428889
Jose Antonio Arcocha, San Ignacio, 25 ONDARROA (Vizcaya)
Jesús María Arenaza, Gran Vía, 82 - 2 º izda. BILBAO - 1 94 - 4414181
Francisca Arregui, Calle Palacio, grupo Itxasmendi, Bloque 1, 6 B SAN SEBASTIAN
Fernando Artola, Avda. de J. Ugarte, FUENTERRABIA (Guipúzcoa) 943 - 641049
José María Azpiroz, Párroco de LESACA (Navarra)
Miguel Angel Astiz, Gral. Concha, 32 - 4 º 94 - 4313285 BILBAO
José Azurmendi, St. Marien Hospital, 4406 Drensteinfurt (Alemania Fed.)
P. Salvador Barandiarán, S.J., Colegio Ategorrieta, SAN SEBASTIAN
Iñaki Barriola, Villa Isturiz, Ayete. SAN SEBASTIAN
José Basterrechea, Sangüesa, 13 - 1 º izda. PAMPLONA
P. Isidoro Baztarrica, PP. Benedictinos, Santuario de ESTIBALIZ (Alava)
Alessandro Baussani, Facolté di Lettere e Filosofia - Universitá degli Studi di Roma 00100 ROMA (Italia)
Juan José Beloqui, Villa Nere Kayola, Ategorrieta, SAN SEBASTIAN
Iñaki Baobide, Narrica, 31 - 3 º SAN SEBASTIAN
P. Imanol Berriatua, PP. Franciscanos, Iralabarri, BILBAO - 12 94 - 4311936
Hno. Valentín Berriochoa, (N. Alzola), Colegio LA SALLE, Avda. Madariaga, 37 BILBAO - 14 94 - 4313185
Juliana Barrojalbiz, Rodriguez Arias, 29 BILBAO - 11 94 - 4437943
Serafin Basauri, Chirio-Kale, 1 - 3 º EIBAR (Guipúzcoa) 943 - 731590
Pedro Barrondo, Gral. Lersundi, 6 entl. izda. SAN SEBASTIAN 943 - 420282
Antonio Barrueta, Pío XXII, 16 - 6 º b. VITORIA
Milagros Bidegain, Sanchoenea, 9 RENTERIA (Guipúzcoa)
Antonio Bilbao, Apartado 28 SANTURCE (Vizcaya)
Jon Bilbao, Basque Studies Program, University of Nevada, RENO, NEVADA 89507 U.S.A.
P. Félix Bilbao, PP. Franciscanos, FORUA (Vizcaya) – 1

Pierre Bordaçarre, "Etxaun" 64 TROIS - VILLES - TARDETS (France)
Rodolfo Bozas Urrutia, Puerto de Costabona, 80 MADRID - 15
Joseph Camino, Supérieur des Missionaires Diocesains, rue de l'Ursuya, 64 HASPARREN
Julio Caro Baroja, Ruiz de Alarcón, 12 MADRID
Jacinto Carrasquedo Olarra, Secundino Esnaola, 7 - 6 º SAN SEBASTIAN
Jorge Cortes Izal, Monasterio Velate, 5 - 7 º PAMPLONA Etxea - 948 - 255759
Bulegoa - 948 - 252294
Jean Pierre Curutchet, 64 HELETTE (France)
Pierre Charritton, 17 rue de Auger 93500 PANTIN
Pedro Díez de Ulzurrun, Presbítero, Parroquia San Agustín, PAMPLONA
Pedro Díez de Ulzurrun, Médico, San Antón, 43 PAMPLONA
Jean Baptista Dirassar, Residence Aguilera-alde, Alles d'Aguilera. BIARRITZ (France)
Pierre Duny - Pétré, "Heguitoa" 64 SAINT JEAN DE PIED DE PORT (France)
José María Echaburu, Villa Ongi Etorri, Barrio Amute, FUENTERRABIA (Guipúzcoa)
Jon Echaide, Paseo de Colón, 33 - 4 izda. SAN SEBASTIAN 943 - 425050
Nemesio Echaniz, Víctor Predera, 79 - 2 º izda. SAN SEBASTIAN 943 - 424706
José Echeandia, Avda. Montevideo, 9 DURANGO (Vizcaya) 94 - 6810479
Carmelo Echenagusia, Monasterio del Refugio, Zabalbide, 104 BILBAO - 6
Obispado - 94 - 4472500
Juan Angel Echevarria, T. Torreburu, 3 - 1 º izda. GUERNICA
Peter Echevarria, Residence, 1855, Sierra Lange Ln. RENO NEVADA U.S.A.
P. Francisco Echevarria, Catholic Church, KUANSHI, HSINCHU, HSIEN, TAIWAN
(Formosa)
Ignacio Ezmendi, Nuestra Señora del Pilar, 10 ZARAUZ (Guipúzcoa) 943 - 841537
Jesús Elosegui, 7 - 3 º izda. grupo Bidebieta, TOLOSA (Guipúzcoa)
Kepa Enbeita, Auzo-lana de Abornikano, S.A. ABORNICANO (Urcabuztaiz) (Alava)
945 - 430032
Karmele Esnal, Zabaleta, 50 - 5 º SAN SEBASTIAN
José Estornés Lasa, Secundino Esnaola, 13 SAN SEBASTIAN
Bernardo Estornés Lasa, Secundino Esnaola, 13 SAN SEBASTIAN
Eñaut Etchamendy, Professeur agronome 64 BEYRIE SUR JOYEUSE (France)
Jean Baptiste Etcheverry, Aumônier 64 BAYONNE (France)
P. Etcheandi, Abbaye Notre Dame de Belloc, 64 URT (France)
Jacques Etcheverry, 2 Alles Boufflers 64 BAYONNE (France)
Pierre Eyheramendy, "Artzaindea" 64 CAMBO - LES BAINS (France)
Patrik Farell, 'Darragh", 41 Nutley Lane DUBLIN - 4 (Irlanda)
Jacinto Fernandez Setien, Presbítero de LAZCANO (Guipúzcoa) 943 - 419779
P. Victoriano Gandiaga, PP. Franciscanos, Santuario de Aránzazu, OÑATE (Guipúzcoa)
Justo Gárate, San Lorenzo, 444 MENDOZA (Argentina)
Marcelino Garde, Presbítero RIPODAS (Navarra)
Juan Garmendia, Avda. Sancho el Sabio, 12 - 7 º dcha. SAN SEBASTIAN
Salvador Garmendia, Biarritz, 16 - 3 º SAN SEBASTIAN 943 - 881207 / 15
Ignacio Goicoechea, Apartado, 2 SAN SEBASTIAN
P. Juan Goicoechea, S.J., E.U.T.G. Apt, 1359 SAN SEBASTIAN 943 - 421920

Manex Goieneche, 15 rue de Port - Neuf, 64 BAYONNE (France) 256426
Xabier Guereño, Avda. del Ejercito, 18 - 3 º dcha. BILBAO 14 94 - 4355263
Paul Guilsou, 48 Bd. Serurier, PARIS XIX (France)
Marcelin Hegiaphal, Pastoralier, Cheraute par 64 MAULEON (France)
Jean Hiriart-Urruty, Grand Seminaire, BP 850 BUJUMBURA (Burundi)
Nils M. Holmer, P. O. Box 40 LUND (Suecia)
Mariano Iceta, ELIZONDO (Navarra) 948 - 580361
P. Joseba Intxausti, PP. Franciscanos, TOLOSA (Guipúzcoa) 943 - 651106
Roger Idiart, curé de Sauguis-st. Etienne, 64 TARDETS (France)
Arantza Idiazabal, Plaza Urbia, 1 - 3 º RENTERIA (Guipúzcoa)
Juan Angel Irigaray, Esnaola, 11 - 1 º SAN SEBASTIAN
Jose María Iriondo, Radio Popular, LOYOLA - AZPEITIA 943 - 812747
Michel Itcaina, Secretaire du Mairie, 64 CAMBO (France)
Fermin Ixurko, Párroco de ITUREN (Navarra)
Ramuntxo, Kanblona. 11 rue Bourqueu 64, BAYONNE (France)
Hendrike Knörr, Mateo Múgica, 8 VITORIA 945 - 223803
P. Guillermo Larrañaga, Colegio San Francisco Javier, Apdo. 1 TUDELA
Mikel Lasa, Torre Eguzki, 11 D, MONDRAGON (Guipúzcoa) 943 - 791945
Imanol Laspiur, Aldatze, 5 - 2 º EIBAR 943 - 713288
Jose Manuel Lasarte, Presbítero, LEIZA (Navarra)
Juan María Lecuona, Seminario Diocesano, SAN SEBASTIAN 943 - 444010
P. Gabriel Lerchundi, Abbaye Notre Dame de Belloc, 64 URT (France)
J. Antonio Letamendia, Cerverales, 10 FUENTERRABIA 943 - 213721
Xabier Lete, Plaza San Juan, 20 URNIETA (Guipúcoa) 943 - 359044
José Luis Lizundia, Astola-Matiena, ABADIANO (Vizcaya) 94 - 6814109
Jose Antonio Loidi, Farmacia Paseo de Colon, 93 IRUN (Guipúzcoa)
Gerardo López de Guereñu Galarraga, San Vicente de Paul, 8 VITORIA
Peli Martin Latorre, Iradier, 9 VITORIA
Xabier Mendiguren, Aldapas, 19 ALGORTA (Vizcaya) 94 - 4697163
P. Fernando Mendizabal, 476 Wori/West POSTEACH, 304 (Alemania)
Marie Jeanne Minaberry, Journaliste. 64 UZTARITZ (France)
P. Justo María Mocoroa, PP. Escolapios, Alda, Recalde, 19 BILBAO - 9 94 - 4218416
Telesforo Monzon, Boulevard Thiers, 64 SAINT JEAN DE LUZ (France)
Luis María Mugica, Zabaleta, 49 SAN SEBASTIAN
P. Plácido Mugica, PP. Jesuitas, Santuario de Loyola, AZPEITIA (Guipúzcoa)
Jean Narbaits, Residence du Parc des Sports. 64 BAYONNE (France)
Manuel Olaizola, "Uztapide" C. Lagunzarrena, B. Ergoyen. OYARZUN (Guipúzcoa)
Jesús Oleaga, Elcano, 18 entl. dcha, BILBAO 8 Etxea - 94 - 436957 - Bul. 94 - 213501
P. Ignacio Omaechevarria, Curia Generalizia del Frati Minori, Via Sta. Maria Mediatrice, 25 00165 ROMA (Italia)
P. Santiago Onaindia, PP. Carmelitas, Larrea AMOREBIETA (Vizcaya) 94 - 6730088
Juan Oñatibia, Villa Zugasti, OYARZUN (Guipúzcoa)
Josu Oregui, Paseo Urdangarin, VERGARA (Guipúzcoa) 943 - 761727
Dominique Peillen, 140 Avenue de Paris, 94 VINCENNES (France)

Xabier Peña, Pérez Galdós, 6 - 1 º BILBAO - 10
Jaime Querexeta, Párroco de San Agustin de Echevarria ELORRIO (Vizcaya)
Francisco Xabier Quintana, Camino de Trauco, 1 - 3 º BILBAO - 7 94 - 4454044
J. Antonio Retolaza, Orueta, 1 - 3 º BILBAO - 9 94 - 4234573
Rudolf de Riik, Molenbeekstraat, 22 AMSTERDAM-Z (Holanda)
Manuel María Ruiz Urrestarazu, Dato, 1 - 3 º VITORIA 945 - 254000
Ramon Saizarbitoria, Larramendi, 23 - 3 º SAN SEBASTIAN
Etienne Salaberry, Villa Pia, Av. Marechal Soult, 64 BAYONNE (France)
Carlos Santamaria, Buen Pastor, 13 SAN SEBASTIAN 943 - 415297
Ibon Sarasola, Duque de Mandas, 37 SAN SEBASTIAN
Manuel de la Sota, Etchepherdia, Au Phare. 64 BIARRITZ (France)
Juan Thalamas, Labandibar, Gral. Primo de Rivera, B - 1 SAN SEBASTIAN
Francisco Tirapu, Plaza San José, 1 PAMPLONA
Juan Mari Torrealdai, Cuartel, 2 TOLOSA (Guipúzcoa) 943 - 651106
P. Patxi Uribarren, Carmelo de Begoña, BILBAO - 4 94 - 4330698
Miguel Javier Urmeneta, Paseo de Sarasate, 5 PAMPLONA
Martin Ugalde, Almirante Juan Allondo, Villa Carolina, A - 4 º dcha. FUENTERRABIA (Guipúzcoa)
Ignacio Urquijo, Gran Via, 47 BILBAO - 11 94 - 4212748
Thomas Uthurry, professeur Grand - Seminaire, cours du Comte de Cabarrus, 64 BAYONNE (France)
Pedro Irizar, Lagasca, 54 MADRID - 1
Patxi Zabaleta, Amaia, 2 - C PAMPLONA 948 - 246149
Joaquin Zaitegui, Generalisimo Franco, 52 MONDRAGON (Guipúzcoa)
Gabriel Zapiain, La Roca, 7 SAN SEBASTIAN
Mikel Zarate, Seminario de Derio, BILBAO 94 - 4531016
Ambrosio Zatarain, Zubieta, 40 SAN SEBASTIAN
Juan Jose Zearreta, San Jose Obrero, 7 AMOREBIETA (Vizcaya) 94 - 6731520
Manuel Ziarsolo, Alda. San Mamés, 11 - 2 º BILBAO - 10
Agustin Zubicaray, Cruceño, 38 ONDARROA (Vizcaya)
Aniceto Zugasti, Euskalerria, 12 SAN SEBASTIAN
Jose Miguel Zumalabe, Urbieta, 56 SAN SEBASTIAN 943 - 459597 – 943 - 418910

DONE MILIAGA KUKULLAKOA ETA EUSKARA

Euskaltzaindian sartzean Alfonso Irigoyen euskaltzainak Done Miliaga Kukullakoan, 1974-garreneko ekainaren 15-ean, euskal glosen mila urte betetzea ospaturik, eginikako hitzaldia eta Aita Luis Villasante euskaltzainburuaren erantzuna.

Agur Logroño-ko Diputazioaren izenean etorri zaren Fernández Sevilla buruzagi ordeko jauna, agur **Instituto de Estudios Riojanos**-en zuzendari zaren Rodriguez Maimón jauna eta Instituzio berean zuzendari ordeko zaren Escudero Ortuno jauna, agur Donemiliaga-ko Monasterio honetan Aita nagusi zaren Rafael Euba agustino rekoletoen ordeakoa eta ni bezala bizkaitarra, agur Euskaltzaindiko kideok eta agur hemen bildu zareten jaun eta andre guztiok:

Sarrera hitzaldi honen gaia egun hementxe bertan gogoratzen dugun lehen euskal-frase izkribatuen mila urte betetzeak berez dakarrena da. Euskal fraseok Done Miliaga Kukullakoari lotuak daude, zeren bertako esku-izkribu batean agertzen diren bi glosa baitira. Delako esku-izkribu horrek Done Miliaga Kukullako 60 numeroa darama eta egun Madrileko **Academia de la Historia**-ren bibliotekan dago. X mendearen erdi aldera edo ezarri daiteke haren jatorria. Erdarazkoekin batera Menendez Pidal-ek argitara zituen (1) euskerazko glosak ere.

(1) R. Menendez Pidal, *Orígenes del español,* Madrid 1968 (seigarren edizioa), 1-9 orr.

DONE MILIAGA KUKULLAKOA ETA EUSKARA

Egun euskal glosen oroitarri bat ipintzen dugu hemen erdarazkoenaren ondoan eta gogora ekarriko digu luzaro lehenago euskaldunak hemen ere bazirela eta nola bizi ziren eta bertan noiz finkatuak ziren jakiteko gogoa biztuko digu. Egun eni dagokit hortaz zerbait mintzatzea. Hala ere ene hitzak esan ondoren oraindik bide zabala gelditukо da geroko eta bestek aukera hobea izango du agian nik neuk ez dakizkidan gauzak aurkitzeko eta esateko. Hala espero dut.

Done Miliaga Kukullakoaren kristau tradizioak Done Milia berberaren denboran du erroa, VI mendean. Haren bizitza anakoreta eta fraile gisa iragan zen. Momentu honetan bertan ni neu hizlari eta zuek entzule zaudeten goiko aldean dugu, hain zuzen ere, bera bizi izan zen lekuko eleiza zaharra, **Monasterio de Suso** deitua.

Bere biografoak dionez (2) **Felice** izeneko gizon santuagana joan zen **(dictauerat ei fama esse quendam heremitam nomine Felicem, 9,II)**, Bilibio-ko gazteluan bizi zena **(qui tunc morabatur in castellum Bilibium,9,II)**, eta ikasle gisa bere mendean gogoz egon omen zen eta gero bere sorterrira itzulirik, Bertzeo-tik ez urrun **(ac sic uenit haud procul a uilla Vergegio, ubi nunc eius habetur corpusculum gloriosum, 10,III)**, ia berrogei urte egin zituen basamortuan (3). Geroago Bertzeo-ko eleizaren kargu eman zion Didimo Tarazona-ko apezpikuak eta eleizaren ondasunak zabaltasun handiz erabiltzen baitzituen eta gutxitzera baitzetozten, zuzenbide osoz jokatzen bazuen ere, eleiz gizon eta Tarazona-ko apezpikuaren kontra jartzera heldu zen, sozial eremuan sortzen baitzuen aldakuntza dudarik gabe. Horregatik kargua utzi behar izan zuen eta hona

(2) L. Vazquez de Parga, *Sancti Braulionis Caesaraugustani episcopi Vita S. Aemiliani,* Madrid 1943. Edizio egilearen sarrera hitzak ditu. VI-VII mendean bizi izan zen San Braulio. Fray Toribio Minguella, O.A.R.-ren ìtzulpena argitara eman da oraintsu: *San Millán de la Cogolla en su centenario (473-1973),* Logroño 1974, 19-51 orr.

(3) Seguru asko Haro ondoan zegoen Bilibio. Ikus Baudouin de Gaiffier "La controverse au sujet de la patrie de S. Emilien de la Cogolla", *Analecta Bollandiana,* t. LI (1933), fasc. 3-4, 293-317 orr.

Toponimo hori 1080-garren urtean aipatzen da Donemiliaga-ko Kartularioan:... *in illo flumine Tirone, et cum tali usu ut unus asinus aure curtus de illo monasterio vadat et veniat cotidie ad montes de Belibio* (sic) *ad ligna ducenda* (1080, C. SMillán, *dok. 244).* Ikus D. Luciano Serrano, O.S.B., *Cartulario de San Millán de la Cogolla,* Madrid 1930.

Bertzeo, ordea, *Berceia* bezala agertzen da Donemiliaga-ko Kartularioan: *in loco qui dicitur Berceia* (1009, C. SMillán, dok. 74) Ez al da alternantzia berbera *Gorbele* (Bizkaiko Arratian), gaztelaniaz "Gorbea", *Gorbéijje* (Aulesti) eta *Gorbéjjo* (Lekeitio) mendi izen ezagunaren formen artean gertatzen dena?.

baztertu zen. Eleizaren jerarkiaren itzal urbilekotik alde egin behar izan zuen. Garai haretan seguru asko Toledo-ko erresumak zeharo menderatzen ez zuen lekua zen bizi zena eta Kantabria deitzera heldu zen. Deitzera heldu zela diot, ez baitzen erromatarren garai klasikoko kantabroen eremua. Askozaz geroago Euskal Herriari ere, erdaraz eta Euskal Herrian bertan, hala deitzen zitzaiola badakigu eta hortaz zenbait mito zabalduak ziren. Hala Done Milia kantabroen kristautzaile bezala agertzen da (4).

Done Miliaren biografoak dio hil baino ia urte bete lehenago bisigotoak Kantabria atakatuko zutela errebelatu zitzaiola eta mandatari bat bidalirik Senatua Bazko egunerako bil zedin agindu zuela eta hala egin zela merkatu egunean. Errebelatu zitzaiona adierazi omen zien eta beren bekatu larri askorengatik penitentzia egiteko predikatzen omen die (**narrat, ille quod uiderat: scelera eorum, caedes, furta. incesta, uiolentias, caeteraque uitia increpat, 33, XXVI**). Eta orok entzun omen zion errespetoz, baina batek zahartzaroan txotxintzen hasia zegoela esan omen zion eta ziona bere buruan sentituko zuela erantzun omen zion santuak eta gero hala gertatu omen zen eta Leovigildo-ren ezpata zorrotzaren azpian hil, beste asko bezala, damutu ez zirelako beren egintza gaiztoez.

Done Miliaren garaian alderdi hauetako lurretan bizi zen jendeak erabiltzen zuen hizkuntzaz, latinaz gainera, alegia, besterik erabiltzen bazen, izkribu zaharretan ez da ezer agertzen. Done Miliak, artzaina zen bera, ez omen zuen buruz ikasi VIII salmoraino doi doi baino, eta badirudi latina irakurtzea nekoso egiten zitzaiola. Erromatarren garaikorik ere ez dakigu zehatz eta mehatz. Dena dela Inperioaren azken aldian eta baita Done Miliaren garaian ere latinfundismoa zen nagusi eta hori nolabait, neurri batean bederen, erromanizazioaren seinalea da. Izan ere Burdigala-tik Asturica-ra zihoan galtzadaren beherean egonik, erromatarrak bide horretan muga gisako zerbait egin zutela, haiek zituzten indar armatuen beherean

(4) Cf. A. Barbero y M. Vigil, *Sobre los orígenes sociales de la Reconquista,* Barcelona 1974, "La organización social de los cántabros y sus transformaciones en relación con los orígenes de la Reconquista" titulua duen kapitulua. 188-garren orrialdean dio: "Junto a" los "testimonios de las epocas tardorromana y visigoda que atestiguan la perduración del paganismo, existen pruebas literarias y arqueólogicas que señalan la presencia de monjes establecidos en la región de los cántabros en la época visigoda. Por las fuentes literarias se sabe que la parte meridional y oriental de estos territorios comenzó a ser cristianizada en el último tercio del siglo VI por obra fundamentalmente de San Emiliano, cuyo culto perduraria en la época medieval bajo la advocación de San Millán".

gertatzen da. Hala ere, Este alderago, IV mendearen azken urteetan, Kalagurri hiriari oso lotua eta agian bertan jaioa zen Prudentzio latin izkribatzaile kristauak Ebro ibaiari "Vasco Hiberus" deitzen.dio, lehen aipatu dugun galtzadatik askozaz beherago egon arren Kalagurri ondotik doan ibai ezaguna (5). Dena dela X mendean Nafarroaren eskuetan agertzen dira lurraldeok Gaztelaren alderdira XI mendean erori baino lehen eta erregeen bizilekua Najera zen. Ondoan badago **Uruñuela** izeneko herri bat ere, **Uruña**-ren erdal diminutiboa noski. Arabeak bisigotoen mugak mantendu zituzten gutxi gora behera eta alderdi hori ez zen gehiegi arabe bihurtu (6).

Bisigotoek Suintilla-ren garaian Olite ipini zuten muga bezala euskaldunen (baskoien) Ebro ibarraren arrapatzeari kontra egiteko eta oso berandurarte euskararen muga ere inguru horretan ibili da, askozaz geroago, XII mendean Nafarroako erregeak ego alderago arabeei Tutera-ko lurra arrapatu bazien ere (7). Baina Este alderdian ezarririkako Vitoriaco ez dirudi egiazko muga gertatu zenik, zeren non zegoen finkatzea ere ez baita posible izan historilarientzat eta euskaldunak Ebro ibaiaren ego aldean agertzen baitira geroago.

Egia esateko Done Miliaga Kukullako glosak Nafarroako erregeak nagusi ziren garaikoak dira. Apurtxo bat gerotxoago, 1134 urtea baino lehen, etorri zen Santiago Konpostelakora bidean **Codex Calixtinus**-en euskaldunekiko testoa izkribatu zuen errumesa, agian Aimeric Picaud de Parthenay-

(5) Peristephanon 2, 537. *Obras completas,* Madrid 1950. Funtsean I. Bergmann-en edizioa segitzen du. *(Aurelii Prudentii Clementis Carmina*, CSEL, 61, Vindobonae 1926).

(6) CF. José Maria Lacarra, *Historia Politica del Reino de Navarra desde sus orígenes hasta su incorporación a Castilla,* Pamplona 1972, I, 163 orr. Hala dio: "Mayor importancia politica, cultural y económica van a tener en este siglo (X) las tierras ganadas en la Rioja por Sancho Garcés I. El territorio no habia llegado a islamizarse y probablemente tan sólo algunos nucleos estratégicos - Calahorra, Viguera, Nájera, etc - contarian con una población musulmana relativamente abundante, aparte de las guarniciones de sus castillos. Pero parece que una primera medida tomada por los nuevos ocupantes fué echar a estos musulmanes del territorio y asentar pobladores cristianos. Estos procedian de todos los territorios del rey de Pamplona. En la parte más occidental parece que hubo una colonización masiva de gentes procedentes de Alava, que al instalarse en valles cerrados por el Sur, como el de Ojacastro, quedaron relativamente aislados, lo que hizo que durante varios siglos el vascuence fuese allí la lengua habitual y más extendida que el romance entre el elemento rural".

(7) Alfonso Irigoyen, "Euskal Herria eta euskara", *Lur eta gizon, Euskal Herria,* Oinati 1974,237-241 orr.

le-Vieux. Nafartzat hartzen du lurralde hau Oka-ko oihana iragan arte. Hara hemen bere hitzak "Post terram illorum, transito nemore Oque, versus scilicet Burgas, sequitur tellus Yspanorum, Castella videlicet et campos" (8).

Ezin utz dezakegu aipatu gabe egintza jakingarri bat Merino Urrutia jaunak —egun gure artean dugu— XIII mendekoa bezala finkatu zuena. Marichalar y Manrique-ren **Historia de la Legislación**-etik bildu eta jakinerazi zuen **"fazaña"** batean esaten denez Oiakastro-ko foruaren arabera bertakoek eskubidean zuten, kanpoko edo bertako bat beren arteko batekin demandan asten baldin bazen, euskaraz saiatzeko (9). Oiakastro, dakizuenez, ez dago hemendik urrun Oeste aldera.

Ezaguna da, beste alderdi batetik, R. Menéndez Pidal-ek argitaratu zuen mapa **El último reducto de los dialectos ibéricos** tituluarekin (10). Jakina, eremu hau barrenean sartzen du.

Done Miliaga Kukullako glosen berri emango dugu ondoren. Menéndez Pidal-ek **Orígenes del Español** (5 orr.) liburuan argitara zituen arabera emango ditugu eta 67 v. eta 68 v. folioei dagozkie:

(67 v.) **Incipiunt sermones cotidiani beati Agustini.**

Gaudeamus fratres karissimi et Deo gratias agimus, quia uos, secundum desideria nostra, jncolomes[30] [sanos et salbos] jnueniri meruimur [31] [jzioqui dugu]. Et uere fratres juste et merito [32] [mondamientre]

(8) Cf. A.E. de Mañaricua *"Los vascos vistos en dos momentos de su historia"*. Primera semana internacional de Antropologia Vasca, Bilbao 1971, 263-304 orr. *Codex Calistinus* delako testoak argitaratzen ditu.

(9) José J. Bautista Merino Urrutia, *El vascuence en la Rioja y Burgos*, San Sebastian 1962, bigarren edizioa, 20-21 orr. Marichalar y Manrique-ren 273 orr.,II t. 22. "De una fazanya de Don Morial Merino mayor, et del alcalle de Oia-Castro. Esto es por fazanya que el Alcalde de Oia-Castro mandó prendar D. Morial que era Merino de Castiella, porque juzgara que el ome de Oia-Castro si le demandase ome de fuera de la Villa o de la Villa que el recudiese en Bascuence. Et de si sopo Don Morial en verdad, que tal fuero habian los de Oia-Castro, e mandol dexar e dexaronle luego, e que juzgase su fuero".

(10) Lehenik *Orígenes del Español* liburuan argitara zuen eta geroago zenbait eraskinekin *Toponimia prerromanica Hispana*-n, Madrid, 1968, berrargitarazioa.

pater gaudet quotiens filios suos et corpore sanos et **Deo** deuotos[33] [promissiones] jnuenerit;... concessit[34] [donauit]; had quod ad profectum animarum **uestrarum** pertinet[35] [conuienet fere] deuemus caritati[36] [miente] **uestre** suggerere[37] [seruire]... [68 v.] Si uero, quod **Deus** non patiatur[40] [non quieti] et mala opera exercimus[41] [non sificieremus] et plus pro carnis luxuria quam pro salute anime laboramus, timeo ne quando boni **christiani** cum angelis acceperint uitam eternam nos, quod absit, precipitemur[42] [guec ajutu ezdugu][43] [nos nonkaigamus] Jngeenna, Non nobis sufficit[44] [non conuienet anobis] quod **christianum** nomen accepimus si opera **christiana** non facimus...

Euskarazko frase biak hauek dira: **1. jzioqui dugu; 2. guec ajutu ez dugu.**

Menendez Pidal-ek zenbait euskalzaleren eritzia ematen du frase horietaz (11) eta geroago L. Mitxelena-k berriz tratatu du gaia argibide berriak egoki emanik, ez baita gauza erraza azken eritzi seguru batera heltzea (12). Harek esanikako gauza guztiak ez ditut hona aldatuko eta jakin nahi dituenak bere liburuan topa ditzake.

Lehen frasea oraindik behar den argitasunik gabe dago, ez baita erraz, gainera, latinezko testoaren itzulpen edo argitzaile bezala hartzea.

Bigarren fraseari dagozkionetan badirudi askozaz ere emankorragoa dela Karmelo Etxegarai-k proposatu zuena oinharritzat harturik jarraitu den bidea. Baina, jakina, **aiutu ez dugu** orainaldiko berbo multzoa, sustantibo eta flexio sintetiko batez osatua, **nahi dugu** egiten den gisara, izango litzateke eta ez iraganekoa. Horrela "non nobis sufficit [non conuienet a nobis]" datorren lekuan egoki sartuko litzateke. Gainera, **guec** irakurri beharko litzateke eta ez ***gueoc**, berak nahi zuen bezala. L. Mitxelena-k ere hori uste du. Bizkaiko **aiutu** formak agian baditu Etxepare eta Leizarragaren baitan ahaideak. Berez, badirudi latinetik datorren hitza besterik

(11) *Op. cit.*, Madrid 1968, seigarren edizioa, § 97 2.p. 466-467.

(12) Luis Michelena *Textos arcaícos vascos*, Madrid 1964, 41-44 orr.

ez dela. Etxepare-k "Amorosen gaztiguya" titulua duen sortaren aurreko bertsoetan dio (13): "Ordu hartan hel çaquiçat othoy ama eztia / Ararteco leyal eta neure ayutaria". **Aiutari, aiutatu,** eta **aiutaçale** Leiçarraga-k ere erabiltzen ditu. Latinezko ***adiutatu(m)*** partizipioan dute jatorria formok, gaztelaniaz "ayudado". **Aiutu**, beraz, ez da besterik **aiutatu** partizipioaren deribazio regresiboa baino, **espero, esperatu** formarena den bezala, edo **izkribu, izkribatu**-rena, edo **dei, deitu**-rena, edo **adi, aditu**-rena, edo **asmo, asmatu**-rena, edo **akabu / akabatu**-rena, edo **libro, libratu**-rena, edo **gorde, gordatu**-rena, edo **prediku, predikatu**-rena, eta abar eta abar. Horrela **espero izan, espero dut** egiten den bezala **aiutu izan** —edo behar bada **aiutu *eukhan** edo ***edun — aiutu dugu** egingo zen. Egia esateko, latin klasikoan, **adjutus, -a, -um** zen partizipioa, baina gugana heldu dena, ordea, **aiutatu** da, zentzu berbera duela, eta gaztelaniara **ayudado**. Halako zerbait gertatzen da **bedeinkatu** hitzarekin, latinez **benedictus, -a, -um** baitzen.

Argi dago, Mitxelena-k dion bezala, glosa egilea berdin izan zitekeela nafarra, arabarra edo errioxarra, Arabako Zigoitian R.M. Azkue-k **dut** eta horrelakoak bildu baitzituen (nik neuk ere hala zela testigantza hartu dut bertan) eta Landuchio-ren hiztegian, XVI mendean egina, Araba aldean bildurik halako formak baitatoz (14). Gauza berbera gertatzen zaio Aita Joan Batista Gamiz Sabando-ko euskal idazle XVIII mendean bizi izan zenari ere (15).

Guec formak astiro arakatzea merezi du, zeren erdararen historiarako ere testigantza eman baitezake, eta ez bakarrik euskararenerako. Zentzu horretan **hapax** baten aurrean gaude.

Gauza probatua da **zu** forma lehenago euskaraz bigarren pertsona plurala zela, latinez **vos** zen bezala eta euskaraz **gu**, lehena, den bezala.

(13) *Linguae Vasconvm primitiae per Dominum Bernardum Dechepare Rectorem sancti michaelis veteris.* Bordelen, 1545.

(14) N. Landuchio, *Dictionarium Cantabricae (1562)*, San Sebastian 1958, Manuel Agud eta Luis Mitxelena-k argitaratua.

(15) J. Goikotxea Maiza eta Hendrike Knörr-ek igaz lan bana aurkeztu zuten Aita Gamiz Sabandokoaz Euskal Akademian. Oraindik argitaratu gabe daude. Geroago *Euskera*-n agertu dira (1974) 167-217 eta 218-230 orr.

Baina erdaretan **vos** tratamentu maiestatikorako erabili zen eta **nos** ere bai. Horrela singularraren balioa hartu zuten eta gaztelaniaz **vosotros** eta **nosotros** formek bete dute haien lekua. Euskaraz **zuek** eta **zuok** bilakatu da. Euskal Herri osoan, ordea, **gu** gorde egin da, Arabako Zigoitian izan ezik, R.M. Azkue-k bildu zuen bezala (16). Nik neuk ere lekuko bat aurkitu nuen Etxaguen-en igaz, bertako euskara nola zen herrian eman zezakeen lekuko bakarra: Antonio Otxoa, larogei urteko agurea, eta orain egoki datozkigun frase biok entzun nizkion: **guek etorri gara** eta **guek ein dugu.** Horrek esan nahi du **guek** berdin izan daitekeela ergatibo naiz nominatibo kasua eta ez ergatiboa bakarrik, L. Mitxelena-k biltzen duen bezala, R.M. Azkue-ren esana zentzu hestu batean harturik (Ikus 16-garren nota). Euskaldun orok dakigu **zuek** forma ere berdin izan daitekeela ergatibo naiz nominatibo kasua.

Beraz, ezin har daiteke hontzat **guek** forma, ergatibotzat bakarrik juzgaturik, Bizkaiko **geuk** berbera dela uste izatea, disimilazio desberdin eta kontrako bat dela kausa. Bide horri jarraitzen baldin badiogu berdin esan beharko genduke **zuek** eta **zeuk** edo **zeuek** formen artean jatorri berbera dagoela eta argi ikusten da azkenengook ondo bereizten direla bata bestetik baita esan nahi hutsaren aldetik ere (17).

Samuel Gili Gaya-k bere lan batean (18) **nosotros** eta **vosotros** formaren kronologia aztertzen du. Eta dio XIII eta XIV mendean kasu bat edo beste agertzen dela, XV mendeko bigarren partean ugari dela eta XVI-garrenean nagusi dela eta kontrako kasu gutxi aipa daitezkeela (19). Lehenik, **-otros** eraskina zutenak forma indartu utsak ziren komunak izatera heldu ziren arte eta ez da ahaztu behar balio enfatikoa zutela, plural esklusibozko

(16) *Diccionario Vasco-español-francés.* Bilbao 1905-6. Hala dio : "aún se usa *guek,* por lo menos comc activo, sinónimo de *guk,* en el valle de Zigoitia (Alava)". Bere hitzak eztute zeharo ukatzen pasibo bezala ere erabilli daitekeenik. *Morfologia Vasca.* Bilbao 1925, 433 orr. "En Guernica (B), niños que no saben bien su lengua también dicen *guek* en vez de *gu.* Si el Nos desde el encabezamiento de documentos oficiales en que vive descendiera a la conversación ordinaria y lo empleasen, por ejemplo, nuestros Excmos e Ilustrisimos Señores al tratar con nosostros, dejando el *gu* para ellos recurríriamos instintivamente a ese *guek,* como recurrieron nuestros antepasados a *zuek* para disinguirle del *zu*".

(17) Ikus L. Michelena, *Textos arcaícos vascos, op. cit.* 44 orr. eta *Fonética Histórica Vasca*, San Sebastian 1961, 92 eta 93 orr.

(18) *RFE,* XXX, 1946, "Miscelanea. Nos-otros, vos-otros", 108-117 orr.

(19) *Op. cit.*, 109 orr. Kronologia hau Gessner-ek zehatz finkatu duela dio *Das spanische Personalpronomen* lanean (ZRPh, XVII, 1893, 3 orr.)

zentzu baten ondoan, eta enfasis hori izkribatzaile bakoitzak ematen zion arauerakoa zela. Gogoan hartu behar dugu argi egiten diguten iturri bakarrak literaturaren bidez datozkigula.

Guek eta **zuek** euskal formak, erdarazkoen parean daudela, desarroilo paralelo gisa sortu direla uste izatea arrazoizkoa dirudi. Baita erdaraz euskaraz baino lehenago hasi zela desarroiloa uste izatea ere, oso fenomeno zabala denez gero bigarren pertsona plurala tratamentu maiestatiko bezala erabiltzea, inglesez ere gauza berbera gertatzen baita **you** formarekin, hizkuntza erromanikoa ez izanik ere. Dudarik gabe bizitza urbanoaren bidez zabaldu zen joera hori eta euskarara kanpotik dator, euskaraz mintzatu izan direnak halako bizitza urria izan baitute historian zehar.

Zer den **gu** eta **zu** formei gehitu zaien eraskina? Dudarik gabe **-otros** formaren gisako plural bat. Berdin izan daiteke **-ek** edo **-ok,** azken hau Bizkaian. Hain zuzen ere **-ok** artikulu plural urbila dugu, gradu gabeko artikuluaren oposizioan dagoen artikulu plurala, lehen gradukoa edo bigarrenekoa izan daitekeena. **Zuok** forman bigarrenekoa besterik ezin izan daiteke. Cf, **gizonak** eta **gizonok. Gizonok** esaten dudanean ni tartean egon naiteke edo ez, **gu gizonok** izan daiteke edo **zuek gizonok** edo **zuok gizonok. Haiek** esaten baldin bada **gizonak** behar du nominatiboa denean eta ergatiboa denean ere bai hala erabiltzen den lekuetan. Ene ustez **-ek** ez da artikulu plural zaharra besterik eta jatorria **hek** gradu urruneko demostratibo pluralean du, **-ok** beste artikulu pluralak, urbilak alegia, beste graduko demostratiboan duen bezala bezàlaxe, forma berbera dutela ergatibo nahiz nominatibo kasurako. **Hek** demostratiboa **haiek** eta halakoak baino zaharragoa da dudarik gabe eta badu Erronkarin pareko forma bat: **kek**. Gauza berbera gertatzen zaio **hok** demostratiboari eta Nafarroa beherean berdin izan daiteke lehen pertsona plurala nahiz bigarrena, artikulu denean gertatzen zaion bezala bezalaxe. Etxepare-ren baitan ikus daitezke halako demostratiboak XVI mendean.

Horrela esplikatzen dira urrengo testook: **desdichatu aiegui** (374 orr., hirugarren graduko demostratibo pluralari **-i** datiboaren marka ipinirik), **onegui** (386 orr., artikulu plural gradu gabekoari **-i** datiboa gehiturik), **Ebreoegui** (386 orr., berdin), **Christio fielogui** eta abar, ikus Manuel de Lecuona, "Textos Vascos del siglo XVIII, en Tierra de Estella", **FLV**, 1973, 369-390 orr. Hain zuzen ere artikulu biak azkenengo posizioan

dagoenean duten **-k** oklusibo gogorra, tartean dagoenean biguna da. Badakigu **-g** bokal artekoa erori egin dela lekurik gehienetan.

Baliteke haseran **guek** eta **zuek** formak, **nosotros** eta **vosotros** formek erdaraz zuten bezala, balio enfatikoa izatea eta geroago **zuek** forma komuna izatera heltzea, erdaraz forma biekin gertatu den bezala.

Done Miliaga Kukullako glosetan **guec** ondo irakurria baldin badago, eta badirudi baietz, erdarari dagokion **hapax** baten aurrean gaude. Euskaraz **guek** baldin bazegoen garai haretan, erdaraz ere **nosotros** eta **vosotros** moduko formak egon behar zuten dudarik gabe orduko hizkeratan balioren batekin. Forma horiek agian ez ziren literaturara pasatuko askozaz ere geroagorarte, tradizio kultoak galerazten zielako noski.

Agian, glosa egileak euskaraz ere bi izkribatu zituela ikusirik, gure hizkuntzan irakur zezaketen beste norbaitzuk ere ulertuko zuten eritzia zuela pentsa dezakegu. Hala ez bazen hobe izango zuen latinez zegoen zegoenean utzi glosarik gabe, nahiz eta guretzat zorionean izkribatu zituen, gu bezalako linguistika gaien aztertzaileak gogoan ez bazituen ere, latin irakurleak baino, bere buruaren zerbitzurako bakarrik izkribatu ez bazituen behintzat.

Glosak izkribatu ziren garaia iraganik askozaz ere geroago, Done Milliaga Kukullako inguruak Gaztelako erregearen mende zeudenean, Gonzalo de Berceo erdal izkribatzaile famatua bizi izan zen bertan. Badirudi haren denboran kutsua uzten ari zela gaztelania nolabait bertako nafar gisako erromantzean, oraindik zeharo aldatzera iritsi ez bazen ere, eta euskara inguru haietan zeharo baztertzeko bidean zihoala erdararen mesedetan. Dena dela, Gonzalo de Berceo-ren garaian oraindik bere literatura lanean berean euskal aztarrenak aurki ditzakegu. Lehen aipatu dugun Oiakastroko gertaerak ere gauza bat salatzen digu: oraindik euskaldunak bazirela XIII mendean, baina beren eskubideak zaintzen saiatu behar zutela iraun nahi baldin bazuten, eta hori erdara nagusitzen ari zenaren seinalea da, zehatzago esanik gaztelania nagusitzen ari zenaren seinalea. Gonzalo de Berceo erdara arruntaren zabaltzaile gertatzen da, bestela latina aukeratuko zuen eta jende eskolatuak baino ez zion ulertuko.

Orain Gonzalo de Berceo-ren baitan aurki daitekeen euskal aztarrena aipatuko dugu, ezaguna baldin bada ere:

"Salió de la eglesia, fo a la fermeria,
Non levava de ***miedo*** *la voluntat vazia,*
Non irie tan apriesa iendo en romeria:
Don ***Bildur*** *lo levava, par la cabeza mia"* (20)

Miedo eta **beldur** erdal eta euskal-hitzak markatu egin ditugu, zentzu bera dutelarik poetak joko bat egiten baitu. Euskal hitza, bere **praenomen** ta guzti, bizidunaren izen bihurtzen da bildurra bera pertsona eginik jenio baten gisa, **numen** bat balitz bezala, kristautasunaren aurreko sinesteen gisako **Don Bildur** honekin literatura joko bat eginik. Behar bada herrian korritzen zuen sineste ondakin bat izan daiteke.

G. de Berceo-k beraj **Don Cristo** badu (21) eta Done Miliaga-ko glosetan, lehenago, erromantzearen diptongazio ta guzti, **conoajutorio de nuestro dueno, dueno Christo, dueno Salbatore...**(op. cit. 7-garren orr.) (21), euskaraz **Donibane, Doneztebe** eta zenbait sainduren izenak duten haserako **done** hitz berberarekin (22). **Don Obispo Lozano** ere agertzen da (23). Erdarazko **duende** hitza ere hortik dator, **de** preposizioa itsatsi zaiola urrengo hitza galdurik, **duen de casa**.

Zatiko euskal hitz garbia ere erabiltzen du eta lehen dokumentazioa bere izkribuetakoa da. hortaz gainera **cazurro** eta **azcona** ere badakarzki, lehena ordurako erdaraz korritzen zuena eta Corominas-en eritziz jatorri ezezagunekoa, eta bigarrena lehen aldiz bere izkribuetan agertzen dena eta Penintsulako hiru erromantzeetan eta **langue d'oc**-ez ere erabiltzen dena eta Corominas-en eritziz agian euskaratik hartua (23a).

(20) Berceo, *Milagros de Nuestra Señora,* Austral 4gn. ediz. Madrid 1966, XII "El prior y el sacristán", 56 orr.

(21) *Op. cit.* VII "El monje y San Pedro", 36 orr.

(22) Dagokion euskal hitza aurrean daramala batzuetan aglutinazio baten gisa. Cfr. **Jaundone Petri** "Sancti Petri" eta abar. Aimeric Picaud-ren baitan, lehen aipatu dugu, "sanctum Jacobum (vocant) **Jaona domne Jacue**" agertzen da XII mendean.

(23) **Op. cit.,** IX "El clérigo ignorante" 46 orr.

(23a) J. Coronimas. **Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana,** Madrid 1954-1957, cuatro vol. Dio:

"**Zatiko** , del vasco **zatiko**, diminutivo de **zati** "porción", "pedazo". **1ª doc.**: Berceo. "Fue a Sancta María el barón benedicto, / nos falló pan en ella, nin otro ningunt victo, / demandava limosnas como romero fito, / todos li davan algo, qui media qui çatico" **S. Dom.**, 105 d; también en Sacrif., 275".

DONE MILIAGA KUKULLAKOA ETA EUSKARA

Done Miliaga Kukullakoan, gainera, kartulario bat gordetzen da. Zoritxarrez lehen bi zeudelarik, gotikoa eta galikanoa, orain bakarra gelditzen da, galikanoa, XII mendean kopiatua. Gotikoa zaharragoa zen. Aita Luziano Serrano, Silos-ko apatak argitara zuen (24). Hala ta guztiz ere oraindik behar den bezalako edizio kritikoa egin gabe dagoela esan beharra dago. Zenbait dokumentu, argitaratzailearen ustez interes gutxiago zutenak, gaztelaniaz lapurpen bat eginik agertzen dira. Gainera XVIII mendean eginikako kopia batetik, kartulario biak kontuan izanik aldatu zena, osatu zuen funtsean edizioa eta gero galikanoaren orrialdea aipatu aparato kritiko batere gabe. Aurkibideak ere ez dute asko balio. Albait arinen egin behar litzateke edizio kritiko behar den moduko bat linguistentzat ere balio dezakeena, ez bakarrik historilarientzat. Nafarroa, Araba, Bizkaia, Errioxa eta Gaztela Zaharrari dagozkion berri ugari dakarzki. Euskal-toponimia eta antroponimia aztertzeko ere ezinbesteko iturria da.

Badago dokumentu bat X mendearen haserakoa, 929 urtean egin zela diona. Dokumentu horren bidez Garsea Sancionis erregeak bost ermita auzoan zeudenak eskaini zizkion Done Miliaga-ri: "Concedimus et confirmamus vobis quinque heremitas vobis vicinas". Izenak aipatu ondoren:

"**Cazurro** , "grosero", "marrullero", "malicioso", "insociable", vieja palabra afectiva, común al castellano y el portugués, de origen desconocido, quizá prerromano. **1ª doc.**, Berceo". "Tenía -ç- sorda constante en la Edad Media". "Los **juglares cazurros** constituyeron una clase especial, que podía incluso oponerse a los demás juglares, sustantivando nuestro adjetivo: **cazurros nin joglares**, en Berceo, y **cazurro** opuesto a **joglar, remedador y segrel** en la **Declaratió del senhor rey N'Amfos de Castela**, versificada en 1275 por el trovador provenzal Guiraut Riquier, quien los describe como faltos de buenas maneras, que recitan sin sentido o ejercitan su vil arte por calles y plazas (M. P., **Poesía Jugl.**, pp. 15-16: C. Michaëlis, **ZRPh.** XX, 176-7n.) Lehenagoko dokumentazioa ere badago: **filios de Dominico Cazurro** (1197, Santos A. García Larragueta, **El Gran Priorado de Navarra de la Orden de San Juan de Jerusalen**, Pamplona 1957, doc. 90, Ebroko nabegazioari dagokio). Hitzaren bigarren zatia, **-zurro**, euskaratikoa da: **zuhur** eta **-o** artikulu gradu urbilekoa, erdaldunen artean gero mozio maskulinotzat hartu zena. Lehen partea ez ote da **cap** « lat. **caput**?. Horrela **cap-zurro** » **caçurro** bihurtuko zen, "cabeza inteligente, prudente". Cfr. **Don Semen çuurra** (1264, fol. 56v), **Domingo Iohan çuurro** (1264, fol. 91) Olite-ko erroldean —Olite-ko udaletxeko artxiboan gordetzen da eta R. Zierbide-ri esker ikusi ahal izan dut—. geroagoko dokumentuetan Olite bertan **çurro** eta **çurra** dokumentatzen da, inoiz edo behin erdarazko jeneroaren moziotzat erabilirik **-o** eta **-a** bukaerakoak.

"**Azcona**", "venablo, pequeña lanza arrojadiza". Palabra común a los tres romances hispánicos, a la lengua de Oc y al vasco, de origen incierto, quizá vasco. **1ª doc.**, Berceo". Segun Corominas es "de cierta verosimilitud general"... "la tesis de procedencia vasca inmediata".

(24) D, Luciano Serrano, O.S.B., **Cartulario de San Millán de la Cogolla**, Madrid 1930.

"S. Martini et Sancte Marie et S. Sebastiani et S. Johanis et Sancte Marie", dio: "quod vulgo dicitur **Cella Alboheta**" (25). Egia esateko Kartulario Galikanoan **Cella Alfoheta** dio eta XVIII mendeko Mingella kolezioan ere bai. Gotikoan baldin bazegoen ez dakigu zer zion. Antonio Ubieto-ren ustez "es un documento adulterado, aunque su fondo parece auténtico" (26) eta 959-garren urtean finkatzen du. Egun euskaraz **gela** hitza dugu, latinezko **cella** formatik datorrena eta jakina aspaldiko denboretan harturikakoa da. Latinez **cella** hitzak, egun euskaraz ematen diogun zentzuaren parekoez gainera, jainkoaren imajina zegoen lekuari esaten zitzaiola, "sanctuarium" adierazten zuen. Eta Erdi aroan esan nahi horren jarraipena izan zuen mundu kristauan, asibilaziozko hasera zuela jendearen ahotan, eta hitz arrunta zen: "Sua zella que abuit de suos parentes cum omni adito suo, uocabulo Sancti Martyni episcopi" (Valpuesta, XII, 919 urtea, 313 orr.) (27). Seguru asko **zelai** euskal hitza haren gainean osatua dagoen adjetibo batetik dator, «lat. ***cellana(m)** formaren antzeko zerbaitetik, **kanpai** «lat. **campana(m)** formatik datorren bezala. **Cella** hitzaren ondoan agertzen den **Alfoheta** formak badirudi egun euskaraz Bizkaia eta inguruetan bizirik gordetzen den **albo**-rekin zer ikusia duela. **Albo**-ren ordez **alfo**- bezala dokumentatzeak posibilitateen barrutik ez gaitu aldentzen, antzeko zerbait gertatzen baita **alfer** / **alper** bikotearekin edo **Galfarsoro** / **Galparsoro** eta **Galbar** formen artean. Halabaina L. Mitxelena-k dio: "mi opinión podría concretarse en estos puntos: a) Con el valor de "lado", **alde**, término común, es decididamente más

(25) **Op. cit.**, 30 orr.: Sub nomine Sancte et individue Trinitatis. Ego humillimus et omnium servorum Dei ultimus et tamen Dei gratia Garsea Sancionis rex, una cum genitrice mea Tota regina, divina nobis opitulante clementia, tibi patri spirituali Gomessani abbati cum sociis fratibus... Nunc denique desiderio amoris tanti predicti confessoris accensi, concedimus et confirmamus cobis quinque heremitas vobis vicinas, id est, S. Martini eta Sancte Marie et S. Sebastiani et S. Johanis et Sancte Marie, quod vulgo dicitur Cella Alboheta, cum exitis et introitis, terris, vineis, molinis, ortis, ribulis, montibus et defesis et pastum..."

(26) **Principe de Viana**, 130-131 (1973), "Los primeros años del Monasterio de San Millán", 191 orr.

(27) L. Barrau-Dihigo, "Chartes de l'église de Valpuesta", **Revue Hispanique**, 1900, T. VII, 274-390 orr. Arabari dagokion dokumentua da.

Cella, pequeño monasterio, casa donde habita una pequeña comunidad de monjes o clérigos: a) se dice especialmente de pequeños monasterios dependientes de una abadía, **Glossarivm mediae latinitatis Cataloniae**, Fasc. 4, Barcelona 1965.

antiguo que el vizc. **albo**. Este, creo que raro hasta en la toponimia vizcaína, parece faltar por entero en la alavesa..." (28). Baina **albo** hitzak lehenago Euskal Herri osoan zuela zabalera proba daiteke eta gero area bazterrekoetan zokoraturik gelditu dela, zeren Zuberoko **hatsalbo** hitza Azkue-k bere hiztegian gaztelaniako "jadeo" bezala biltzen baitu eta hitz konposatu bat besterik ez baita: **hats** eta **albo** dituela formazioan.

Toponimoaren bukaerako **-heta** Ziortzako dokumentazioan ere agertzen da XIV mendean: **Johan Sanchez de Meçeheta** eta **Acoheta** (29) eta Done Milliaga-ko Kartularioan ere bai 1025 urtean Arabako zenbait herri aipatzen denean: **Sansoheta, Gazaheta, Erroheta, Azazaheta** (30). Euskal toponimoetan bukaerako **-heta** hori lokatibo kasuetan **-hetan -hetara -hetako** eta abar erabiliko zela argi dago eta gero nominatiboan ***(h)ek** edo **-ak** jarri beharrean izkribatzaileak **-heta** bezala uzten zuten, agian erdaraz ere **-eta** bukaera bazegoelako toponimian. (31).

Lehen esan dugun bezala artikulu plural zaharra **-ek** zela hontzat hartzen baldin badugu, eta berez jatorria **hek** demostratibo pluralean zuela, **-hetan, -hetara** eta gainerako lokatibo kasuak ere argitzen dira, zeren **hek** demostratiboarenak besterik ez direla argi baitago. Ikusi dugunez dokumentu batzuetan **h-** eta guztiz erabiltzen zen oraindik. Baina batez ere sibilanteen ondoan Euskal Herriko toponimo askotan **-ketan** denez gero eta baita hizkera batzuetako izen berbaletan ere edozein kasutan, **pentsaketan** esaterako, eta zenbait hitzetan edonon, **berriketa** edo **erosketa** esaterako, **kek** Erronkariko demostratiboaren parekoa dela pentsatu beharko litzateke eta ots-inguru batzuetan eta hizkera batzuetan **k-** gorde egin dela. Oraindik Schuchardt-en garaitik hona korritzen duen eritzia erori gabe dago: **-eta** toponimiako sufixoa latinezko **-etum** formatik datorrela (pluralez **-eta**, gaztelaniaz **-edo, -eda**) eta toponimiatik euskal deklinaziora

(28) "Toponimia, léxico y gramática", **FLV**, 9 (1971), 241-267 orr., 247 orr.

(29) Ziortzako dokumentu 1388 urtea daramana (Bizkaiko Diputazioan gordetzen da, Reg. 2, num. 5).

(30) **C. SMillán**, dok. 91.

(31) Egun Bizkaiko leku askotan baserri bat baino gehiago dagoenean izen berekoa, nominatiboan **-ak** plurala ipintzen zaio. Jakina, inesiboan **-etan** izatera bihurtzen da. Erdarazko dokumentuetan erdarazko plurala jartzen zaio halako kasuetan. Esaterako **Magunas, ajurias** eta abar.

iragan dela (32). Baina euskaraz **-keta** eta **-heta** forma zaharragoak baldin badira ezin har daiteke hontzat. Erdal eta euskal-toponimiaren mailan kontaminazio bat egon dela, forma berbera gertatzen zelako, hontzat har daiteke, baina hortik aurrera ezin iragan gaitezke ditugun ezagupideak bortxatu gabe.

Guzti honek tentazio bat izatera bultzatzen gaitu: **Cella Alfoheta,** herri xeheak erabiltzen zuen toponimoa, "saindutegi alboak" zela bere esan nahien uste izatearen tentazioa, hain zuzen ere.

Aipatu dudan dokumentua glosen garai berdintsukoa da.

Garai berdinerako arabe itxurako pertsona izen bat dokumentatu dut antz handia duena estudiatu dudan hitzarekin, berdina ez bada ere, eta agirian ipintzen dut:

Ego Abofetha (943, **C. Albelda,** dok. 9), **Abopheta testis** (978, **C. Albelda,** dok. 27), **Albofeta hic testis** (1063, **C. Albelda,** dok. 45) (33), **Abulfetha iben Decembet** (921, **C. COviedo,** dok. 22) (34).

Baina aipatu dudan tentazioa desegin gabe gelditzen da hala ere ta proposatu dudan itzulpena hontzat hartzearen alde badaude zenbait arrazoi:

1. Latinez "quinque heremitas vobis vicinas" diola eta **Cella Alfoheta**-ren esan nahia horixe berbera izan daitekeela, hontzat hartzen baldin bada lehen planteamentua.

2. Glosen garai berdintsukoa dela dokumentua eta fraile batek bederen, eta seguru asko gehiagok, euskaraz ere egiten zuen.

3. **Naiera,** orduko dokumentuetan sarri agertzen da eta inoiz **Naiela** ere izkribatzen da. Toponimo horretan badirudi **-l-** zaharrago dela **-r-**

(32) Luis Michelena, "Toponimia, léxico y gramática", **FLV**, 9 (1971) 241 eta urrengoak. **Apellidos Vascos**, irugarren edizioa, San Sebastian 1973.

(33) Antonio Ubieto Arteta, **Cartulario de Albelda**, Valencia 1960.

(34) Santos García Larragueta, **Colección de documentos de la Catedral de Oviedo**, Oviedo 1962.

baino eta bokal artean -r- egitea euskaldunen arteko fenomeno normala zen Erdi aroan eta itxura denez herriko forma bestea baino indar gehiago izatera franko goiz iritsi zen. **Alava**-ren kasuan, ordea, euskaldunok beti **Araba** egiten badugu erdarazko forma ofizialean -**l**- gorde da:

a) **Santio Garçeiç rege in Pampilona et in Nagela** (1062, **C. DIrache,** dok. 23) (35).

b) **Regnante Adefonso rege in tota Spania, et sub eius Petro Johannes dominante Nagela siue Azofra** (1081, **C. DIrache,** dok. 62)

d) **Senior Enneco Sangez Naialensis testis** (1011, **C. SMillán,** dok. 79). **Senior Enneco Sanchiz Naialensis testis** (1014, **C. SMillán,** dok. 84).

Baina hala ere -**r**- dutenak ere goiz agertzen dira:

e) **Antistite Garsia in Nagera** (1024, **C. DIrache,** dok. 3).

f) **illo monasterio in civitate Naiera, vocato Sancta Agatea, qui est sub penna inter flumen Naiera et rivulo Molinariis que vadit ad palatios de rex** (927, **C. SMillán,** dok. 22).

4. Alderdi batera utzirik Oja eta Tiron ibai inguruetan dagoen euskal toponimia ezaguna done Miliaga inguruetan ere dokumentatu daiteke zerbait:

a) **unam villam, iuxta vicum Mazanare sitam, in confinio Naggera, nomine Villare dictum,..., et per eandem viam usque ad Nafassuri,..** (1071, **C. SMillán,** dok. 205). **Nafassuri** seguru asko ***Nafarzuri** izango zen, -**rz**- asimilaturik gero, cfr. **dakarz » dakaz.**

b) **una vinea in Urunia, iuxta malleolo de S. Emiliani et fuit de domno Alaimire** (1062, **C. SMillán,** dok. 176). **Urunia** mundu guztiak dakien bezala **Pamplona**-ri euskaldunak deitzen dioten izena da eta seguru asko euskal izen komun batetik latinezko -**nea** sufixoaren bidez deribatua: ***irun** edo ***urun**, erdaraz "castro" edo "**oppidum**" edo halako zerbait

(35) José María Lacarra, **Colección Diplomática de Irache**, Zaragoza 1965.

izango zen, cfr. **Irunberri** "Lumbier" edo **Ilunzar**, Bizkaiko mendia Nabarniz ondoan eta bertatik ez urrunegi Markinan dagoen auzotegia. Baita **Irunaga** ere Elgoibarko baserri batzuen izenetan (36). XVIII mendean, esaterako, **Iruiñean** euskal liburuak argitaratzen ziren eta hala ipintzen zuten sarreran, baina artikulua kendurik lekuzko genitiboa behar zenean **Iruñeco** egiten zen. Ikus Nafarroako hiri nagusian argitara ziren Kardaberaz-en liburuak. **Iruiñea Escualdunen hiri buruçaguia** dela dio J. d'Etcheberri medikuak XVIII mendean, Urkijo-k 1907 urtean Parisen argitaratu zizkion lanetan. Beraz ***irun** forma zaharra **Iruñe**- izatera iritsi zen euskaldunen artean eta **irun**- ez da, itxuraz behintzat, konposizioaren lehen aldean agertzen den forma, izen komun baten ondoan **-aga** sufixoa datorrenean ez baita halakorik gertatzen (37). Done Miliaga-ko dokumentu berean **Mahape / Mahabe** ere aipatzen da, eta egun **Mahave** bezala irauten du Berceo-tik bederatzi kilometro ingurura Najera bidean (38). Seguru asko bukaerako **-pe / -be** euskarazko **behe** laburtua da, Gogora ekar dezagun batzuetan konposizioan **-pe** erabiltzen dugula, **mantapean** esaterako. Beste dokumentu batean (929, **C. SMillán**, dok. 24) Done Miliaga inguruetan **ascendimus ad Magavetam et per medium ipsius vallem ad fontes sicas** agertzen da eta behar bada **Mahabe** eta **Magaveta** formen artean gehigarri bat besterik ez dago, agian bat baino gehiago zirela adierazirik izen berbera zeramaten etxeak edo soloak, **-ta** sufixo hutsa ez baldin bada.

Alderdi honetan beti **-(h)uri** bigarren elementutzat duten toponimoen parean agertzen da **Urunia** eta lehenengoaren isoglosa Bizkaitik hasi eta egoaldera dator. Beste alderdian, Este aldera, **(h)iri** da, nabarmen ageri denez. **Barri** formaren isoglosarekin berdintsu gertatzen da, M. Pidal-ek egin zuen mapan ikus daitekeenez, cfr. **Toponimia prerrománica**, Madrid 1968, reinpresioa.

d) Berceo-tik kilometro batera gutxi gora behera egun ere **Arancilla** dago zazpi metro goragoko leku batean (39), eta gutxienez **aran** hitzaren erdal diminutiboa besterik ez da, **zil** hitza eta artikulua ez baldin

(36) Iñaki Linazasoro, **Caserios de Guipuzcoa**, San Sebastián 1974, 164 orr.

(37) Luis Michelena, "Hispánico antiguo y vasco", **Archivum**, t. VIII, (1958) 33-47 orr.

(38) Dirección general del Instituto Geográfico y Catastral, 2ª edic. 1952, nº 203.

(39) Mapa berberean ikus daiteke.

bada atzean dagoena, cfr. **Cilbarrena,** Ezcaray ongoan Merino Urrutia-ren listetan, cfe. **in flumine Flumenzello** (804, **Valpuesta**, dok. 1) latinezko hitzaren diminutiboa, egun **Omecillo.** Badago, ordea, herri bat Najera bidean, Berceo-tik bost kilometro ingurura, **Badarán** izena duena, eta, agian, **-aran** euskal hitza du bukaera bezala (929, **C. SMillán,** dok. 25) (40).

e) Berceo-tik ogei kilometro ingurura, Najera-tik Este aldera, **Larrea de Sotes**, 952 metro dituela (41). Begiratu Merino Urrutia-ren listak ere. "Cuenca del río Najerilla" dion lekuan: Anguiano-n **Gastelupe** aipatzen du, Alesanco-n **Renduri,** 1052 urterako, zein dokumentutan datorren esaten ez badu ere, Brieva-n **Aizpuru** eta **Zubizarra,** Canales-en **Gutia,** 972 urterako, dokumentua aipatu gabe, eta **Zaldo**, eta Castroviejo-n **Zaldo** ibai izen bezala, latinezko **saltu(m)** hitzetik badator ere euskaldunek erabiliaren seinale garbia du, cfr. **Zaldua,** Najera-n **Artaza** eta **Balondo,** eta abar.

Done Miliaga-ko kartularioan toponimo batzuk biltzen ditugu Oja eta Tiron ibai ingurukoak: **Zufiuri (situm iuxta cursum Tironis)** (947, **C. SMillán,** dok. 43), **Larrahederra** (869, **C, SMillán,** dok. 11), **Larrehederra** (945, **C. SMillán,** dok. 35), **Lalhederra** (sic) eta **super S. Johannem de Zavalla** (945, **C. SMillán,** dok. 37) Oka-ko mendietan, **Semenohuri, Vermuduhuri, Zofiori / Zufiori, Ozturi** (1095, **C. SMillán,** dok. 285).

Kartularioan agertzen den dokumenturik zaharrena 759 urtekoa da (42) eta Antonio C. Floriano-k (43) autentiko bezala jotzen du. Nonna Bella apatesak Tiron ibaiaren ondoran San Miguel Pedroso-ko emakume komentua sortzen du, eta ororen izenak datoz. Hainbat euskal izen agertzen direnez gero behar bada euskaraz ere egiten zela pentsa daiteke. Oja eta Tiron ibaien inguruan, azaldu dugun bezala, hainbat euskal toponimo agertzen da geroago.

(40) Mapa berberean ikus daiteke.

(41) Mapa berberean ikus daiteke.

(42) **C. SMillán,** dok. 1

(43) **Diplomática española del período astur.** (718-910). I. Oviedo 1949, 59-60 orr. nº 7.

Ikus dezagun dokumentu osoa:"Sub nominesancte et individue Trinitatis. Ego igitur abbatissa Nonna Bella pactum feci, et corpus et anima huic sancto monasterio offerre et conmendare curavi, quem iuxta Tiri abtavi, et ex reliquiis almi Dei arcangeli Micaeli et sanctorum apostolorum Petri et Pauli et sancti Prudencii sacrare disposui, et meum sororumque coram predictis patribus, id est, gloriosi Froilani regis et Valentini pontificis nomina nostra in hac regula sancta roboravimus sub die octavo kalendas madias, ere septingentesima nonagesima septima. Maria hic roboravi. Amunna hic roboravi. Monnia hic roboravi. Eilo hic roboravi. Donna hic roboravi. Scemena hic roboravi. Umma hic roboravi. Munnoza hic roboravi. Scemena hic roboravi. Urbana hic roboravi. Ginta hic roboravi. Alduara hic roboravi. Sancia hic roboravi. Maria hic roboravi. Auria hic roboravi. Anderazo hic orboravi. Munnata hic roboravi. Eugenia hic roboravi. Clarea hic roboravi. Susanna hic roboravi. Mumadonna hic roboravi. Tota hic roboravi. Anderquina hic roboravi. Flagina hic roboravi. Guntroda hic roboravi. Gometiza hic roboravi. Hurraca hic roboravi. Luponi presbiter hii roboravit in Christo, amen".

Oso ezagunak diren izenak alderdi batera utzirik, **Scemena** esaterako (44), zenbait euskal izen aipatuko ditugu: **Amunna, Umma** (45), **Anderazo** (46), **Munnata, Anderquina,** azkenengo hau latinezko sufixoa duela, **-ina,** hipokoristiko gisa, euskerazko **-ko** funtzio berbera duenari gehiturik.

(44) Ez da hain ezaguna, ordea, horren jatorriaren sustraia. *Scemena* andere izenak *Semeno* edo Xemeno formen gainean mozio femeninoa hartu du. *Xemeno* formak palatalizazio expresiboa du, oraindik euskaraz leku askotan egiten den bezala bezalaxe eta sufijo diminutibo gabeko *Seme, Xeme* eta *Cheme* ere ondo dokumentatuak daude. *Cheme d'Errepaçe* (sic) (1359-garren urteko Otsaila), *Seme d'Erreparaçe* (1359-garreneko martxoa), eta *Xeme d'Erreparaçe* (1359-garreneko martxoa) pertsona berbera da, ikus Angel J. Martín Duque, "Peajes navarros. Vera y Lasaca (1358-1359)", *Homenaje a Don José Esteban Uranga,* Pamplona, 1971, 81-83 orr. Patronimikoa ere agertzen da *Miguel Xemiz, Johan Xemiz,* ikus Juan Carrasco Pérez, *La Población de Navarra en el siglo XIV,* Pamploana 1973, 260 eta 261 orr. (Fuegos de la Merindad de Estella, 1330). Izen hori Akitaniáko epigrafía Erromanoen garaikoan *Sembe* bezala agertzen da sufixo diminutibo diferenterekin, *Sembecconi*, datiboa, *CIL* XIII, 287 *Sembex(s)onis*, genitiboa, *CIL* XIII 4 eta 62, ikus Luis Mitxelena ere, *Textos arcaícos vascos,* Madrid 1964, 16-17 orr. Erdi Aroan sufixo diferentearekin, *Semero*-z gainera, *Semesot (* 1094, *Libro Redondo,* fol. 106 r.) ere badugu, ikus José Goñi Gaztanbide, *Catálogo del Archivo de la Catedral de Pamplona,* Pamplona 1965, dok. 49, 13 orr. Jakina *-so* sufixoaren gainean beste bat hartu du: *-t(e),* sarri gertatzen zen bezala.

(45) Ikus Lerga-ko harrian dion *Vmme Sahar,* erromanoen garaiko testoan. A. Parcos Pous, *PV* 21 (1960), 319-333 orr. L. Mitxelena, *Textos arcáicos vascos,* Madrid 1964, 19 orr.

Cfr. **astokillo «asto + ko + illo** eta **astoko « asto + ko. Munnata** formak -**ta** sufijoa du latinezko mozio femeninoa hartu duelarik. **Mumadonna** formak **praenomen** gisa **Muma** darama. Jatorriz **Amunna** eta **Muma** euskaldunak ez balira ere, argi dago euskaldunen artean balio berezia zutela. Egun ere **amona** eta **amuma** asko erabiltzen dira. Begien bistan dagoena dokumentu horretan bisigotoen influentzia gutxi nabaritzen dela da eta arabeak urte gutxi zeramaten peninsulan.

Askok uste du alderdi horretako euskara errepoblaziokoa dela, baina VIII mendean euskal joera argia baldin bazegoen, jatorria ez zen Errekonkista deitzen zaion garaiko errepoblaziokoa, lehenagokoa baino, gutxienez. Gogoan izan behar dugu Valpuesta-ko apezpikutegia ez zela 804-garren urterarte sortu, Joanes apezpikua bere lagunekin iparralderuntz joan zen arte, bertan finkaturik.

Gainera alderdi horretan ez dugu **Vascones** izeneko herririk, hain zuzen ere euskaldunak euskaraz gure buruari hala deitzen ez geniolako. Izan ere erdaldunak ziren Erdi aroan horrela bereizten gintuztenak Euskal Herritik kanpora erdaldunen artean sartzen ginenean (47).

Geroagoko denboretan Gaztelan euskaldenei **vizcainos** deitzen ziguten eta badugu Burgos-en, La Demanda mendietatik egoaldera, **Vizcainos** deritzan herri bat. Han bizi izan zirenak ez zuten nahi eta nahi ez Bizkaitik joanikakoak izan behar. Berdin izan zitezkeen arabarrak edo beste nonbaiteko euskaldunak.

Zer gertatzen zen, ordea, erromatarren garaian? Estrabon-ek dionez (48) :

οἰκοῦσι δ' ἐκ μὲν
τῶν πρὸς ἄρκτον μερῶν τοῖς Κελτίβηρσι Βήρωνες, Καντάβροις ὅμοροι τοῖς Κονίσκοις, καὶ αὐτοὶ τοῦ Κελτικοῦ στόλου γεγονότες, ὧν ἔστι πόλις Οὐαρία κατὰ τὴν τοῦ Ἴβηρος διάβασιν κειμένη· συνεχεῖς δ' εἰσὶ καὶ Βαρδυίταις, οὓς οἱ νῦν Βαρδύλους καλοῦσιν· ἐκ δὲ τοῦ ἑσπερίου τῶν τε Ἀστύρων τινὲς

(46) Seguru asko **Andere Azo* edo *Azu, Anderazu ere sarritan agertzen baita.*

(47) Pancorbo-n agertzen da: *in molino de Bascones... et sunt isti in loco qui dicitur Pantecurbo* (949, *C. SMillán, dok. 46).*

(48) Estrabón, *Geografía de Iberia, FHA,* VI, Barcelona 1962, A. Schulten editor, traductor y comentador, lib. III, kap. IV § 12.

καὶ τῶν Καλλαϊκῶν καὶ Οὐακκαίων, ἔτι δ' Οὐεττώνων καὶ Καρπητανῶν· ἐκ δὲ τῶν νοτίων Ὠρητανοί τε καὶ ὅσοι ἄλλοι τὴν Ὀροσπέδαν οἰκοῦσι Βαστητανῶν τε καὶ Ἐδητανῶν· πρὸς ἕω δὲ Ἰδουβέδα.

"Keltiberoen iparraldean Beroiak daude, Kantabro Koniskoen auzo egiten dira eta Kelten etortzean parte hartu zuten. Beren hiria Varia da, eta Ebro ibaia iragaiten den lekuan dago. Muga egiten ere dute (keltiberoek) Barduite-kin, egun Barduloak deritzate. (Keltiberoen) Oestetik Astur batzuek daude eta Kalaikoak eta Vakeoak eta baita Vetoiak eta Karpetanoak. Egoaldean Oretanoak eta Orospedako beste bizilagunak daude. (Keltiberoen) Estetik Idubeda dago".

Estrabon-ek Beroiak kelta bezala aipatzen ditu eta dio (49) : καὶ ἔτι πρότερον Τυρίοις, εἶτα Κελτοῖς, οἳ νῦν Κελτίβηρες καὶ Βήρωνες καλοῦνται

"Lehenik Lirioei eta gero Keltei, hauei egun Keltiberoak eta Beroiak deritzate".

Estrabon-en testoa **Beroien** eta **Keltiberoen** eremuaz zenbait argitasun emateko besterik ez darabilgu eta ez gara sartzen bestetan. Estrabon ez zen peninsulan sekula izan eta Kristoren aurreko I mendean bizi izan zen. Badirudi Beroiek bazutela Keltiberoenganik bereizgarri zen zerbait, Keltiberoena talde handia baitzen eta beren artean ere bereizten baitziren izen komuna izanagatik. Baina Beroiak ez dirudi Keltiberoak zirenik.

Julio Caro Baroja-k oraintsu Salamancan esaten zuenez egin berria den "Primer Coloquio de Epigrafia y Linguistica Prerromanas de la Península Iberica" delakoan, kontu handia hartu behar da garai hortako berriak mapa batean jarri nahi baldin badira eritzi geografiko huts bat gogoan izanik, zeren orduko taldeetan inportantzia handia izan baitzezakeen odolezko loturak eta talde batzuek beste batzuek mendean izatea gerta baitzitekeen.

Egia esateko, egungo Euskal Herrian ere aurki daitezke erromatarren garaia baino lehenagoko kelta arrastoak: **Deva,** ibaiaren eta herriaren izena, esaterako (50). **Barduloak, Karistioak** edo halako izenak ere zeharo i-

(49) *Op. Cit.*, lib. III, kap. IV, § 5.

(50) Ikus Johannes Hubschmid, "Toponimia prerromana" *ELH,* t. I, Madrid 1960, 488 orr., eta L. Mitxelena, *Sobre el pasado de la Lengua Vasca,* San Sebastian 1964, 133 orr.

lunak egiten zaizkigu euskaldunei, egun euskaldun bezala agertzen zaizkigun lurretan bazeuden ere. Baina hortik ezin atera dezakegu orduan euskaldunik ez zenik, zeren begien bistan baitago gelditu dena euskara izan dela eta ez kelten hizkuntza, eta baita alderdi horretako euskara ez dela geroagoko errepoblazio baten bidez sortu, hizkuntzaren isoglosak argi eta garbi salatzen baitute hala ez dela.

Keltiberoen hizkuntzaren gainean aurrerapide bat egin da azken garaian, zeren Botorrita-n, Zaragoza-tik ogei kilometro ego aldera, berunean letra iberikoetan izkribaturik testo luze bat agertu baita. Oraindik itzuli ez baldin bada ere, ez baita gauza erreza, behintzat kelta tipoko hizkuntza bat dela uste da, Eric P. Hamp-en eritziz aldamenekoa eta zahar kutsukoa.

Dena dela, eta garai haretako ilungune asko eta asko sekula argitu gabe gelditzeko arriskuan badaude ere, arrazoiren baten ondorioa izango da estudiatzen ari garen alderdiko **Auca**, egun **Oca**, Bizkaian ere leku baten izen bezala agertzea. Egia esateko toponimo hori egungo euskaldunontzat iluna da.

Oca, ordea, ez da hor bakarrik agertzen. Madoz-en hiztegian ikus daitekeenez baditugu Galizian ere: "r. en la prov. de Pontevedra", "felig. en la prov. de Pontevedra". " felig. en la prov. de La Coruña". **Ocaña** ere badugu, **Oca**, formaren aurrekoa, eta **-nea** sufixoa seguru asko, "v. con ayunt. en la prov. y dióc. de Toledo", "l. con ayunt. en la prov. de Almeria". **Ocañas**, plurala, "cortijo en la prov. de Granada". Diminutiboa **Ocañuela**, "desp. llamado San Miguel", ez dio non(51).

Ocariz ere badugu Araban: "l. del ayunt. de **San Millan**, en la prov.

(51) Pascual Madoz, *Diccionario Geografico-Estadístico Histórico de España y sus posesiones de Ultramar*, t. XII, Madrid 1849.

Oca, "torre de Vizcaya *sit.* en el camino que de Durango conduce a Bermeo, una legua antes de llegar a Guernica" en "jurisd. de Ugarte de Mugica, aunque una pequeña parte de ella se encuentra en Gorocica".

Karmelo Etxegarai-k, *Geografía general del País Vasco-Navarro*, Bizkaiko tomoan, Barcelona 1921, dio: "Otras estribaciones de esta cordillera descienden hasta Areaza, poco más arriba de Mujica, y hasta el hondo barranco de *Oca*, por donde se despeñan con estrépito en época de lluvias las aguas que constituyen el principal caudal del río que desemboca en Mundaca"; 28 orr., "barrio de *Oca*", al parecer en "jurisdición de Gorocica", 753-754 orr., "en *Oca* y Zugastieta...", 28 orr., "el arroyo de *Oca*, que se despeña en Zugastieta formando pequeñas cascadas", 819 orr.

de Alava", "part. jud. de Salvatierra", "en llano a la falda del monte Encia". Seguru asko latinezko genitibotik dator « ***Ocanis**, nominatiboan **Oca** edo honen aurrekoa. Cfr. **Uilla Luponis** eta **Uilla Luporis**, lehenengoa behin eta bigarrena bost aldiz dokumentu berean leku berberari dagokiola (1060, **C. DObarra**, dok. 108) (52), eta beste dokumentu batzuetan **Uilla Lopons**, (1030, **op. cit.** dok. 108), **Billa Lopons** (1063-1085, **op. cit.**, dok. 143), **Uilla Luponis** (1085-1093, **op. cit.**, dok. 144), **Uilla Lupons** (1211, **op. cit.**, dok. 165).

Banaketa geografikoa ikusirik, **Oca** formak kelten hizkuntzaren batean duela jatorria ez pentsatzea gaitz egiten da.

Bukatu baino lehen Briones-ko toponimo bat aipatu nahi dut: **Mendigüerra**. Aita J. I. Fernández S.I.-k diostanez XVIII mendeko memorialetan sarri agertzen da eta egun ere hala esaten dute bertakoek. Ikusi dudan mapan, ordea, **Mendigüera** bezala gaizki dator (53) eta Merino Urrutia-k ere hala biltzen du aipatu dugun liburuan, Ollauri-ri, lehenago Briones-ko auzoa zenari, dagokiola eta **Mendigorria** formaren parean ipintzen du "v." aurrean jarririk. Hain zuzen ere **Mendigüerra**-ren giltza eman diezaiguke, zeren diptongazioaren arrazoia **gorri** izen lagunak duen **-o-** bokalaren erdal tratamentuan topa baitezakegu, **-ǫ-** irikia bezala erabili baitzuten erdaldunek behin beino gehiagotan. **Gorri** formak **gurri** bikote aspaldiko denboretarako dokumentatua zuen, ordea, eta geroago **gorri**-rekin berdindu zen, beste hitz batzuetan, **-u-** zutenak **-rr-** sendoaren aurrean gertatu zen modura (54). Diptongazioaren fenomeno hau lehenagoko denboretan euskaraz

(52) Angel J. Martín Duque, *Colección Diplomática de Obarra* (siglos XI-XIII), Zaragoza 1965.

(53) Dirección general del Instituto Geográfico y Catastral, 2ª edición 1953, nº 170.

(54) L. Mitxelena-k bere *Fonética Histórica Vasca* liburuan *r* inplosiboaren aurrean *u»o* bihurtzearen kasu bat aipatzen du, Bizkaiko *biortu«bi(h)ur* formatik datorrena (62 eta 63 orr.). Horri zerbait gainera diezaiokegu: *gurri»gorri*, cfr. *Miguel de Mendigurria* (Juan Carrasco Pérez, *La pob. de Nav., op. cit.*, "Fuegos de la Merindad de estella (1330)", 293 orr.) *Araxona*-n, eta abar. Egun *Arrigorriaga* Bizkaiko herri ezagun bati dagokio, baina XV mendean *Arrigurriaga* bezala agertzen da: "dando... el monasterio y labradores de *Arrigurria*, que eran suyos, y quedando Orozco para Ayala y *Arrigurriaga* con la casa y herencia de Marquina de Zuya para Abendaño" el cual se llamaba *"Ocho Abendaño*, Abad de Arratia que concurrió en 1448 al ataque de Mondragón", ikus Juan Carlos Guerra, *Oñac. y Gamb., op. cit.*, 9 orr. Gainera esan beharra dago *Arrigorriaga* inguruko euskaldunek oraindik *Arguya* deitzen diotela, *-rr-* sendoaren disimilazio progresibo baten bidez eta *-u-* bokalismoa gorderik, *-rr-* disimilatuak ez baitzuen bere lanik egin ahal izan. Modu berean *Martin Andurra* dugu 1366 urtean (Juan Carrasco Pérez, *op. cit., F. Sangüesa*, 487 orr.). *Lombierr*-en *an-*

hitz egin izan zen Pirineo inguruetako toponimo euskal jatorrikoetan ikus daiteke eta erdaldunek irikia bezala trataturikako **-e-** bokalarekin ere gauza berbera gertatzen zen. M. Pidal-ek estudiatu zuen (55). **Ligüerre** de Ara eta **Ligüerre** de Cinca aipatzen ditu, biak Boltaña (Huesca)-ko partiduan (56), **Lagor,** Orthez-en egoaldean (Frantzia), Aragoiko **Lagüerri**-ren parekoa, egun **Laguarres, Lascuerri** izen zaharra, egun **Lascuarre** deitzen dena, Benabarre-tik iparraldean amasei kilometro ingurua, XI mendeko dokumentuetan **Alascorr, Alascorri, Alascorre** eta abar. Beste alderdi batetik **Javier**, aspaldian **Escaberri** edo **Scaberri** (1081 eta 1059) bezala, diptongazioa duten beste forma batzuen artean, dokumentatua eta Aragoien ere agertzen dena, **Lumbier,** Nafarroako Javier-etik ez urrun -Oihenart-ek honen euskal forma bezala **Irumberri** eman zuen-eta abar.

Fonetikazko aldaketa erromanikoak dituzten euskal toponimoen ugaritasuna gogoan harturik —"de tipo ibero-vasco" berak dionez—, eta batez ere **ę** eta **ǫ** bokal irikien diptongazioa, euskaldunen eta erdaldunen arteko harreman oso zaharrak adierazten dituena, M. Pidal-ek beranduko erromanizazio baten eremu bat finkatzen du Nafarroatik Este aldera eta VI-VII mendeetan jartzen du (57).

Guzti honek ***Mendigorri** toponimoa, artikulu gabe, VI edo VII menderako beranduen, Briones-en ipintzera garamazki. Toponimo horrek erdal fonetikazko tratamentua izango zuen aipaturiko garaian. Horrela ontzat hartu beharko genduke Ebro inguru horretan bazegoela diglosia zahar bat

dur hitza izengoiti bezala dokumentatzen dela, *Refranes y sentencias* (1596) liburuan, 126-garrenean, duen zentzu berberarekin: *andur asco jaunoc aszi zat* 'los señores muchos ruynes por seruidores'. Agian hitz horrek eman zion Pirineoetan dagoen *Andorra*-ri izena *-o-* duela *-rr-* sendoaren aurrean, ondo ezagutzen ez dugun eremu baten erabilia. *Andur* izen lagunarentzat, pertsonei ez dagokien kasuetarako, ikus L. Michelena, *FLV*, 1969, 16 eta 46 orr.

(55) *Toponimia Prerrománica hispana* Madrid 1968, reinpresioa, 10-garren orr. eta urrengoak.

(56) M. Pidal-ek dudan ipintzen du *Ligorri* dagoenik "en el Nomenclátor actual de pueblos de la región vasca". Hala ere, *Lope de Ligorri* dokumentatzen dugu XV mende ingururako. Ikus Juan Carlos Guerra, *Oñacinos y Gamboínos. Rol de banderizos vascos, con la mención de las familias pobladoras de Bilbao en los siglos XIV y XV,* San Sebastian 1930, 155 orr.

(57) *Op. cit.*, 41 orr. Ikus gainera urrengo titulu honekin dakarren mapa: "El último reducto de los dialectos ibericos". Ez gara sartzen Pirineo inguruetako eremu batzuetan euskararen geroagorarteko iraute kontuetan, J. Corominas-ek defendatzen duenez, ezta Huesca-ko 1349 urteko ordenantzetan finkatu zen debekuan ere "Basqueņç", "algaravia" eta "abraych" hizkuntzetan mintza ez zedin merkatalgoko harremanetan.

lehen ahotan erabili dugun Prudentzio poetaren garaitik urbil ez bada ere, ez urrunegi. ***Mendigorri** formak » **Mendigüerre** eramango zuen akusatiboaren bidez, eta honek gero » **Mendigüerra**, kontuan hartzen baldin badugu **-e** / **-a** azken posizioko bokalen artean zegoen alternantzia, cfr. **in Aragone** (1068, C. DIrache, dok. 42) / **in Aragona** (1072, **op. cit.**, dok. 50), latinezko akusatibotik datorren bikotez, agian **Aramayona** toponimoan gertatzen zen bezala — euskaldunen artean **Aramaio**, latinez hitz egiten zutenen artean nominatibo gisara hartuko zuketena — edo **Leto testis** (807, **C. SMillán** dok. 3) / **Letona** deitura ezaguna / eta **Letoiz** formen artean gertatzen den bezala (58). Beste alderdi batetik ezin utz dezakegu aipatu gabe pareko bezala har dezakegun **Calagurris**. Azkenengo **-s** latinezko nominatiboaren marka da dudarik gabe eta **-gurri** bikotea du, ez **gorri**, eta oso aspalditik **-gurri** bezala finkatu zelako erdaldunen artean ez zen diptongorik izatera iritsi. Erdi aroan **Calagurra** (1054, **C. DIrache**, dok. 13), (1049, **C. SMillán,** dok. 139) eta **per illa calzata qui pergit ad Calahurram** (1042, **C. SMillán,** dok. 119), egun **Calahorra.**

Bilibio, Done Milia bere bizitzaren lehen aldian bizi izan zen lekua, ez zen gertatzen Briones-tik urrunegi, Haro ondoan zegoenez gero. Denbora berean bazegoen Briones-en ***Mendigorri** toponimoa, 596 metroko altuera duen mendia, orain artez eta artexkaz betea.

Esan dut.

Alfonso Irigoyen

(58) *Letoiz* 1388 urterako agertzen da Ziortzako dokumentazioan gorta baten izen bezala 29-garren notan aipatu den esku izkribuan. Ez dugu uste *Aramaio* formara iristeko *-n-* bokal artekorik erori denik, cfr. L. Michelena, *Apell. vasc.* nº 471, bai ordea *Letoiz* forman « lat. **Letonis*, genitiboa. Erromatarren garaian *Laętus* ondo dokumentatua dago Hispanian antropónimo bezala egoaldeko apigrafian, ikus Jürgen Untermann, *Elementos de un Atlas antroponímico de la Hispania Antigua,* Madrid, 1965, 119 orr.

IRIGOIEN JAUNAREN SARRERA-HITZALDIARI ERANTZUNA

Alfonso Irigoien Etxebarria jauna, lagun zaharra eta aspaldikoa dugu geure Euskaltzaindian.

Bai, adiskidea, gaur egiten duzu Euskaltzaindian zeure sarrera ofiziala, ageria; baina denok dakigu zure etorrera Euskaltzaindira ez dela gaurkoa. Euskaltzaindiaren zerbitzuan erre bait duzu zeure bizitzearen zati handi bat. Oker ez banaiz, badira guttinaz 20 urte Euskaltzaindiko gure etxe zaharrera etorri zinela, eta han, goiz eta arratsalde, idazkari ordeari dagozkion lanak egiten, urte mordoa eman duzu.

Euskaltzainak bere ogibideko lanetan eta bere bizilekuetan zebiltzanean (eta beharko ibili), zu beti han zinen, Euskaltzaindiaren etxean, Euskaltzaindiaren alde aurpegi ematen, Euskaltzaindiarentzat lan egiten, Euskaltzaindiaren ordezkaritza zeure gain hartzen. Askotan pentsatu eta esan diot neure buruari, eta gaur hemen denon aurrean esan nahi dut: Gerra ondoko urte zailetan Irigoien bezalako gizon bat Euskaltzaindiak izan ez balu, nekez aterako zela aurrera gure elkarte hau.

Euskeraren eta Euskaltzaindiaren alde Irigoien jaunak eginak dituen lanak bana-banaka hemen kontatzea, ez da posible. Handienetako batzuk aipatuko ditut bakarrik, eta hoiek ere oso gainetik, murritz eta laburki.

Bertsolaritza.- Gerra ondoko urteetan bertsolaritzak ezagutu duen suspertze eta eraberritzea, neurri handi batean, Irigoien jaunari zor zaiola, edozeinek aitortu beharko du. Bera jarri zen bertsolari txapelketa eta lehiaketak eratzera, bera joaten zen herriz-herri bertsolari-jaiak antolatzera, bertsolariei puntuak jartzera, etab. Eta inon bestek txapleketarik edo bertsolari jairik eratzen baldin bazuen eta Euskaltzaindiaren izenean norbait joateko eskatzen baldin bazigun, han egongo zen beti Irigoien jauna joateko prest, lan egiteko gertu. Lan hunekin Irigoien jaunak euskerari eta Euskaltzaindiari egin dion mesedea eta laguntza, ezin neurtuzkoa da.

Euskera, Euskaltzaindiaren aldizkaria argitaratzeko kargua, gerra ondoko urteetan berriz irtetzen hasi zenetik eta azken urteok arte, berak bere gain hartu eta eraman du.

Euskaltzaindiko batzarreetara etortzen eta Euskaltzaindiko lanetan parte hartzen, beti txintxoenetakoa izan da.

Idazlanak eta argitaratze-lanak.- Badakit sail hunetan erdia ere ez dudala esango; baina zerbait esan gabe ezin egon naiteke.

Herri-kantuak euskerarekin duen lokarria eta zer-ikusia jakinik, herri kantuen liburuskak argitaratu eta erruz zabaldu zituen Irigoien jaunak euskal herrietan.

Lardizabal-en liburuak gure herrian izan duen arrakasta ikusiz, Irigoienek liburu hunen edizio berria prestatu eta eman zigun (**Testamentu Berriko kondaira edo historia,** 1957an).

Anaitasuna eta **Egan**-en idazlan asko ditu eginak. Euskal olerkaria ere badugu Irigoien jauna, eta zenbait olerki argitara izan ditu.

Euskera Euskaltzaindiaren aldizkarian testu zaharrak argitara ditu, euskaltzaleen zenbait biltzarretako elkar hizketa eta eztabaidak berak jaso eta eman ditu. 1957. urtean **Euskera** aldizkariak Azkueren omenez ateratako zenbakian badira 274 orrialde handi (ia zenbaki osoa) Irigoienek berak prestatuak: Mendigatxak Azkueri egindako eskutitzak, Intxauspek Bonaparte Printzeari egin zizkionak, eta batez ere Azkuek bere bizitze luzean

barna hainbesteri egin edo hainbesterengandik jaso zituenak: han daude arretaz eta zehatz-mehatz argitaratuak, eta guzti hori Irigoien jaunaren ardurari zor diogu.

Gero Irigoien jaunak Unibertsitate-mailako goi istudioak egin ditu eta Euskal Linguistikako azterketetan trebea azaldu zaigu. Deustuko Unibertsitatean jakintza hori irakasten du. Badakit, gainera, Aulestiko euskeraren monografia bat prestatzen ari dela, hango euskera-modua biltzen eta aztertzen, alegia.

Baina hizkuntzaren iker-sail hunetan egiten ari den lanen aipamenean ez naiz hasiko, luze izango litzateke eta.

* * *

Gaur sartzen zara, Alfonso, baina aspaldi sartua zaitugu. Etxeko eta oso etxeko zaitugula esan nahi dizut. Gure elkarteak eta gu guztiok zurekin ditugun zorrak aitortzeko, ez da hau ordu txarra. Eskerrak denagatik. Aurrerakoan ere gar eta kemen berberaz lanean jarraituko duzula badakit. Gure Euskaltzaindiko harma-harriak dionez, "Ekin eta Jarrai".

Segi beti aurrera adoretsu eta gogotsu!.

* * *

Gaurko mintzaldian San Millan-go euskal esaldietarik bat aztertu digu Irigoien jaunak, eta hipotesi gisa beronen adibide egokia eskeini du. Fleury Lécluse jaunak **zu** garai batean pluraleko izen ordaina izan zelako susmoa agertu zuenean, Bartolome de Santa Teresa gure idazle jatorrak irriz eta burlaz erantzun zion. Gaur, ordea, denok aho batez aitortzen dute arrazoi zuela Lécluse-k eta hunetan begi ernea izan zuela. (Egia esateko, berak baino lehenago ikusi zuen hori Oihenart-ek). Esannahi-aldatze hori hiri-zibilizazioko ohituren ondorioa izan zen. Inguruko erderetan **vos** singularra aditzera emateko erabiltzen hasi zirelako, euskeraz beste horrenbeste egiten hasi ziren. Eta horrekin gertatutako hutsartea betetzeko, **zuek** asmatu beharra izan zen, eta baita **guek** ere, dirudienez, baina azkeneko hunek ez du erro sakonik egin gure artean.

Guec aiutu ez dugu, Irigoienen ustez, iraganeko forma zen, baina orainaldikoa izango litzateke. "Ez zaigu komeni", horra labur esanda, esaldi horren esanahia.

Testigantza urriegiak utzi ditu euskera idatziak iraganeko mendeetan, eta hori horrela izanik, gure hizkuntzak izan dituen aldaketak eta gora-beherak jakiteko argibide gutti heldu zaigu.

Irigoien jaunak eman duen interpretazioa zuzena baldin bada, gauza bat aitortu beharra dago: oso goiz sumatu zuela euskerak hiri-zibilizazioaren eragina. Gortean eta handiki-artean erabiltzen ziren usarioak eta ohiturak imitatzeko grina, oso goiz piztu zitzaiola, alegia.

Tal vez pueda sonar a paradoja o contrasentido el que el Sr. Alfonso Irigoyen efectúe hoy su entrada en la Academia de la Lengua Vasca, cuando la verdad es que a los ojos del público en general él ha estado más identificado que nadie con esta institución a lo largo de muchos años, veinte por lo menos. Con un tesón, constancia, laboriosidad y perseverancia ejemplares, mientras los demás señores académicos tienen que atender a sus trabajos profesionales y vivir en sus respectivos domicilios esparcidos por toda la geografía del País Vasco, el Sr. Irigoyen acudía mañana y tarde a la vieja sede de la Academia, sita en Ribera 6, de Bilbao, sede ungida con tantos recuerdos de su primer presidente D. Resurrección Mª de Azkue, y allí atendía al despacho de cuanto se refiere a esta institución. Sinceramente creo que el Sr. Irigoyen fué el hombre providencial que sacó adelante a nuestra corporación en la época de la postguerra. Gracias a él comenzó a salir de nuevo **Euskera**, el órgano oficial de la Academia, y durante muchos años ha corrido a cuenta del Sr. Irigoyen la dirección y publicación de este boletín. En una palabra, el Sr. Irigoyen ha representado a la Academia ante los organismos públicos, entidades culturales etc. Y la ha representado también ante el pueblo, pues él ha organizado durante muchos años festivales de promoción de la lengua vasca ha intervenido activísimamente en la organización de torneos de bertsolaris, ha editado y difundido por los pueblos colecciones de cantos vascos, ha dado clases de euskera, formado parte del tribunal que examina y califica a los aspirantes al título de profesor de lengua vasca, etc.

En estos ultimos años, el Sr. Irigoyen ha cursado Filosofia y Letras, sección de filologia clásica, en la Universidad de Salamanca. Actualmente prepara su tesis sobre la variedad vasca de Murélaga, localidad vizcaina. Explica Lingüistica Vasca en la Universidad de Deusto y dirige el seminario de cultura vasca en dicha Universidad. Ha colaborado activamente en **Euskera**, órgano de la Academia, y en las Semanas de Antropologia Vasca. En unión con el Sr. Ciervide prepara un estudio sobre la Antroponimia y Toponimia que figura en el Becerro de Leire. Tambien tiene muy adelantado un trabajo sobre la estructura morfo-sintáctica del euskera, ha trabajado sobre el cartulario de Valpuesta, etc.

En la primera parte de su disertación académica, el Sr. Irigoyen nos ha analizado las glosas emilianenses en lengua vasca. Estas glosas, desde que el Sr. Gómez Moreno las descubriera en 1913, han sido repetidas veces objeto de estudio y análisis, y se han propuesto diversas interpretaciones de ellas, sin que hasta la fecha se haya llegado a un esclarecimiento que se imponga o sea unánimemente aceptado. Las glosas se resisten a confiarnos su misterio. Los Sres. Ramón Menéndez Pidal, Carmelo Echegaray, Padre Iraizoz, Luis Michelena, Juan Gorostiaga etc. se han ocupado de estas intrigantes glosas.

El Sr. Irigoyen, dejando la primera — **icioqui dugu** — , se ocupa de la segunda: **guec aiutu ez dugu**. Para el vascoparlante actual, **aiutu dugu** suena a pasado; sin embargo, para el glosador emilianense del s.X tendría valor de presente. Correspondería a la glosa en romance "non convienet a nobis", es decir, no nos conviene.

Tal vez el estar nosotros atados a las formas del vasco actual y no saber desprendernos de sus esquemas es una de las causas que dificulta la comprensión de estas glosas. No debemos olvidar que están escritas en un vasco de hace mil años. Ahora bien, nosotros ignoramos o al menos conocemos muy mal (por falta de documentación suficiente) la historia de la lengua en este lapso de tiempo. **Aiutu dugu** suena a conjugación perifrástica; pero según las investigaciones del Sr. René Lafon tal conjugación es de introducción reciente en la lengua vasca. Por todo ello decíamos que al estudiar estas frases se hace preciso hacer abstracción de ciertas categorias del euskera de hoy. En suma, según el Sr. Irigoyen **aiutu dugu** sería una forma similar a "espero dugu" y otras que aun hoy usa la lengua.

En el **guec** el Sr, Irigoyen ve un hapax, o sea, un testimonio único, aunque también se halla corroborado por la variedad vasca de Cigoitia (Alava).

Sabido es que por un influjo de la vida urbana se introdujo en latín y romance el uso de **nos** y **vos** con sentido singular mayestático. Esto obligó a crear las formas plurales **nosotros** y **vosotros**. Paralelamente el vasco creó el **zuek**,y, a lo que parece, también el **guek**, echando mano

del artículo plural **ek** tomado del demostrativo (**hek**); pero mientras el **zuek** ha prevalecido, no ha ocurrido lo mismo con el **guek**, al menos en el uso general hablado y escrito. Cree el Sr. Irigoyen que el **guek** de San Millán postula un correlativo **nosotros** en uso ya en el romance de entonces, en contra de lo que afirman los historiadores de la lengua española que situan más tarde la aparición de este pronombre compuesto de **nos** y **otros.**

La objeción que a todo esto se le ocurre a uno es lo temprano y precoz de esta evolución, que habría sufrido el vasco hace ya mil años por influjo de usos más bien urbanos y cortesanos que se dieron primero en las otras lenguas y que alcanzaron de rechazo al vasco. Sea de todo esto lo que fuere, la falta de documentos nos priva de los elementos para reconstruir esta interesante historia de la lengua.

Como ha dicho muy bien el Sr. Irigoyen, será forzoso que todavía se siga hablando y escribiendo por largo tiempo sobre las glosas emilianenses hasta que se consiga arrancarles su secreto.

San Millán de la Cogolla, 15-6-1974

Fr. Luis Villasante

En el Monasterio de San Millán de la Cogolla

"Alfonso Irigoyen jauna bere sarrera hitzaldia irakurtzen"

LITERATURA LANDUAREN SORRERAKO GIROA, AXULARREN GARAIRA ARTE

"Euskaltzaindian sartzean Juan San Martin euskaltzainak Urdazubin, 1974-garreneko Irailaren 14an, eginikako hitzaldia eta Jean Haritschelhar euskaltzainburu ordekoaren erantzuna".

1970ean, Ibon Sarasolak eman zigun Euskal Literaturaren Historia lehen aldiz sozio-ekonomiko aldetik begiraturik, eta saiakera honen 16garren orrialdean agertzen zuen, XVI. mendearen lehen partean Lapurdin sortu zen mugimenduari buruz, "Garaiko euskal literatura osoa leku hedaduraz eta biztanlez hain tipi batetan egin zela, eta handik at literaturarik egiten ez dela ikustea, gauza harrigarri eta oraino esplikatu ez dena da." (1). Hutsune hau kontuan harturik, saiaera gisa, zenbait argitasun eman nahi nituzke nere hitzaldi hontan, arrazoiak finkatzeko hurbiltze asmoz.

Sorrerako giroaren gertakizunak une bera baino aintzinagotik begiratu beharra dugu ondorioak garbiago ikus ditzagun eta azkenik garai bereko politika, erlijio eta ekonomia alderdiak agertzeko.

Euskal Herria historian bi estadutan zatitzeaz hasiko gara.

Guziok dakigu Peñalen-go haserrearen ondotik (1076), Nafarroako eta Gaztelako erregeen artean elkar ikusi ezinak sortu zirela, eta ondorean ez zutela izan bakerik batak bestea suntsitu arte. Alde batetik Agramontesek, erregearen aldekoek, eta bestetik Beaumontesek, Lerin-go kondepeko eta Gaztelako erregearen adiskide, gudaketa asko sortu zituzten. Kontu izan ahaideen arteko hauziak zirela, erregeek ere beren artean ahaideko zirenez gero. Eta gudu horietan itsuskeria anitz ba zela. Bereterretxen kantoria dugu lekuko, Beamont kondeak heriotza eman zionekoa, *Haltzak eztu bihotzik* hasten den kantua.

(1) Ibon Sarasola, *Euskal Literaturaren Historia* (Donostia, 1970), 16/17 orrialdeak.

Nor gehiagoka hartan, Nafarroako erregeak zenbait foru eman zuen Euskal Herrietan, Durangoko laborariei, Gasteizi, Donostiari eta abar, behar bada bere zerbitsura aisago egon zitezen, geroago Gaztelako erregeak bere aldetik egingo zuen bezala.

Baina, nonbait, Gaztelako erregearenak hobeak izan ziren. Nafarroako Santxo Indartsua moroek preso zutelarik, Gaztelakoak Araba hartu zuen eta Gipuzkoakin ongi konpondu zen, Gaztelakoari sartzen uzteaz. Kondizio jakinik ezta ezagutzen, foruak izan ezik. Argi dago Gaztelako erregeak bizkor jokatu zuela, kontu honetan, eta denbora gutian zenbait hiri sortu zuen bere foru bereziekin eta guzien arteko anaitasunezko erakundea antolatu, Junta Generala jarriaz eta hau bere Foruz horniturik.

Garai honetan Nafarroako erregetzaren egiturak krisi batean eroriak zeuden, eta bere politika oso txarra izan zen.

Bestalde, egia esan, Gaztelako erregetza Fernando lehenengoagandik zetorrenez eta hau Nafarroako Santxo IIIgarrenaren semea izatez, gipuzkoarrentzat Gaztelakoa ere ez zen errege arrotza, eta argi dago, Arabako zapalketa ikusirik, beragana makurtzeko bidea hartu zuela. Baina foruekin jabeturik.

Foru hauek eskubide zabalak ematen zizkieten gipuzkoarrei, guziak aitonenseme aitortzera arte. Nóblezaren aurrean berdintzen ziren gipuzkoar guziak, lehenagotik, bizkaitarrek beren eskubidez zutenaren antzera. Aitonenseme izate honek, gizona libre uzten zuen bere gisara ihardutzeko merkatalgoan, oletan, eta bizimoduko beste edozein ekintzetan libre izateko edo libre jokatzeko. Bere bete behar soila, hamarrenak (diezmos) ziren, elizaren bidez ematen zirenak edo elizbarrutiaren bidez kontrolatzen zirenak. Beraz, aukera hau aprobetxatzen jakin zuten. Foru idatzia, Bizkaiko zaharra, 1452koa da (2); Gipuzkoakoa 1397koa eta Arabakoa 1332koa (3). Beraz, oraindik urruti zegoen Inglesen "Habeas Corpus"

(2) Gaztelako errege Enrique IV.ak 1457an onhartuak.

(3) Berrituak izan ziren: Bizkaikoa 1526an, Gipuzkoakoa 1696an, eta Arabakoa 1363an. Eta hauetan noblezak zer errepresentatzen zuen jakin nahi duenak ikus beza C. de Echegaray-ren *Investigaciones referentes a Guipúzcoa* (Donostia, 1893) liburuaren lehen bost orrialdeak, edo bertan ematen dituen goragoko iturriak, bereziki Marichalar eta Manrique-ren *Historia de la Legislación y rectificaciones del Derecho civil de España* (Madrid, 1868) bigarren argitalpena, zuzenketaz eta gehigarriz.

(1679), gizonari eskubide zabalak ematez hain famatua dena.

Otoi, foru horiek lehenago ahoz erabiltzen zituztenen araberaz oinharrituak ziren.

Garai hartako politikagintza zen, gizonak eta lurrak bere alde jartzeko emanak, Gaztelako erregearen partetik, eta gure probintzientzat hain txarra ez zena, feudalismoak Europako herririk gehienak menperatzen zituen garaian. Bestela nola ulertu Gaztelako erregeak hain berea zuen Gaztelako herriari ematen ez zion eskubidea Euskal Herriari ematea?.

Guzi hau ezagutu beharrezkoa dugu Gaztela zaletasuna nola sartu zen jakiteko. Ondorioz, zaletasun honek zer ikusia izango zuen gure herrietako kulturadunak euskarazko literaturagintzari ez oratzeko, eta inoiz literaturagintzan ihardutzen badira ere gazteleraz egiteko.

Foruak ziren Gaztelako erregearengana lotzen gintuzten baldintzak. Guti axola zaigu Gipuzkoa eta Araba erregeak indarrez hartu zituen ala probintzia hauek beren borondatez erregearengana bildu ziren. Foru instituzioa dugu historiako agiririk bereziena, tratu bat bide zela adiarazten digu-na. Eta, batez ere, errege Gaztelakoak Euskal Herriari opa ziola Gaztelako bere herriari opa ez zion neurriko eskubidea. Garai hartako gizonek gehien estimatzen zuten eskubidea zen aitonenseme izatea. Aitonensemeak izaten bai zuten erregearen erresumetan gizonaren libertate zabala. Esan bezala, eskubide honen ahalmenez, euskaldunak libre ziren, ekonomiaren aldetiko gauzak aurrera eraman zitzaten, lanak eta lanbideak sortzeko eta landua berentzat izateko, e.a. Ekonomiaren aurrerapenerako gauza beharrezkoa. Beste erresumetakoak ordea, jaunen zerbitsuko menpetasuna zuten, "vasallo", "villano" eta honelako mailaz bereizturik. Eta, euskal berdintasun hau, foruetan lege zen. Bizkai-Gipuzkoetan ez zen jaunik (Bizkaian bertako jaun orokorra izan ezik; baina honen aurrean ere bizkaitarrek beren eskubidezko lege zehatzak zituzten). Inor hortara ahalegintzen bazen —beste ororen gainetik jaun izate nahiez—, legez kanpora zen, eta gainera burlazko izenez "jauntxoa" deitzen zieten.

Hau horrela zelarik, ez zen batere harritzekoa orduko euskaldunen Gaztela-zaletasuna. Eta ondore honegatik zion herriak:

Milla urte igaro eta
ura bere bidean,
Gipuzkoarrok sartu dira
Gazteluko etxean;
Nafarrokin bildu dira
Beotibarren pelean

Errege katolikoek inperioa handitzea ekarri zuten, borondatez edo indarrez erresumak menderatuz. Honegatik gipuzkoarrek gaztelarrei lagundu zieten Nafarroako erregeen kontra gerlan. 1512an galdu zuen Nafarroak gaur Espainiarena den partea.

Une berean, Pizkunde garaia da Europako mendebaldeko kulturan. Zientzien aurrerapenekin batean, literatura, musika eta plastika arteak berritzea dator, ideologia burrukak tarteko zirelarik. Europako parterik gehienak feudal gizartetik burges gizartera jotzen du. Beraz, era guzietako aldakuntzak zetozten. Eta hemen, nere txosten honetan, gure inguruko historian literatura eta edergintza edo plastika arteak aztertuko ditut. Garai hartako dokumenturik urri dugunez gero arte lanek markatzen bai digute ekonomiaren egoera.

Pizkunde garai honetan (Europako "Renacimiento"an) hasten dira Europako hizkuntza askotan literatura lantzeak. Esku-izkribuzko liburuak urri eta garezti zirenez, aberats eta intelektualen eskuetara bakarrik heltzen ziren, eta hauek gehienik latina erabiltzen zuten. Baina garai honetan, inprenta sortzearekin, liburuak ugaltzeaz merkeagotu ziren eta inprimategiek herri hizkuntzetara jo beharra zuten beren merkatari zabalkundez. Hemen hasten dira latin erromantzeak eta sajon hizkuntzak literatura lantzen.

Inprimategiek ekarri zuten liburu merkatzea eta ugaritzea. Eta esan beharrik ez dugu liburuak gizonarentzat zer aurrerapen ekarri duen. Gaur egun, gizonaren jakintza guzia liburueri loturik aurkitzen bai dugu.

Gutemberg, Fust eta Schoffer hasi ziren, XV. mendearen erdialdera, Mainz (Alemania) hirian lehen aldiz letra moldez baliatuaz inprimatzen. Gutemberg-en lantegian argitaratu zen lehen liburua *Biblia* izan zen, 1456an.

Abantaila honi nola erantzun zion gure herriak? Nafarroa oraindik bere erregetzaren jabe zen garaian ezagutu zen Iruñean Brocar-en inprimategia, 1489an, latinez, Iruñeko eliz-nagusiaren esku-liburu bat argitaratu zuena. Ez dakigu Brocar zelako hau frantsesa ala alemana zen, baina berak erabili zituen letra formetatik alemanian bere ikasketak egina zela dirudi. Baina inprimatzaile honek Nafarroan guti iraun zuen, 1503rako Logroño-ra pasatua zen eta handik, Cisneros kardenalaren deira, Alcalá de Henares-era joan zen *Biblia Políglota* inprimatzeko (4). XVI. mendean Lizarran inprimatu zen anitz liburu, Migel Egia (5) eta Anvers flamendar argitaratzaileek emana. Anvers zelako hau, Lizarratik Iruñera pasatu zen eta 1561ean Sancius Elso-ren Doctrina erromanzez eta euskaraz argitaratu zuen. Guk dakigunez Euskal Herrian bertan argitaratu ziren liburuetatik euskarazko lehena. Aurretikoek herbestean ikusi zuten argia. Hemen inprimategirik ez bai zen.

Euskarazko lehen liburu inprimatua ordea, Bordelen argitaratu zen, 1545ean, Etxepareren poesi liburua dugu. Eta, egile hau, beste hizkuntzetan inprimatzen zenaren jakitun zen, bere Kontrapasean agertu zuenez:

Bertzeak orok izan dira
Bere gohien gtadora

Leizarraga kalbindarraren *Testamendu Berria, Kalendrera* eta ABC Rochelan argitaratu ziren, hiru liburuak 1571 urte berean. Gauza jakina da nafar merkatariek aspalditik zutena La Rochellen etxe bat, eta har-eman hontarako zer ikusirik izango zuena.

Bilbon argitaratu zen lehen liburua, Julio Urkixoren iritziz, Matias Mares inprimatzaileak eman zuena da, G. Osorio portugesak latinez idatzi zuen *De Gloria Nobilitate,* 1578. urtean. Baina Bilbon euskaraz argitaratu zen lehen liburua Ostolazaren *Doctrina* izan zen, Cole de Ibarra-ren inprimategian 1796an. Eta Baionan argitaratu zen lehenengo euskarazkoa Bovrdot inprimatzaileak 1642an argitaratu zuen *Tresora.* XVII mendearen erdialdetik hasten dira euskarazko liburuak ugaritzen, ordura artekoak, asko ez direlarik ere, herbestean argiratuak dira gehienak.

(4) 1514-1517 urteetan inprimatua.

(5) Migel Egia hau Brocar inprimatzailearen suhina zen, J. Goñi Gaztambidek aztertu duenez, gipuzkoarra zen, Legorretako semea.

Ikus dezakegunez, euskal literaturak ere Pizkunde garaian agertzen ditu bere lehen kimuak, literatura landua bezala, zeren herri literatura, ahozkoa, aintzinagokoa dugu. 1512an hegoaldeko Nafarroa Gaztelak menderatu zuen, eta ifarraldean oraindik gelditzen zitzaion erresuma xipi hartan ematen zuen literatura landuak bere hasera. Hau da, Nafarroa librean sortzen da literatura lantze hau. Ordukoa da Etxepareren *Linguae Vasconum primitiae,* 1545ean Bordelen argitaratua.

Baina Etxepareren obra soilik gelditzen zaigu haren garaian. Beste hizkuntza ororen mailan euskara jartzeko gogoak bultzatu zuen egile hau, baina inguruko giroa faltatu zitzaion, borroka horiek lehen batean politikazkoak baziren ere, XVIgarrenaren bigarren partean Calvin-en dotrinak ereitzean eta dotrina hauen kontrako ekintzatik.

Pizkundearen barnean, garai hartarako, bazen bestelako berririk ere Europako kulturaren ideologia mugimenduan. Luterok *Testamentu Berria* alemanera itzulia argitaratzen du 1522an, eta *Biblia* osoa 1534an, aleman hizkuntzari batasun bidea eta literatura lantzeko gaitasuna emango ziona. Erlijioa hauzitan jarri zuen. Eta 1545etik 1563ra bitartean izan zen Trento-ko Kontsilioa, Etxepareren liburua argitaratu zen urte berean hasia. Gainera, gaietatik agertzen denez, apenaz arrapatu zuen Elizak 1543an sortu zuen zentzurak ere.

Kontsilioak eraberritzea ekarri zuen, batez ere dogma kontuan. Norma berriak eman ziren dotrina berriekin, herria kontuan harturik, eta bai literatura eta bai artean bere ekintza berezirako probetxuzko izatera zeramaten. Esate baterako, Joanes Antxietaren aurretiko artistak, J. de Ayala, A. Araoz eta abar, mitologia gaietaz, gai paganoz, anitz baliatzen ziren, baina Andres Araoz azkenaldera Testamentu Berriko gaiez aritu zen (Genevilla-ko erretaula egin zuenetik Eibarkoa egitera bitartean aldatu zen, 1567an), eta J. Antxietakoak, XVI. mendearen bigarren parte hortan, Kontsilio ondorengo baldintza berrietan egin zituen bere lanetako gai guziak. Honegatik, Kontsilio ondorean ere Ebangelio Apokrifoetan oinarritutako irudiak iraunarazten dira herri imajinagintzan hamaseigarren mendearen erdialdera arte (6).

(6) Ikus, J.A. Lizarralde-ren *Andra Mari* (Bilbao, 1926), batez ere "Guipúzcoa" tomoaren 143/178 orrialdeak.

Pierre Robert, Olivetan izengoitidunak, Calvin-en ahaide eta adiskideak gertatu zuen *Biblia*-n oinarriturik itzuli omen zuen Leizarragak bere *Testamentu Berria,* 1571.ean argiratua (7). Baina Calvinistek, Ginebrakoa 1588an argitaratu zuten. Calvin-ek, Luteroren aurrez-aurre, Eliza eta Estadua banatzea eskatzen du, geroago bere jarraitzaileek bakezko obeditzea ontzat hartu bazuten ere. Calvin-en mugimendua poderearen aurkako minorien artean zabaldu zen, hala Eskozian eta Frantsian, adibidez.

Gure iduriz, holako zerbait gertatzen zen Euskal Herrian ere. Gaztelako Fernando Katolikoaren aurkako joera bat, eta errege honen eta Leringo kondearen aurka gerla egin zutenek bildu ziren Calvindarren inguru. 1559an Juana Albret-ekoa, Nafarroako erregina, Calvin-dar bihurtu zen, eta Biarnotik anitz bidali zituen Geneve-ra (Ginebra-ra) erreformako katisiman eskolatzera. Gainera, Orthez-en Unibertsitate antzerako bat sortu zuen. Zuberotarrak bereganatu zituzten erlijione berriak, batez ere zuberotar jauntxoek, Lerin-go kondearen aurka gerla egin zutenek. Piarres Lafitte jaunak dionez: "Ipar Euskal-herriko jauregietan, apeztegietan eta burgesen etxetan ibilki; buruzagiak eta handi-mandiak nahi dituzte lehenik bildu, gero jende xehek aiseago jarraikiren zaiotelakoan. Horrela biltzen dituzte beren saretara, berzeak bertze: Bidaxuneko Agarramont, Makeako Belzuntze, Maharineko jauna, Xuberoko Sponde, Belapeyre, Zalgiz, Bela familiak, baieta zenbait apez, gehienak Xubero-aldekoak. Jaun horien guzien buru, Agarramont ahaltsua eta amorratua, Jeanne d'Albret erreginaren laguntzale kartsua." (8).

(7) René Lafon-en hitzaldia Leizarragaren omenez, EUSKERA aldizkarian, XVII, 1972, 151 orr.

(8) P. Lafitte-ren hitzaldia Leizarragaren omenez, aipatutako EUSKERA-n, 144 orr.
Gainera, erlijio borroka haien hasera ikusteko, Julio II.ren Bula, errege nafarrak exkomulgatuz eta beren erresuma lehenen menderatzen zuenarentzat izango zela agertuz eta ondoren, 1512an Gaztelako Fernando V.ak benderatu, eta hortatik mindurik onhartu zuela Nafarroako Joanak Calvin-en erlijioa, anitz idazlek aitortu duten gauza da; begiratu, adibidez: Villasante-ren *Historia de la Literatura Vasca* (Bilbao, 1961) liburuaren 50 orr.; era berean agertzen digu S, Onaindiak *Euskal Literatura* (Bilbaon, 1972) lehen tomoko 76 orr.; baita ere *Euskal Protestantismoa zer zen* (DonostIA, 1970). J. Leizarraga Beraskoizkoak 1571 urtean argitaratutako eskribuen gainean G. Arestik tajututako liburuan X. Kintanaren hitzaurrea 3/4 orr.; era berean, ikus, R. Bozas-Urrutia, *"Un Materre de 1704"*, Boletín de la R.S.V. de los Amigos del País, XXIV, 1968, 193 orr. eta J.A. Irigarayren *Euskera eta Nafarroa* (Iruña, 1973), 47 eta 54 orrialdeak.

Gure lurraldeetan Eskozian gertatua nonbait alderantziz badator ere, jauntxoek erreformaren alde eta herria tradiziozko katolikotasunaren alde, historiak berak gauzak honetara ekarri zituelako da. Argi dago, igaroak igaro ondorean, Estadutik aparteko erlijionearen alde jokatu zutela lehen Nafarroako erregetzaren alde gerla egin zutenek. Albret-eko erreginaren jokaera, neurri handi batetan politikoa zen, garai hartan ohi zen bezala. Erlijionea, Estaduarekin elkartzeaz, errege poderetsuen alde aisago joaten bai zen Eliza, errege xipiagoaren edo herrien kaltetan. Bere erresuma eskubideen alde jokatu nahi zuten nafar haiek onartu zuten Calvin-en iritzia. Gero herria berenganatzeko noski. Lortuko zuten agian herria, herri xehe hori, hain katolikoa izan ez balitz; baina katolikotasuna hain errotua zegoen herrian joko irristakorregia zen, eta hala gertatu zen; feudal kutsu guziak beheraka ari zirenez, herria gaineratu zen jauntxo horien kontra.

Lafitte jaunak berak eman zigun Paueko Sinodo kalbindarrak 1563an Leizarragari Lapurdira egin deia, Hitzez hitz: "Lapurdin bizi den Leizarraga jaunari mezutuko zaio hunat etor dadin, Testamentu berriaren, otoitzen eta Katiximaren eskuararat itzultzeko; eta, nahi badu bere burua (ebanjelioari) osoki eman, bere eskualdean edo Baxenabarren minixtro izaitera prestatzeko. Eliza-kontseilukoen gain izanen da haren mantenatzea, Erreginak nahi duen ber hura hunat etortzea."

Erreginaren nahizko jokabidę hauek ikusirik ezta gauza gaitza asmoa igartzea. Leringo kondeak sortu zuen anaiarteko gerlara, Gaztelako Fernando errege katolikoak Duque de Alba igorri zuen bere ejerzitoarekin eta Nafarroa menderatu, Aita Santuak bulazko onezpena eman ziolarik; berak eskubidetzat hala agertu zuenez.

Nafarroako gerlatik hamabi urte geroago, Luterok jartzen du erlijioa hauzitan eta Elizak Trentoko Kontsilioa antolatzen. Loiolako Eneko, Gaztelaren alde eta Nafarroaren aurka kapitan bezala parte hartu zuen berbera, Ignacius izenez apeztua, Jesusen Konpainiaren sortzaile, eta Konpainia hau kartsuki altxatu zen Erreformaren etsai borrokatu bezala. Nabarmen azaltzen zaigu Kontsilio hortan erlijio hauziez gainera politikakoak ere bazirela.

Kontsilio hartako joerak ikusirik, Calvin-ek beste bide bat hautatu zuen, batez ere Eliza eta Estadua bereiztearena. Eta, egoera hau aprobetxa-

tuz, Europako zenbait erregek bere bideak aukeratu zituen, eta zenbait elizgizonek garaiko egoeraren araberaz errege batzuen zerbitsuko erlijio bidea. Bazen han bietarik. Honegatik ezta batere harritzekoa Nafarroako gerlan Juan de Albret erregearen aldeko jokatu zutenek erlijione berria besarkatzea, berrogetahamar urteren buruan.

Dena dela, argi ta garbi ikusten da politika borrokak erlijiozkoekin nahasturik zebiltzatela garai hartan.

Bitartean, gaur Espainiako alderdia den Euskal Herria geroago eta Gaztela zaleago zihoala. Nafarroan, bertako erromantzea baztertuz gaztelerazkoa gainditu zen; baina batez ere Gipuzkoako intelektualak azaltzen zaizkigu erdal literatura lantzen, herriak, herri xeheak, euskara hutsa besterik ez zekien garaian. Foru babesaren esker ona agian.

Baina beste eskertzekorik ere bazuten. Bizkaiak eta Gipuzkoak aurrerapen eta aberastasun handiak ezagutu zituzten XVI. mendearen hasieratik. Ordura arte laborantza nagusi zen herrietan, beren lurreri esker, aberastasun handiagoak ezagutzen ziren, eta Pizkunde garaian oletara eta merkatalgora ere zabaldu zen. Arte lanak ditugu lekuko, Nafarroa, Zuberoa eta Arabak erromanikoan eta gotikoaren lehen partean aberastasun handiak dituzte, monumentuen ederrez eta ugaritasunez hain nabarmen agertzen zaizkigunez. Gotikoaren azkenaldetik Bizkai-Gipuzkoetan goraka ikusten da edergintza eta XVI.ean, Pizkundearekin, aberastasun handiak lortzen dira. 1492an Amerika aurkitzetik eta 1503an Sevilla-n Casa de Contratación sortzetik, gure ola-zaharretara lan asko etorri zen. Ameriketan ez bai zuten burdinarik ezagutzen eta burdinazko arma eta lanabesak anitz presiatzen ziren hangoen eta hara joaten zirenen artean. Orduan, lanaren aberastasunez, eliza berri anitz jaso zen eta erretaula bikainik egin ere bai.

Ekonomiaren goraka honek, plastika artea ugaritzen du (Borgoina eta Flandes aldetik maisu artistarik anitz ekarri zen), baina literatura ezta lantzen neurri berean, eta egiten den gutia gaztelerаz. Intelektualik gehienak merkatalgora, kolonizatzailetara, misiolari, itsas-gizon, militar eta beste ekintza askotara joten dute. Zerrenda ederrik agertzen digu J.I. Telletxeak bere *Papeles viejos* liburuan eta jakintza gizonen aitormen hau egiten digu

J. Caro Barojak Garibayren lanak aztertzean (9). Eta inoiz literaturagintzara sartzen direlarik, esan dugun bezala, gazteleraz idatziz egiten dute. Hala egin zuten Martinez de Zaldibia batxillerrak, Garibai berak, Etxabe, Poza, Ibargüen-Cachopin, Isasti eta gainerakoek, guziak gazteleraz. Ez dute izkribatzen herriaren mintzairan eta herriak ezin jarraitu konprenitu ezin zuen hizkuntzan izkribatua.

Idazle horiek, guztiz euskalduna zen herrian ez zuten zer eginik, beren ondasuna antzu bihurtu zen. Eta izkribatze lanetara behartu ziren haien ondokoak, letra dotoredunak baina irudimenik gabeak, literatura sorketan aritu ahal izateko beren hizkuntzaren arimarik ez zeramatelako. Hala ziren Joan de Itziar eta Pedro de Madariaga kaligrafoak adibidez, literaturatik baino artegintzatik hurbilago arkitzen ziren letraginak.

Gaztelako erregearengana benderatu ziren erresumetan, literatura gogoa iratzartu zen (intelektual batzuen baitan),baina ez beren herriaren hizkuntzaz, arestian aipatu dudan bezala. Huarte de San Juan garaztarra bera ere, Alcalá de Henares-en estudiatu zuenez gero, bere herriagandik zatiturik gelditu zen.

Aipatutako batzuk eskaini ziguten irudimenezko (irudimen hutsezko) lan soila euskararen bitxikeriak goraipatuz apologetika hutsa, hala M. Zaldibia, Garibai, Etxabe, e.a., guziak gaztelako hizkuntzaz zaleturik ari ziren, eta euskararen apologia bera ere herbestera begira egina eta ez bertako herriari begira. Honegatik garai berean salatu zituen Klaberia apezak, 1636an, Ziburuko Etxeberri goraipatzen egin bertso haietan:

Burlatzen naiz Garibaiez
Bai halaber Etxabez,
Zenak mintzatu baitira
Erdaraz Eskaldunez.

Ezen zirenaz geroztik
Eskaldunak hek biek,
Eskaraz behar zituzten
Egin bere historiak.

(9) J. Ignacio Telleche Idigoras, *Papeles viejos* (Donostia, 1968). Eta J. Caro Baroja, *Los vascos y la historia a través de Garibay* (Donostia, 1972), 62 orr.

Eskaraz egin ditutzu
Etxeberri, zure obrak,
Ohoratu nahiz zeure
Ahalaz herritarrak.

Zer errefrau eder baita
Hizkuntza arrotzetan
Hura aditzera ematen
Daroezu beretan

Esker bada eta aithor
Duzula berezia
Zeren xoratu duzun
Herritarren mihia.

Hala ere, aitortu beharra dugu, Joanes Etxeberri eta honen adiskide Klaberia baino lehen agertu zela Etxepare euskaltzale, honen "Kontrapas" eta "Sautrela" izeneko poemak lekuko. Bigarren poema hontako bi bertsutan hara zer zion Etxeparek:

Heuskaldunak mundu orotan preziatu ziraden
Bana haien lengoagiaz berze oro burlatzen
Zeren ezein skripturan erideiten ezpaitzen
Orai dute ikasiren nola gauza hona zen

Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruya
Ezi huyen lengoagia izanen da floria.
Prince eta iaun handiek orok haren galdia
Skribatuz hal balute ikasteko desira.

Garai hartan, idazle batzuk euskaltzaletasuna agertzen dute, eta beste batzuk herriarengana hurbiltzeko praktikotasuna, Leizarragak **ABC** liburuan dionez, "Berze nazioe guziek, zeinek bere lengoajean besan" berak ere idazten duela adiaraziaz.

Ifar Euskal Herrian ideologia borrokek bizkortu zuten euskarazko literatura. Politika eta erlijioa nahastu ziren eta elkarren arteko norgehiagoka sortu zen lehenbizi; kalbindarrak beren dotrina berriak hedatu nahirik eta katolikoak kontra-kanpaina bat ondorean. Dena izan zen euskal literaturaren

bizkortzerako eta pizteko. Horrela, XVI. mendearen azkenaldea eta XVII.aren lehenak sustraitu zuen gure literaturaren hastapena.

Azken batez ikusten duguna, literatura landuaren sorrerako mugimendua, ideologian oinharritua zela, ekonomia alderditik baino gehiago. Erdi-aroan, arte lanak adiarazten digunez, Nafarroa, Araba, Zuberoa ziren aberatsak, nekazaritza bizibide nagusia zen garaian, erromaniko eta gotikoaren lehen parteko monumentuak lekuko. XVIgarren mendearen erdialdetik ordea, Bizkaia eta Gipuzkoako artegintzak aberastuaz nabari dira. Lapurdikorik berri guti dugu, zeren aitortu behar bai dugu Baiona bere katedral handiarekin ere ez zela hain euskaldun eta hain Euskal Herriko, arrotz merkatariek ziren nagusi eta gaskoinak zeramaten burugoa. XVI.mendean, Pizkunde garaian, Bizkai-Gipuzkoetan Nafarroa eta Araban hainbatekc aberastasuna nabari da. Monumentoak ez ezik arte eskola eta lantegiak ere anitz ziren, batez ere XVIgarrenaren azkenaldera Euskal Herriko arte lantegiek herbesterako lanak ere egiten zituzten, batez ere Gaztelania eta Aragoirako. Eskola berezi bat ere sortu zen Joanes Antxieta azpeitiarraren inguru, anitz jarraitzailekin. Laboraritzarekin batean merkatalgoa gailentzen zen, eta ola-zaharren abantaila nabarmen agertzen zaigu Amerikak aurkitu zirenetik (10).

Hamaseigarren mende hartan Lapurdi pobreenetako izanik ere, bertan loratu zen literaturaren mugimendua. Bizilagunez ere xipienetakoa zen agian, baina literaturagintzan Europa erdialdea bezala piztu zen. XVI eta XVII.ean Euskal Herri guziaren gainetik jarri zela Ibar-ek eman *Genio y Lengua* liburuan estadistika zehatza (11). XVIIgarrenean ordea, bere aberastasunak agertzen ditu Ifar Euskal Herriak, batez ere Lapurdin (12), eta garai hartakoak ditugu eliza berritze asko eta batez ere elizetan egin ziren zurezko koru barrokoak elizaren gibelaldean buelta guzian apalak bezala behetik goraino hain ederki atonduak eta Lapurdiko artegintza hain bereizgarri egiten dutenek.

(10) Ikus *Lur eta gizon, Euskal Herria* (Oinati, 1974) liburuaren "Euskal artea" izeneko kapituluaren 155/162 orr.

(11) *Genio y Lengua* por Ibar (Tolosa, 1936), 99/103 orr.

(12) Alde batetik garaiko errege absolutuen indarrez, bereganatu zituen koloniegatik, Colbert-ek (1619-1683) ekonomiaren zuzendaritza Estadutik jartzea, merkatalgoa indartzeaz eta abar. XVII.mendea oso aberatsa izan zuen Frantzia guziak eta hau igartzen da Ifar Euskal Herrian ere.

Beraz, XVIgarreneko ekintzatik etorri zen geroko zuzpertze hura, eta XVIIgarrenaren erdirako Axularrek bere *Gero* liburuarekin loretu ez ezik goren mailara jasoko zuena. Bere obra, garaiko Europako aszetika gorenengoen artekoa da. Adibiderik ederrena dugu Juan Flors argitaratzaileak "Espirituales Españoles" sailean onhartzea. (13).

Baian, Leizarragaren literatura lantze esperientzia baztertua izan zen, protestantismoa bera bezala. Trentoko kontsilioaren ondorioz lurralde katolikoetako literaturan aszetikak eta miztikak hartu zuten garrantzia, herriari begira eta idazkera herrikoiez, Axular eta haren ingurukoek burutu zuten bezala (14). Gaur egun, euskara, goragoko kultura baterako premia larrian ikusten dugu, Leizarragak zeraman bideetakoa agian. Dena dela, moldez eta gogoz, Trentoko kontsilioak zeharo markatu zuen Euskal Herriaren bizitzan, eta kalbindarren ideiekin batean Etxepareren erako poemagintzak ere baztertzeko (15). Katiximaz ugaritu zen Euskal Herria, Sales-ko Frantziskoren lanen itzulpenak eta barroko egitura sartu zen. Mugimendu honetan, Axularrek bere inguruko zituen Materre, Haranburu, Etxeberri Ziburukoa, Harizmendi, Argainarast eta abar, Sarako eskolatzat ezagutzen duguna.

Denen buru zena, Pedro Dagerre Azpilikueta, "Axular" handia, herri honetan sortu zen 1556an, *Gero* liburu eder aspergaitza 1643an argitaraturik utzi ziguna eta handik urte batetara hil zena. Hark bere liburuan esan zigunez: "Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen Euskara ere; eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta, eta ez Euskarak".

Hala ere, Etxeparek bere liburuaren bukaeran zion *"Debile principium melior fortuna sequatur"*, gure ustez, aski kunpliturik utzi zuen Axularrek bere *Gero*-rekin.

(13) Pedro de Axular, *Gero* (Después). "Espirituales Españoles", Juan Flors, Editor (Barcelona, 1964). Aita Luis Villasantek prestatua, bere hitzaurrez eta gaztelerazko itzulpenez.

(14) Ikus, L. Villasante, *Historia de la Literatura Vasca*, 59 orr., L. Villasante, Axular, mendea, gizona, liburua (Oinati, 1972), 90/96 orr.; eta I. Sarasola, *Euskal Literaturaren Historia, 14/15 orr.*

(15) L. Michelena, *Historia de la Literatura Vasca* (Madrid, 1960), 59 orr.; eta I. Sarasola, *Euskal Literaturaren Historia,* 15 orr.

Agur eta ohore idealen borrokak euskararekin erabiliaz gure literatura landuaren sorrera lortu zuten guziei!

J. San Martin

SAN MARTIN JAUNAREN SARRERA-HITZALDIARI ERANTZUNA

Huna nun gauden gaur bilduak Axularren sor-herri huntan. Duela lau mende baino gehiago jaio zen eta hemen iragan zuen bere gaztaroa Euskal Herriak Hamazazpigarren mendean ukan duen idazlerik famatuenak. Eta zertako bada bilduak gire, orok badakikezue, lankide maiteak eta jaun eta andere agurgarriak. Entzun duzue, orai berean, Juan San Martinen mintzaldi ederra: nola eta zertako sortu den gure literatura landua Ipar aldeko Euskal Herrian, nola haunditu den landare hori Axularren "Geroa" deitu lorea sortu aintzin.

Eta hemen konpainia on batean baigira, euskaldunik baizen ez den lekuan gogoratzen zaizkit Axularrek berak, bere "Geroa"-n irakurtzaileari eskaintzen diozkan lehenbiziko lerroak:

"Egun batez konpainia on batean, euskaldunik baizen etzen lekhuan nengoela, ekharri zuen solhasak, izan zen perpausa, etzuela deusek ere hanbat kalte egiten arimako eta ez gorputzeko ere nola egitekoen geroko uzteak, egunetik egunera, biharretik biharrera luzatzeak. Eta on zatekeiela gauza hunetzaz liburu baten euskaraz guztiz ere euskararik baizen etzakienentzat egitea: eta hartan gero dioenak bego dioela erakustea."

Zuk ere, San Martin lankide eta adixkide ona, entzun dituzketzu hitz horiek. Ordu zela erranen derautzut. Ez ote du orai hamar urte sartu zinela Euskaltzaindian, euskaltzain oso gisa? Ez zena zure eginbidea sartzeko mintzaldiaren egitea epea sobera luzatu gabe? Hamar urteren buruan pentsatu dukezu laster iragan zela denbora eta ordu zitaikela eginbidearen betetzea. Hautatu duzu Axularren sor-herria, beharbada erakusteko gero dionak ez duela beti bego erraiten.

Aitatxi gisa hautatu nuzunez gero, egiten derauzkitzut erasi horiek, irriño bat ezpainen xokoan, baitakit aurretik ongi hartuko ditutzula. Eta umorezko erasiak utzirik nahi derauzkitzut eskerrak bihurtu. Euskaltzaindian lehen aldikotz gertatzen zait aitatxi izaitea, eta zuk egin derautazu ohore hori. Ohoretzat hartzen dut ba eta ere adiskidantza gisa. Duela hameka dotzena bat urte orai, nihaur Euskaltzaindian sartu nintzanean, egin nuen zure ezagutza. Ordutik, uste dut elgar aditu dugula, senditu dugula adixkidetasunak emaiten duen elgarrekilako lokarria. Gure arteko har-emanetan jakin nintuen zure zonbait berri.

Sortu zira Eibarko hiri langilean, duela orain 52 urte, udaren hastapenean, 1922ko ekainaren 22an ; gu gehienek bezala euskara ikasi duzu erdara baino lehen eta nahi eta ez zaletasun gehiago duzula euskaran da guretzat eta gure batasun hunentzat kalitaterik haundiena. Ez dakit -eta ez derautazu sekulan erran - nun egin dituzun estudioak. Diote zuhaurek asko ikasi duzula hanitz liburu irakurriz, betidanik jakintza maite izan duzulakotz. Bainan bada liburuek emaiten ez duten jakintza bat. Eta hura da, bere esperientziaz, bere nahiz, ikusiz eta sendituz, gorputzak gogoari emaiten dion jakitatea. Gazte zinelarik, mendizale gisa, ezagutu duzu mendiak nasaiki eskaintzen deraukun bozkarioa. Arrokari aztaparrekin lotua, zango petan hutsa daukazula, gainean zeru urdina, zeruari buruz egiten den petikgoitiko ibialadiak ere moldatzen du egiazko gizona, gorputzez azkar, armaz azkarrago. Picos de Europa-ko, Pirineetako eta Alpes-etako gailurrik gorenetarat igan zira eta segur naiz gain heietarik bota ditutzula euskal irrintzinetarik ozenenak. Gailurrez bertzalde, leizeak ere nahi ukan ditutzu ikertu. Pierre Saint Martin-eko leizearen iluna ikusi eta jastatu duzu bi begiak oso zabalik, hala nola hesten zinituzken goiz argiaren dirdirak jotzen zituelarik iragan dituzun mendietan.

SAN MARTIN JAUNAREN SARRERA–HITZALDIARI

Mendizaletasunari esker ikertu ditutzu Euskal Herriko zazpi hegalak, herriz herri ibiliz bide nabar. Eta huna nun ohartzen ziren mundu zabalean dauden populuen anaitasunaren asmoa sortu ditaikela bakarrik herri bakoitxak ikasten duelarik bere kondaira, jakiten duelarik nor den, nun, nola eta noren artean bizi den, norat doan. Haitzaren pare, herri batek lurrean erroak barna behar ditu sartu eta ez izan erro gutiko zuhaitza bezala, lehenbiziko haize zirimolak aurtik lezakena. Mendiz mendi eta herriz herri zinabilarik. ikusi eta ikasi ditutzu Euskal Herriak sortu dituen ohidura zaharrak, etxe bereziak, bizi molde desberdinak, ipui aberatsak, kantu xoragarriak, atsotiz, zuhur hitz eta bertze lehengo erranak. Zuhaur aberastu zira, hor baitzinuen herria erakasle gisa eta orduan duzu konprenitu Euskal Herriak osatzen balinbadu mundua, euskarak ere baduela bere tokia munduko hizkuntzen soka-dantza edo dantza-korda handian eta Detxeparek dion bezala behar dutela euskaldunek euskara jalgi mundu guzira.

Euskaldun zinen ordu artio, orduan zira Euskalzaletu. Hor dira lekuko idatzi ditutzun artikulu eta liburuak: Eusko gogoa, Egan. Euskera, Munibe, Anuario de Eusko folklore, Jakin, Zeruko Argia, Olerti, Pyrenaica, Anaitasuna eta bertze aldizkariek sala zezaketen eta salatu zeieten nor zinen Baionako Euskal-Idazkaritzakoek eman baitzerauzuten 1964ean Lauaxeta saria. Orroitzen niz "Zirikadak" eta "Eztenkadak" idatzi dituzula, nahasmahas doatzila ipui bilduak eta asmatuak. Zure gaztaroako ibilaldien semealabak dira, hala den bezala "Estudio etnográfico del valle de Urraul Alto" Luis Pedro Peñarekin idatzia. Lehengo idazleak maite dituzu, Mogel berezi-ki, haren bizitza aztertuz, lanak agertaraziz. Bainan maite ditutzu oraikoak ere "Uhin berri"-koak, igerika batzu eta "Hegatsez" doatzinak Euskeratu ditutzu bertzen liburuak erakutsiz ez ditaikela Euskal Kultura hetsirik egon, behar duela ordea sekulan baino gehiago atzerrietako kulturei idekia izan. Zuri esker Michel de Ghelderolde, Salvador Espriu eta Bertold Brecht-en liburu edo zati batzu irakur ditaizke euskaraz. Erradazu otoi zer irakurtzen duzun eta erranen derautzut nor ziren. Euskeratu dituzun idazleek oihukatzen derauzkute zure bihotzeko kezka eta asmoak.

Ez zenituen lan horiek guziak eginak Euskaltzaindiko ate nagusia ideki zelarik zuretzat 1964.ean. Bainan ez zinuen izendapen hori hartu ohorezko izendapen gisa. Langile porrokatua zirela orok badakigu eta hortakotz

Euskaltzaindiko idazkari izendatu zitugu, esku onetan baitago kargu, edo hobeki esan, karga hori. Ene bihotzeko zorionaren berri aitortzen derautzut gaur bereziki Euskaltzaindiaren izenean agurtzen zaitudanean, hori baita betetzen dudan eginbiderik goxoena, ez lankide gisa bakarrik, bainan, gehiago dena, adixkide bezala.

***

Euskaldun jendearen erroak barna landatuak direla euskal lurrean, euskaldun jendeak ez duela adinik, betidanikakoak girela, huna zer erraiten zuten, duela lau mende, espantu puska batekilan orduko historiazaleek. Eta, egia erran, aspaldi huntan bizi da gizona Euskal Herrian, Isturitzeko otsozelaietarik Santimamiñeko Leizeradino. Bainan zuk, nik baino hobeki, badakizu egia hori. Eta mende huntako ikertzaleek, zu heien artean, agertzen dauzkute egunero gizonak utzi dituen herexak: leizeetako marraski, mairubaratze eta abar...Emeki emeki ere, gizon berek sortu dute menderez mende elgarrekin bizitzeko behar zuten mintzaira. Hala nola apaintzen zituzten leizeetako paretak marrazkiez, halaber, sortzen zituzten olerkiak ederragoak zauzkaten xoramelatzen zituztelarik. Hola hasi da gure ahozko literatura, kantatzen zituela euskal gizon eta emazteen arteko lokarri edo eztabaidak, gogoen kezkak. Gauza guti etorri zauku, salbu gertakari haundi edo bortitzen orhoitzapenak: pertsu bat hemen, bizpahiru neurtitz han, hamalau eta hamabostgarren mendekoak. Kantu batek, osoa dirudianez, Xuberotarren aho beharrietatik iraganik, erakusten derauku literatura galdu horren ederra. Mauleko kondearen abrekeriak alde batetik, doñu sarkor eta pertsu mamitsuen ederrak bertze aldetik, eman diote iraupen berezi bat, kanta egileak berak desiratzen zuen bezala, ziolarik: "Bizi denak orhit ükhenen dü Bazko gaiherdi ondoa"

Euskaldun orhoitmenari esker iragan ditu mendeak gure ahozko literaturak, gizaldi bakotxak emaiten ziola apaindura berezi bat. Oraino ere hemeretzigarren mendean, bazakien Etxahun-Barkoxe-k pertsuz "huntü" zituen oihu eta garrasiek iraunen zutela Xuberotarren gogo-bihotzetan:

Khantore horiek huntü nütin Unhürritzeko olhetan,
Errumarat juiten nizala erraiten beitüt hoietan;
Maleruski ni hil banendi bidaje lazgarri hortan,
Ziberuan khanta-itzazie, ene orhitzapenetan.

SAN MARTIN JAUNAREN SARRERA–HITZALDIARI

Ahozko literatura Euskal Herriko eremu guzietan bizi zen, euskaldunen josteta, biltzar, har emanen artean eta bertze herrietako ahozko literaturarekin konpara ditaike irriskurik gabe gure abaintailetan. Hori izan da, garai batean, Herriaren jakitate bakarra.

Hamabostgarren mendearen bigarren zatia eta hamaseigarren mendea dira mendebaleko Europan aldakuntzazko mendeak. Erdi-aroko mundua suntsierat doa eta bertze mundu bat, bertzea baino zabalagoa, agertzen ari da jendeen begi harrituen aintzinean. Aro berri bat sortzen da, berpizte bat bezala.

Italian hasten da Pizkundea. Europa guzian, arte gotikoak bere azken dirdirak botatzen ditu, Italian bertze arte mota batek arrakasta handia hartzen duelarik. Lehenengo denbora klasikoetarat erroen bila doa aro berria: gazteluak jauregi bilakatzen dira, margolariak mitologiari buruz itzultzen, olerkariek so egiten diote Erroma eta Greziari, filosofoek Platonen ideiak irakur ditzakete Platonen hizkuntzan.

Espainiak lortu berria du bere batasuna. Granadako mairu-erreinua erori da, Arago eta Castilla, errege katolikoen eskuetan bateraturik, sartzen dira, burua gora, Indiak berriki aurkituak, aro berrian. Frantziak, aspaldi egina baitu batasuna Okzitania errautsiz Italiako alderat jotzen du eta Espainiarekin ikasten Pizkundeak darion aberastasun joria. Turkoak, emeki emeki, sartzen ari dira mendealeko Europan, beldur ikaragarri bat emaiten dutela Lepantoko itsas-guduka artio

Eta hor, Espainia eta Frantziaren artean, hor dago xutik oraino, Napartar haurriden arteko eztabaidek ahultzen dutela gero eta gehiago, Naparroako erreinua. Arbolatik fruitua erortzen den bezala, Fernandoren aztaparrerat eroriko da Naparroa, erregek ihes egiten dutela Pirene haraindiarat. Debaldetan nahiko dute berriz Naparroaz jabetu: 1521etik hart zatikaturik dago Naparroa. Erregeak biziko dira Pauen. Gero, Espainiak egin zuen bezala, Frantzia jabetuko da Naparroaz, Henri IV. jarriz Frantziako tronuan, Luis XIIIgarrenak haren segida hartuko duenean.

Hamaseigarren mende hori (1521etik, 1620 arte) garrantzi handikoa izan da euskal literaturarentzat, orduan lehenbiziko bi liburu inprimatuak

sortuko direlakotz Naparroako erreinu xoil eta libro hortan. Erran derauku-zu oixtion nola hedatu zen inprimeria garai hartan eta nola etorri ziren gure eremuetarat lehenbiziko inprimatzaileak. Halere aipatu ditudan bi liburuak Herritik kanpo inprimatu ziren, bat Bordelen, Detxeparena, bertzea Roxelan, Leizarragarena ez baitzagon inprimeriarik Naparroako erreinu ttipian. Eta gure bi idazle horiek, mende horren eztabaiden lekuko daude gure euskal lurrean, apez katolikoa eta artzain protestantea.

Detxepare zinez, hamaseigarren mendeko gizona da. Senditu du mun-duko mintzairen inprimeriak ematen zioten oldar ikaragarria. Latinaren pa-rean herrietako mintzairek altxatzen dute burua segur baitira traba gutia-go dutela eta pentsakera guzien erraiteko gai direla. Berritzen, azkartzen, aberasten, joritzen ari dira. Naparroako erregina bera, Margarita, idazle frantses on bat da eta Nera-ken Pau-en bezala biltzen ditu bere inguruan i-dazleak. Garai hartan, Marot eta Rabelais-ek Frantzian, Garcilaso de la Ve-ga eta Boscan-ek Espainian, olerki eta idazkien bitartez lantzen dute frantse-sa eta gaztelera eta bide berriak idekitzen. Giro hortan bizi denak, Eihala-rren edo Donibane Garazin izanikan ere, ez ote du bere hizkuntza landuko eta inprimaraziko? Badaki nehork ez duela, ordu artio, euskara inprimarazi eta "kausa horregatik gelditzen dela abataturik ezein reputazione gabe". Argi eta garbi ikusten du Detxeparek etorriak direla denborak eta Bernard Lehet-i eskaintzen diozka asmatu dituen koplak "inprimiturik heuskara, oraino izan eztena eta zure hatse horretik dadin aintzinerat augmenta, kon-tinua eta publika mundu guzietara eta baskoek bertzek bezala duten len-goajian skribuz zerbait doktrina eta plazer hartzeko, solas egiteko, kanta-tzeko eta denbora iragaiteko materia eta jiten direnek gero duten kausa o-boro haren abantzatzeko".

Geroari buruz mintzo da Detxepare:*augmenta, kontinua, publika, a-bantzatzeko,* hitz horiek joiten dituzte oraino gure beharriak, euskaldun eta euskaltzaleen eginbidea goraki oihukatzen dutela.

Euskararen sortze bat da eta "kontrapas" famatuaren errepiketan e-rrepikatzen du jaiotze edo jalgitze hori; kanpora, plazara, mundura, mun-du guzira. Gauaren sabeletik jalgitzen da kanporat eta haur sortu berriak bezala lehen garraisia botako du; lehebiziko urratsak eginez helduko da plazarat, bertze kidekoen arterat; handitzen da, mundurat hedatzeko xedea hartzen du eta garai hartan mundua zabaltzen ari baita euskaldunekin eta

euskalduneri esker mundu guzirat nahi luke hedatu "ohoria orotan" ukaiteko. Nola sorginak hitz berak errepikatzen dituen bere inguruko jenden xoratzeko, hala Detxeparek hiru aldiz hitz bera oihukatzen du, dei gisa, "Heuskara" sar dadin gero mundu guziko hizkuntzen harrigarriko dantzan. Besta da, mintzairen besta, aro berriko jaia.

Ez da Detxepare idazle bakarra hamaisegarren mende hortan. Frantziatîk jinikako ipar haizeak Euskal Herrirat pastorala dakar. Erdi aroko frantses "misterioek" sort-arazi dute baserritar antzerkia. Ez bakarrik Xuberotarrek bainan Baxenabartarrek hain zuzen ere, ezagutu eta egin dituzte pastoralak. Oihenartek berak erraiten derauku bazela hamaseigarren mendearen erditsuetan bertze apez bat, Donibane Garazin sortuz, Joanes de Etxegarai deitua, olerkaria hura ere, eta "Artzain gorria" deitu pastoralaren idazlea. Aipatzen derauku ere Arnaud de Logras, Amikuze eta Oztibarreko bikario jenerala, hau ere olerkaria.

Badirudi badela Baxe Nabarren olerki eskola bezalako bat Detxepare, Etxegarai, Logras hiru apez olerkariekilan. Ikus dezakegu heietan "La Pleiade" iduriko biltzar bat. Nahi ukan dute euskara landu bederen olerki eta pastoralen medioz. Euskararen zerbitzariak izan dira eta, nahiz Detxeparen obra bakarrik gelditu zeraukun, egin dute egiazki nik deituko dudan "La Défense eta L'ilustration de la Langue Basque".

Bada hamaseigarren mendean euskararen bigarren akulatzaile bat eta hori da protestantismoa. Erreformako ideia berriak Europan hedatzen ari dira. Jadanik Margarita, Naparroako erregina idazleak, Nerak-en eta Pauen gerizatzen ditu erreformarat lerratzerat doatzin idazle, filosofo eta teologoak. Libertatez gose dira protestantak; nahi dute Jainkoaren hitza denek ezagut dezaten; hortakotz utziz latin sakratua frantseserat itzultzen dute Testament berria lehenik 1523an Lefevre d'Etaples-ek eta Biblia osoa geroxeago, Ian berbera egiten duela Robert Olivetan, Kalvinen ahaide batek 1535ean. Jainkoaren hitzaz egiten dituen gogoetak ere Kalvinek agertuko ditu, Katolikoek atxikitzen dutela, hanitz denboraz oraino, latin xoila. Bibliari esker Alemanian erabiltzen ziren hizkuntzetarik bat, aleman literarioa bilakatuko da, hura izan baita geroztik aleman batua. Ez da harritzeko beraz euskarazko itzulpen bat galdegiten badu Albreteko Joanak, Naparroako erregina protestantak. Leizarraga berak bere eskaintzazko aintzin solasean ez du bertzerik arraiten: "Alabaina segur izanez ezen Heuskaldunak berze nazione guzien artean ez garela hain basa non gure lenguajez ezin ezagut

eta lauda dezagun gure Jainko Jauna..."
Euskaraz euskaldunentzat, ez dea hori mendez mende euskaltzaleen bihotzek daukaten asmo kartsua?

Ene iritziz, protestantismoak eta Leizarragaren obrak bereziki ondorio onak ukanen dituzte euskararentzat, eliza katolikoak bide bertsutik jo beharko baitu. Bide bertsutik diot ezen eta Bibliaren itzulpenik ez baitute berehalakoan egingo katolikoek. Bainan katiximak agertuko dira, jadanik hamaseigarren mendean, hamazazpigarrenean bereziki. Aipatzeko dira (Santxo Elsokoaren dotrina aparte) Ostolazarena Bilbon. Aita Materrena eta Naparroan Beriainena. Eliza katolikoaren erakaskuntza ageriko da bereziki hamazazpigarren mendean Lapurdiko eremuetan. Aita Villasantek biziki ederki esplikatzen derauku, bai bere "Historia de la Literatura vasca" delakoan eta bai "Axular, mendea, gizona, liburua" deitu liburuan zer izan den Sara-Donibaneko giroa. Erlisioneko gerlak bururatuak dira. Bortitzak izan dira Baxe-Nabarren, Axularrek dioenaz bederen, Etxauz etxeko kondaira egitean:

> "Zu izan zara Etxauz, mendi Pirinioetan, Alduideko hegaletan, bethiere zentinela eta begirale bezala, iratzarririk dagoen jauregi eta gaztelu handi, eder, noble hartako seme. Hango bizkondeak eta seme guztiak izatu dira bethiere, egundainoz gero, erregez enplegatuak, estimatuak, fin eta leial fragatuak. Eta bai egiazko fedearen eta legearen defendatzaile eta aintzinatzaille buruzagiak ere. Nafarroa behereko parte hetan, bertze ainitz lekhutan bezala, lege katoliko saindua, iduriz klakatzera, kordokatzera eta erortzera zihoanean, badaki munduak nola zure aita Jauna, bere etxeaz, onez eta biziaz ere kontu guti eginik, joan zen Doanapalaiora, non baitzen orduan Nafarroako Parlamenta. Eta han ausartzia handi batekin, bere bihotz giristino noblearekin, hasi zen, ezpata biluzia eskuan harturik, oihuz, Matatias bat bere denboran bezala erraiten zuela: "Ea giristinoak, giristino izenarekin izana duzuenak, bertze egiteko guztiak utzirik, hurbil zakiskidate, jarraiki zakiskidate, eta egiazko legearen eta fedearen mantenatzen eta sostengatzen lagun zakizkidate."

Eta hanbat egin zuen, non bere herria eta ingurunekoak ere, hetan zihoan eritasunetik begiratu baitzituen. Eta gero handik hartako herraz eta mendekuz bere jauregui ederra erre zioten."

SAN MARTIN JAUNAREN SARRERA–HITZALDIARI

Etxauzko semea, Baionako apezpiku zenean, bazterrak eztituak ziren Baxe Nabarren, sua piztua zegolarik Lapurdin hamazazpigarren mendeko lehen hamar urtetan. Senpereko sorginen gertakariek inharrosi zuten Lapurdi guzia: egiazko sorgin ihizia, zinezko erlisioneko gerla. Hor datza, nere iritziz, Lapurdiko Euskal literaturaren piztearen arrazoin handi bat Frantziako erreforma katolikoaren giroaz bestalde. Ohart giten Sales-eko San Frantsesen denbora dela, behar direla jendeak ematu eta "egiazko legearen eta fedearen" erakaspenak behar zitzaiela jendeak eman, hori baita Elizaren eginbiderik premiatsuena.

Donibane-Ziburuko frantzizkotarren komentua eraikirik, prest zitaizken erakasleak, garai hartako euskal liburuetan ageri diren izenak lekuko: Materre, Klaberia, Hirigoity, Gillentena, Etxeberri ziburukoa, Haranburu, Argainarast eta... Axular, orok erakasle lana deramatena.

Ez da erlisioneko gerlarik izan ez Espainian, ez Hego Euskal Herrian. Jesuiten konpania euskaldunek sortu dute. Krixtoren soldado izan nahiz, bihotza zaukaten aski zabal mundu zabalaren besarkatzeko eta ez zioten Euskal Herriari kasurik egin. 1656 ean bakarrik (badu ehun urte baino gehiago konpainia sortua dela) ohartuko dira Jesuitak Euskal Herria dela ere misione lurra, urte hartan agertuko baita Aita Jeronimo de Ripalda-ren "Exposición breve de la doctrina cristiana" eta 1686 an Gazteluzar-en " Egia katolikoak.

Hola nola sendi zitaiken Lapurdin, Baxenabarren Ziberoan bezala euskaltzaletasun horrek konpreniarazten ditu pixtion aipatu ditutzun Klaberiak eginikako pertsu garratzak:

Burlatzen naiz Garibaiez
bai halaber Etxabez
Zeinak mintzatu baitira
Erdaraz Eskaldunez

Ezen zirenaz geroztik
Eskaldunak hek biak
Eskaraz behar zituzten
Egin bere historiak.

Bainan erlisionetik kanpo, zer gai erabili da Euskaraz, literatura landuan? 1638 an (badu bi urte Klaberiak egin dituela pertsuak). Oihenartek publikatzen du bere *Noticia utriusque Vasconiae* latin hizkuntza noble eta zientifikoan. Martin Oiharzabalek ere frantsesez lehenik idazten du eta argitarazten *Itsasoko nabigazioneko liburua,* Piarres Detxeberri edo Dorrek euskararat itzultzen diola gero. Asko denboraz (hiru mendez bederen) gure literatura erlisioneko literatura izanen da, denbora berean ahozko literaturatik zarioten kantu, ipui eta errefrauek asetzen zituztela euskaldun jendearen gogo bihotzak.

On da ikustea eta ikertzea nun eta nola sortu den gure literatura landua. Sortu da hamaseigarren mende erakituan, bazterrak eta gogoak harrotuak zaudelarik; sortu da azkatasunean, Naparroako erreinu azkatuan, orduko erlisione alderako eta gizonaren alderako pentsakerak emaiten derauzkula Detxeparek; sortu da ere eztabaidetan, protestanten helburuek lehenik, katolikoen erantzunek gero ibilarazten gaituztela Leizarragatik Axularrerat. Orduz gero bizi da Euskal literatura, bizi baitira Euskaldunak, Euskaltzaleak eta bizi baita Euskara. Orai Europako batasunari buruz dabiltzanek senditzen dute, sekulan baino gehiago, begiak urrun zeru-lurreko mugetan dauzkatelarik, behar dituztela zango oinak azkarki finkatu beren sort-herrian, begiratuz, zainduz eta landuz gogoan duten berezitasuna: hizkuntza. Hortakotz da mende huntan, nahiz ez den gehiago euskararik baizen eztakienik, erakaskuntza euskaraz emaiten ikastola eta ikastegietan hala nola ere sortu dugun Udako Euskal unibersitatea. Gai guziak erabiltzen dira euskaraz, mende huntan agertzen diren liburuetan. Hogeigarren mendeak, aro berrikoa baita, aintzinamendu haundiak behar derauzku eskaini azken hogói eta bortz urte hotan: euskara sararaziz eskola, irrati eta telebixtan horiek baitira mintzairen hedatzeko tresna berriak. Euskal kultura bizi da, sekulan baino unibersalagoa, bainan gure kondairaren eta iraganaren iturrietan halere behar dugu nasaiki edan, euskal jakitate bidetan arbasoak direlakotz erakasle eta gidari hoberenak.

Egun hemen Axularren sort-herrian baigira eta Axular baita gure idazle zaharretan maisuenetarik bat, hari, idazle arbasoari, eskerrak bihurtuko diozkagu, hartzen ditugula ararteko Oxobik asmatu pertsuak:

Eskerrak Axular!
Bihi, bazka, indar,

Egun eta bihar
Badakigu nun har;
Zu baitan.....

Lagunak ez lokar:
Aditurik elkar
Dugun euskara sar
Eder, jori, azkar
Orotan!!

Urdazubin 1974 ko irailaren 14an
Jean Haritschelhar

"Axular baserrian jarritako oroitarria"

LA STRUCTURATION DU CHAMP SEMANTIQUE DE LA COULEUR

en Basque

Au niveau *phisiologique* l'expérience montre que, sauf en cas de maladie, tous les hommes sont également capables de percevoir les nuances successives du spectre des couleurs, et des les distinguer.

Or, au niveau *linguistique,* c'est un fait parfaitement connu aussi que tous les peuples n'ont pas divisé le continuum chromatique du spectre en un nombre invariable d'intervalles; et n'ont pas, par conséquent, le même nombre d'appellations respectives. Il n'y a pas de distribution univoque du champ de la couleur, invariable à travers les âges et les cultures.

Autrement dit, les diverses langues ont découpé différemment le *champ sémantique* de la couleur. Justement l'originalité et l'arbitraire de cette structuration, variable suivant les langues et les époques, est une des preuves classiques apportées pour fonder la validité des théories fondamentales de F. de Saussure et de la Linguistique moderne qu'il fondée.

Si bien la capacité physiologique de perception des couleurs est la même pour tous les hommes, le découpage linguistique des couleurs est trés divers, et dépend des langues; et même dans une même langue des états successifs de cette langue: "La façon dont nous analysons le spectre ne correspond pas à une réalité physique universellement valable, mais à une tradition culturelle transmise par la langue que nous parlons depuis l'enfance". (Martinet, La Linguistique Synchronique, 6)

Comme nous allons essayer de montrer par ce travail, la langue basque a connu une structuration du champ sémantique de la couleur différente de celle du basque actuel; et différente aussi de celle qui est habituelle dans nos langues européennes modernes. On dirait que, comme R. Lafon l'a prouvé à un autre niveau en ètudiant l'évolution des formes verbales basques, en ce qui concerne la structuration des couleurs aussi, la langue basque s'est "romanisée" en abandonnant son découpage original (à une date qui semble, linguistiquement parlant, récente), et lá substitué par un autre adapté à ce que Whorf appelait "SAE" (Standard Average European, européen moyen disons).

Le phénomène n'aurait rien d'exceptionnel. On sait, par exemple, que la langue grècque a perdu, au début de son historie, sa structuration chromatique primitive, pour la remplacer, avec plusieurs termes nouveaux, par un autre découpage sémantique plus moderne.

Ces changements sont justement à la base d'une des critiques qu'on peut adresser au "lexique de base" de la méthode glottochronologique de N.Swadesh. On sait en effet que celui-lá contient, avec d'autres termes, trois couleurs "basiques" (vert, rouge et jaune), plus le noir et le blanc. Or ces appellations lá peuvent, à la limite, ne pas exister dans un étant de langue déterminé, mais apparaître dans le suivant.

Le basque serait une langue qui a changé récemment de structure sémantique sur le champ chromatique.

1- LES BASES PHYSIQUES DU CHROMATISME

On sait aujourd'hui que l'oeil humain ne peut percevoir qu'une seule

octave de l'immense ensemble des ondes électro-magnétiques.

Au dessus des longueurs d'onde $\lambda = 8.000$ Å (nous rappelons que 1 Å = 10^{-8} cm) ; cést-à-dire, en déça des couleurs rouges de basse fréquence, l' oeil humain ne perçoit plus rien: les gammes des rayons infrarouges, ondes radio, etc. nous échappent. Analoguement, au dessous des longueurs d'onde λ = 4.000 Å; autrement dit, au delà des fréquences des dernièresc couleurs perceptibles de ton violet, notre oeil ne peçoit rien non plus. La "fenétre" optique que nous pouvons utiliser sans appareils n'a qu'une octave; et dans ce sens lá la vue de l'homme est bien plus limitée que l'oufe.

La spectre visible a pour limites approximatives:

λ = 8.000 A (= $375 . 10^{12}$ Hz)

λ = 4.000 A (= $750 . 10^{12}$ Hz)

Rappelons que 1 Hz = 1 sec - 1

Or ce spectrum lá est *continu* : les couleurs s'y succèdent insensiblement, sans discontinuité, sans frontières nettes; et on est bien embarrassé si, devant ce spectre lá, on nous demande d'indiquer, par exemple, la longueur d'onde limite au delà la laquelle on passe du vart au bleu, ou du jaune au vert. En réalité on a une suite de jaunes de pus en plus verdâtres; et après on a une suite de verts qui deviennent bleus insensiblement; et ainsi de suite. On a donc un continuum chromatique, amorphe; sur lequel chaque langue introduit son propre découpage, arbitraire, ou ethnique dans un certain sens.

A ce découpage correspond, simultanément, une structuration sémantique sur le plan du *signifié*: le champ total du spectre divisé en *n* tronços; et une série de dénominations sur le plan du *signifiant:* les *n* qualificatifs correspondants.

Lorsque Maxwell fixa les trois tons fondamentaux, leurs longueurs d'ondes choises étaient:

rouge standart - 6300 Å
vert satandard - 5280 Å
bleu standard - 4570 Å

Mais ces longueurs d'onde, quoique "standard" pour des raisons physiques, n'ont rien d'indiscutable quant à leur coloration: et beaucoup trouve raient que le "rouge" de 6300 Å est "trop orange", tandis que le "bleu" de 4570 Å peut paraître "trop violacé".

On est très gêne pour limiter les zones chromatiques.

Dans les langues occidentales modernes (le "S.A.E." de Whorf), on pourrait admettre, sans trop de discussion nous semble-t-il, qu'un découpage approximatif et normatif du spectre est le suivant:

Tons			longueurs d'onde
rouge	8000 Å >	λ >	6400 A
orange	6400 Å >	λ >	6000 A
jaune	6000 Å >	λ >	5600 A
vert	5600 Å >	λ >	5100 A
bleu	5100 Å >	λ >	4400 A
violet	4400 Å >	λ >	3900 A

Voici le schéma (simplifié par suppression des continuités réelles du spectre) correspondant à ce découpage "normal":



La bande double du sodium (5893 Å), admise comme du "jaune typique", tombe bien entre les 5600 A et les 6000 Å proposés ci-dessus; la banda "rouge" caractéristique du litium (6708 Å) tombes bien en zone rouge (entre 6400 Å et 8000 Å); etc.

Dans cette hypothèse là on aura divisé la bande visible en SIX zones, de largeurs différentes, à l'*intérieur* dequelles on ignorera les variantes de

ton; exactement comme on ignore les varientes phonêtiques d'une même phonème. Et à ces six zones là correspondront les SIX appellations données à gauche.

Ce découpage en six franges est loin d'être admis partout. On distingue trés souvent, dans la bande du bleu ainsi délimitée, le bleu "turquoise" (côté de verts) du bleu "outremer" (côté des violets), ce qui porte à SEPT le nombre de franges et de dénominations; et, analoguement, d'autres estiment nécessaire de distinguer encore un vert "végétal" (côté de jaunes) du vert "émeraude" (côté des bleus); ce qui porte à HUIT le nombre de franges. Le peintres divisent le spectre en vingt et trente franges.

On oeut donc trouver dans les livres le spectre divisé en six, sep, huit, dix, ou *n* franges; dont les lageurs et les limites respectives ne coincideront pas entre elles ni avec celles proposées ici. L'arbitraire du découpage sémantique de la couleur est frappant.

Rien d'étonnant donc à ce que dés qu'on quite la culture moderne occidentale, la structuration chromatique soit très différente de la nôtre. Le Basque ancien est une illustration peut-être peu étudiée jusqu'ici.

2 - QUELQUES DECOUPAGES ARCHAIQUES

2.1 — L'exemple le pus connu de découpage chromatique incompatible avec nos habitudes linguistiques est celui du *grec.*

Nous connaissons tous le mot "chlorophylle", proposé par les chimistes français Pelletier et Caventou en 1817 pour désigner la substance *verte* des feuilles des plantes. Dans ce mot la racine grècque "chloros" a pris une valeur proche de notre appellation "vert".

Mais nous connaissons aussi le mot "chlorose", qui dessigne une "maladie des plantes provoquant la jaunissement des feuilles" (Larousse); et dans lequel la racine "chloros" a pris une valeur proche de notre terme "jaune".

Voilà donc une contradiction apparente: jaune ou vert?

En réalité le mot grec "chlôros" couvrait une frange du spectre qui comprenait aussi bien notre "jaune" que notre "vert" (une bande spectrale qui allait disons de 6000 Å 5100 Å). Le chlore est, en effet, un "gaz suffoquant à couleur jaune verdâtre".

Autrement dit, les grecs, tous en pouvant distinguer comme nous memês les couleurs correspondantes aux longueurs d'onde 5900A et 5600A, n'avaient pourtant pas de terme spécifique différent pour ces deux nuances (= 300 A tout de memê). Il ne faut pas trop s'en étonner: nous mêmes, si bien nous pouvons saisir des différences chromatiques, nous appelons "rouges" les bandes spectrales de 7700Aet 6700Å (malgré une différence importante de longueur d'onde = 1000A).

2.2 — Un autre cas bien connu est celui offert par les langues *celtiques* (Gallois et Breton, par exemple). Le phénomène est cité, entre autres, par A. Martinet (Linguistique Structurale, 6), par L. Hjemslev (Prolégomènes, 77) et par A.J. Greimas (Sémantique Structurale, 26).

Voici lr diagramme des grandes chromatiques couvertes, respectivement, par les termes fraçais et gallois:



Autrement dit, le mot gallois "glas" couvre notre zone "bleu" plus un bout du côté des "gris" et un autre bout du côté des "verts"; tandis que le mot 'llwyd" couvre la frange des "bruns" plus quelques "gris" foncés. Ce découpage sémantique est différent du nôtre.

2.3 — Ces deux classements des couleurs sont faits en prenant comme seule base d'opposition la fréquence (ou la longueur d'onde de la lumière correspondante.

Cependant dans certaines langues non-européennes on trouve des distributions des couleurs qui tiennent compte en même temps d'autres paramètres. Le cas des Hanunon est probablement le plus connu.

Txondar. Explanada donde se hace el carbón de leña.

Txondor. Carbonera y hoya en Orduña. (Simón Cortazar).

Chorrillo. Diputa Benedetto Croce de arbitraria desde todo punto de vista la filiación vasca que adjudica Julio Cejador y Frauca (y no Francia) a la voz Chorrillo y a los chorrilleros (pág. 243). Nos gusta este juicio exótico que confirma la mala opinión que la filología de Cejador nos merece.

Para ver cómo era el espíritu crítico del Padre Julio Cejador, viene bien a cuento un relato de Pérez de Ayala en el Ateneo LA PRENSA de Buenos Aires, en que nos dice que unos bromistas del Ateneo de Madrid le hicieron creer a pies juntillas que una mesa de espiritistas evocó el espíritu de su CATILINA.

Txuringa. Prolapso de recto. (Iñaki Linazasoro, La otra Guipúzcoa, (pág. 142).

Txuri. Ciruelo silvestre, Guereño en Sancho el Sabio, (1958, pág. 281).

Churriguera. Vendría del catalán Xuriguera. Francisco Armentia, Sancho el Sabio, 1968, (pág. 106). Para Jovellanos ***churiguer*** en mallorquín es cernícalo o pequeño azor (Bellver, pág. 25).

Churzabal. Alondra, Guereñu en Sancho el Sabio, (1958, pág. 270).

Chuchurri. Sancha, (pág. 251, Campión). Chuchurrío es tracoma en Almería.

Tzilla. Eje.

Ua.. Para ***cuna*** entra en la canción recogida por Humboldt, pero sin traducirlo.

Ugabere. Significa "cuadrúpedo o mamífero de río" y ahora nutria. Satrustegi trae... No es "bestia de agua" como dice Azkue, pues podía aplicarse ello a la ballena y la morsa. Vide Contribución VI.

Ukhan. Habrá sido antes como ***euki***?.

-Un. Erentxun, Zelatun, Urkudun, Urtasun, Erasun, Oyartzun.

Hunila. Honela?. Zuberoa.

Untza. Praderas en Guipúzcoa y Navarra. Lizar-untz, Azkar-untz, Azk-untze.
Uri. Casa, pueblo y comarca (Uri-be). Por olvidos en su paralelo, Villavicencio, (que es apellido y no pueblo) en Mendoza, los ingleses viajeros se llevaban un chasco por hallar una casa y no un pueblo.
Urte. Año. ***Rtu*** son las estaciones del año entre los hindúes según Huizinga, (Homo Ludens, pág. 82)
Urtu. Desmonte. Se usa la voz rozadura en Arocena (Guipúzcoa en la Historia, pág. 179). Rodung y Erschliessung en alemán.
Urruch-urtu. Debe ser roza de avellanos. Azkue trae ***urtegi*** para derribar.
Urtuki. Echar, Zuberoa.
Uruba. Hurón en Usurbil. (Ascensio Larrañaga). ***Uru***, garduna para Azkue.
Yun. Síncope de ***illun***, obscuro. En Leyun y Arbayun, arroyos en sus partes sombrías, como Aramayona y Az-illona.
Usa. Erribaso en Peru Abarka. ¿derivado de untza?. Usechi sería para unos pradera cerrada y para otros bosque cerrado, lo que alguna vez se da como el Barruti del valle San Pedro de Elgoibar que contiene un castañar.
Ustela. Llorona y sentimental, en Villabona.
Usun-ariz. Roble del prado o bien del remanso.
Chalavardano. El enigmático (sic) Chañavardano de L. Michelena tiene un pendant en el catalán Xalabarder.
Xautasun. Limpieza. (Haraneder, Philotea. pág. 333).
Xemei. De Vergara. Puede venir del latín ***semis*** = medio que se usaba en monedas, según Nack Wägner, (Roma, pág. 163). Vide Semei en mi Contribución II.
Xemen chirria. Campión.
Xismia. Probable diminutivo (?). Itxurrixismia, de Lacarra, en Vasconia Medieval (pág. 37).
Xorrota. Es fregadera. (Caro en "Tres Estudios", pág. 85).
Xuita. En Zuberoa...
Xuldar. Forúnculo en la piel. (Vergara). Azkue lo trae con ***s*** y con ***z***.
Zakilla. 1. Una rampa de la villa de Orio. (Linazasoro, pág. 169). 2.***Atera zak illa y atera zakilla***, retruécano picaresco en Zarauz.
Zaldari. García, Lacarra, 41.
Zapaburu. En Vergara. Renacuajo en castellano y en Mendoza gusarapo.
Zaparrastroso. Raido. Es castellano, pero se parece a Zaparreatu de

Azkue. Vide Zarpa en Corominas.

Zapi. Arbolito en Ataun, según Arín. Compárese **zabi.**

Zarrio. Pez zarbo. Guereñu en Sancho el Sabio, (1958, pág. 303).

Zezen-zuzko. Lo escriben ***todos*** menos Serapio Mugica que decía zezen-susko según Arocena, (Bol. Am. del País, 1963, pág. 387), quien le atribuye toda evidencia. Pero otros ponen ***su-zezena***, como ***su-arria***. Vide Contribución XII. Susko-zezena en Otxandiano el día de Santa Marina, según José Luis Lizundia.

Zinaitzea. Mijo según José Jimeno en Artajona, (Fontes, tomo III, pág. 382).

Zirikua. Carnero en Luzaide. Cuadernos de Etnología, (tomo II, pág. 168). Satrustegi. Será el morueco castrado.

Zirri. En el Iztueta de Elosegi (pág. 197) puede designar molestia.

Cizaya. Se dice en Burgos para el ***zeinzaina*** vizcaino según Velilla, (pág. 9 del Homenaje a Baraibar).

Zokomian dabill. Está revisando o curioseando rincones o armarios. De **mirar**?, Azkue trae ***zokomiran***.

Zotzak. Lo leo como los REBSTOCHE de Salzburg osea troncos de la viña.

Zuarri. Piedra del hogar (Murueta). Vide ***suarri*** en Azkue y ***Sukarri*** de Arana.

Zubill-aga. Podrá ser lugar de árboles en Oñate. Vide Astarloa. Azkue trae ***zubil*** como tronco. Zubileta es topónimo en Baracaldo.

Zulo. Hondonada. (Linazasoro. La otra Guipúzcoa, pág. 126). Para mi es más a menudo, arroyo en toponimia.

Zu-pide.Era un deslizadero por donde arrojaban los troncos de los árboles o rollizos cortados. Jovellanos describe dos de ellos en sus DIARIOS:uno en Santander y otro en Burgos.

Zuza. Concepto forestal en Abar-zuza, pariente de Abaroa o lugar de árboles.

Justo Garate

Gai laburrak

APOSTILLA A LA CARTA DE CITRA-TUMBA DEL DR. JUSTO GARATE A D. BONIFACIO DE ECHEGARAY

En el último número del boletín **Euskera** (1974,p. 105ss) se publicaba un artículo titulado "Carta de Citra-tumba a D. Bonifacio Echegaray", original del Dr. Justo Gárate.

Supuesto que D. Bonifacio no ha de contestar desde ultratumba para hacer los necesarios descargos en defensa propia, me ha parecido justo hacerlo por él, aunque no sea con la autoridad y competencia con que él lo hubiera hecho. Me mueve sobre todo el haber comprobado y como tocado con las manos la razón que asistía a D, Bonifacio cuando escribió el artículo al que ahora, al cabo de tantos años, contesta el Dr. Gárate.

Como posible antecesor o inspirador de la voz **Euzkadi**, el Dr. Gárate había citado la palabra **Euskarichoa** que se halla en unos versos de José Vicente de Echegaray, publicados en **Euskal-Erria** t.XVI (1887, primer

semestre) p.7-9. A esto contestaba D. Bonifacio: "Sospecho que este dato no es fruto de la observación personal de Gárate, sino que le fué facilitado por alguna persona que conoce poco el euskera o que se limitó lisa y llanamente a advertir la presencia de la indicada voz a la cabeza de dos de las estrofas de Echegaray, sin detenerse a examinar el contenido de estas. De otra suerte no se explica que se haya podido dar a "Euskarichoa" el valor que se le otorga por Gárate" (Riev XXV (1934),129).

En efecto, como lo indicaba D. Boni en el citado artículo, esta voz, en aquel lugar, no significaba otra cosa que "estribillo" y está tomada del Diccionario Trilingüe de Larramendi, donde viene con tal significado.

El Dr. Justo Gárate en su "Carta de Citra-tumba" ratifica haber sido él mismo quien halló la citada voz en la revista **Euskal-Erria** y dice haberla citado "porque es muy sabido que se deben aportar en filología todas las palabras de aparente raíz común".

No obstante, sabiendo la procedencia, formación, sentido y uso de esta voz, a mí me parece que harta razón asistía a D. Boni cuando dijo que no venía a cuento aducir esa cita en el presente pleito, ya que a todas luces se trata de una cosa totalmente distinta. **Euskari** o **euskarri** véase también Diccionario de D. Resurrección Mª de Azkue) viene de **eutsi**, y el mencionado **euskaricho** parece claramente obtenido para corresponder al castellano "estribillo", o sea, "estribillo pequeño", "cosa que sirve para agarrar, para sostenerse".

También es cierto que la voz **Euzkadia** (sic.) figura en una de las poesias de Eusebio Mª de Azkue, que se guardan en el archivo del convento de los PP. Franciscanos de Zarauz. De ellos dió cuenta B. de G. (Basilio de Guerra, franciscano) en **Euskal Esnalea** 1917, p. 225. Teniendo en cuenta la fácil alternancia entre **d** y **r** intervocálicas y la confusión entre **z** y **s**, común en los autores vizcaínos de la época, no parece nada probable que en Eusebio Mª de Azkue esta voz sea una mera variante de **Euskaria**, palabra que gozaba de cierta boga literaria en la época. Por otra parte, ahí está esa **a** final, que delata harto a las claras que aquí se trata en efecto de una variante de **Euskaria.**

No ocurre lo mismo con la voz **Euzkadi**, de Sabino Arana, supuesto que sabemos que en este caso él quiso forjar un vocablo nuevo sobre fundamentos nuevos: **euzko**, cuya **o** en composición se cambia en **a, di,** sufijo que se encuentra en toponimia.

Como voz realmente nueva, y por juzgarla defectuosamente formada, la voz **Euzkadi** fué cuestionada e impugnada por Arturo Campión y otros (Véase Riev I (1907), 148ss).

En nuestro siglo se han conocido los llamados en el país **euskerazko frakak** (el término figura en el Vocabulario Vasco de Aránzazu-Oñate, de C. Izaguirre). Es claro que aquí la voz **euskera** procede de **eutsi** = sostener, y que en la mente de los vasco-hablantes nada tiene que ver con la voz **euskera** = lengua vasca, aunque coincida totalmente con ella. Pudiera ser que en el último término ambas procedan de la misma raíz. Francisco Javier Quintana opina, en efecto, que en el origen de la voz **euskara** = lengua vasca está presente el precitado **eutsi**. Pero de todos modos, y aunque así fuera, las voces están tan diferenciadas que hoy son totalmente otra cosa, como pasa con el **Euskarichoa** de J.V. de Echegaray; y esto era lo que a mi modo de ver con toda razón quiso señalar D. Bonifacio Echegaray.

En suma, D. Boni en su artículo de 1934 se había limitado a descartar que el **Euskarichoa** de J.V. de Echegaray y el **Euzkadia** de Eusebio Mª de Azkue pudieran ser tomados como antecesores o inspiradores de la voz **Euzkadi** de Sabino Arana. Esta posición parece históricamente irrebatible.

D. Etxenagusia

974 - 1974

LEHEN EUSKAL-HITZAK...

Lehen euskal-hitzak
idatzi dituen
euskaldun bihotzak
zer goi-sua zuken!

Latin eta latin
dena San Agustin...
Jainkoz baitzen hazi
sua zaio jauzi.

"Jainkoaren Hitza,
gaur euskaraz mintza!"

Beneditar bat zen
Errioxakoa.
Zuk, zer zuen izen,
dakizu, Jainkoa.

Aurten mila urte,
zagon nolaz ote
nolaz Jaun-Goikora
euskaldun-mintzaira.

"Jainkoaren Hitza,
gaur euskaraz mintza!

. . .

Behar baitu lurrak
loren eder hura,
Errioxatarrak,
ikasi euskara.

Aspaldi bezala
loratu dadila,
Logroño aldean,
bihotz ezpainetan.

"Jainkoaren Hitza,
gaur euskaraz mintza!"

Iratzeder, Belokeko Aita Abadea.
1974 / 6 / 23
(AIREA: Izan niz Barkotxen...)

SAN MILLAN-GO EGUNEAN EUSKALTZAIN BURUAREN AGURRA

Jaun-Andreak:

Egun on digula denoi Jainkoak!

Euskaltzaindiak, bere batzarre arruntez gainera, bestelakoak ere egin ohi ditu. Ez maizegi, baina noizean behin antolatzen ditu bilera agiri eta ospetsuak ere. Euskaltzain berrien sarreretan, gorazarre, oroitzapen eta halako ospe batez inguraturik egotea komeni den uneetan egiten dira horrelako bilera agiriak.

Eta hain zuzen, hunelakoxea dugu gaurko hau. Hunelako oroitzapen batek ekarri eta biltzen gaitu gaur Errioxako monasterio zahar- famatu hunetan.

Euskerazko esaldirik zaharrenak, guk ezagutzen ditugun euskal esaldirik zaharrenak, hementxe, monasterio hunetako esku izkribu batean idatzi bait ziren. Eta esaldi hoik idatzi zirela mila urte betetzen dira orain, gutti gora behera.

Izen edo hitz soiletan bada zaharragorik, noski, baina esaldietan, euskerazko esaldi edo fraseetan, hemengoak dira zaharrenak.

Bidezkoa zen, bada, oroigarri gisa Euskaltzaindiak ospaketa hau hemen egitea.

Eta ez dira esaldi hoik bakarrik. Arabako herri izenen zerrendarik zaharrena, XI.mendekoa, monasterio huni eskerrak ezagutzen dugu. Baita ere badakigu (Merino Urrutia jaunaren ikertzei eskerrak), Errioxako Ojakastron XIII.mendean euskeraz egiten zela. Errioxan euskal aztarna eta arrasto asko eta asko dela aitortzen digute aho batez azterketa hoietan ibilitako guztiek. Hori denori kontuan izanik, bidezkoa zen (esango dut berriro), oroigarrizko ospaketa hau Euskaltzaindik hemen egitea.

Gainera, Alfonso Irigoien euskaltzain jaunak, euskaltzain oso bati dagokion sarrera-hitzaldia gaur hemen egingo digu, eta hain zuzen, San Millan-go euskal testu zaharrak eta beste euskal arrastoak hartuko ditu hitzaldi-gai bezala.

Jose Juan Bautista Merino Urrutia jauna, euskaltzain laguntzailea, Errioxako semea eta Errioxako euskal aztarnen bilatzaile azkarra, maiatzeko gure batzarrean euskaltzain ohorezkoa izendatua izan zen, eta jaun huni ere hartako diploma ospakizun hunetan emango zaio.

Milagarren urtea ospatu ahal izatea, ez da egunero gertatzen den gauza. Hori dela eta, harrizko oroigarri bat jartzea egoki zela pentsatu da. Harri hori ere gaur estreinako aldiz ospaketa hunetan agertuko da.

Baina horra!, guk asmatu eta pentsatu ez bezalako oroigarria, guztiz ustegabea eta txalogarria ekarri digu Latxaga apaizak: liburuska lirain eta apain bat euskeraz San Millan-i buruz. Zorionak eta eskerrak eman nahi dizkiot bertatik egileari. **Errioxako San Millan, euskal iturri.** Hemen dute eta dugu euskaltzaleok berri franko eta zer-nahi argitasun San Millan-i buruz.

A fines del año pasado, al confeccionar el calendario de sesiones de nuestra Academia para este año, se acordó celebrar aquí en este mes de Junio una sesión pública en conmemoración del milenario de las primeras glosas en lengua vasca.

Si este acuerdo se ha convertido en esta bella realidad que hoy vemos, ello ha sido posible gracias a la entusiasta colaboración y apoyo que en todo momento ha encontrado la Academia, tanto de parte del Instituto de Estudios Riojanos como de la venerable Comunidad de este monasterio, de la Excma. Diputación de Logroño, del Excmo. Sr. Gobernador de la misma provincia y del público en general, tanto riojano como vasco, que ha acogido con calor y simpatía la idea de esta celebración.

Que en el texto de un sermón atribuído a San Agustín pero que debe de ser de San Cesáreo de Arlés, copiado allá por los años del 900 en este monasterio, se pusieran dos glosas interlineares en lengua vasca (las más antiguas frases que conocemos en este idioma), quiere decir algo, sin duda, sobre la vasquía de estas tierras en aquellas kalendas.

En el mismo sermón, junto a esas glosas vascas, hay otras glosas romances, razón por la cual la Real Academia Española juzgó también oportuno celebrar en este lugar la conmemoración del milenario de las primeras frases escritas en español. No deja de ser significativo que en el mismo lugar y en el mismo documento se hallen las primeras glosas en ambos idiomas.

Sabemos también, gracias a las investigaciones del Sr. Merino Urrutia, que mucho más tarde, en el siglo XIII, se hablaba vascuence en el valle de Ojacastro, y que aún hasta hoy han llegado múltiples vestigios y pruebas fehacientes que evidencian la realidad de este sedimento eúskaro en la Rioja.

Por todo ello, Euskaltzaindia, Academia de la Lengua Vasca, en colaboración con el Instittuto de Estudios Riojanos, ha querido celebrar en San Millán esta fiesta o conmemoración milenaria.

Yo, como franciscano, tampoco puedo olvidar que en los últimos años del reinado de Isabel II hubo aquí una comunidad de franciscanos de Cantabria, y que el P. José Antonio de Uriarte, que tradujo toda la Biblia al vascuence, allá por el otoño de 1866 pasó un mes en este monasterio, como él mismo lo refiere en una carta suya al Príncipe vascófilo Luis Luciano Bonaparte.

***

Coincidiendo con la conmemoración milenaria y con el fin de realzarla, se ha querido que tuviera lugar hoy aquí el discurso de recepción en la Academia del acádemico numerario Sr. D. Alfonso Irigoyen, discurso que versará sobre las glosas vascas y demás documentos de San Millán relacionados con el vascuence.

El Sr. Don José Juan Bautista Merino Urrutia, benemérito investigador de las huellas vascas de la Rioja, nos honrará e ilustrará también con su calificada palabra acerca de este tema en que él es máxima autoridad. El Sr. Merino Urrutia, que ya desde hace años es académico correspondiente de Euskaltzaindia, en sesión acádemica celebrada en San Sebastián el 24 de Mayo último fue nombrado académico honorario. En fe de lo cual en este acto se le hará entrega del correspondiente diploma acreditativo.

Por fin se descubrirá la lápida que en recuerdo de la efemérides ha querido colocar la Academia de La Lengua Vasca a una con el Instituto de Estudios Riojanos.

Sólo me resta reiterar las gracias a los altos organismos antes citados y a todos los que con su calor, adhesión, colaboración y presencia han contribuido a que nuestro deseo se plasmara en esta bella realidad.
Eskerrik asko!

13-6-1974
Fr. Luis Villasante - Presidente

URDAZUBIKO BATZAR EGUNEAN EUSKALTZAINBURU JAUNAREN AGURRA

Jaun-andreak, agur!

Oker ez banaiz, lehen aldikotz biltzen da egun Euskaltzaindia Urdazubin, Axular handiari ohore eman nahiz. Itxuren arabera monasterio zahar hunetan egin zituen Axular-ek bere lehen ikasketak. Egungo gorazarre hunek ihaz Nafarroako Diputazioan egin zitzaionaren segida izan nahi du, eta Euskaltzaindiak antolatua izan da, Nafarroako Diputazioa eta Príncipe de Viana elkartea lagun dituela.

Batzarrearen muina hauxe izango da: Juan San Martin Euskaltzaindiko idazkariak bere sarrera-hitzaldia egin eta Jean Haritschelhar euskaltzainburu ordeak erantzungo dio. Ondoren, Vicente Galbete jaunak *Fontes Linguae Vasconum*-en zenbaki bereziaren aurkezpena egingo du. Zenbaki hau dena Axular-i eskeinia da.

Axular, Urdazubiko semea, izan da euskal literaturan mailarik gorena eta osperik handiena irabazi duen liburuaren egilea. Unibersidade mailako istudioak Salamancan egin eta bere liburua —*Gero*— Saran idatzi bazuen ere, sustraiak, ordea, hemen zituen. Bere nafar izaitea Axular-ek ez du sekula ukatuko, nahiz eta izaite horrek buruko minik aski emango dion.

Gaur, bada, Euskaltzaindiak Nafarroa eta Nafarroako atea den Urdazubi agurtzen ditu.

Euskara lantzen hain bikainki jokatu zen Urdazubiko semea ohoratzen du.

Baina Axular-i egin dakiokeen omenaldirik ederrena, eman diezaiokegun sari-ordainik hoberena, badakigu zein den: nafarren hizkuntza zaharra atxikitzea, iraun erazitzea, euskara azkarki bizi dadin egitea. Badakigu, bai Diputazioa eta bai Príncipe de Viana-k duen euskararen aldeko saila ere, lan horretan gogoz ari direla. Euskaltzaindiak oso estimu handitan du korporazio hoiek euskararen alde egiten duten guztia, eta obra hori bere aldetik bultzatu eta aintzinatzea nahi luke.

Arestian esan dudanez, gure idazkari San Martin-ek gaur du sarrera-hitzaldia. Gaia ere halakoxea hautatu du, guztiz ernagarria: "Literatura landuaren sorrerako giroa, Axular-en garaira arte". Izan ere, euskal literaturaren sortze inguruan edo sorrerari buruz bada oraindik argitu gabeko misteriorik. Nahiz eta izenak, urte-mugak eta abar jakin, badira hori dena baino sakonagoak diren gauzak: hots, azpian dabilen barne izerdia eta barne indarra, garaiko ideiak, giroa, gizona ibil arazitzen duten sentimenduak eta kezkak. Hoiek dira azkenean gertakariei sortzea eman ohi dietenak, edo sortze hori gerta dadin baitezpadako baldinkizunak. Hoiek gabe ez bait da deus sortzen. Eta alde huntatik barnatu eta aztertu gabe ditugu oraino gure literaturaren hastapenak.

Ipar Euskal Herrian gertatu zen euskal literaturaren sortzea. Hegoaldean, berriz, aro hortan bertan elkortasun eta basamortu gorria ageri zaigu. Zergatik alde hori batetik bestera? Zer nolako giroa piztu zen iparraldean, literatura hunen sortzea posible egin zuena? Hori da San Martin jaunak bere hitzaldian aztertu eta argitu nahi diguna. Eta era berean Haritschelhar jaunak ere ihardespenean ukituko duena.

Hauxen da egia: XVI. mendean Nafarroako 6. merindadean euskara lantzeko kezka pizten da, eta XVII.ean aldameneko Lapurdin kezka hunek

erraberritze eta bir-loratze bat ezagutzen du. Bir-loratze hau, neurri handi batean, Urdazubiko semeari zor zaio. Bitartean, bi mende hauetan eta oraino XVIII.aren azken aldera arte, Hego Euskalerrian ez dira literatura landua egitera lotuko.

Gauzak zergatik gertatu ziren hala gure artean, hori da gaurko gure hizlariek argitu nahi luketen kondaira-galdea.

Azken bolara hunetan halako jelosi edo espa puntta bat agertzen dute gure sartaldeko euskaltzale batzuek. Iruditzen zaiote, alegia, euskara batuaren langintza hunetan Euskaltzaindia sobera dela iparralderuntz beha. Eskualde hunekin maitemindurik balego bezala. Nik ez dakit. Baina euskal literaturak kondairan barna ekarri duen joairak bere pisua du, nahi eta nahi ez.

Eta gero bada besterik ere. Egia esango badut, azken hilabete hauetan Julio Caro Baroja-k ateraberri duen liburua irakurriz *(Los Vascos y la historia a través de Garibay)* ohartua natzaion gauza da.

XVI. eta hurrengo mendeetan sartaldeko gure hiru probintziek hareman eta lokarri sendo-ugariak izan zituzten Gaztelako erreinuarekin. Gaztelania bera ere Euskalerriko mugetan sortua da, eta oso goiz gurean sartua. Esan ditudan mende hoietan, bada, euskaldunek halako kasta berezia osatzen dute eta zeregin hautatu batzuetarako hartuak izaten dira. Elizgizon asko ere bai, baina iskribauak eta sekretariak batez ere emango dituzte sartaldeko gure hiru probintziek. Ezaguna da Quijote-n ageri den ateraldia (2ª parte, cap. 47). Sanchok galdetzen duenean :"¿Quién es aquí mi secretario?", norbaitek erantzuten du: "Yo, señor, porque sé leer y escribir, y soy vizcaíno". Eta Sanchok erantzuten du: Iratxetura horrekin baita Enperadore beraren sekretari ere izan zaitezke zu... Eta hala izan zirela euskaldun asko, badakigu.

Garibaik berezkuntza bat egiten du: harentzat ez dira berdin letrak eta luma (luma edo lumazkiko gauzak: ikus Caro Baroja, o.cit.,p.273). Lumatik bizi zirenak, sekretari, iskribau eta hoiek ziren, eta, hain zuzen, zeregin hauetan enplegatzen ziren euskaldunak Gaztelan. Garibai berbera, bere obra Anberesen inprimarazi, eta egindako gastuak ordaintzeko zorretan gelditu zenean, bere herritik atera beharrean gertatu zen, baina bazekien nunahi euskaldunak aurkituko zituela: Toledon, Madrilen, Sevillan, Cadizen.. , eta horien bidez bere liburua zabaltzeko modua izango zuela. Emigrazio handia zegoen, bada, Gaztelera, Andaluziara, Indietara. Eta

euskaldun hoietarik asko gero sorterrira bihurtzen ziren, eta halako burgesia burokratiko bat egiten zuten.

Hunekin esan nahi dudana da probintzia hauek (gure sartaldekoek) har-eman handiak izan dituztela Gaztelarekin, eta gaztelaniaren eragina eta kutsua ere agian barrurago sartu dela han, har-eman hoien ondorioz.

Ipar Euskal Herrian, aldiz, ez da berdin gertatu. Hemen frantsesa urruneko hizkuntza zen, Parisekoa, ia inork ezagutzen ez zuena. Frantzian ez dute eskaldunek halako paper handirik jokatu. Iparreko euskaldunak bere txokoan sartuago egon dira. Arrazoi horregatik mintzoa ere kanpoko kutsaduratik garbiago eta jatorrago atxiki dute agian. Euskarak, alegia, bere jatorrizko izaitean hobekiago iraun ahal izan du hemen.

Euskaldunak mendez-mende elkarren berri jakin gabe, bereziak eta elgarretaratu gabe bizi izan direlako, euskara-motak bata besteakin konparatzeko ere ez dute aukera handirik izan oraintsura arte. Eta hori egin denean, hobekiago ikusi da hau: zenbait berezitasun eta euskal nortasunaren zati, alegia, hobekiago gorde direla iparrean: adibidez, mugagabe deitzen den deklinazioa. Halako gordairu bat bezala izan du euskarak Ipar aldean; bere dohainak atxikitzeko toki hautatu bat. Hesparru berezi bat bezala izan da Ipar Euskal Herria euskara bere basa itxuran eta jatorrizko bere sotiltasunean gordetzeko. Arrazoi guzti hoiengatik esplikatzen da, nik uste, Ipar eta Eguzki aldeko Euskal Herriak duen erakarpena.

Nolanahi ere, eta beste euskalkietako ekarria ezertan gutietsi gabe, bai bere literatura goiztiarragatik, bai bertako idazleek erdietsi duten mailagatik, eta bai gure mintzaira bere jatortasunean gordetzeko halako berezi edo barrutia izan delako ere, Ipar-Eki-aldeak badu bere tira, deia edo arrakasta, guztiontzat izango den euskara hori bilatzen ari garen une huntan. Eta erakarpen-indar horri neurri batean kasu egitea, bidezkoa eta arrazoizkoa dela esango nuke, gainera.

1974-9-14

EUSKALTZAINDIAK ETA HERRI-ADISKIDEEK ELKARREKIN EGINDAKO BATZARREAN EUSKALTZAINBURUAREN AGURRA

Jaun-Andreak:

"Real Sociedad Bascongada de Amigos del Pais"-ko lagunek gomitaturik, Azkoitira dator gaur Euskaltzaindia, eta lagunarte biak anaitasunik ederrenean biltzen dira hemen Insaustiko jauregian.

Zer du zer-ikusi batak bestearekin?, galde lezake baten batek. Bi lagun-talde hoiek ez ote dabiltza sail banatan? Bien asmoak eta xedeak ez ote dira arras bestelakoak eta desberdinak?

Bai, nahi baduzue. Halarik ere, badute zer-ikusirik eta antzik aski elkarrekin.

Eta lehenbizikorik, bai bata eta bai bestea ere, Euskal Herri honen fruitu jatorra direla esan behar da. Biak Euskal Herri honetan sortuak eta herriaren onerako sortuak.

Real Sociedad de Amigos del Pais delakoa adinez zaharra da. Berrehun urte eta gehiago bete ditu.

Beroni buruz zer ez da esan eta idatzi? Izan ditu maxiatzaileak, izan ditu laudatzaileak. Beronen alde eta kontra izan ditu idazle, kondairagile eta abar. Laguntalde ospetsua da, beraz. Eta eztabaidatua denaz geroz, horrek berak esan nahi du hildo bat edo arrasto nabari bat utzi duela gure kondairan.

Izan ere, Euskal Herrian jakintza eta kulturaren alde izan den asmorik eta obrarik handiena, Azkoitiko zalduntxo haiei zor zaie.

Zalduntxo haiek aitonen seme ziren, handikiak. Horregatik ere, beren nobleziagatik, alegia, maxiatuak eta gaitzetsiak izan dira. Baina noble haiek erregeren gortera joan beharrean, hemen gelditu, eta herriaren alde eta herriaren onerako zerbait egitera jarri ziren. Izena ere halakoxea hartu zuten: "Herriaren Adiskideak" jarri zioten izena bere elkargoari, eta halaxe ziren benetan.

Euskal Herria jakin bidean eta kultura bidean sar arazitzea: hori zen haien asmoa. Hori nahi zuten. Eta beren amets hoiek praktikara eramatea, neurri handi batean behintzat, lortu zuten.

Euskeraren alde edo euskerakin kezkatzen zirenen alde egin zutena ere ez da guti. Eta hasteko, Munibe jaun bera ere euskal idazlea dugu. Hor dago "Borracho Burlado" teatro-lana, hor dago Sor Luisa de la Misericordia-ren izenaz irten zen liburuska. Liburuska honek badu misteriorik aski gure jakin-nahia kilikatzeko. Eta gero hor dago Azpitarte elgoibartarrak egindako euskal hiztegia.

Eta hori guti balitz, euskal baratzean zerbait egin nahiz zebiltzanen laguntzaileak izan ziren jaun haiek. Kultura gauzetarako hain motz izan den herri honetan Mezenas batzuk egotea oso beharrezkoa zen. Ubillos euskal idazle frantziskotarrak, Juan Antonio Mogelek eta Vicenta Mogelek behintzat, Munibetarren laguntza izan zuten (CF. Boletín de Amigos del País, 1962, 325).

Zalduntxoen eraginak Euskal Herriaren onerako eman zuen fruiturik ederrena, Bergarako Seminarioa izan zen. Zientzien aurrerapena bultzatzen eta Euskal Herriko gaztedia hezitzen hainbeste lan egindako etxea.

Baina hau ere esan behar da: XVIII. mendeko obra honek ez zuen ekarri espero zitekeen bezain beste on. Zoritxarrez, politika gora-beherak, ge-

rrek eta nahasmenduek lan hura okertu eta hondatu zuten.

Hor gelditu da, ordea, gure kondairaren erdian landaturik, guretzat ispilu eta eredu bezala, mugarri antzo, pizgarri, oroigarri, ernetasun eta erakarpen-indarrez beterikako dei bultzagarri bezala.

Euskaltzaindiak euskera bultzatzea eta lantzea du bere asmo eta xede nagusitzat. Eta hain zuzen horretarako ere, euskeraren aldeko borroka honetan buru-belarri sarturik garenontzat ere, zer-ikasirik asko dago Herriaren Adiskide haien ispiluan.

Joan deneko egunetan, Lizardiren orri batzuk irakurtzean, hitz sarkor hauekin topo egin nuen: "...aspaldiko mendeek barrena geiegi bazkatu baititugu geren gogoak aberkoi-usaiezko gezurrez" (Itz-Lauz, 52).

Euskaltzaleek maiz esan izan dituzten gezur hoietako batzuk aipatzen ditu Lizardik: euskeraz ezin esan daitekeela ezer gaiztorik, kristautasuna eta euskera elkar bildurik dabiltzala ia gauza bera balira bezala. Edo batek sinesmena galdu badu, hori erderaz ikasi duelako izan dela, eta abar.

Gezur biribilak, dio Lizardik. Eta gezurra beti da galzori. Gezurrarekin liluraturik egon eta bizi gaitezke, baina azkenean egia errukigaitzak zapalduko gaitu.

Egia hau da (dio Lizardi berak): euskera ez da oker-bide, jakin-bide egin ez dugulako; ez dugu egin jakinbide zuzen eta ez ere makur. Eta lantzen ez dugun bitartean, ez da jakintza iturri, ilunpea da.

Erabil dezagun beti euskera Jainkoaren, egiaren eta egiazko jakintzaren mirabe; eta inork okerrerako erabiltzea gerta baledi, horrek ez luke esan nahiko euskera berez gaiztoa denik. Eta horrelakorik gertatuko den beldurrez euskera landu gabe uztea, zozokeria handia alde batetik, eta bestetik euskerari berari tiroa ematea izango litzateke.

Hizkuntzak, Jainkoak emandako beste ahalmen eta aribide guztiak bezala, gauza onak dira berez. Oker ditzakeela eta makur-bide bihur gure gaiztoak? Hori ere bai.

Huneraino, Lizardiren pentsakera zuzen argia.

Gure literaturaren kondairari begiratu bat ematen badiogu, laster ohartuko gara gauza batez: gure mintzoa lantzen gailurtu direnak Unibertsitate eta Ikastetxe nagusietatik pasatutako gizonak zirela: Garibay, Juan Jose Moguel eta Iturriaga, Oinatiko Unibersitatean estudioak eginak ziren. Axu-

lar, Salamancakoan. Larramendi ere Salamancako Unibersitatean irakasle izana. Oihenart eta Etxepare Kanboko midikua, Bordelekoan estudioak eginak. Lizardi ere Madrilekoan. Juan Antonio Mogel, Calatayudko Jesuiten kolejioan (CF. B.A.P. 1962, 325). Ziburuko Etxeberrik, bera den guztia Jesuitei zor diela aitortzen du Noelak 176 (seguru asko Pabeko kolejioan ikasia zen). Gazteluzar ere Pabeko kolejioko irakasle izana. Eta hemen Azkoitian midiku egon zen Sarako Etxeberri ere karrera on bat egina zela haren idazlanetatik ezagun da. Urquijok Deustuan eta Salamancan estudiatu zuen, Aranak Barcelonan, eta abar.

Aizkibel azkoitiar ospetsuak damuz bezala aipatzen du Euskal Herrian liburu eta holakoetarako dagoen zabarkeria. Euskaldunak, alegia, zabarrak eta nagiak zirela kultur arazo hoietan aitortzen du. Bera saiatu zen ordura arte euskeraz ateratako liburuak biltzen eta hoien berriak ematen. Euskal Bibliografiaren lehen oinarriak ipini zituen. Hark ere hizkuntza lantzea eta jakin bide bihurtzea nahi zuen.

Begi ernea izan zuen hontan Esteban de Garibay kondairagile mondragoitarrak. Nafarroako erreinuaren kondaira egitean, hoben hau egozten die hango erregeei: Unibersitate bat edo Ikastetxe nagusi bat ez egina (Cf. J. CARO BAROJA, **Los vascos y la historia a través de Garibay**, p. 246). Bai. Horrelako zentruen faltaz, gure hizkuntzari buruzko estudioak eta hizkuntzaren lantzea bera ere atzerapen handiaz etorri eta egin da. Egia da Oinatin izan genduela Unibertsitate bat, berandu sortua eta maila apalekoa. Baina, oro har, nagi eta zabarrak izan gara euskaldunak alor honetan, kultur lanari zor zaion garrantzia ez diogu eman, eta zabarkeria horren ondorioak guk eta euskera berak jasan ditu. Lehen aipatutako Etxeberrik, hemen Azkoitian midiku egon zenak, obra batzuek idatzi zituen euskaldunak euskeraraz eskolatzen laguntza. Obra hoiek argitaratzeko eskatu zien euskaldun agintariei, eta hoiek ukatu; beste hainbeste edo antzera gertatu zitzaion Bidegaray frantziskotarrari. Baina zertarako gogoratu historia triste hauek?

Hain zuzen horrexegaitik goragarriago eta aipagarriagoa agertzen zaigu Azkoitiko Zalduntxoen asmo eta obra hura.

Euskaltzaindiak ere euskera lantzea nahi du, jakin bide bihurtzea nahi du, eta bere ahal tipi-apurrean, hortarako egiten diren lanak bultzatu eta gidatu nahi ditu. Eta nahi hori ez da funtsgabeko asmo txoro bat. Aitzitik, euskeraren bizitzea sendotu nahiak berak hartaratzen gaitu. Euskera landu,

jakin bide eta jakin iturri bihurtu. Horra asmo bat eta amets bat, Azkoitiko Zalduntxoen asmo eta ametsekin bat datorrena.

Horra bada zergatik bi elkarteok anaitasunik ederrenean biltzen garen gaur hemen, Azkoitian.

Azkoitian 1974-12-27



Batzar txostenak

JOSE KRUZ ETXEBERRIA IDAZLEAREN OROIGARRIZ 1773 - 1973

Ihazko urtean bete dira berrehun urte Aita Jose Kruz Etxeberria frantziskotarra eta euskal idazlea jaio zela. Urtemuga hau haren oroitzapenezko lantxo honekin gogoratu nahi nuke.

Izan ere, euskerazko bost liburu utzi zigun. Hoietatik lau, itzulpenak edo besterenak dira; besteak orijinala dirudi, neurri batean behintzat.

Hauk dira bost liburuok:

1.- **Devociozco vicitzaraco sarrera** (San Frantzisko Salesena); Tolosan. Don Francisco de la Lama-ren etxean, 1821. urtean.
2.- **Cristau Doctrina Euscaraz.** Tolosa, 1822.
3.- **Ongui bicitzezo ta ongui iltzeco laguntza.** Tolosa, 1824.
4.- **Jesusen imitacioco edo berari jarraitcen eracusten duen libruba.** Tolosa, 1829. (Hau da Kempis famatua).
5.- **Misioco ta Misio ondoreco cantac.** Tolosa, 1845 (1).

(1) Hoietaz gainera aipatu behar dira bertso batzuk: "Amar mandamentuac ta ayec cumplitceco consejuak". Argitara ditu Nikolas Alzola anaiak BAP aldizkarian 1970, 431-446.

Beraz, bi liburu ospetsu, San Frantzisko Saleskoaren Filotea eta Aita Kempis-en Kristoren Imitazioa, berak eman zituen lehenbiziko aldiz euskeraz mugaz alde hontako Euskal Herrian. Mugaz handikoan biak zeuden aspaldidanik euskeratuak.

Bizi-xehetasunak

Aita Jose Kruz Etxebarria oiartzuarra zen. XIX, mende-hasieran, Zarauzko komentuko kronika zahar argitaragabeak dioenez, komentu hartara etorri zen, segur-aski, gure Ordenako beste komenturen batetik, han egiten zen herri-mixiolari bizimoldea egin nahiz.

Izan ere, garai hartan Zarauzko gure etxea Mixiolari Apostolikoen Kolejioa zen. Kolejio horiek bazituzten arautegi bereziak. Haien bizimoldea ere berezia zen, beste komentuetakoa ez bezalakoa. Herri-mixioak ematera lotzen ziren. Beren ibilaldi guztiak, harat-hunatak, oinez egiten zituzten, dirurik ez zuten hartzen. Eta neguan bideak ez bait dira ibiltzeko on, udako partean ematen zituzten mixioak. Neguko partea etxe-barruko bizitzea egiteko izaten zen, guztiz otoitzera, estudiora eta penintentziara emana (2).

Nafarroako Herriberri-n (Olite-n) ere bazen beste Mixiolari-etxe bat. Eta hain zuzen, handik irten zen geroago Aita Areso. Ipar-Euskal Herritik hasita, San Frantziskoren Ordena Frantzian berpiztuko zuena (3).

Zarauzko etxeak ere herri-mixiolari handiak eman zituen. Denetan famatuena, Aita Palazios, oinatiarra. (4)

Herri-mixioak Euskal Herrian emango baziren, euskeraz trebe izatea nahi ta nahiezkoa zen. Horregatik edo, kolejio hau euskaltzale eta idazle saiatuen eskola izatera heldu zen. Etxe hontako semeak dira, behintzat, Ai-

(2) PARRONDO (DOMINGO), *Historia de los Colegios-Seminarios de Misiones de la Regular Observancia de N.S.P.S.Francisco, existentes en esta Península de España. Madrid, 1818.*

(3) SAGÜES (PIO), *El P. Areso OFM, Misionero y restaurador (1797 - 1878).* Madrid, 1960.

(4) VILLASANTE (LUIS), *"El Padre Palacios (1727-1804). Estampa de un gran Misionero en nuestro siglo XVIII", Scriptorium Victoriense* aldizkarian, 8 (1961), 7-101.

ta Añibarro, Aita Juan Mateo Zabala eta gure Jose Kruz Etxeberria. Lehenbiziko biak bizkaitarrak, eta beste gipuzkoarra, baina nafar euskalkiak Gipuzkoan sarrera egiten duen muturrekoa.

Aita Larramendik bere **Corografía** aipamen oso laudoriotsua egiten du Zarauzko Mixiolariei buruz, euskal predikariak ziren aldetik. Honela dio: *"Ya es tiempo de hacer la excepción que tengo ofrecida. No se puede dudar que de pocos años a esta parte se predica en vascuence menos mal que antes, y que hay predicadores que en sermones morales predican absolutamente bien y con limpieza, y con gusto y fruto de los oyentes. Así por lo común los misioneros en sus sermones, y con especialidad los franciscanos misioneros de Zarauz, que a su mucha virtud y observancia, y al celo de las almas, han añadido el cuidado y trabajo de predicar un vascuence claro, inteligible, limpio y bien ordenado, según el carácter y sintaxis de la lengua, y desmienten con su práctica las quejas mal fundadas de los vascongados holgazanes" (1).*

Larramendik hitz hauk idatzi zituenean, Aita Jose Kruz Etxebarri ez zen oraindik Zarauzko Kolejioan, baina etxe honek ordurako irabazia zuen euskaltzale-fama ikusteko, ondo dator testu hau. (2)

Gainerakoan, Aita Etxeberriaren egunetan nahasmendu gaitzak ezagutu zituen gure Euskal Herriak. Egia esateko, ez Euskal Herriak bakarrik. Gure herriarekin batean, Espainia guztiak, eta bai Europa guztiak ere. Napoleonek bere anaia Jose jarri zuen Espainiako erregetzat. Baina herria errege horren kontra eta frantsesen kontra jaiki zen. Zarauzko kronika horrek dioenez, frantses harmadak eskatu zion behin gure Aita Jose Kruz Etxeberriari bere predikuan egin zezala Jose Bonaparteren alde: exortu bat egin zezala, alegia, herriak hari obeditu ziezaion. Baina hark ez zuen nahi izan. Kronikak honela dio: *"este digno Reliogioso se mantuvo fiel en la tentación, prefiriendo las prisiones a tan vil libertad, y queriendo más*

(1) LARRAMENDI, *Coreografía de Guipúzcoa*, p. 259 (ed. 1882).

(2) Zarauzko mixiolariek beren obra guztien aitzinean, harma-harri bezala, honako erasia hau jartzen zuten. Erderaz: Viva Jesús. Eta euskeraz (orduko ortografiaz): Vici bedi Jesus. - Beraz, San Frantzisko Salesen liburu famatu hau XVII mendean itzuli zen Lapurdiko euskerara, XIX.ean Gipuzkoakora eta XX.ean Bizkaikora.

ser conducido de San Sebastián a Vitoria, y de a quí al interior de Francia, en donde le tuvieron con otros muchos Religiosos y Clérigos celosos, hasta que acabada la perversa gente de Napoleón Bonaparte, vino a Francia su rey legítimo, y a España el suyo".

Baina Independentziako gerra bukatuagatik, gauzak ez ziren berehala konpondu. Eztabaidak eta burrukak piztu ziren Espainian bertan: Konstituzio-zaleak alde batetik, eta errege-zaleak edo absolutismoaren aldekoak bestetik.

1820an Konstituzio-zaleak aginteaz jabetzen dira. Erregeak, ordukotz, onartu zuen Konstituzioa, gogotik eta bolondreski, haren hitzei sinestu behar badiegu; baina hori ez zen egia, gero ikusi zenez. Konstituzio-zaleak agintzen egon ziren denboran (hiru urtez) ez zen bake onik izan. Benetazko gerra-giroa sortu zen gure euskal probintzietan. Eta neurri handi batean apaizak izan ziren gerra horren eragileak. Ez eragileak bakarrik, gerrariak ere bai askotan. Apaiz haiek Konstituzioaren kontra, eta errege eta aboslutismoaren alde zeuden. Horietako batzuk harrapatuak eta justiziatuak ere izan ziren Pío Montoya-k eginberri du liburu bat, euskal kleruak urte haietako burruketan izan zuen parteaz (1).

Euskal-probintzietan hiriburuak, Bilbo eta Donostia behintzat, Konstituzio-zale azaldu ziren. Baina probintzi-barruan erregetiarrak izan ohi ziren nagusi.

Esan behar da, gainera, Konstituzio-zaleak ere etengabe ibili zirela Elizako gauzetan sartzen, erlijiosoen kontra legeak ematen, etab. Castañón teniente koronela Arantzazura etorri eta su eman zion komentuari, Gobernuaren kontrako jendearen gordelekua zela aitzakia hartuta. Inguruko jendeak aguro itzali zuen sua, eta ordukotz hortan gelditu ziren gauzak.

1823an Frantziako erregek ehun mila soldaduren harmada bialtzen du Espainiako erregea Konstituzio-zaleen eskuetarik libratzera. Soldaduok ez zuten kontrarik aurkitu, euskaldun batzuengandik izan ezik (Jauregi jenerala, etab.). Errazki egin zuten beren egitekoa.

(1) MONTOYA (PIO), *La intervención del clero vasco en las contiendas civiles* 1820-1823. San Sebastián. 1971.

Zarauzko kronikak badakar oraindik beste gertakari bat Aita Etxeberriari gertatua. 1828an Aita Etxeberria eta Aita Obieta Donostiara joan ziren mixioak ematera. Donostiako Ayuntamentuak gaizki hartu zuen berari abisurik ez emana, eta mixiolariok, mixioa eman gabe, hiritik bota zituen. Baina gero, Erregek gertatua jakin zuenean, multa bota zion Ayuntamentuari, alkateari kargua kendu eta lehengo mixiolari berberak mixio hura ematera joan zitezela agindu zuen.

Geroagoko gertaerak, berriz, guztiok dakizkigu. Fernando VII.a hiltzean, gerra pizten da liberal eta karlisten artean. Espainiako Gobernuak erlijiosoak kentzen ditu eta beroien etxe eta lurretaz jabetzen da. Gobernua diru-beharrean zegoen, nonbait, eta ondasun hoiek salgai jarri zituen. Nork erosi behar zituen? Lehendik ere dirua zeukatenak, eta era hortara, aberatsak aberatsago bihurtzeko izan zen desamortizazio hura.

Zarauzko kronika horrek dioenez, Aita Jose Kruz Etxeberriak herrimixio asko eman zituen. Noiz eta zein lekutan eman zituen ere jartzen du. Nik ikusi dudanez, Gipuzkoan eta Nafarroan ematen zituen. Segur-aski euskalkiagatik hautatuko zuen barruti hori.

Exklaustrazio-legea etorri zenean, Aita Etxeberriak komentua eta fraide-bizitzea utzi beharra izandu zuen. Bere azkeneko urteetan Urnieta-n egon zen, eta hemen hil zen 1853. urtean. (1).

II

Filotea-ren euskal itzulpenak, eta bereziki Etxeberria-rena

Aita Etxeberriak itzulitako liburu batez mintzatuko naiz: San Frantzisko Saleskoaren Filotea-z, alegia.

Aita Etxeberriaren euskal itzulpen honek 8 edizio, guttienez, izan ditu. Beraz, arrakasta eta harrera ona izan duela gure herrian ezin uka daiteke.

Nik ezagutzen dudan azkeneko edizioa 1901ean egin zen, Tolosa-n,

(1) Azpeitian 1838. urtean mixio bat eman zuela ere badakigu. Ikus Akesolok "Aranzazu" aldizkarian argitaratutako lana, 1974eko apirilean.

Mugerza-ren etxean. Portadan esaten denez, apaiz batek egin dizkio zuzenketa batzuk. Apezpikutegiko baimena Gasteizen emana dago 1884. urtean, eta Felix Murgiondo apaizari, Azpeitian dagoenari, zuzendua. Izan ere, 1901ean egin zen edizioak, 1885ean egindakoaren baimen berberaz aterea dirudi.

Felix Murgiondo apaiz hau ez zait guztiz ezezaguna. Urrexolako Hauzoan, Oinati-n, egona zen erretore. Hauzo txatxar eta pobretxo bat da Urrexola. Gipuzkoako parrokiarik pobreena eta ezdeusena dela ere inoiz entzun izan dut. Gaur, beste hauzo-parroki askotan bezala, han ez dago apaizik, baina Oinatiko agustino bat joaten da igandeetan meza ematera. Felix Murgiondo honek, bada, liburuxka bat utzi zuen erderaz **Ritual Urrejolano** izenaz, ondoko urteetan Urrexolara etorriko ziren apaizentzat gidari edo erakusle izan zedin: hauzoko ohiturak, elizkizunak, etab. jartzen ditu. Orain bi urte Gasteizko Seminarioko **Scriptorium Victoriense** aldizkarian argitara eman nuen (1)

Apaiz hau 1878. urtean Urrexolatik Azpeitiko Hospitaleko kapeilau izatera joan zen. Itxuren arabera, honek prestatu zituen **Deboziozko Bi zitzaren** azken edizioak, orrazketa eta eraskin batzuekin. 1901ekoan honako hau esaten da, gainera: *"Es propiedad de la Orden de San Francisco".*

San Frantzisko Saleskoaren liburu hau, Filotea, XVII. mendean izan zen lehen aldikotz euskeratua. Silvain Pouvreau dugu euskeratzaile hori. Parisen inprimatu zen itzulpen hau 1664. urtean (2).

Hurrengo mendean, 1749an, obra honen beste itzulpen bat egiten da. Haraneder dugu oraingoaren egilea. Frantziako Tolosan inprimatu zen (3)

Biak, bai Pouvreau-rena eta bai Haraneder-ena, Lapurdiko euskaraz daude. Haraneder-ek, dirudienez, ezagutzen zuen Pouvreau-ren lana. Behintzat, **Gudu Izpirituala**-ren aitzinsolasean (hau da Pouvreau-ren beste itzulpen bat, gero Haraneder-ek berriro euskeratua) honela mintzo da:

(1) VILLASANTE, *"Ritual Urrejolano", Scriptorium Victoriense* aldizkarian, 1972, 216.

(2) VINSON (JULIEN), *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque,* nº 28.

(3) VINSON, *Essai...*, nº 77.

"Egia da, bada, Diozesa huntako Jaun Apezpiku zen batekin Pariseko partetarik Bayonarat etorri izan zen Jaun Apez batek, Euskaldunei zerbitzu errendatu nahiz, Eskara ahal zakien bezala ikasirik, liburu hau eta bertze zenbait ere Eskararat itzuli izan zituela, eta Parisen inprima arazi. Ordean Eskara gaitz batean itzulirik direnaz landan, hekien exenplario guti herri huntarat etorri izanez edo bertzela, gutiak dire orai liburu hek dituztenak, eta ainitzak izan nahi luketenak" (1).

Eraskin zorrotza jartzen die Vinson-ek Haraneder-en hitz hauei. Egungo egunean ere usaian omen daude euskal idazleen artean horrelako mintzatze moldeak. Astoputz eta Martin-harro batzuk omen dira euskal idazleak (*avec cette prétention, empreinte de cuistrerie,* dio berak). Ez dakit nik zer esango zukeen Vinson-ek egungo zenbait euskal aldizkaritan datozen mintzatze moldeak irakurri ahal izango balitu.

Hurrengo mendean Aita Frai Jose Kruz Etxeberriak euskeratzen du hirugarren aldiz Filotea. Oraingo hau, Gipuzkoako euskerara egiten da.

Oraindikan gure mendean eta gure egunetan Iraeta-tar Frantzisko apaiza hasi zen berriro liburu hau euskeratzen, eta lehen laurdena argitaratu zuen: **Jaungoiko-zale izateko bidea. I Laurdena. Sales-ko Frantzisko Santuak erakutsia, 1956.** Hemen, Donostian, agertua. Itzulpen honen egilea ezagutzen dut. Urteoro etortzen da Arantzazura uda-garaian eta ibilera galantak egiten ditu hango mendietan. Galdetu nion behin ea zergaitik ez zuen bere lana burutu. Ordurako giroa arras aldatzen hasia zela, edo horrelako zerbait, erantzun zidan.

Aita Pio Etxeberria karmeldarrak (gure egunetan honek ere), egin du oraino liburu honen beste itzulpen bat (2)

III

Aita Zabalaren kritika, eta Aita Etxeberriak bere buruaz egindako deskargua

Baina gatozan berriz ere Jose Kruz Etxebarriaren lanera. Liburu hauk guztiz inpersonalak izan ohi dira. Esan nahi dut: euskeratzailearen ideiak, kezkak, etab. ezagutzeko, ez dizkigutela zirrikiturik uzten.

(1) Cf. VINSON, *Essai...*, nº 29 (Pg. 118). Ortografia modernizatu dugu.

(2) Ikus ONAINDIA, *Euskal Literatura II, 259.*

Inoiz izatekotan, hitzaurrean usna daiteke zertxobait. Liburu honek lau orrialdetxo dauzka hitzaurre gisa, eta bai, han badakar gauza jakingarririk gure kontuko. Berak badaki zenbaitek kritika txarra egin liezaiokeela liburuari hizkuntza aldetik, eta erantzun ematera aitzindu bezala egin da. Hara zer dioen: *"Libru onetan curiosoac falta asko topatuco dituzte, ta aguirienac eusqueraren gañian izango dira. Topatuco dute bear bada Provinciaco eusquerarequin batian Nafarroacoa, Vizcayacoa ta Arabacoa, cergatic guztietatic nabillela, ta beti corrica, escribitu det. Baña erreparoric andiena erderaz nastutaco itzacgatic eguingo dute. Baña zuc, cristau maitia, ez dezazula onelaco aurqueriaz casoric eguin. Ez dezu libru onetan doctriña gaiztoric topatuco; animarentzat ogui gustosoa ta probetxugarria izango dezu, ta aurrentzat eguiten den opilla, polita ta gaintzutua ez egonagatic, ez dezazula iracurri gabe utci. Eusquera garbi garbian guzia ipiñi izan banizun, etcenduan guztia entendituco, ta ala ez nuen deseo nuena logratuco. Utci bada aurqueriari: Eta beguiratu sustanciari"* (1)

Hemen dugu, nik uste, Aita Etxeberriak egiten duen bere buruaren deskargua. Liburuari bi erreparo topatuko dizkiotela badaki: lehenbizikoa, euskalkiaren batasuna edo legeak ez gordetzea; bigarrena, eta hau da nabarmenena, eta handiena: erdal hitz asko sartzen dituela. Lehen erreparoari erantzun hau ematen dio: Zarauzko Mixiolariak lau euskal probintzietan zehar ibili ohi direla, beti batetik bestera korrika, eta lana ere halaxe egin behar izan duela. Ez dela, beraz, harritzekoa, toki bateko eta besteko euskal formak nahastu baditu. Eta hona bigarren erreparoari ematen dion erantzuna: Euskera garbiz egiten saiatu balitz, irakurleak ez zuela liburua hain ongi entendituko. Gainera, garbi eta eder-kontu hoiek, Etxeberriaren ustez, haurkeriak dira. irakurleari eskatzen dio, ez dezala haurkeriez kasurik egin.

Garai hartan ere, dirudienez, ohitura zen bazko egunez aitabitxi-amabitxiek beren besoetako haurrei opil politak eta gantzutuak ematea. Euskera txukun, polit eta garbian idazten arduratzea ere horrelako zerbait iruditzen zitzaion berari. Baina haurren kontuak haurrentzat. Eta bera ez da haurrekin ari. Ogi mamitsua eman nahi du, dotorerietan ibili gabe. Gainera, ulerterraza egin nahi du bere liburua, eta guztia euskera garbiz egin balu, irakurlearen beraren kaltetan izango litzateke.

(1) *Devociozco vicitzaraco sarrera. "Iracurtzailliari advertencia labur bat provechuaz iracurri dezan"*, 6. orrialdea.-1821eko edizioa.

Oker ez banaiz, hemen azaltzen da garbi Aita Etxeberriaren pentsakera.

Bazekian hark "haurkeria" hoiezaz kasu egiten zutenak bazirela. Nola ez jakin, hain hurbil bazeuden, Zarauzko bere etxean berean?

Eta berak beldur zuen kritika hori etorri zitzaion, bai.

Aita Juan Mateo de Zabala, euskaltzale bilbotarra, Zarauzko Kolejioko fraidea zen. Baita komentuko nagusi ere izandu zen. Aita honek, bada, badu idaztitxo bat: **"Noticia de las obras vascongadas que han salido a la luz después de las que cuenta el Padre Larramendi"** (2) Aita Larramendi izandu zen euskal bibliografo lehena. Eta Aita Zabala jo dezakegu bigarrena bezala. Aita Zabala-ren lan hau Bonaparte Prinzipeak argitaratu zuen 1856. urtean, baina ordurako hilak ziren, bai Aita Zabala eta bai Jose Kruz Etxeberria ere. Katalogu honetan obrak numeratuak daude, eta bakoitzari buruz bere iritzia ematen du egileak. Liburu batzuk, ordea, bat ere kritikarik gabe datoz, eta isilik uzte horren arrazoia emanez, ohar hau jarri du berberak: *"Nota. Como varios autores de las siguientes obras aún viven, me abstengo de dar censura a sus obras, si no la merecen buena. Tales son las de los números 31, 32, 33, 34 y 46".*

Orain, bada, 31, 32, 33 Aita Jose Kruz Etxeberriaren liburuak dituzue: **Deboziozko Bizitza..., Ongi bizitzeko ta ongi iltzeko laguntza..., Kristau dotrina euskaraz.** Aita Jose Kruz Etxeberriaren beste libururik ez dator katalogu honetan, segur-aski Aita Zabalak katalogua osatu zuenean argitaragabe zeudelako. Adinaz denaz bezan batean, Etxeberria Zabala baino lau urtez zaharragoa zen.

Beraz, isilik utziaz eta nota hori jarriaz, garbi ematen du aditzera Aita Zabalak zer-nolako epaia merezi zuten Aita Etxeberriaren euskal lanek: ez ona.

Beste liburu bat, horrela isilik utzi duena: Iztuetaren **Gipuzkoako Dantza**...Eta bestea, beste frantziskano batena: Aita Astarloaren **Urteko domeka** ...Baina, haatik, Astarloaren liburuaz zerbait esaten du. Hara zer: *"Su vas-*

(2) VINSON, *Essai...*, nº 282.

cuence es bastante bueno, pero con las multiplicadas voces castellanas que a pretexto de claridad añade sin mucha necesidad a las bascongadas con la disyuntiva ***edo****, corta la fluidez del estilo y hace ingrata su lectura".*

Badakigu, bada, segurantza osoz Aita Zabalak Etxeberriaren liburu hauetaz zeukan iritzi-epaia ez zela ona. Haren iritzian euskera aldetik txarrak zirela, alegia, liburuok. Epai txar horren arrazoiak ez dizkigu berak eman, baina ene ustez ez dira asmatzen zailak. Aita Etxeberriak ere ezagutzen zituen aldez aurretik arrazoi hoiek, Zarautzen bizi zenez gero, eta epailariok etxe-barruan zeuzkanez gero. Ikusi dugu hitzaurrean bi erreparo aipatu dizkigula: bata ttipiagoa, bestea handiagoa. Ttipiago hori: Gipuzkoako euskalkiaren lege bereziak behar bezain ongi ez gordetzea, beste euskalkietako formekin nahastea. Eta handiagoa: *"erderaz nastutako hitzak"* erabiltzea.

Eta zinez, badakigu Aita Zabala bilbotarra oso zehatza zela bi gauza hoitan. Bai euskalkien lege bereziak eta nortasuna errespetatzen, eta bai, ahal dela, gauzak euskarazko hitz garbiz esatean ere. Aita Añibarro ere Zabalaren iritzi berekoa da, baina Zabalak oraindik hestuago hartzen dituela gauzak dirudi.

Bada argitaragabeko liburu bat, gaur Irungo Pasionistetan gordetzen dena: sermoiak dira, bizkaieraz; egile-izenik ez da ageri, baina Aita Zabalaren esku izkribuak ondo ezagutzen ditut, eta ene ustez, liburu hori harena dela ez da dudarik. Hona hemen, liburua esku-artean euki nuen egunetan egin nuen apuntea: *"Libro de sermones en vasco vizcaino, sin título, ni portada, ni firma. Al fin de bastantes sermones hay fecha: 1822, 1825, 1833, etc. Son sermones de misiones. Por el estudio de la caligrafía se puede deducir que son del P. Juan Mateo de Zavala. El libro pertenece actualmente a los PP. Pasionistas de Irún. Un sacerdote de Lemona lo dió a un Pasionista. Aita Basilio me lo dejó para verlo una temporada. No tiene paginación. Copio un trozo con su ortografía original:* ***¡ Ceinbat onelango promes gaisto San Antonio Urkiolaraco, Aranzazuraco, Santa Eufemia Aillesticoraco, San Joan Gastelugacheraco, Santo Cristo Lezocoraco, eta basterretaraco, gazteac eguiten dituezan eta ascoren arimeen galtzaigarriraco! Gurasoac, contuz: ez ichi seme-alabai promesen achakiagaz alango lecuetatic ibilten. Eztira promes onac: eta eztauke indarric: eta eukita berè ceuen escuan daucazue indarguetea, ta era-***

goztea, bapere pecatu bagaric; ta pecatu bagaric ez-ece, baita yaungoicoaren aurrean ondo dan, ta bear dan gauza bat eguiten dozuela".

Sermoi hauek, besterik ez bada, **Fontes**-en edo **Euskera**-n agertzea merezi lukete, Bizkaiko euskera sustraitik ezagutzen duen batenak bait dira.

***

Ikusi dugu aita Etxeberriak kezka eta ardura hoietaz zer pentsatzen zuen. Bere burua zuritu zuen aldez aurretik errepuesta emanez.

Euskalkiaz denaz bezan batean, Etxeberriak gipuzkoar arrunta erabiltzen duela iruditzen zait, nafar kutsu handirik gabe, nahiz eta bera oiartzuarra izan. Aita Mendiburu ere oiartzuarra zen, eta gainera Iruinean bizi izandakoa; eta honi, bai, nafar kutsua askoz gehiago somatzen zaio. Euskal hitz garbi-jatorrak erabiltzeko kezka ere ezagun da Mendiburugan. Beste oiartzuar honengan, ez.

Azken galdera bat: Ezagutzen ote zituen Etxeberriak Ipar Euskal Herrian egin ziren Filotearen euskal itzulpenak? Erabili ote zituen berea egiten laguntzeko? Ezetz esango nuke. Baina erantzuna pisuz emateko azterpen zehatzago bat egin beharko litzateke.

Bukatzeko, **Deboziozko Bizitzaren** eta **Ongi Bizitzeko eta Hiltzeko Laguntzaren** hitzaurreak eta hor-hemen hautatutako zatitxo bat edo beste irakurriko dizkitzuet.

A. Luis Villasante, OFM
25-1-1974

OTS-IZENEZ OHARMEN ZONBAIT

Euskaldunak dio oilarrak kantatzen duela : *kukuruku,*
Kastillanoak : *kokoriko,*
Anglesak : *kokeduldedu*

Otsatik hitza moldatzeko eihera edo errota, ez ote da beraz berdina gizon guzitan?.

Segur, gizon guziak, berdintsuak gira aho-beharriz. Bainan otsen beharritik-ahoratzeko eihera dugu desberdina. Zonbat mintzaira eta hainbertze eihera berezi.

Sakonki mintzo dira beraz antropologoak, diotelarik mintzaira dela gizonaren zati bat, eta mintzaira galaraztaleak direla, gizon zauritzale batzu.

Horiek hola, ikert dezagun nolakoak diren gure jokaerak, ots-izenen moldatzeko, bai letraren, bai musikaren eta bai ere mogimenduaren aldetik.

Mogimendua dela-ta

Hitz beraz, batzuetan, euskarak, aditzerat ematen du, ez bakarrik otsa, bainan ere, otsa nola eginaren mogimendua. Adibidez:

Hilibili-halabala
Hilimili-klik,
Zirruntz-zarruntz (Hau da sega xorroxtekoa).

Musika dela-ta

— Batzuetan, ots-izenek ez dute adiarazten kanpoko otsik, beren barneko hitzen otsa baizik. Adibidez:

Kiskun-kaskun,
Erran-merran,
Tantiruri-elgar iduri.

— Badira ere bere barnean sortu otsak, gizonak kanporat aurtikitzen dituenak. Adibidez:

Jaufi-jaufa,
Ai-ai-ai
Eheup.

Musika eta letra direla-ta

Bokalak

Bokalak dira bortz: A - E - I - O - U.

— **O**, gutixago aurkitzen da eta, ez da usuenik, **U** ren aldakuntza bat baizik. Adibidez:

Bilbili-bonbolo,
Kilin-kolon (kilin-kulun),
Tontolon (tuntulun).

— **E**, arras guti aurkitzen da. Iduri luke holako otsik gure beharriak ez duela entzuten. Huna ots-izen horietarik zonbait:

Mee,
Herrest-terrest,
Lale-lilelo.

— **U** letraren doinua da gure beharrientzat halako doinu pisu, larri, itsusi bat. Adibidez:

Tun-tun,
Tzur-tzur,
Zurrunga,
Uhuria,
Purrut.

— **I** Batzuetan **I** (**J** edo **Y** bezala ahozkatua) adiarazten da hitz baten aurrean, hitz haren hastapena delarik **A, E, O** edo ***U***. Adibidez:

Jaufi,
Jeupa,
Jupa.

— **I**, musikaren aldetik, da geienetan gora doinukoa. Bi zatitako ots-izenetan, **I** aurkitzen da usuenik lehen zatian... Bigarren zatian, **I** ordaindua da bertze bokala batez eta bertze hori ahozkatzen da, zonbait nota **I** baino apalagotik. Adibidez:

Hi-ha
Zirri-zarra,
Dilin-dalan,
Kirrin-kurrun.

Konzonanteak

— **B, P, M,** dira ezpainez ahozkatzen diren letrak... Batzuetan, batek bertzea ordaint dezake... Geienetan, hitz horietarik bat hastapentzat duten ots-izenek, ezpain-otsak dituzten adiarazten. Adibidez:

Mu-u,
Bar-bar,
Mar-mar,
Pinpi-panpa,
Binbi-banba,
Mau-mau,

— **D, T** dira hortzez ahozkatzen diren letrak. Hautarik bat dute maizenik hastapentzat ezkila, joare, zintzarri, atabal eta holako tresna untzidun askoren ots-izenek. Adibidez:

Dilin-dalan,
Tilin-tilin,
Tun-tun,
Tan-tan.

— **T** dute hastapentzat, "kurrika" edo "lasterka" adiarazteko ots-izenek. Adibidez:

Tiki-taka,
Tunka-tunka,
Tarrapatan,
Tipustapas,
Triketin-triketin.

— **K, G** dira bi letra gogor, zintzurretik ahozkatzen direnak. Batzuetan, bat ala bertzea berdin erabil ditazke. Berezko-gogordura, oraino gogorrago azaltzen da, ondotik **R** bat edo bi dituztelarik. Geienetan, letra horiez moldatu ots-izenak dira bortitzak, ba otsez eta ba erranaren mamiaz. Adibidez:

Karrasi,
Garrasi,
Krisk,
Krask,
Kosk,
Krusk,
Klisk.

— **L** da mingainaz ahozkatzen den letra. Letra hunen bidez, usuenik hiru gauza ditugu azaltzen: alegeratasuna, elasturia, bustidura.

Alegeratasuna. Adibidez:

Trilili-tralala,
Lalelilelo,
Yup-lala.

Elasturia. Adibidez:

Tal-tal,
Kalaka,
Ele-ta-ele,
Sala-solas,
Tertuli.

Bustidura. Adibidez:

Plisti-plasta,
Pilin-pulunp,
Bal-bal,
Glu-glu.

— **L (R)**... Askotan, **L** ordaintzen dugu, bere antzako otsa duen **R** letraz. Adibidez:

Tiruliluli (Tiluriruri),
Lalara (Lalala),
Lalerilero (Lalelilelo).

— **N** da ahogainez ahozkatzen den hitza. Izen-ots batek izan dezake ots mugatua edo mugarik gabekoa. **N** erabiltzen dugu, ots-izenen bukaeran, azaldu nahi dugularik otsa dela mugarik gabekoa. Adibidez:

Ti-tau,
Tiu-tiu,
Zirri-zarra, ots mugatuak dira.

Bainan mugarik gabekoak dira:

Tilin-talan,
Triketin-triketin,
Turruntuntun.

— **RR**... Gure ots-izenetan, geienik erabiltzen direnak ditugu bi **R**-kilako zintzur-ots garratzak. Horien bidez, adiarazten ditugu:

Atzaparkada: *Zarrapo,* *Zarrazta,* *Lardaskatu*

Bortizkeria: *Borroka,* *Aharra,* *Zakarra,* *Herra,* *Ozarra,*

Gogordura:	*Onborra,*	*Harroka,*
	Hezurra,	*Egurra.*
Karradura:	*Tirrit,*	*Kirrin-karran,*
	Tarrat,	*Karkara,*
	Purrut,	*Karrusk,*
	Zirri-zarra.	
Lerradura:	*Lerra,*	*Herrestan,*
	Zirriztan.	
Ixurdura:	*Zurruta,*	*Xirripa,*
	Parrasta.	
Marmaria:	*Mur-mur,*	*Kurrinka,*
	Marraka.	
Orots-kia:	*Oilarra,*	*Senarra,*
	Akerra,	*Ahatzarra.*

Saila hau segur luza dikate. Badugu aski azaldurik erakusteko Euskaldunak zertarako duen ohitzen bi **R** horien karranka samina.

— **S** letrak badu, euskaraz, bere-berezko otsa. Ots-izen guti dira **S**-kin moldatuak. Horrekilako ots-izenek azaltzen dute soinu xixtukari orots bat. Adibidez:

Sist-sast,
Sintsa,
Tsun-tsun,
Nahas-mahas.

— **Z, F, H.** Hiru letra hauk ditugu aizekariak. Bainan bakotxak du bere auspoa... **H**-ren auspoa da birika, **Z**-ena da ahoa, **F**-ena ezpaina. Adibidez:

Ihihi-ahaha,	*Zinpi-zanpa,*
Aharrosi,	*fiu-fiu,*
Zintz,	*Furrust.*

— **F** askotan bilakatzen da **P** edo **Z**. Adibidez:

Zifli-zafla (Zipli-zapla,)
Fu zikin (Pu zikin),
Fiu-fiu (Ziu-ziu),
Furrust (Purrust).

— **Tz**. Bere gorputzean **T** eta **Z** elgarturik dituen ots-izenak, gure beharrientzat du musika zakar, lapartsu bat. Adibidez:

Zitzi-mitzi,
Patza-patza,
Kutzu-kutzu.

Nolagintza berezi batzu

Bokalen arteko loturak

Gure beharrientzat, ongi heldu diren bokala lotuak dira:

A, Ai, Au,	bainan ez :	Aa, Ae, Ao;
E, Ei, Eu,	bainan ez :	Ee, Ea, Eo;
I, Ia, Ie,	bainan ez :	Ii;
O. Oa, Oi,	baianan ez :	Oo, Oe, Ou;
U, Ua, Ue, Ui,	bainan ez :	Uu, Uo.

Usuenik **H** batez lotzen ditugun bokala ditugu ezin-uztartuak. Adibidez: *Aho, Eho, Ihi, Ohe, Uholde.*

Ots-izen aldakorrak

Ots-izen batzueri letra bat alda ditake, nahi bada izen hura musikaz lehundu eta haren izana ttipitu. Alda ditazken letrak dira sei konzonante: **D, L, N, S, T, Z.**

Aldaketa hori egiten dugu **D, T, L** doblatuz; **N** tildatuz; **S, Z**-ren orde, **X** idatziz. Adibidez:

Andere, anddere,	*Nano, ñañô,*	*Tipi, ttipi,*
Sagu, xagu,	*Lolo, llollo,*	*Beltz, beltx.*

Ondar-solas

Gaur, asko euskal ots-izen aldatzen ari dira... Alabainan, ingurumena aldatu delakotz, gaurko otsak ez dira lehengoak... Bertzalde, erdarak itotzen ari gaituelakotz, gure belarriak, mingainak bezala, ari zauzkigu erdaldun bilakatzen.

Gai huntan, hitz berrien sorkuntzan bezala, gure jokabideak izan ditela: gure-gureak ditugunak, galtzerat ez utzi; berriak sortu, ahalaz zaharretarik, edo erdarazkoak euskal antzan jarriz.

Zokotik, 1974, Otsaila.
P. Larzabal

HIRU ERROMANTZE ETA GORAZARRE BAT (1)

"Romances euskéricos de Aránzazu" izenburua duen kuaderno handi bat dago Arantzazuko artxibuan. Koaderno hau 1922-z gerokoa da. Aita Lizarralde istoriagileak Arantzazuri buruz agertzen ziren ahoz-ahoko kantuak biltzeko aukeratua. Koaderno honek 32zm ditu luzeran eta 21 zabaleran. 200 orri ditu, baina 2-tik 18-ra eta 85-tik 115-era hutsik. Hutsune hoiek betetzeko aina gai badu ordea, karpeta gisa, gain-azalaren eta barruko lehen orriaren artean. Erromantzeak ez ezik drama zatiak eta bertso berriak ere baditu.

Kuaderno hau ez da ezezaguna. Salbatore Mitxelenak erabili zuen ez bakarrik bere **"Arantzazu euskal-poema"** idazteko iturri bezala, baizik hornitzeko ere bai. Aita Ignazio Omaetxebarriak ere erabili izan du **"Sobre el poema viejo de Arrate"** lana idazteko (2) behinepein. Kuadernu hon-

(1) **Euskara** (de euscaro) f. Composición poética escrita en vascuence, pero con la forma y el metro del romanze castellano. (Diccionario enciclopédico. U.T.E.H.A. Tomo IV).

(2) EIBAR aldizkaria. 1963. urtea, 61. alea, 7 orrialdean. Juan San Martinen mesedea.

taz ba omen du lanen bat ere "in mente" behintzat. Antonio Zabala josulagunak ere ezagutzen du eta **"Arantzazu"** hilerokoan hiru erromantzeri buruz hiru lan argitaratu ere egin zituen (3).

Aita Villasanteren txosten eskabideari nolabait erantzuteko koaderno hontara jo dut eta hiru erromantze eta gorazarre bat aukeratu, batzarraren maila altxatzeko ez bada, batzarrea arintzeko izanen da behinepehin.

I Bergelok aidez aide

Noizkoa ote? (4). Ez dakit nork bildu zuen ere. Poematxo hau zoragarria aurkitzen dut. Laminen garai haura-eta gogoratu arazten dizkit, baina lamina ederren lekuan eta haien ordez, Ama Birjina ederragoa jartzen eta ematen digu. Bergela, poematxo honen barreneko oharrak dionez, hosto berdez egindako abanikoa bide da. Dena den zerbait ari da aidez aide, jendearen azala loxingatzen duen ipartxo gozotan. Landa **min** ederretan zehar erreka jostaria. **Min** landaren izenlagun bezala?. Indar handikoa da; bizitasun bizkorrekoa ere bai. Eta han, bizitzaren gora beharrezko gordintasun eder hartan eta erreka ertzean, eta hain zuzen, lamina pertxetak ongi maite zuten paraje hartan, Ama Birjina Ama Andrea, buruko ilea baino urrezko adatsa orrazketan. Ze ile ondoak perla parez bakoitza! Zentzuei mintzo zaie: Landa min ederrak, erreka, buruko ile urrezkoa, ile-ondo bakoitzaren edertasuna goza arazteraino, ilea lotzeko zinta falta zaiola ohar arazteraino, hitza zuzentzeraino, zinta eskaintzeraino: *"Birjiña Ama Andrea beutso ule zintzia, kania lareun dukat Madrillen kostia".* Eta landa min ederrez dihoan erreka ondoan lagatzen gaitu Birjiña Amandrea izpirituz ez ezik gorputzez ere maitaarazten digula lareun dukat kostatako zinta emoteak atseginez betetzen gaituala, hosto berdez egindako abanikoak-edo aidez aide ari diren artean. Hara:

(3) ARANZAZU hilerokoa, 1969. urtea 106, 129, 161. orrialdetan.

(4) Trobadoreak erabili oi zuten aidetako musika du, akorde galduz eta gogoetagarriz, aspalditasun kantariaren oihartzun gozoa dariola.

Bergelok (1) aidez aide
Ipartxo dultzia
Bergelok aidez aide
Ipartxo dultzia.

Landa min ederretan
Doyen erekia (sic) (2)
Antxen billatu neban
Birjiña Ama Andria.

Orrazketan zeguan
Buruko illia
Etzan ura illia
Ezpazan urria.

Ille ondo bakoitzeko
Bai perla paria
Illia lotutzeko
Falta dau zintia.

Birjiña Ama Andria
Beutso (sic) ule zintia
Kania lareun dukat
Madrillen kostia.

Bergelok aidez aide
Ipartxo dultzia
Bergelok aidez aide
Ipartxo dultzia (3)



(1) Bergela = abanico hecho de hojas verdes.
(2) r gandorrik gabe ageri da; Gainetikoak r gandordunez idatzita daude.
(3) Zatarain dar Ambrosio jaunari zor diot honoko ohar har: Kantu honen antzekoa Azkueren CANCIONERO VASCOn 882,nean ageri dela, alegia. Eskerrik asko.

II. Adios dama gaztia

Goronaetako Maria Azkoitiari jasoa da. Nork jaso ote zuen?

Erromantxetxo honek sei ahafaldi ditu. Edo, behar bada, lau bakarrik. Lotzen zaion musikari dagokionez, aurrekoaren kidekoa dela iruditzen zait. Poema hau ez da aurrekoa bezain bizia, baina bai zenbait zertzelada ederrez pintarranatua.

"Adios orain dama gaztia / Arantzazura arteko / Antxen ongo naiz besoak zabalik / zatozenian artzeko".

Beraz urrengo aurki-lekutzat Arantzazu aukeratu dute. Gauza normala. Arantzazu erromeri-leku izaki, urrengo alkar ikusteko puntutzat haura aukeratzea.

Aurrekoaren ondoren etortzea, Arantzazuz aritzea eta hara osteraren oroitzapena da lehenengo ahafaldia bigarrenarekin lotzen duena. Gaia beste bat da: *"Arantzazura erromerian / Nai dozunian etorri / amoriozko begi ederrak / erakutsiaz alkarri".*

Arantzazura bidaldia ez zen nonbait dena katea, ez eta ere tristura. Bazen jenderik nonbait alkartasun gogo batetan, alkar ezagutzeko bide bat bezala, lasai aldi eta jostaketa bezala hartzen zuenik ere.

Hirugarren ahafaldia bide-airez lotzen da bigarrenarekin. *"Planponan bera banua eta / zer gura dozun esaizu".* Urrengoan elkarrekin biltzen zirenerako zer erregalu ekartzea estimatuko ote zion damak?. Horra dama gaztearen erantzuna: *"Zinta eder bat biali zazu / borondaterik badezu".*

Laugarren ahafaldiak zintaren kolorez dihardu. Nolako zinta baina? Zein koloretakoa? *"Urdina bera zelosa da eta / berdiak esperantzia. Gorri ederrak siñifikatzen / biotz kariñoz betia".*

Erromantzea hor bukatzen da seguru. Beste bi ahafaldiak geroagokoak bide dire eta gehigarri bezala jarriak. panderu jotzailearen edo kopla kantariaren saiok luzetxoago behar zuen ostera eta: *"Au da jentia kanta bat / daukana bakarrik falta bat / bertso gutxitxo daruzka eta / geitu behar*

zaio pare bat". Kantaren irazkina eginez erantsi dio bertso bat.

Azkenengo ahafaldia Arantzazura osterearen aideari lotzen zaio. Arantzazurako erromeria giro gorenekoari. Gainetiko arazo, eginkizun eta zergatiko guztiak barruan biltzen zituen ardura, inguru eta giro nagusiari: *"Arantzazura nijoanian, / ez neban besterik goguan / nola joan eta nola etorri / kristau fidelen moduan"*.

Adios orain dama gaztia
Arantzazura arteko
Antxen ongo naiz besoak zabalik
Zatozenian artzeko.

Arantzazura erromerian
Nai dozunian etorri
Amoriozko begi ederrak
Erakutsiaz alkarri.

Panplonan bera banua eta
Zer gura dozun esaizu
-Zinta eder bat biali ezazu
Borondaterik badezu.

Urdina bera zelosa eta
Berdiak esperantzia
Gorri ederrak siñifikatzen
Biotz kariñoz betia.

Au da yentia kanta bat
daukana bakarrik falta bat
Bertso gutxitxo daruzka eta
Geitu bear zaio pare bat.

Arantzazura nijuanian
Ez neban besterik goguan
Nola juan da nola etorri
Kristau fidelen moduan.

Maria de Azkoitia. Goronaeta-Korueta.



III. Adios Alejotxo

Delako "**Romances euskéricos de Aránzazu**" koadernoa, karpeta ere badela esan dut. Karpeta hortan aurkitu dut eskuz idatzitako 16 × 11 luze-zabaleroko koadernuxka bat. Ez du sei orrialde besterik. Ez du izenik, ez noizko ez nongo denik.

Alejotxoren erromantze hau musikarik gabe dago (4). Hizkuntzaren aldetik zein euskalkitan ote dago?. Bigarren personako mugahizki asko ditu: Altzazuko neskatxok, kutrillokin, mutillokin, frantzes mutillok, neskatxatxok. Aditza kiputza du gehienik, baina Bizkaiakoa ere ageri da: duaz, nua, yakun, jitxanau. Historia menderatzen duenak nik baino egokiago jarriko luke bere garaian. Ez ote da Fernando VII.ren garaiko eta zehatzago Frantziako Luis XVIII.k harako "Cien mil hijos de San Luis" Fernando erregeren alde bialdu zituen ordukoa?. Erregeren alde zeuden nafarrak pozik bilduko ziren liberalen mendetik haura askatzera zetoztenekin.

Hala ere lehenengo ahafaldian bada zalantzarik. *"Zer esango ote dizu Altzazuko erriak?"* Zer irudituko ote zaio Altzazuko erriari Alejotxoren frantzesekin joate hau? Dena den neskatxek ez zuten behintzat begi txarrik frantzes mutilentzako: enamoratu egin baidira. Baina frantzesak ez dira nonbait egoteko etorri. Eta han dihoaz Altzazuko nexkak frantzesen ondo-

(4) Baina nik kantuz emango dizuet. Gure aitak bertsoak kantatu egiten zituen, doinu jakinik baldin bazuten harez, eta ez baldin bazuten, sortu alakoaren gainean irakurriz. Haren harra jokatu dut hemen. Aita Pello Mari eta biok jarri dugu aldetxoa.

ren Zubi barrin bera. Beste neskatxak frantzesen ondoren bazihoazten ere, Catalin Alejotxoren ondoren zihoan. Baina puntu baten eta hala beharrez mutillok aurrera eta neskatxok atzera egin dute. Katalinek orduan: *"Adios Alejotxo, / etorriko alzera?"* Itxaropen gehiago zuen Katalinen amak: *"Etorriko yakun bai / Alejotxo guria"*. Baina txarrenean ere eskutan zeukaten Alejotxoren alde egitea: *"Tandik etortzen baden / il dala berria / ipiniko jitxanau / argia ta ogia"*. Eta han biziko zitzaien Alejotxo etxeko hilekin batean eta etxekoengandik gertuan.

Alejotxo jantzi ttusu
Pantaloi berriak
Zer esango ote dizu
Altzazuko erriak.

Altzazuko neskatxok
Euren kutrillokiñ
Enamoratu dira
Frantzes mutillokiñ.

Frantzes mutillok duaz
Zubi berrin bera
Baita neskatxatxok ere
Akonpañatzera.

Mutillok aurrera ta
Neskatxok atzera
Adios Alejotxo
Etorriko alzera.

Etxera juan eta
Cataliñek amari
Alejotxoren miñez
Iltzera nua ni.

Ixilik egon akit
Nere alabia
Etorriko yakun bai
Alejotxo guria.

Tandik etortzen baden
Il dala berria

Ipiñiko jitxanau
Argia ta ogia.



IV. Guipuzcoaco istoriyaren sustanciya, jende gustiac icasi dezan berso guchitan jarriya

"**Romances euskéricos de Aránzazu**" delakoaren karpetatik hartu dut hau ere. 16 × 11-ko bere luze-zabalak. Hamasei orri ditu. Azalean honoko hau dakar: José Matias de Balerdi, Presbitero, Coadjutor de Aya. 1886.

Azalaren barrualdetik beste hau: "Peregrinaciyoraco: Ama Birgiña Arantzazucoaren istoriyaco berso berriyac: Jende gustiyac icasi ditzan aldan laburren jarriyac".

Aurreneko konposizioak 27 ahafaldi ditu, zortziko nagusian eginak. Non eta noiz idatzia den jartzen du: Aya 9 de Mayo de 1886. Eta izena: José Matias de Balerdi.

2. konposizioak izenburu hau darama: "Berso berriyac. Arantzazuco peregrinacirora (sic) dijoazenac cantatzeco, jarriyac". Zortzina ahotsaldiko 11 ahafaldi launa lerroko dira. Eta izenpetuak: José Matías, eta abar.

3. konposizioak izenburu hau darama:"**Peregrinaciya eguin eta bueltaraco**". Zazpi ta sei ahotsaldiko 21 ahafaldi launa lerroko ditu. Ez darama Jose Matiasik.

4. konposizioak "**Azqueneko agurra**" du izen. Zazpi ta sei ahotsaldiko 8 lerro ditu.

5. "**Despedida Obispo Jaunari**". Aurrekoaren neurritakoa. A. Lizarralderen "Historia de la Virgen y del Santuario de Aránzazu" liburuan ageri da, norena denik esateke.

6. "**Arantzazuco Religiosuai**". Aurrekoen neurritakoa eta aurrekoa bezala izenik gabe ageri da Lizarralderen historian.

7. "**Jende guztiyari**".Aurrekoen neurritakoa eta hemen ageri dira izenok-eta.

8."**Guipuzcoaco istoriyaren sustanciya**", eta abar. Hau da hemen agertu nahi dizutedana.

9. Bere izenak letretan hainbat lerro dituen izenburu gabeko konposizio bat da. Izen abizenen letrak lerroan hasera dituela.

José Matías de Balerdi hontaz nork daki ezer? Liburuxka honez gainera ez ote du besterik? Poto batzuek-eta gorabehera errez egiten ditu bertsoak. Liburuxka hortako ale bat eskaini nahi dizuet, onena agian.

XIX. mendeko eta bereiziki foruak galdu osteko (1876) sentipen eta euskaldun herri giroaren lekuko eder bat da. Zer politak ahafaldi bakoitzaren ondoren botatzen dituen oihuak, batez ere bederatzigarren ahafaldikoa: *¡"Acorda bediCortia!"*

GUIPUZCOACO ISTORIYAREN SUSTANCIYA, JENDE GUZTIYAC ICASI DEZAN BERSO GUCHITAN JARRIYA

De **SI** menor (1)
Seme danoc, semé danoc,
Beti firme, beti firme,

(1) Doinuari dagokionez ez dakar besterik. Zein musikaz abestu ote zuten? Hemen jarri dutana letrari laguntzeko da. Aita Pello Maria Zabalak eratu du. Ahafaldiak, goiko oharrak dionez, tonu txikian eman ditu, beti ere garai hartan zortzikoak oi zuen aidea gogoratuz. kantu-artekoa edo errepika tonu nagusian bota du, letraren esan nahiari erantzunez eta gainerakoarekin kontraste puska bat egitearren. Elizako kantuetan behintzat bada horrelako jokaerarik. Jatorrik ezagutzen ez, eta horra:

Len da orain, len da orain
Gure Amarequin:
Probinciya, Probinciya,
Ta euscalduna, ta euscalduna,
Gueldi dedin beti beti
Bere onarequin.

1

Agur, da erreberenciya,
Guipuzcoaco Probinciya,
Birtutes eta onras janciya
Noeren bigarren onciya.
Jartzen det abertenciya,
Artzeko pacienciya,
Ujol golpiak izanagatic
Ez da ondatu onciya;
¡Biba gure Probinciya!

2

¿Zer gauza miragarriya
Dagun zure istoriya!
Gustiz noblia eta leyala
Zerala dago jarriya:
Baita ere guerrariya,
Ascoren bildurgarriya,
Peligrorican dagon lecuan
Beti aurrena jarriya:
¡Bizi bedi Probinciya!

3

Zure semiac arguiyac
Jaquintzu eta garbiyac,
Jesucristoren Relijiyuan
Sendo ta firme jarriyac:
Languille izugarriyac

Guizon da ander guztiyac,
Gure Legue ta constumbre onen
Danac daude inbidiyac:
Bizibite euskal erriyac!

4

Zure izcuntza ederra
Munduban iya bacarra,
Pollitagoric ez da arquitzen
Jarriric danen auquera:
Egastiyaren oquela
Usua eta eperra,
Modu onetan comparatzen da
Gure eusquera ederra:
¡Gorde dezagun aurrera!

5

Arantzazu ta Iciar
Zere lurrian dauscatzu,
Jaungoicuaren Amarengana
Debociya badezu:
Aurrera izan zayozu
Laguntzia nai badezu,
Probinciyaren bi esquiñetan
Mendi gaiñian zaitzen zu.
¡Ama Birgiña daucazu!

6

Amac bere semiaquiñ
Zer eguin duan norc jaquiñ,
Martiri eta Confesoriac
Arquitzen dira gurequiñ:
Obispo Jaun ascorequiñ
Estaduco guizonaquiñ,
Letradu eta Generalaquiñ

Ta Eroquide (1) aundiyaquiñ:
¡Ama du danoc Zurequiñ!

7

San Ignacio aundiya
Probinciyaren gloriya,
Berac jarrita gobernatua
Tropa bat chit guerrariya:
Da Jesusen Compañiya
Guztizco miragarriya,
Impernuari jarri diyona
Icara eta larriya:
¡Bici bedi Compañiya!

8

Mundu guciyai aurrena
Jira emandu ciyona,
Guetariyaco General bat zan
Sebastián Elcano jauna:
Donostiyaco Oquendo
Urdaneta eta Lezo,
Zumalacarregui eta Churruca
Pruebac emanac ondo:
¡Ez bada aztu egundo!

9

Don Miguel Lopez Legazpi
Zumarragaco semia,
Españiyari eguin ziyona
Mesede pare gabiya:
Filipiñac (3) beretzia

(1) **Eroquide** da, azaña aundiyac egindaco guizona, ero baten guiza, peleatuas, peligruac atzera eraguin gabe, Quidea, da, denbora batecua edo iguala. Ero eta quidea, **eroquidea.**

(3) Filipiñaco lurrian,
Espaiñiyaren mendian,
Bost milloi ta erdi persona daude,
Guchiyen guchiyenian.

Eta conserbatutzia,
Duda gabe ari zor zaiyo
An daucagun aguintia:
¡Acorde bedi Cortia!

10

Guizon oyen anzecuac
Dira emen chit ascuac,
Jaquintzu eta balientiac
Probinci onetacuac;
Utziric gaiñeracuac
Amar dauscat nic autuac,
Danen lecuric ez duelaco
Peper chiquiyan bersuac:
¡Onra ditzala Gerubac!

11

Larramendi, Palacios,
Echeberria, Añibarro,
Zabala, Aizquibel, ta Uriarte
Gardaberas, Mendiburu:
Lardizabal, ere sartu
Eusquera ez dedin aztu,
Oyen icenac onra ditzagun
Berso oechec zabaldu:
¡Bosna centimoan zaldu!

12

Probinci onen buruba
Dago guztiz apainduba,
Donostiyako Uri ederra
Moda berri berricua:
Gendia chit cumplituba
Garbis pare gabecua,
Gauza genero guzti guztiyas
Dago ondo osatuba:
¡Guipuzcoaren Buruba!

13

Gaiñeraco Probinciya
Dago ederqui janziya,
Clase guztiac edo gueyenac
ona beti desenciya:
Fabricas eleganciya,
Bañus comenienciya,
arto ta gari sagar eta matz
Comeni zaigun guciya:
¡Au da gure Probinciya!

Se-me da-noc se-me da-noc be-ti fir-
me be-ti fir-me len da o-raiñ len da o-rain Gu
re A-ma-re-quin Pro-bin-ci-ya Pro-bin-ci-ya Ta eus cal-
du-na Ta eus cal du-na guei-di de-diñ be-ti be-ti Be
re a-na-re-quin

A-gur da e-vie-be-ren-ci-ya Gui-piz-coa-co Pro-bin-ci-
ya Bir-Iu-tes e-ta on-vas jan-ci-ya No e-ren bi-ga-nen on-zi-
ya Jar-tzen det a ber-ten-ci-ya av-tze-co pa-ci-en-ci-
ya u-jol gol-pi-ae i-za-na ga-tie ez-da on-dă-tu on-ci-ya B. ba gu-
re Pro-bin tzi-ya



Horra hor "Romances euskéricos de Aránzazu" deritzaion koadernotik zuentzako eta euskaldun guztientzako atera ditudan aletxoak: Xinpletasun zoragarrizko hiru erromantze eta berezko su eder bateko gorazarre bat.

PERRETXIKU IZENAK EIBARREN

Eskaintza:

Toribio Etxebarria, Eibarko hiztegiaren egilea eta "perretxikutalari" gogotsua zanari, gai hontaz berakin izan nituen solas atseginen oroigarri.

J.S.M.

Gure herrian perretxikuak deitzen ditugu, "hongos" eta inoiz "Setas" gazteleraz deritzen zaienei; frantsezez, ordea, "Champignons". Eta horiek biltzeko zaletasuna dutenei, mikologoei, Eibarren "perretxikutalaria". Eta badugu horietakorik anitz. Baina horiek erabili duten hiztegiaz arduratuko gara gaurkoan.

Telesforo Aranzadi bergararrak 1897an eman zigun argitara "**Euskalerriko Perretxikuak. - Setas ú Hongos del País Vasco**" liburu ederra, bi tomotan, bata testuz eta beste irudiz. Izenburuaren lehen partea euskaraz edukiarren, liburua bera erdaraz idatzia dago. Hala ere, perretxikuen euskarazko izenak bildu zituen zientziako izen teknikoen ondoan, eta honela perretxikuen hiztegia burutzeko lehen oinharriak jarri zituen. T. Aranzadi berak herriz herri bildutako hitzez gainera Lakoizketaren lanekin baliatu zen bere klasifikazioaren hornigarri.

Geroztik, eta batez ere azken urte hauetan, perretxiku liburuak asko ugaldu dira, baina hala ere inork eztu T. Aranzadiren zehaztasunik euskarazko izenetan, ondorengoak beranetik baliatu badira ere. A. Buesa, J.M. Busca Isusi, R. Lotina Benguria, I. Linazasoro, eta "Aranzadi" Elkarteak argitaratu dituzte liburuok. Beretako batzuk zenbait argitalpen izan dituzte, txapelketak antolatu izan dira eta perretxiku-zaletasuna ugaldu da Euskal Herrietan. Penagarriena, pagadiz, gaztainadiz, hariztiz, hain beterik ziren basoak urritu direla, piñadieri lekua egiteko, eta hemen perretxiku mota gutti dira.

Euskarazko izeneri zientziak jarritako izen teknikoekin behar bezalako lotura zehatzik eta izeneri eureri erabiltzen diren tokiko lekutasuna emateaz ezta ezer aurreratu; irudimenezko asmakizuneri esker, bai, izenok ugaritu dira, baina tokian tokiko sustrairik gabeko bataioz.

Neronek ez nuke nahi holako hutsik egiterik eta zaletasun zahar bat berrituaz, lekutxo apal batez baliaturik, gure herriko perretxiku izenak bildu ditut, jabetasuna duten izenez "perretxikutalariei" eta euskarari laguntzeko askoz. Hemengo izen asko beste zenbait herritan ere hala erabiliko direnik ez dut ukatzen, baina bestetakoekin ere hau egin beharko litzake, zehatz-mehatz bildu, tokiko agiritzak uzteko.

Teknika klasifikazioa egiteko Henri Romagnesi-ren "**Petit atlas des champinons**" I eta II tomoak, (Bordas, 1962) hartzen dut oinharri eta T. Aranzadiren liburuarekin batean Jakob E. Lange eta D. Morten Langeren "**Guía de campo de los Hongos de Europa**" (Barcelona, 1969) lagungarri. Bigarren hau X. Llimona jaunak inglesetik itzulia da eta euskal izenak ere badakarzki "Aranzadi" Zientzia Elkartekoak emana.

Jatekoak ez diren perretxikuak nekez dute izenik. Edendunak edo tosikoak: **Sube-perretxikuak** dira, kirten luzezka mehez dutenean; eta **Sapu-perretxikuak**, kirtena labur eta lodizka dutenean. Hau hain hala delarik, urte askotxo dira **Esne-perretxikua** jakintzat ez nuelarik jateko balio izan behar zuela pentsatu nuela. Zergatik? Izena zuelako, geroztik ezagutu ditut Eibarren bertan ***Lactarius vellereus*** perretxiku hoietakoak jaten zituztenak.

Ondorean hogetahamaika izen klaseren fitxak emango ditut, euskarazkoan ondotik zientziazkoa jarriaz eta zenbait ohar gaineratuaz. Erdarazko espezie edo generoaren ordez familia hitza erabiliko dut, mota taldeak familia gisa biltzen direlako.

Inoiz, izen batekin ezagutzen dira familia osoa, eta perretxiku soil bat edo familia bateko bizpahiru izen ber-berarekin.

Noizik behinean, argigarri, Euskal Herriko zenbait herritan erabiltzen direnak aipatuko ditut, eta urrengo erdarazkoren bat ere bai, adibidetzarako ongi datorkidanean.

Teknikako izenetan ere, inoiz gertatzen da, batzuk era batera eta besteak bestera klasifikaturik edukitzea, eta honelakorik denean, nork zer izen ematen dion ipiniko dut. Esate baterako, **Susak**, gehienetan **Zizak** deitzen direnak, hiru eratara aurkitzen ditugu eta Romagnesi, Aranzadi edo Lange, gure lanerako oinharrizko hartzen ditugun autoreak, zientzia aldetik jantzienak direlako, bakoitzak zelan ematen duen jasoko dugu.

Gainerako luzapenik gabe, goazen orain izenen harira:

Asta-putza, ***Scleroderma*** denak edo gehienak dira, baina batez ere ***Lycoperdon piriforme*** eta ***Bovista plumbea.*** **Asta-putza** eta **Otso-putza,** bi izenok oso zabalduak dira Euskal Herrian, baina ez dut uste familia barruko bereizkuntzarik egiten denik. Erdaraz "Cuesco de lobo" eta "Cuesco de maíz" izenez ezagutzen dira.

Esne-perretxikua, ***Lactarius vellereus*** eta ***Lactarius piperatus***. Gipuzkoako zenbait tokitan **Esne** edo **Esna** soilik deitzen zaio. Jatekoa izanarren, jendeak besterik uste du eta ardien janaritzat bakarrik jotzen dute. Egia esan jaki bezala ezta hain ona.

Gibelurdiña, ***Rusula heterophila.*** **Urritxa** bezala ere ezagutzen da, baina **Urritx** izen honekin hobeto ezagutzen da ***Russula*** direlakoen familia guztia eta batez ere ***Russula oyanoxantha***. Gipuzkoa gehienean ordea, **Gibelurdiña** izenez ezagutzen dira **Urritx (Russula)** gehienak eta batez ere ***Russula virescens*** delako perretxiku paregabea, Eibar eta inguruko Deba-arroan **Urdiña** esan ohi dena.

Gorringo, ***Amanita caesárea.*** Beranduago kanpotik sartua izan behar du izen honek, ezagunagoa dugu **Kuletru** izenez.

Kuletrua. ***Amanita caesárea.*** Gipuzkoa gehienean eta Nafarroako ifarmendebaldean **Gorringo** edo **Gorringoa** izenez ezagutzen da, eta esan dudan bezala, Eibarren geroago sartua izan behar du izen honek eta gutxiago erabiltzen da.

Kuletru-faltsua, ***Amanita muskaria.*** Aiñubeetan ematen da, edenduna da, baina perretxikutalariak ondo ezagutzen dute jatekotzat ez hartzeko. Erdaraz "Matamoscas" ere deitzen diote.

Lanpernak, Koillar edo lepo-ustaidun perretxikoak, kirten luzedunak, ***Amanita*** eta ***Lepiota*** familiakoak. Gutti jotzen dira jatekotzat eta gainera ez mikologia-zale guzien artean berdin. Jatekoen artean ***Lepiota prócera*** estimatzen da.

Lanperna oria, ***Leipiota rhacodes*** eta ***Leipiota excoriata.*** Jaki goxotzat hartzen dira.

Lanperna zuria, ***Lepiota excoriata*** eta ***Lepiota naucina.*** Guttiago ezagutzen dira, eta lehenengoa **Laperna ori** izenez ezagunagoa dugu batzuk nahasten badute ere.

Ondjuak, ***Boletus*** familiako perretxikoak. Ikusi Toribio Etxebarriaren ***"Lexicón del euskera dialectal de Eibar"*** en (EUSKERA, X-XI, 1965-1966, Bilbao). Zaharren artean oraindik entzuten dira **Ondjua** (J = y), **Onddua** eta **Oindua** ahozkerak, baina adinean aski sartuak diranen artean **Ondua** esaten da, eta konsonanteren batek jarraitzen dionean "u", "o" bihurtzen da; **Ondo-zuria** adibidez.

Ondo-baltza, ***Boletus (Tubiporus) edulis*** eta ***reticulatus*** antzekoa edo kidekoa eta ***Boletus (tubiporus) aereus.***

Ondo-burubaltza, ***Boletus (Tubiporus) aereus.*** Gehienean, burubeltza bezala, ***Boletus (tubiporus) edulis var. reticulatus***-ekin bereizteko erabiltzen da.

Ondo-zuria ***Boletus (tubiporus) edulis.*** **Ondo** edo **Onddo** hau ilunagoa edo argiagoa ematen den neurrian aldatzen da euskerazko izenez.

Onduak, Ondduak, ***Boletus*** perretxikuen izen orokorra. Jatekoen artekotzat dira, arestian aipatu ditugunez gainera eta **Ondua** izen hutsez ***Boletus (Ixocomus) granulatus.***

Lehen esan dugunez, T. Echebarriak **Ondjua** jartzen du eta bere gutun batean, 1967ko apirilaren 7an idatzia, zehetasun hau ematen zidan: "**Ondjua**" que seguramente procederá de ***hongo, hongus,*** del romance y el latín, sólo cabe advertir que al euskerizar la voz, nuestros padres suavizan la dental **d** de la palabra **ondua** en forma que cabía representar con la apoyatura de una **j** o una **y** griega, sugún un arbitrio particular". Beraz, lehuntze ahozkera honetan ongi dator **dd** erabiltzea.

Perretxikuak, ***Basidiomicetos*** mamidun guziak, nahiz jatekoak izan edo nahiz jaten ez direnak edo edendunak, denak oro **Perretxiku** izenez ezagutzen dira.

Piñu-perretxikua, ***Lactarius deliciosus.*** Izen berria da. Gazteleraz "Niscalo" bezala ezagutzen da eta Katalanez "Rovelló" bezala. T. Etxebarriak lehen aipatu dudan gutun hartan argitasun hau ematen zidan: "...entró en la categoría de las especies comestibles hacia 1910 o 1912, en Eibar a lo menos". Eta bere izenik ez ezagutzean **piñarixetako perretxiko urdinzkia** deitzen hasi omen ziren. Hala ere, jakitun nago garai hartarako Zaldibar-en (Bizkaia) ezaguna zutela **Niskalua** izenez, gaztelerazko "niscalo"tik hartua. Erronkarin, Pirineoetako piñadi naturaletan ezagutzen zuten, baina ez dut ahal izan euskarazko izenik aurkitzerik bertako zaharren artean eta "Rovellon" izenez ezagutzen dute. Bizkai-Gipuzkoetan, zalantzarik gabe, ***Lactarius deliciosus*** delako perretxiku hau ***pino insignis*** Adán de Yarza Lekeitiarrak Monterrey-tik orain ehun urte ekarri eta zabaltzeaz etorri da.

Gaur ordea, Gipuzkoako zenbait tokitan **Esne-gorri** deitzen hasi dira eta hala dakar Lange-ren espainolezko edizioak (J.E. Lange / D.M. langue, ***"Guía de Campo de los Hongos de Europa"***).

Salsa-perretxikuak, baita ere **Saltsa-perretxikuak,** eta inoiz **Saltsak** soilik, ***Cantharellus cibarius*** eta bere kideko ***Cantharellus amethystinus.*** horietako bezala biltzen dira ***Hydnum*** familiako zenbait ere; adibidez, ***Hydnum repandum,*** baina erraz bereizten dira, honek txapelean eztentxoak bezala ditu eta ***Cantharellus***-ak marrak.

Sapu-perritxikua, ***Boletus*** eta ***Higrophorus***-en artekoetan edendun ustekoak edo jakitzak hartzen ez direnak.

Sube-perritxukua, ***Copinus, Drosophila, Geophila*** eta kidekoak, edendunak edo jatekotzat hartzen ez direnak.

Susak, ***Lycphilum Georgii*** (H. Romagnesi-k dakarrenez), ***Tricholoma georgii*** (T. Aranzadik ***"Euskalerriko perretxikuak"*** lanaren 53. orrialdean) ***Tricholoma (Calocybe) gambosa*** (Lange-k dakarrenez). Perretxiku hau, Gipuzkoa gehienean, **Ziza;** Tolosan, **Ziza-zuria, Ziza-txuria;** Bilbon, "Seta de Orduña".

Nafarroako Bertiz-aranean ezagutzen den **Kardu-ziza,** ***Pleurotus Eryngii*** delakoa, Gaztelan "Seta de cardo" dena, ezta ezagutzen Eibar aldean.

Teilla-perretxikua, ***Russula emetica, Russula vesca*** eta ***Russula xerampelina*** guziak nahasian erabiltzen dira izen honekin. Jakitzat jotzen diren horietakoak hobeto ezagutzen dira **Urritx-gorri** izenez.

Trufa edo **Tuba,** ***Tuber brumale*** eta ***Tuber melanosporum***. Gure herrian hain arraroa den perritxiku hau, zeren generalki lur lehorretan ernetzen baita, neronek hartu izan dut Munikola baserri ondoko hariztian, Egoarbitza mendiaren ifarraldean. Toribio Etxebarriak esan zidanez, berak ere ezagutu omen zituen Eibarko Txirixo-kaleko Manuel Mendarok batuak.

Udabarri-susa, ikusi **Susak.**

Udazkeneko-susak, ***Clitocybe geotropha.*** Erdarazko "Platera".

Urdin edo **Urdiña,** ***Russula virescens.*** Eibartar perritxiku-zaleen artean gehien gustatzen dena. **Kuletrua** eta **Susak** eurak baino estimazioa handiagoa dute. Gipuzkoa gehienean **Gibelurdiña** deitzen zaio, baina badira ***Russula*** beste mota batzuk ere izen horrekin erabiltzen dituztela. Eibarren, ordea, ***Urdiña*** soil soilki ***Russula virescens*** da. Txapelgaineko berdea motaz etetzen dena da.

Urritxak edo **Urreitxak,** Russula klase guziak. Izenak bi eratara erabiltzen dira baina **Urritxak** bezala gehiago, Bizkaian ordea, alderantziz, **Urreitxak** bezala gehiago erabiltzen da.

Urritxa edo **Urreitxa.** ***Russula cyanoxantha*** eta ***Russula heterophyla*** direlakoeri bakarrik.

Urritx-baltza, ***Russula nigricans***. Gehienak edenduntzat dute baina jatekoa da T. Etxebarriak zinoanez, bere gaztaroan: "se considera entre venenosas, recién salida a flor de tierra no se diferencia del ***urritx*** común (probablemente se han cometido equivocaciones entre ***Russula cyanoxantha*** y ***Russula foetens*** o ***Russula sororia,*** antes de tomar suficiente madurez, error frecuente aun en nuestros días —nere gehigarria duzu hau —), y como hay —esanez jarraitzen du Toribiok— buscadores que no perdonan las piezas más insignificantes,

hay lugar a confusiones que son las responsables de muchos casos de intoxicación''.

Urritx-gibelurdiña, ***Russula cyanoxantha.*** Perretxikutalari batzuk **Urritxa** soilik deitzen diote.

Urritx-gorrixa, ***Russula vesca, Russula integra*** eta ***Russula xerampelina.*** Hirurak jakitzat hartzen dira.

Urritx-gorriak, esateko era hau jateko ez diren Russula guzieri ematen zaie. Horien arteko: ***Russula emetíca, Russula maculata, Russula lepida, Russula pseudointegra*** eta abar.

Juan San Martin
1974-IV-19

URDAINGO ZIZEN IZENAK

Duela bost bat urte, 1969-an, egina nuen Urdin-en ezagutzen dituzten zizen azterketa. Egin ere, urrian egin nuen lan hau bazter guzitatik ziza usain gozoa zariola. Ziza leku onak dira bai Urbasa mendia eta ai Aralar aldeko Beko-basoa. Hona hemen gehienik baliatu nituen gizonek izenak:

Martin Irigoyen, "Martin txiki", ordukotz 76 urte zituen. (MI)
Nikomedes Galarza, adin berekoa. Geroztik hila. (NG)
Luziano Goicoechea, 43 urte. (LG)
María Goicoechea, San Romanen alarguna. Hau ere hila. (MG)

Lanerako hartu nuen jokabidea hau da. Bakarka hartu eta ziza kontua aipatu. Gero gai zenarekin hartu-emanetan sartu. Hortarako:

1) Ezagutzen zituen ziza guzien zerrenda eskatu. Bakoitzak esan ahala idazten joan. Beren buruzko lana.

2) Izenak hartu ta gero, zizen kolorezko irudiak erakutsi. Nik "La Gran Enciclopedia Vasca" argitaldariak egindakoarekin egin nuen (Bilbao, 1967, 5-6) R. Lotina Benguria-k gertatua.

3) Berek esandako izenen bat iruditan sartu gabe gelditzen bazen, xehetasun gehiago eskatu.

Batek esandakoa bestearen esanakin ez ongi etortzea gerta laike. Beste egun batez denok elkar hartu eta batean zuritzen genuen. Argibide haundia eman ohi du bilera honek.

Nik, beraz, GEV-ko zerrendari jarraituz burutu dut lana. Aranzadiren bildumako izenekin ez dator beti berdin. **Ardaia**-k esate baterako, Urdinen bi mota baditu: "**Ardai zuria**" (Polyporellus Squamosus) eta "**Ardai beltza**" (Fistulina Hepatica). Aranzadi-k ez dakar izen horrenik. "Polyporus Fomentarius" dio berak ardaiarentzat, eta pagoko ardaia bezala uzten du. Halakotan, izen biak ematen ditut.

Izena.- "**Perretxiku**" izena ez da erabiltzen Urdin-en. Arrotza bezala hartzen dute "**Zizak**" dira denak heurentzat. Zizak eta "**ointoak**". Ointoa ez dute sartzen zizetan. Badira **ziza onak** eta **ziza txarrak**. Ziza txarren izenik ez dakite; mota asko izaten omen da (MI). Udaberriko zizari, **maiatzeko ziza** esaten zaio.

Liburutan ontzat ematen diren ziza frango berek ez dute jaten. Ez bildu ere.

Euskal izenei buruz emango dugu izen zerrenda. Atzetik GEV-koen zenbakia. Aranzadi-ren zenbakia **A** hizkiarekin joango da.

Azpi beltxa.- Psalliota Campestris (9). En Arruazu le llaman **sultso**, tambien **larre sultso**. (A66)

Azpi beltxa.- Agaricus Campester (10). Champiñon. Aranzadi no registra este nombre.

Ama ointua.- Amanita Caesarea (1). Ona. (A1). **Gorringo**, en Arruazu.

Ama ointo txarra.- Amanita muskaria (2). (A5).

Ama ointo txarra.- Amanita Verna (5).

Aparnekia.- Bada ona eta txarra. Ona, "Lepiota Procera" (7).

Apernekia (txarra).- Lepiota Cristata (8). Aranzadi cita **Lepiota naucina** (A 13).

Ardai beltza.- Fistula Hepática (38). (A199). **Ardei.**

Ardai txuria.- Polyporellus Squamosus (36). Aranzadi-k ez dakar.

Astoputza.- Lycoperdon Perlatum (42). Aranz. "L. Coelatum" (A 222). Urdiain-en **Otsoputza** ere esaten zaio.

Zapoziza.- Laccaria Amethistina (24). Etxarri Aranaz-en **Anka mea.**

Zapoziza (txarra).- Amanita Patherina (3). (A7).

Ziza, zizia.- Perretxiku guztiei esaten zaie, Ointoei ez bada.

Erremenţa ointua.- Boletus Badius (33). Haustean urdindu egiten da. Hemen esaten dute txarra dala jateko (MI). (A171). Bi klase badira: batek anka luzetxuo eta metxuago dauka eta arrasto ilunak. Txarra da (NG)

Erremenţa ointua.- Boletus Satanicus. (34). Bada beste erementa ointo bat dena puntaduna eta anka zuri. Txarrena (LG).

Esne-sultsua.- Esene sultsua. Lactarius Tormitosus (17). (A 108).

Gibelgorri.- Russula integra (20). Udazkenien ateratzen da. Gorri iluntxoa (MI). Russula Integra (A131).

Gibelurdin.- Russula Cyanoxantha (18). (A117). Gibel urdina eta gibelgorria igualak dira, baina koloria diferentia. Gibelurdina goxuago; gorria idorra ta mina. Bakarrik ezin da jan. Nahastuta jaten ditugu.

Maiatzeko ziza.- Tricholoma Georgii (46) Urdinen lehenago hasten dira ateratzen. Otsailaren ondar egunetan ezagutu ditut nik. Halare maiatz aldera ematen du gehiena. (A 20). Ziza larre beresiak izaten dira eta batzutan aldatu egiten dira.

Negrillak.- Pasillus Atrotomentosus (25). Txiki txiki batzuk, gaina gris antza dute eta pagaditan etortzen dira (NG).

Nikalua.- Lactarius deliciosus (16). Pinudikoa.

Ointo burubeltza, ointo beltxa.- Boletus aureus (47). Ointo beltxa sietsai segi ateratzen da. Urbasa mendiyen asko izaten da, Bidozain parien Iturmendiko aldera. (NG). (A148).

Ointo buruzuria, ointozuiya.- Boletus edulis (31). (A147).

Otsoputza.- Lycoperdon perlatum. (42). Cf. **Astoputza.**

Pagoziza.- Pleurotus Ostreatus (30) "Pago egurra usteltzen hasdanien ateratzen da. Pago guziek ez dute ekartzen klasia behar da hortakua.

Jende belarriain antzera ateatzen da: alde batetik itsasirik eta bestetik kanpora. Gue larrainien atera zituen menditik ekarritako egur batek. Jateko ona da. (NG).

Pinudikoziza.- Lactarius deliciosus. Cf. Nikalua.

Sultsua.- Ilarre sultsua. Larre sultsua. Cf. Azpibeltxa.

Urrizizak.- Clitocybe Geotropa (48). Urrizizetan girtena zimela blin badute, biatzaikin zapaldu ta berriz lengo leran paatzen, onak dira. Ez dira hausten. Girtena badute txuritxuago eta giguinago, txarrak. (NG). **Urriziza zuria.**

Urriziza beltza.- Clitocybe Nebularis (49). Ez da urriziza bezain ona.

Xixa.- Urriaren hasieran ateratzen diren ziza oriak. (MI).

Xixetak.- Xixak.- Cantharellus Cibarius (26). Erreta jaten dira Urdinen.

Xixeta atxapardunak.- Clavaria Flava (40). (A 216).

Ahuntzak eta ardiek gehienik jaten dituzten zizak: gibelurdina, gibelgorria, xixetak eta ointuek. Usaitik ezagutzen dituzten. Gutxitan jango dute huts eginik ziza txarra. Aldian behin bakarren bat lehertzen da. Aziendа gorriak ointuak jaten ditu. (LG).

Ardaizuri gutxi izaten da (polyporelus squamosus). Saltsamendik badakit nik arbol bat ardeizuria ekartzen duena. Pilotak egiteko balio du. (LG).

Sultso txarrak jan da gero eroe bezala ibiltzen da. (Gure denboran ikusi dugu hori) (NG).

Onak bezala ematen diren ziza batzuk ez dira jaten Urdinen. Hala:

Atxaparrak (Clavaria Flava). Ugari etortzen da Urdinen.

Erramenta ointua. Boletus Badius. Urdinez zikintzen delako.

Pagoziza. (Pleurotus ostreatus). Badakite ez dela txarra. Halare ez dute jaten.

Astoputza, Otso putza. Lycoperlon Perlatum. Uste dute txarra dela.

Ardeizuria, ardaizuria. Polyporellus Squamosus.

Ardaibeltxa, Fistullina hepatica.

"La Gran Enciclopedia Vasca"-ko lanaren egileak dio, ez duela Euskalerrian ziza hauen izenik arkitu: Lengua de Vaca, la platera eta la pardilla.

"La platera", Clitocybe geopatra, Urdinen "**urriziza zuria**" da.
"La pardilla", Clitocybe nebularis, gure herrian "**urriziza beltza**".
"Lengua de Vaca" ez dakit zoin den.

Poxointsuak.- Txikitan esaten ziguten Arbazun ziza motadun guziak txarrak direla.
Puskatu eta urdintzen badira, txarrak.
Luzaiden zilarrezko zerbait sartzen zuten zizak egiten ari ziren urinean. Zilarra beltzatzen bada, ziza txarrak badira.
Ziza txarrak jandakoan ontzi bat olio hotz, eskutra bat gatzarekin hartzea on da. Barneko guziak itzultzen dira. (NG).
Ziza onak zartarian olioa hartu egin behar omen du, ez ura utzi (Francisco Galarza).
Bai ta ere erremedio ona, baso bat esne hotza hartzea omen da.
Halare, ziza pozointsuen kontrako erremediorik hoberena, ez jatea.

J. M. Satrustegi
1974-5-24

AZTERKETA SINTATIKORAKO AZTERBIDEA



ESALDIA: Bizkaitik etorritako Mari eta Peru jatorrek, Etxebeltzeko etxeko jaun-andreek, behi eta txal haiek pozik erosi eta eman dizkiete, beren nafarreria eta guzi, Etxezuriko Anton eta Matxini.

AZTERKETA URRATSAK:

1.- Pasartean, esaldiak bereizi.
2.- Esaldian, SN eta SV-ak bereizi.
3.- SN-an nahiz SV-an N eta M bereizi.
4.- Gainerako xehetasunak bereizi.

- Soila
- **Konposatua** Mari eta Peru
- ZuM: **Zuzen-mugatzaileak** jatorrak
- ZeM: **Zehar-mugatzaileak** (osakideak: Kompl.)
  - **Atzizki bidez** Bizkaitik etorritako
    - **Lokarria**
    - **Helburua**
  - **Combarazio bidez** Aita bezala
- **Soila**
- **Konposatua** erosi eta eman
- **ZuE: zuzen-egina (Objeto dir.** behi eta txal haiek
  - **Guna**
    - **Soila**
    - **Komposatua**
  - **Mugatzailea**
- ZeE: **zehar-egina (Obj.ind)** Etxezuriko Anton eta Matxini
  - **Guna**
    - **Soila**
    - **Konposatua** Anton eta Matxini
  - **Mugatzailea** Etxezuriko
    - **Lokarriako**
    - **Helburua Etxezuri**
- **Predikatua** pozik
  - **(Aditz lotzaileekin**
  - **Aditz ez-lotzaileekin** pozik
- **I: inguratzaileak** beren nafarreria eta guzi
  - **Guna** nafarreria
  - **Mugatzailea** bere, eta guzi

J. Intxausti

1974-4-19

TXIRRITA ETA BASARRI

Mintzaldi baten eranspen bezala badut zerbait esan beharrik. Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalaren aretoan, 1974.urteko Martxoaren 22an eman nuen mintzaldi hartan, bertsolaritzaren alderdi berezi bat erabili nuen: sozio-kulturazko aldakuntzen araberan bertsolaritzak eduki dituen aldakuntzak.

Kontesto honen barruan eta orduan nionaren argigarri bezala, gaur Txirrita eta Basarri elkarrekin konparatu nahi ditut. Izan ere, bertsolaritzak XX.gizaldian egin dituen aldakuntzak aditzera emateko ez dago sinbolo adierazgarriagorik bi bertsolari hoiek elkarren ondoan jartzea baino.

I.-ORDUKO MINTZALDIAREN HARI NAGUSIAK

Kultur historiaren hariko aldakuntzak

Helburu bezala hau nuen gogoan: nolako balio-iritzia ematen dioten bertsolaritzari Euskal Herriko kulturlariek eta nola erabilia izan den herri bertsogintza olerkarien artean. Gain begiratu batek zerbait esplika ditzake bertsolaritzak gizaldi hontan eduki dituen gorabeherak, krisis aldiak eta suspertu aldiak, eta balio-iritzi desberdinek ekarri dituzten ondorio onak eta txarrak.

Hiru unada berezi nituen XX.gn gizaldian: bat, 1900.etik 1930.a arte; bigarrena, 1930.etik 1960.a arte; eta hirugarrena, 1960.az geroztiko urteak. Eta urtealdi bakoitzean gaiaren bi alderdiri begiratzen nien: intelektual mailako idazlarien iritzietan agertzen den joera bertsolaritzari buruz, eta, bestetik, gure poesigintza idatzian bertsolaritzaren ekarriari egiten zaion arrera. Eta gauza garbia dirudi gero eta arrera hobea duela bertsolaritzak jakintzalarien artean eta poesigintza idatzian erabilkeran.

Soziologiaren hariko aldakuntzak

Bigarren alderdi hau aztertzeko, ikuspuntu hau hartu nuen: industria-aurreko aroan sortua da bertsolaritza, teknika-aurreko aroan, demokrazia-aurreko aroan, artzantza eta baserriko giroan, bizi-lege berriek era askotako aldakuntzak eskatzen dizkiete bertsolariei, garai hontako eskakizunen araberan beren egitekoa bete dezaten.

Baserri giroko gizarte legeen ordez uritarteko gizarteak dituen joera berriak ezarri nituen, dela jakintzaren aldetik, dela teknikaren aldetik, dela demokraziaren aldetik, dela bestelako bizimoldeen aldetik. Eta joera berri hauen araberan aztertu nuen gero bertsolaritza bera, orainaldian hartu dituen espresiobide berrietan ikusia.

Aldakuntzak ikusi genituen entzunleen aldetik, bertsolariaren beraren mailan, jaialdiaren inguru, gaiei buruz eta abar. Eta argi dago gauza bizia dela bertsolaritza, bizitzari ondo atxikia. Hori bai, agian gizaldi hontan bertsolaritzak egin dituen aldakuntzarik haundienak gizarte alderdikoak izan daitezke eta ez hainbeste bertsogintzaren eta poesigintzaren alderdikoak.

Hala ere, ez da txikia izan bertso egituraren aldetik egin den aldakuntza. Aipatu nituen orainaldian erabili ohi diren konposizio eta gaiak eratzeko moduak, esaeren aldetik egin diren berritzeak eta ageri diren burumoldeak ere bai: logika, zehaztasuna, erudizioa eta euskera garbiagoa. Hontaz gainera ikusi genituen gaiak aukeratu eta agertzeko bideak eta erak, bereziki azpimarkatuez sinbolismoaren baliapidea, liriko jarrera norberekoia eta azken urteetako bertsolaritza sozial baten sentiberatasuna.

Beste alor hontan gauza berri gutxiago nabari badira ere, aipatu beharrak nituen neurketari buruz, puntuei buruz, eta, batez ere, doinuei buruz egin diren aldakuntzak. Siñalagarri deritzait musika aldetik egin den aurrerapideari.

Hontan bukatu zen nere orduko mintzaldia. Eta esan nuenaren egiztapen bezala hona orain hemen aldakuntzako kate hortan ageri den saltorik garrantzitsuenetakoa gizaldi hontako bertsolaritzan.

II.-TXIRRITA ETA BASARRI ALDERATUEZ

Etena

Eten haundi bat sortzen da, dudarik gabe, 1935.ez geroztik bertsolari zahar eta gazteen artean. Eta eten hori ez da, hain zuzen, gizaldi desberdinen arteko tirabirek bakarrek sortua. Sakonagoko zerbait ere badabil tartean. Bukatzen ari den kultura jakin baten eta sortzen ari den beste kultura jakin baten arteko etena ere ba zen han.

Basarrik, egia da, une hartan iraultza joera baten indarra zekarkien, orduko gazte askoren joera aberrikoia. Baina, bazekarkien, baita ere, soziokultura mailako joera orokor bat, zibilizazio berriago baten eskakizuna, azken urte hauetako bertsolarien araupide jakina: apain jantzia, hizketa txukun eta aberatsa, errespetuzko jokabidea, eskola eta garaiaren garaiko pentsamolde zehatzagoa. Eta "Victoria Eugenia"-ko txapelketaz gero, -Basarrik irabazi zuen hartaz gero,- zokoraturik bezala gelditu zen Txirritaren belaunaldia. Ordu berri bat zetorren: gazteriaren eta kultur forma berriagoen ordua.

Eskolagabea eta eskolatua

Aipatu ditugun bi maila hauk, - eskolagabea eta eskolatua,- konstante bat bezala ditugu bertsolaritzaren historian. Xenpelarren garaitik hasi eta gaur arte nabariak dira herri tradizio hutsezko bertsogintza eta zerbait eskolatuena. Txirrita ahoz ahozko eskola bizian ikasia dugu. Tradizioa du iturri nagusia. Basarrik, ordea, beste prestakuntza jantziagoko bat du liburuen aldetik: oso aberatsa izanik ere Errezilgoaren ahoz ahozko jakinduria zaharra, asko baliatu da bera liburuen iturritik, dela kultur arloan, dela bertsogintzan.

Eta bertsolaritzari gagozkiolarik, ez da ahaztutzekoa Basarrik Otaño-ri dion esker ona eta Kepa Enbeita "Urretxindorra"-ri dion begirunea. Txirritaren baitan ez da ageri horrelako irakaskuntzarik, "ene eskola-nagusi" baten aitormenik.

Sortzez biak nekazariak ditugu. Etxeko giroz eta izatez, Txirrita ez zen errotu kalean; Basarri, berriz, kaletartua da umetandik. Eta ogibideari baga-

gozkio, Txirrita ez zen pasa piontza mailatik; eta Basarri, berriz, kazetalari dugu lantegiz, eta lan hontan eskatzen den eskolaren jabe. Desberdintasun hauk kontutan hartu beharrak ditugu bi bertsolari hauen bertsogintza balioztatzean.

Argitaraldien desberdintasuna

Batek bezala besteak ondare ona utzi digute bertsogintzan, ondare bikaina. Hala ere teknikaren aldetik badute beren arteko bereizkuntzarik. Txirritaren arloa bertso paperetara biltzen da; eta, gehienekoz ere, "Bertsolariya" asterokoan, batez beste, %50 aleetan idaztera. Hontan, ordea, gaurko joerei lotuagoa izan da Basarriren langintza: Liburuak argitaratu ditu, eta, azken aldera batez ere, irratian eta periodikoan, nahiz beste aldizkarietan egin du bere bertsogintza, komunikabide hauek dituzten legeen araberan. Handia da bi bertsolari hoien artean hemendik datorren desberdintasuna.

Luzeagoak dira Txirritaren jardunaldiak. Baditu Hernaniarrak 21 bertsoko saioak, baditu 18,16,15,14 eta 12 bertsokoak. Badu bat 4 bertsokoa; eta saio hau, hain zuzen periodikurako egina, "Pueblo Vasco"-n argitaratua. Batez beste 14 bertsoko jardunaldiak ditu Txirritak. Basarrik berriz, 18 bertsokoak bi saio ditu lehen liburuan. Eta bi bertsoko saio bat ere badu. Gehienak 10 bertsotik beherako saioak ditu. Batez beste 7,9 bertsoko saioak.

Gai librexeagoan egiten den jardunaldia eta komunikabideen eskakizunean egiten den komentario poetikoa desberdin direnez gero, Basarri konkretuagoa da gaiaren aukeramenean eta erabilkeran, iragankorragoa. Txirritak, aldiz, gai zabalagoa hartzen du, arnasa haundiagokoa, aberatsagoa, berak aukeratzen duelako eta asmatzen, -batez ere "Bertsolariya"-n, bere gogairea eta esango duenaren gaia.

Gai berdinean dagerkiguten desberdintasuna

Azaleko konparaketa batez, eta asko gehiago gabe, nahiko garbi azaltzen zaigu ez direla berdin aipatu bertsolariok. Ez da bat-bera aditzera ematen diguten kultur giroa; ez da berdina baten eta bestearen literatur gustamoldea; eta desberdina bizi duten gizarte arazoa eta lantegia. Ikus ditzagun zenbait zehaztasun:

Herriko elizan eman mixioak: Basarrik predikalarien beren urbiletik eman-

go ditu bere gaiak: pentsabide zehatza, esaera neurrikoa, hari-hariko gaiaren erabilkuntza, eliz gizonen hizkuntzaz ongi jabetua. Eta Txirritak, aldiz, arloteago behar bada egingo du eliza barruko hizketa hori baina umoretasunez eta ikusmolde herrikoiagoz eta sotilagoz.

BASARRI	TXIRRITA
"Aurtengo mixioak	Ministro oiek izandu dira
josiak ditugu	predikadore sotilak
Aste orren oroitza	lendabiziko gizonengatik
beti izango degu	izugarrizko batallak
Agur, aita maiteok,	gero aboan sartu dituzte
poz pozez gaude gu!	neskatxak eta mutillak,
Noizik beiñ egizute	azkenerako astindu ziran
gugatik erregu	atsuen patar botillak
Eriotzeko orduan	.....
ez gaitezen galdu."(I)	"Aita San Pedrok sartu gaitzala
	zeruetako atian
	denak jostatzen an ibiltzeko
	aingeruekin batian".(2)

Nahiko garbi dago hemen aipatu dugun bien arteko aldea

Aberriaren gaia: Hala beharraren hala beharrez edo ez dugu eskuartean euskaldunok Basarriren bertso aberrikoi askorik. Ikus daiteke, ordea, Txirritarekin duen desberdintasuna bi bertsolari hoien xehetasun zenbait gogoan hartzen badugu. Txirrita oso minbera da XIX. gizaldian Euskal Herrian gertatutakoekin; bete betea du fueroen aldarrikatzea; noiznahi darabilki Kantabria hitza euskaldunak adierazteko; maiteak ditu Lekobide, Lartaun, Osabal eta ele zaharretako pertsonaiak; eta oso zorrotza du kritikagintza eta iritzien moldakizuna.

Basarrik, berak gai honi buruz argitaraturiko bertso saio gutxi eta "iratzi" zitezkeenak bakarrak badira ere, ez da ahaztu behar Otañoren aberritasunaren gerritik duela aihena, eta Basarriren bertso emaitza abertzaletasuna indar jakin batetan zegoen garaiko lorea dugula: XX.gizaldiko joeretan, Otaño eta Enbeitaren urbileko bertsoz baliaturik eta kritikazko baino areago bihotzak ukitzeko jokabidez nabarmentzen dena.

Gizarte auzia: Basarri profesio liberal bati atxikia bizi izan da; eta Txirritak, berriz ogibidea hargin-pioitzatik zuen. Horregaitik, edo, gauza bizi bizia da Hernanikoak duen sentiberatasuna gizarteko auzietan. Proletargoaren sailean sailkatua dugu. Eta darabilzkien iriitzimoldeak herrian errotuak ditu erabat. Langile denez mintzo zaigu Pasaiko Portuan egindako huelgan. Ez Basarrik eta ez beste euskal idazle askok erabil ez dezaketen ozentasunez.

Politika giroari bagagozkio, berriz, giro nahiko desberdinetan osatu dute beren bizitza batek eta besteak. Benetan nabaria derizkiot bide hontan Basrrik eduki duen oztopogarriari eta kateari. Iñoren bertsogintzan nabari bada askatasuna-ezaren debekua, Basarri baitan ez dela ttikiena esango nuke nik. Ez da neurtzen erraza aberri giroa kentzeak Basarriren bertsogintzaren gain jaurti duen eraso gaiztoa.

Beren nortasuna: Bertsolariaren beraren tipologiak zerikusi haundia du bertsogintzaren arrakastarekin. Zelebreria eta umorea bezala, seriotasuna eta errespetoa ere siñale bereziak dira bertsogintzaren intentzioa eta gazi-gozoa ager daitezen. Kontuan eduki beharrezkoa da tipologia, bertso jardunei buruz balio-iritzia eman beharrean arkitzen garenean.

Txirritak umore jatorra du, umore ugaria, zenbaitetan alproja; eta Basarri serio antzean azaltzen zaigu gehienetan. Txirrita sagardotegi eta ostatuen alaigarri da; eta Basarri publikoari zor zaion gizabidearen eusgarri. Txirritak ez du oztoporik astindu beharrak astintzeko, hitz mingarriak erabiltzeko; baina Basarrik ez du erabili satira gogorrik, hitz mingarririk. Hori bai, badu azpimarkatzeko zerbait, Txirritak ez duena: sentitzen duen oiñazeak eraginarazten dion bertso dramatikoa.

Tipologia aldetik harrigarria Txirritaren nortasuna. Pernando Amezketarraren mailara iristen ez bada ere, badu antzeko zerbait, beste guzien artean asko nabarmentzen duena: sortu ditu hamaika zelebrekeria, eduki ditu hamaika ateraldi eta neurriz kanpokoa da haren umorea. Gaiez eta gizalegez kabida haundiko gizona da, herri herriko pentsamolde arrunten ispilu jatorra.

TXIRRITA	BASARRI
1.- Nekazaria sortzez; langile soil ogibidez	*1.- Nekazaria sortzez; kaletartua umetan; kazetalaritza ogibidez.*
2.- Eskolagabekoa	*2.- Eskolatua*

3.- Maisutza jator bat gabe: herrikoiago eta berezkoago	*3.- Maisu bati atxikia: Otaño eta K. Enbeitaren hildotik*
4.- Euskera aberatsa, erderakadarekin; baiña oso bizia	*4.- Euskera aberatsa, garbia eta bizia*
5.- Esaera zaharrak, trinkotasunik gabe, beti argi.	*5.- Esaera zaharrak, esaera berriak, illundura gutxi.*
6.- Bertso egiturari buruz Xenpelarren teknika.	*6.- Berdin*
7.- Musika arloteagoa	*7.- Musika aberatsa eta aukerakoa*
8.- Arnasa haundiagoko gaiak.	*8.- Eguneroko gaiak, azken aldera batez ere, komunikabideen araberan.*
9.- Usariozko eskolaren agergarri haundiena	*9.- Eskola berri baten sortzaile, batez ere sozio-kulturazko aldakuntzak bertsogintzan txertatuez*

Bi adierazgarri hoiek aipatu ondoren, gauza nabaria da aldaketa baten bulkoa daramala bertsolaritzak. Eta aldakuntza bera nolakoa izan den ikusteko estimagarri jo dugu Txirrita eta Basarri elkarrekin konparatzea. Ez da izan nere asmoa norgehiagoka bat egitea eta onena zein den erabakitzea. Lanpide hau bertsolaritzak berea badu ere, -gogora ditzagun txapelketak eta sariketak - , bestelakoa izan da nere asmoa: bakar bakarrik ikuspuntu bat eman nahi izandu dut, bertsolari eskola desberdinen arteko osakiak zeintzu diren gogoan har ditzagun, eta horrela gero eta osoagoa izan dedila une jakin bateko bertsogintzari buruz ematen dugun balio-iritzia.

Juan Mari LEKUONA

1974-5-24

Sala de los Reyes del Monasterio de Yuso de S. Millán de la Cogolla

NOMBRAMIENTO DE ACADEMICO DE HONOR A FAVOR DEL SR. MERINO URRUTIA

El Sr. Juan Bautista Merino Urrutia, riojano de pura cepa, de ascendencia vasca, ha consagrado buena parte de sus afanes y desvelos durantu su larga y laboriosa vida a explorar y detectar las huellas del vascuence en estas tierras de la Rioja y en parte de la actual provincia de Burgos. El ha parado mientes por primera vez y reparado en un dato histórico altamente interesante, a saber, que los habitantes del valle riojano de Ojacastro, en el siglo XIII, habían por fuero el poder servirse del vascuence en sus declaraciones y demandas judiciales. Es larga la lista de los trabajos de investigación histórica toponomástica etc., realizados por el Sr. Merino Urrutia.

El Sr. Merino Urrutia, que era desde hace tiempo miembro correspondiente de la Academia de la Lengua Vasca, se ha mostrado además en todo momento un puntal eficaz, siempre dispuesto a ayudar a nuestra institución en toda clase de gestiones.

En reconocimiento a sus méritos científicos y a esta su múltiple labor, la Academia, en seción celebrada en San Sebastián el 24 de mayo último, nombró al Sr. Merino Urrutia académico honorario, rango al que pertenecen, tras nombramiento del Pleno, aquellas personalidades que han sobresalido por sus valiosos trabajos en torno a la lengua vasca. En fe de lo cual en estos momentos se va a hacer entrega al Sr. Merino Urrutia del correspondiente diploma acreditativo de su título de académico honorario de Euskaltzaindia (Academia de la Lengua Vasca).

L. Villasante - Presidente

San Millan de la Cogolla

15-6-1974

HISTORIA DE LA PRESENCIA DEL VASCUENCE EN LA RIOJA

Hemos oído con verdadero interés el discurso de entrada del Académico de Número de la Lengua Vasca, y amigo mío Alfonso Irigoyen y a la contestación de nuestro Presidente el Padre Luis Villasante, y voy a tener ahora el honor de participar en este solemne acto de conmemoración del X centenario de las primeras palabras escritas en vascuence por el monje glosador, y sin duda bilingüe, que aparecen en el códice conocido de las Glosas Emilianenses.

Se dá la feliz coincidencia de que en esas mismas Glosas aparecen los primeros balbuceos del castellano, efemérides, que ha recordado ya la Real Academia Española en esta lápida que tenemos a la vista. Agradezcamos a la Orden de Agustinos Recolectos su colaboración, que ha hecho posible se celebre este acto con toda solemnidad dada la trascendencia histórica que tiene el vascuence.

Tiene para mí especial singularidad este acto y por ello me vais a permitir que haga alguna alusión a mi persona, ya que soy riojano por nacimiento, arraigo continuado y por vínculos de sangre, por otro lado Bilbao, donde he residido normalmente a partir de los primeros meses de mi vida, me ha dado la sangre del espiritu, parodiando la frase de Unamuno.

He de añadir de una manera sintética que en mí está hermanado de una manera indeleble lo vasco y lo castellano. Entre mis apellidos castellanos se mezclan en los paternos los alaveses Ochoa de Chinchetru y López de Vallejo, y entre los maternos tengo el Urrutia que salió de Elorrio para la Rioja, y con el cual enlazan los apellidos Berano, Eizaguirre de Azpeitia, Ichaso, Eztala Urrutia, Ariz y Aguiriano entre otros. El motivo de la emigración de tales antepasados míos a la Rioja fué para tomar parte de las plantillas de los muchos artifices que salieron a tierras riojanas, durante varios siglos, para dedicarse a muy diversas tareas de la construcción.

Después de este preámbulo de tipo personal creo que interesa conocer la importancia monasterial de La Rioja, en cuyas tierras se levantaron los conventos de San Millán de Suso y de Yuso de Albelda, de Valvanera, de Nájera y el de San Miguel de Pedroso que aunque hoy esté en la provincia de Burgos, no lejos de Belorado, puede considerarse unido a las tareas que en el medievo realizaban los monasterios riojanos, precisamente en el momento enque se estaba gestando la nacionalidad española.

Gracias a contar La Rioja con estos centros monacales pudieron recogerse en sus escritorios los primeros aconteceres históricos, fuentes que han podido llegar hasta nosotros en los Cartularios de cada uno de ellos, por virtud de los cuales podemos conocer hoy lo que pasó en aquellos tiempos remotos. Ahora he de hacer poco uso de fuentes históricas, para dar a conocer algunas pruebas de la presencia del vascuence en La Rioja, para lo que me servirán en cambio las orientaciones de los prehistoriadores, y la ayuda de la toponimia menor recogida y publicada por mi durante buen número de años en las largas estancias en mi casa de Ojacastro.

El nombre de la "Rioja" figuró por primera vez en el Fuero de Miranda del año 1099. Parte de sus tierras se integraron en 1832 en la actual provincia de Logroño, cuyos limites nada tienen que ver con los geográficos, y sobre todo con La Rioja de la época prehistórica, que vamos a estudiar a continuación.

Despues de estas explicaciones de tipo histórico empiezo a utilizar la prehistoria a fin de dar a conocer cuales fueron las razas primitivas antepasadas de los actuales riojanos. Esta ciencia cada vez con más cultivadores me sirve de guia para tal conocimiento, y con ella podremos caminar con cierta seguridad para poder tener alguna orientación de la primera habitación humana que vivió sobre tierras riojanas y deducir alguna hipótesis alrededor del tema que me ocupo. No hay que olvidar que la prehistoria por motivos obvios se halla en constante renovación de criterios, ya que estos se modifican con cada nuevo descubrimiento que se consigue en las excavaciones, que echa por tierra anteriores apreciaciones.

Entre los trabajos más destacados de los prehistoriadores me sirven de guia los del maestro Luis Pericot, así como también las opiniones que recoge con el mismo título José Mª Gomez Tabanera, libro publicado en 1967, en el que pueden verse varios artículos que pueden servir a quien desee tener mayor contraste de pareceres y conocer cómo se encontraban en esa fecha los trabajos prehistóricos en España.

Además de estas consideraciones preliminares, no debe olvidarse que La Rioja fué región siempre muy codiciada por los que habitaron en sus cercanias ya que sus tierras eran más ricas agricolamente consideradas, y que por lo tanto se dieron en ellas desde la prehistoria acciones de guerra por poseerlas. En esta idea se hallan de acuerdo las opiniones de los prehistoriadores, así como en el nomadismo que era frecuente en la primera población de pastores y cazadores que llegaban de las montañas del Norte de la Península, detalle que dificulta cualquier juicio sobre pueblos y razas que primitivamente habitaron las ricas tierras riojanas que se asentaron en las vegas de sus rios, que desembocan en el Ebro. Esta inquietud de los primitivos pueblos, base de los actuales riojanos duró hasta la final integración de La Rioja con Castilla.

No se han hecho demasiados trabajos de excavación en las tierras de La Rioja, y además se han realizado de una manera aislada hasta que en estos últimos años se han intensificado como veremos más adelante.

Después de nuestra guerra civil, la Comisión Provincial de Monumentos de La Rioja con ayuda de la Diputación de Logroño, encargó al malogrado prehistoriador Blas Taracena varias excavaciones de los yacimientos más importantes, que continuó Augusto Fernandez Avilés. Unicamente se realizaron excavaciones exploratorias en El Redal y Cantabria, y sirvie-

ron después para el estudio de nuevos trabajos para conocer la importancia de la prehistoria riojana. En el primero aparecieron datos de la industria lítica y un buen lote de vasijas. Ambos yacimientos han vuelto a ser excavados ahora y se han publicado sus hallazgos en unión de los realizados en estos últimos años de que me ocuparé después. El libro que recoge estos datos acaba de editarse bajo la dirección del profesor de la Universidad de Navarra, Alejandro Marcos Pous. El citado libro se publicó en Logroño con el título "Miscelánea de Arqueología Riojana" el año 1973.

Desde fines del siglo pasado el incansable investigador D. Pedro Gutierrez Achutegui, se dedicó con interés a salvar muchas piezas de Calahorra y su amplia zona, cuyos hallazgos pueden situar la población de esa zona riojana entre 1800 a 1400 antes de Cristo. Se localizó tambien el Dolmen de Peciña al pie de la sierra de Toloño, y otro muy abandonado en Nalda no lejos de Logroño.

Se ha publicado en el libro referido, una interesante colección arqueológica recogida por D. Julio Rodriguez, Profesor del Seminario de Logroño, que tiene mucho interés para quien quiera profundizar los estudios de que me vengo ocupando.

Profesores de la Universidad de Navarra dirigidos por el citado Marcos Pous y secundados por otros profesores de esa Universidad y de la de Zaragoza, han excavado sistematicamente diversos yacimientos y han recogido en el mismo libro el resultado de sus trabajos. De las excavaciones anteriores se deduce que la primera habitación humana de la Rioja puede fijarse en la Edad de Piedra, acaso en el Neolitico, y me sirve como uno de los argumentos que presento para documentar mi tesis sobre la época en que puede fecharse la presencia del vascuence.

Para dar una idea de las tribus que poblaron La Rioja he compuesto un mapa siguiendo las ideas recogidas de autores solventes. En él indico graficamente la situación de las que poblaron La Rioja, que en su mayor parte estuvo ocupado por los "berones" y una porción parecida de la Zona Sur por los "bascones" y por el Norte en una pequeña parte se asentaron los "autrigones". No podemos afirmar todavía cuál fué el idioma que hablaron esas primitivas tribus, que a mi juicio no cabe duda de que poseian el vascuence, puesto que dada la abundancia de los restos de la toponimia menor que hemos conseguido de esa lengua tiene gran fuerza como luego veremos citada mientras no haya pruebas en contrario.

Probada ya la existencia de la habitación humana en la Edad de Piedra, viene a mano lo que nos dice el Profesor Luis Pericot en el discurso pronunciado en la Clausura del XII pleno del Consejo Superior de investigaciones cientificas -1952-. Dado su interés copio uno de sus párrafos que dedica a la posible presencia del vascuence en la Prehistoria: *"Precisamente por ser* (el vascuence) *el unico idioma que se escapa visiblemente de la Prehistoria, porque Dios ha hecho el milagro de conceder a España esa reliquia del Paleolitico o del Neolitico. Quién sabe qué es la lengua vasca? Nada puede en los paises europeos devolver a un hombre del siglo XX la sensación de transponerse a 5 ó 10.000 años antes. A nosotros nos basta para ello con escuchar a unos campesinos vascos en alguna de sus fiestas populares improvisando en su vieja lengua y cerrar los ojos. ¡Estamos oyendo a unos pastores neolíticos o acaso a quienes pintaron Altamira!*

Después de esa autorizada opinión sobre la antiguedad del vascuence presento otra prueba, indiscutible a mi juicio, que quiero unir a la ya expuesta, ayuda a concretar cuál fué la lengua que habló la primitiva población que pervivió en las tierras de La Rioja. Se trata de toponimia, ciencia que nos facilita hoy como un libro abierto, los nombres que se dieron primitivamente de los rios, términos y accidentes del terreno que han perdurado hasta ahora. De la recogida de esa toponimia menor vasca me ocupé hace bastantes años publicando buen número de esos nombres. Entre estos tienen aún mayor importancia los que se aplican a los ríos y a sus afluentes, ya que sus nombres estimo que son los primeros que se designan por los que llegan a pisar las nuevas tierras. Estas listas se publican en mi libro "El vascuence en la Rioja y Burgos" año 1962. Por cierto que entre los nombres vascos se halla el de "Oia" que con la palabra castellana "Rio" por delante se forma el de la región de la que nos estamos ocupando. Y estimo que ese nombre y el de los demás que figuran en mis listas, no se les puede achacar que sean de época de repoblación a la que según algunos opositores suponen se deben todos los topónimos vascos de La Rioja, sin que ellos se den cuenta que cuando llegó esa repoblación en los siglos IX y X, ya se ha hablado el vascuence en la Rioja como quedará probado después. Cuando en efecto tuvo lugar la repoblación de los citados pueblos en esos siglos fueron descendiendo de las montañas de la antigua Bardulia, y de las tierras que ocuparon los Caristios que se asentaron en las que quedaron libres cuando los arabes fueron empujados hacia el Sur. Estos hombres del Norte con los que llegaron de las tierras de Alava se fueron estableciendo en las ricas vegas del rio Oja y del Tirón donde fundaron pobla-

dos a los que con frecuencia imponian su nombre y agregaron el sufijo vasco "Uri" que ha sido la base de los nombres de buén número de actuales municipios, que han conservado hasta hoy los nombres fundacionales.

En la Rioja Media y Baja los toponimos vascos recogidos se aminoraron bastante, porque en ambas zonas entre otras razones, acaso más imprecisas, pervivieron los árabes mayor número de años que en la Alta, y por esta causa muchos nombres vascos se arabizaron en ella como ocurrió con los de algunos pueblos tales como Albelda, Alberite, Alfaro y Alcanadre, de la Rioja Media y Baja, que tienen marcado arabismo. Además de esta influencia no debe olvidarse que toda la toponimia hispana se encuentran celtismo e iberismos, que no han de faltar también en La Rioja de cuyas lenguas en esa tierra faltan trabajos a fin de discriminar bien la toponimia. No hay que olvidar además que es cruce de lenguas y que algunos creyeron que el vasco y el ibero eran las mismas cosas que aún siguen discutiendo y que es problema que está aún sin desvelar.

Pero además de la importante prueba que nos da la toponimia menor, tenemos tambien la que nos dan los antroponios medievales, que pueden verse en los cartularios de los grandes monasterios riojanos que hemos citado, de los que he publicado abundante lista de nombres vascos en varios de mis libros, entre ellos el que he citado. Todos estos datos ayudan a corroborar cuanto vengo diciendo sobre la época del vascuence en La Rioja, además de lo que voy a manifestar.

En mis pesquisas por archivos y bibliotecas tuve la suerte de descubrir entre muchas Fazañas que copian Marichalar y Manrique en su "Historia de la Legislación", una que sigue siendo adecuadísima para demostrar que el vascuence fué lengua hablada en La Rioja. La publiqué en el año 1932 en uno de mis primeros trabajos que salieron en el Boletín de la Sociedad Geográfica Nacional, después de hacer un detenido estudio para fecharla. Después que la dí a conocer se ha estimado por profesores y linqüistas que han tratado de ese tema como indiscutible para asegurar que el vascuence tiene en La Rioja la época que vengo sosteniendo.

La Fazaña aludida puede verse en la página 273 del tomo II de dicha obra y que copiada a la letra dice así:

"22- De una fazanya de Don Moriel Merino Mayor, et del Alcalde de Oia-Castro. Esto es por Fazanya que el Alcalde de Oia-Castro

mando prendar D. Morial que era Merino de Castilla porque juzgara que el ome de Oia-Castro si le demandase ome de fuera de la Villa o de la Villa que el recudiese en Vascuence. Et de sopo D. Morial en verdad, que tal fueron habían los dos de Oia-Castro, e mandol dexar e dexaronle luego a que juzgase su fuero".

Como los referidos autores no señalan fecha de la fazaña, puesto que de las 29 que presentan, en unión de la citada, no exceden según ellos, de Alfonso VIII, tuve que investigar en el tiempo de la Merindad de D. Morial o D. Morael para fecha que presento a los lectores, y pude averiguar que el citado D. Moriel fué Merino Mayor de Castilla de 1234 a 1239.

De modo que la Fazaña en cuestión queda comprendida entre los años citados y, por lo tanto, demostrado documentalmente que en la Villa de Ojacastro se hablaba aún el vascuence en la primera mitad del siglo XIII.

Como queda demostrado en la citada villa, cabeza del extenso valle en la edad media, el vascuence era lengua hablada por todos sus habitantes hasta el punto que llegó a exigir que se dictara la disposición copiada, que es una prueba más de cuanto vengo diciendo, que en unión de lo que se desprende de la arqueología y de la toponimia hay que concluir y asegurar la presencia del vascuence en La Rioja como única lengua desde la llegada de la primera población a sus tierras. También puede juzgarse que el vascuence hablado existiera hasta fechas bastante posteriores a la fazaña citada.

Me interesa añadir que las costumbre y forma constructiva de las viejas construcciones en los actuales pueblos que son todavía hoy, sobre todo en la sierra, fiel reflejo de la etnología de los aborígenes que primeramente habitaron en las cabañas de la sierra que aún pueden verse relacionadas en la primera documentación de los siglos IX y X. Al aumentar esas construcciones se formaron las aldeas de las Sierras de la Demanda y Cameros que, al agruparse y crecer, dieron lugar a los actuales municipios.

En obsequio a la brevedad omito varias conclusiones que figuran en mi libro que aclaran aún más cuanto vengo diciendo, pero antes de terminar estimo que debemos sacar de este solemne acto milenario, algunas consecuencias que redunden en beneficio de los estudios de la lengua vasca, y a tal fin voy a proponer dos conclusiones, una de las cuales la enuncié ya en mi referido libro.

La primera se refiere a la conveniencia de continuar la recogida de toponimia en los límites que quedan indicados de las zonas de Rioja y Burgos donde se habló vascuence. Es labor lenta y penosa, pues debe hacerse sobre el terreno, pero la tarea puede ser premiada con positivos resultados. Debe hacer en equipo, si fueron posible con universitarios en la época de vacaciones, que pudiera patrocinar el Instituto de Estudios Riojanos, ya que nos viene dando muestra de su dedicación al tema, en su ayuda en el acto que hoy celebramos. Para ese trabajo supongo fundamentalmente que se contará con el eficaz asesoramiento de la Academia de la Lengua Vasca.

Tal tarea puede ser completada con la investigación de datos toponímicos e históricos sobre esa lengua, y además otros sobre la historia civil y eclesiástica de las vascongadas, que deben obtenerse en los archivos de las catedrales de Calahorra y Santo Domingo de la Calzada, que hasta el siglo pasado estaban integradas aquellas en ambos obispados. Con el mismo propósito deben investigarse los archivos de Protocolos de Logroño, y los de algunos municipios radicados en las zonas limítrofes aludidas. Tales investigaciones pueden servir para desvelar el nebuloso clima que han presentado hasta hoy los estudios del vasco-iberismo en la zona a investigar.

Y concluyo, dirigiendo un ruego a la Academia de la Lengua Vasca que considero de gran oportunidad, por estar entre nosotros una gran representación de Académicos de esta vieja lengua en estas tierras riojanas que se castellanizaron, como hemos visto a partir del siglo XIV, lengua que debe estudiarse con el propósito que aumente su difusión, a pesar de los conflictos lingüísticos que por doquier le acechan. El ruego se refiere a la conveniencia de utilizar el bilingüismo en todas aquellas publicaciones que se considere factible, y que a la vez la Academia recomiende su uso, pues a no dudarlo el bilingüismo sería bien acogido entre los no hablantes. Yo creo que con esta facilidad el vascuence ganaría adeptos y estima, pues no debe olvidarse su gran importancia entre las lenguas que se hablaron primitivamente en las tierras de España.

Doy por terminado este trabajo sobre la historia de la presencia del vascuence en La Rioja, cuyos juicios someto a otro mejor criterio y a las nuevas pruebas que aparezcan para su establecimiento.

Juan Bta. MERINO URRUTIA

San Millán de la Cogolla 15-6-1974


MARE CANTABRICUM
AQUITANIA
FRANCIA
VESCITANI
VASCONES
NAVARRA
GUIPUZCOA
ALAVA
BARDULI
CARISTII
VIZCAYA
SANTANDER
CANTABRI
BURGOS
VTRIGONI
BERONES
LOGROÑO
SORIA
PELENDONES
TURMOGI
VACCAEI
SIGNOS
Calzada romana
Límite de las primitivas tribus
Límite de provincia
Las rayas negras indican la zona donde el Vascones se habló en Rioja y Burgos.
Tomado del plano de la Historia Crítica de Vizcaya de Dr. Gregorio Balparda 1924.
Compuesto J. Dr. Moreno. Mayo 1935.

GORPUTZ ETA SOIN

Besterik ematen duela aditzera badirudi ere izenburuak, ez noa geure burua "butzu ondagabe" horretan murgiltzera, gorputz-zale nahiz soin-zale nahiz erdibideko agertuaz. Ez dut ere hitz pare bat esango hain atzendurik daukagun ***lohi*** zaharraren alde.

Besterik dut gogoan. Aspalditxo hontan, gaitz kaltegarria zabaldua dago gure artean, oker ez banabil. Ez gazteak ez zaharrak ez dira, dirudienez, ezertaz oroitzen eta, are makurrago dena, ez dute ezertaz ez bere kabuz oroitu nahi ezta, gauza paperetan datzanean, bestek oroiteraz ditzan ere. Barkakizunago dira batez beste, bekatari badira ere, gazteagoak zaharragook baino. Guri begiz ikusiak eta beharriz entzunak ere ahaztu egin zaizkigu, itxura duenez.

Maiz darabiltzagu ahotan jendearen —atzo edo herenegungo jendearen— iritziak eta jokabideak, gogorki astintzeko asmotan gehienbat.

Gogorkeria nahiz biguinkeria ez zaizkit berez kaltegarri iruditzen, behar duten funtsa eta oinharria ez badute eskas. Eta jakina da zein den eta zein datekeen funts hori. Inoren iritziak eta jokabideak goraipatzen eta arbuiatzen hasi baino lehen, premiazkoa da iritzi-jokabideok zer-nolakoak ziren finkatzea. Eta hauxe da, hain juxtu, maizegi egiten ez dena.

Kalterik larriena, behar bada, Abandoko Arranoak hartu du, batzuen eta besteen zabarkeriari eskerrak, hemen ere eskerrak eman behar baldin badira. Ongi dakigu zer esan eta egin zuen zenbait gauzatan; ez horrenbeste, beste zenbaitetan. Euskal gaietan, esate baterako. Aski gazterik hil zen eta, besteak beste, esku artean zituen lanak eta asmoak ontzeko astirik gabe. Bestek hartu zuen hark utzia, eta zegoenean geldi ez zedin, ondorioak ateratzen hasi ziren ondorengoak, nork bere gisara eta modura. Mugatu behar litzateke, beraz, zer zor zaion iturburuari eta zer den gerokoek handik zetorren ur-jaioari erantsi diotena.

Hizkuntzaz mintzatuko naiz hemen, soil-soilik, lekuari dagokionez. Adiskide batek utzi dizkit Arana Goirik berak sortu zuen ***Euzkadi*** aldizkariaren zenbait ale: 1905-1915 urteak ez daude osorik, baina hor ageri dira bitarte horretako zenbakirik gehienak.

Bistan da, aski baita begiralditxo bat hori ikusteko, zenbait portura gero eta gogorrago agertzen direla. Hona adibide bat. Hor idatzi zuen, besteak beste, Kirikiñok, izengoiti horren ordez bere izena erabiltzen bazuen ere. Eta inork ez zion debekatu, ez ta ukitu ere, "Asaben ogasunak" deritzan artikuluan (2ª época, II (1905), 194-203) darabilen idazkera: **euskaldunari, euskerara, euskerea** eta abar. Are gehiago hauxe dio 198 plaman: "**Euskadi**" izentzat daroan liburu onetarako zerbait euskeraz irazteko itza baitu neban azkero..." Gero, egia esan, ez da horrelako liberaltasunik. Irudikorren batek pentsa dezake, gainera, izan zuela horretan zer ikusirik gero eta nabarmenago agertzen den Arriandiaga' tar Imanol jaunak. Lehen aldiz, III (1906), 143-151, "Carta abierta al Sr. D. Gregorio de Mujica" delako artikuluan aurkitu dut honen izena. Eta ez dira nolanahikoak Mujikak ***RIEV***-en "Euskaldun gazteriari" **euskaraz** argitara zuen lanari **erdaraz** aditzera ematen dizkion hutsak eta desegokikeriak. Garbi dago, horrenbestez, gauza bat direla Arriandiagaren iritziak, bere baitarik ari zenez gero, eta bestea Aranarenak.

Dena den, bestetara noa orain. Azken aldi honetan, izan ere, badirudi bekatu mortalean daudela (gaudela?) **soin**-ek eta **gorputz**-ek adiera

berbera ez dutela esan duten guztiak. Iritzi hori, ordea, ez da oraingo Euskaltzaindian, holakoren edo halakoren kontra, sortua eta hazia. Erroak, eta horixe da hemen azaldu nahi nukeena, goraxeago ditu.

Hauzi hori behin baino gehiagotan miratua eta arakatua izan zen delako aldizkarian: ahalik eta gehien saiatuko naiz izena ez aipatzen. Aurkitu dudan lehen aipamena, Urriolabeitia-tarr Paul-en ohar labur batean ikusi dut: "Notas lexicológicas: "euzkerízame", IX (1912), 133-134.

Hona Urriolabeitiaren kezka: **gorputz** (berak **gorrputz** idazten du, r gangardunaz) erdaratikakoa iruditzen zaio (euskaraz erabili behar ez litzatekeena, beraz), baina duda egiten du, halaz guztiz, euskal jakitunik jakintsuenak erabili eta erabiltzen dutelako. Hona lekukoen izenak:

"Alguien me responderá que el Maestro Arana-Goiri siempre ha designado al 'cuerpo' por **gorputza** y a los 'restos mortales' por **gorpuzkiñak.**

El señor Elizalde ha usado de la palabra **gorputza** en su traducción al euzkera del "Anima Christi", si mal no recuerdo.

Item: el Dr. Arriandiaga en su precioso folleto **Umiak autortuten**, si no me es infelice la memoria".

Hala guztiz, ez zaigu Urriolabeitia lásai gelditzen eta honela dio, azken aldera: "La palabra **gorputza**, según opino, procede de la alienígena, no euskérica, **corpus, corporis**,... La voz **soña** tiene más **verosimilitud** euzkérika; y si no, que lo digan los que usan **soñekuak**."

Ez zen luzaroan ixilik egon A.´tarr Imanol, Arriandiaga dudarik gabe, eta hurrengo zenbaki batean argitara zuen erantzuna: "Nota lexicográfica: **gorputz**" 9 (1912), 288-293". Nahi eta ez, erdarara iragan beharko dugu, erantzuna ere erdaraz dagoelako.

Honelatsu hasten da "por responder a la ilusión" idatzi zuen artikulua: "A primera vista dicha voz parece importación latina. Su analogía con **corpus** es evidente". Zenbait arrazoi ere agertzen ditu uste honen alde. Hona laugarrena: "porque así nos lo aseguró en cierta ocasión el muy competente euzkerista, Izpitzua´tarr Paben. Le preguntamos si sabía por qué Arana-Goiri admitía como legítimo **gorputz** y cuál pudiera ser su etimología. Y nos contestó que desconocía una y otra cosa y que a su juicio era voz latina".

Eta honela darraio gaiari: "Sin embargo y a pesar de las razones expuestas, no debe de ser todo lo claro que desearíamos que **gorputz** sea importación latina.

Lo primero, Arana-Goiri´tarr Sabin usaba siempre **gorputz** y nunca **soin**, voz que conocía perfectamente.

Lo segundo, formó la voz **gorpuzkin**´ reliquia o resto humano'. No es probable que, siendo tan escrupuloso como era en admitir voces extrañas, admitiera **gorputz** y formara de él **gorpuzkin** y desechara a **soin** (horixe dio, jakinaren gainean baztertu egin zuela), si no tuviera por legítima la voz **gorputz**..."

Hitz baten etorkia aurkitzea eta honen "iralgia" garbitzea, hiztegi etimologiko baten eginbidea da: hemen ez dihoakiguna, beraz. Dihoakiguna hauxe da, huts-hutsik: zer adierazi eta adierazten duen **gorputz**-ek, eta zer **soin**-ek. Honetaz ere badu zer esanik Arriandiagak, Azkueren Hiztegia aztertu ondoan:

"No es cierto que el Euzkera posea otro vocablo equivalente, a saber, **soin**, vasco por sus cuatro costados a pesar del **sôma** griego. Arana-Goiri´tarr Sabin, no recordamos ahora el lugar, da a **soin** el significado de "hombro" o "espalda" (bai, horixe dio), pero no el de "cuerpo". Y lo propio puede deducirse del Diccionario del Sr. de Azkue, quien, si bien le da el significado de "cuerpo" como primera acepción, sin embargo las pruebas que aduce demuestran el significado de "hombro, espalda, loma": **gurutzia soñian daramala** = llevando la cruz **a cuestas; eraman nazu soin-soin** = lléveme V, **a cuestas; soñak gora** = arriba **los hombros; soin bat egur** = un **hombro** o carga de leña. Y basta este significado para que **soñeko** pueda ser vestido que cuelga de los hombros".

Entzuteko belarridunak bentzu, Aita Olabidek itzuli zuenez, eta ikusteko begirik duenak irakur beza. Ez naiz hemen inoren iritzien alde ez kontra ari: baditut gai honetan neure-neureak, baina orain ez dute ardura. Adierazi nahi nuena adierazirik dagoela iruditzen zait. Hots, oraingo zenbait uste, berrikeria (eta bihurrikeria) gisa jendaurrean agertu nahi direnak, ñañoak azpijanean ari zaizkigulako edo, ez direla ez berriak ez oraingoak. **Gorputz** eta **zoin** ez direla eta ez direla izan sinonimoak uste izatea ez da, ikusi denez, ez oraingoa ez sator zulatzaileen egitekoa. Nori berea, omen da zuzenbidea.

Berri itxurako oro ez da beti berri. Horrelatsu, norbaiten irudimen liluragarriak sortu duen **euskerantoak** berak ere badu arbasorik, Eleizaldek kontatzen digunez (XI (1914), 99), euskal aditzaz ari dela: "recuerdo que, por ese motivo, tuvo don Julio de Urkixo la benévola ocurrencia de llamarme ***euskal-esperantista***".

Neuronek idatzia dut, aurrekorik aipatu gabe, **dut/dudan** eta antzekoak esplikatzeko ***duda**-tik abiatu behar dugula. Hemen ikusten dudanez, aspaldi esana zeukan Arana Goirik "Así **dot** (lo he) y, sin excepción, todas las flexiones verbales que terminan en **t**, revelan al mudar ésta en **d**, en muchos casos de sufijación vocal, que primitivamente terminaron en **d** + **vocal**". Diodan aldizkariaren arabera (X (1913), 268), ***Análisis y reforma de la numeración euzkérica***-koak omen dira aipatu ditudan hitzok, **bat**-i buruz idatziak.

Papertxo bat prest neukan, besteak beste, **Eneko**, antzina **Enneco** idatzia, ukitzen duena. Bada ezpada ere, kontutan hartzekoa zela nioen ez ote zitekeen izan **ene**-ren ahaidea. Tira, esana zegoen hori ere, eta Eleizaldek esana, IX (1912), 315-316, artikulutxo labur batean. Hau da beroren azkena: "Así, pues, mientras no se pruebe lo contrario, puede admitirse que **eneko** es una forma arcaica equivalente al actual **enetxo** que significa, en el lenguaje cariñoso y familiar, «miíto»; de aquí se elevó a ser una voz onomástica, propia y exclusiva del Euskera."

Landucci-k jaso zuen **eun** ere aipatzen da aldizkari horretan, Arriandiagaren ahoz, XII (1915), 164-165, deuseztatzeko bada ere: "La hipótesis de un verbo **eun**, que ha perecido, no nos parece admisible. Dicho **eun**, que siempre sería distinto de **eun** = hilar, nos habría dejado muy probablemente algún rastro de su existencia, en el uso o significado diverso de las meras funciones auxiliares" Orain badakigu, lekuko baten bitartez, **eun** bizi zela oraindik XVIgn mendean. Nolanahi ere den, Arriandiagak eta Arriandiagaren garaikoek bazuten horrelako zerbait euskaraz inoiz erabilia izan zitekeelako susmoa.

Duela zenbait urte, aski zabaldua zebilen harako saltzaile ibiltari bati "nor zenak" eman omen zion kontseilua: "Pues viaje V. menos, y lea más los periódicos". Horrelako zerbait esan behar genieke gure gazte ausartei eta zahar gordinei. Lehengo arazoez mintzatu behar baduzue, irakur itza-

zue orduko paperak edota, bestela, galda iezaiezue bizirik dauzkagunei. Hortan hasi beharko dut neuronek ere, bai baitut premia.

MITXELENA
1974-7-26

EUSKAL-ADITZEN SAILKAKERA JATOR BATEN BILA

Hauzoko ditugun erderen gramatikalariek, bere hizkuntzetako aditzez dihardutela, bi mota bereizi ohi dituzte, esanahiari dagozkiola: TRANSITIVO eta INTRANSITIVO direlakoak, alegia.

Lehenbiziko saillekoetan, diotenez, aditz-jabeak (SUJETO-ak) egiten duena, hots, aditzak diona, bertatik-bertarako osagarri batengana (COMPLEMENTO DIRECTO delakoarengana) heltzen omen da, ezinbestean. Horrela, norbaitek,

"yo traigo"

esan badeza, ekarte horrek gai bat du noraezeko, eta esakuneak

"yo traigo PAN, yo traigo UN LIBRO"

edo horrelako batez osatzea eskatzen du, aditzak adierazten duen gertakaria (ekartea alegia) NI aditz-jabearengandik PAN nahiz UN LIBRO aditzgaienganaiño heltzen dela.

INTRANSITIVO-etan, alderantziz, aditz-jabeak egiten duena besterik gabe osorik dago, eta

"yo vengo"

esatean, adibidez, esakunea bete-beteko agertzen da. Hortik datozkie sail bakoitzekoei, han xuxen, bere izenak:

TRANSITIVO, diona bategandik bestearengana igaro-arazten duena, eta

INTRANSITIVO, horrelako igaro-arazterik egiten ez duena.

Aditz bakoitzaren esanahiari berez lerioke, beraz, sail bateko edo besteko izatea; TRAER, LLEVAR, PONER, VER,... TRANSITIVO dira beraz, eta VENIR, IR, ANDAR bezalakoak berriz, INTRANSITIVO.

Euskal-gramatikalari gehienek ere, jokabide hori onartu eta aditzak bi saillotan kidekatu ohi dituzte. Euskaltzaindiak berak, aditz laguntzaille batua ematen, IRAGANKOR / IRAGANGAITZ hitzak darabiltzi, erderazko TRANSITIVO / INTRANSITIVO-en esanahi berdiñarekin.

Ohar bat, aurrerago baiño lehen. Gauzak zehatz begiratuz gero, IRAGANGAITZ ez dateke INTRANSITIVO adierazteko egoki; izan ere, erderazko IN-aurrizkiak EZIÑA adierazten du, gure -GAITZ-ek ez bezela, KONPONEZIÑA eta KONPONGAITZA ez bait-dira gauza berdiñak.

Baiñan natxekon lehengo ariari. Lehen-begiratu baten hain argi eta berezko dirudien sailkatze horrek ba ditu, erderetan, arakatu beharreko zoko eta izkutuak. ANDAR aditzak, adibidez, esanahiz IRAGANGAITZ etariko dirudi argi eta garbi; hala ere,

"los viajeros anduvieron un largo camino"

diotenean, delako bide luze hori aditzaren bertatik-bertarako osagarri gisa dago. Horra beraz ANDAR iragankor (TRANSITIVO) bihurturik.

Alderantziz,

"¿Que hacéis los sábados por la tarde?"

itaunari norbaitek

"los sábados por la tarde YO ESTUDIO"

erantzun badezaio, ez du iñundikan ere ZER ikasten duen adierazten; ESTUDIO aditzak diona ez da beraz YO aditz-jabearengandik beste ezerganaiaño heltzen, eta esanahiz TRANSITIVO behar luken ESTUDIAR betebetean INTRANSITIVO gertatzen da.

TRANSITIVO / INTRANSITIVO bereizkuntza hori ez dugu, beraz, gain-begiratu baten ematen duen bezain garbi. Areago, Vendryés-ek honela dio: "*...la distinction des verbes transitifs et intransitifs, qui joue dans les grammaires classiques un grand rôle, n'a pas de fondement...solide*"; hots: Klasiko-hizkuntzen gramatiketan hain garrantzitsu azaltzen den IRAGANKOR / IRAGANGAITZ bereizkuntza, funtsik gabeko da.

Eta euskeraz, zer? Azter dezagun astiroxeago.

Erderazko "nosotros venimos" eta
"nosotros traemos un amigo"

esakuneak aldera baditzagu, hauxe ikusiko dugu: Biek NOSOTROS izenordea dutela aditz-jabe, eta biotan aditz-flesioak izenorde horri egokitzen zaizkiola, dakartzigun adiskideak bat izan, asko izan, flesioak berehartan bait-dirau.

Euskeraz berriz,

GU GATOZ eta
GUK ADISKIDE BAT DAKARGU

erkatuz gero, zera nabari da: GU izenordea ez dela bietan berdin azaltzen. EKARRI bezelakoetan GU izenordea bere soillean (-K atzizkirik gabe, alegia) ager dedin aditzaren gai, jasaille izan behar duela jakiñekoa da:

GU ADISKIDE BATEK GAKARTZI

STEMPF eta SCHUCHARDT-ez gero hor ez dago iñolako koxkarik; euskal-aditz iragankorra jasaite-erako (PASIVO erako) dela onartuz gero, horra gauzak berriz ere garbi. Baiñan, bai ote?

Hoiek horrela izatera,

GU ZUK GAKARTZIZU

bezelakoetan ZU aditz-jabe (SUJETO AGENTE) eta GU berriz aditz-gai (SUJETO PACIENTE) lirakenez gero,

gu gatoz-en

ere GU "sujeto paciente" litzateke; delako IKASTOLA-HIZTEGI baten horrelaxe ematen dute, hain zuzen:

NOR-DUNA, SUJET PASIVO

Nik ordea, eta euskeraz ari den edozein euskalduni berdin gertatuko zaiolakotan nago,

GU MENDIAN GABILTZ
GU DEBARA GOAZ

diogunean GU ibiltearen eta joatearen SUJET PASIVO, jasaille gerala esateari aldrebeskeriarik aldrebesena derizkiot. Euskerari beste hizkuntzetatik so, gure hizkuntza bereekin alderatu eta jaun batzuek guk gure NORK-dun aditzak eurak bere pasibo-erakoak bezelatsu darabiltzigula esatea, bego, baiñan guk geuk, euskaldunok, jasaite-erakotzat jotzen ditugula onartzea besterik da, ordea. Mitxelenak, adibidez.

GU GATOZ

NORK gabea

GUK DAKARGU eta
GU GAKARTZI-rekin

aurrez-aurre jarri, eta berak, -K atzizkia gora-behera, NORK-dunarekin kidekatzera egingo lukela dio.

Biñan nakion berriz ere IRAGAKOR / IRAGANGAITZ sailkakerari. SEGUIR, POURSUIVRE aditzak, erdeldunentzat, esanahi hutsez TRANSITIVO dira; gure JARRAI ez, ordea, euskeraz ez bait-da BIDEA jarraitzen, BIDEARI jarraitzen baiño, eta

ni bideari NARRAIO

diodanean aditza ez da IRAGANKOR, erabateko IRAGANGAITZ baizik.

NIK LANEAN DIHARDUT

diodanean berriz, aditza iragankor itxurakoa bada ere, nik ZER dihardudan galdetzea alper-alperriko litzateke, horri erantzuteko beharko litzeteken osagarririk (COMPLEMENTO DIRECTO-rik) ez bait-dago.

Euskal-aditzak IRAGANKOR / IRAGANGAITZ sailletan biltzerik ez daukagu beraz, eta Lafon zenak argi asko esan zuen zer jokabide dagokigun: *"Il importe en effet* (zion) *de décrire la langue basque en elle-même et pour elle-même, sans chercher à y rétrouver les catégories en ussage dans les langues limitrophes ou dans les langues classiques".*

Euskeraz: Euskerari buruzko zehaztasunak euskeraren beraren baitan eta euskeraz baliatuz ematea dagokigu beraz, euskerarengan hauzoetako nahiz klasiko-hizkuntzetako gramatika-maillen billa jarduteke.

Bestela jokatzeak, hots, erdal-gramatiken morroi izateak dakartziken ondorioen lekuko, aspaldi gabe argitaratutako Euskal-Gramatika baten,

hala omen DA

esakuneko aditza IRAGANKOR-etako dela irakur diteke. Euskal-sena erabat galdu duenak baizik ez dezake horrelakorik onar.

Esandako bideari jarrai gakizkion beraz, aditz-flesioetan esku har dezaketen NOR, NORI eta NORK adierazten dituztenak noiz eta nola sartzen diran aztertuaz.

Euskal-aditz arruntenak bitan kideka ditzakegu:

ETORRI bezelakoek NOR baizik ez dute nahi eta ezko flesioak osatzeko, eta

EKARRI-ren antzekoek berriz NOR eta NORK dituzte, gutxienez, noraezeko.

Gaiñera, guztiok dakigunez, bi aditzotan NORI delakoa sarraraztea aukerako dugu.

Nolabait idazteko, ETORRI eta bere kideak

NOR (NORI)

ERAKO, ETA EKARRI bezelakoak

NOR (NORI) NORK

arauzko flesioen jabe direla nioke, bitarikoek NORI aukerako dutela. Aditz hoeik honelako flesioak euki ditzakete, beraz:

ETORRI-k,

NI NATOR moduko NORI gabeak, eta
NI ZURI NATORKIZU bezelako NORI-dunak;

EKARRI-k,

NIK HURA DAKART bezelako NORI gabeak, eta
NIK HURA ZURI DAKARKIZUT erako NORI-dunak

Zoritxarrez gauzak ez dira hain errexak, aditz guztiak ez bait-dira arau hoiek lerizkioketen flesio guztien jabe. Esanahia bera dela eta, edo erabilerak eragiñik, zenbait aditz murritz gertatzen da; alda ditzadan beraz, banan-bana, sail bakoitzean arki ditezken arauz-kanpotasunak.

Ikusi dugunez, ETORRI-ri honako arau hau dagokio:

NOR (NORI)

eta orobat IBILLI, JOAN eta beste batzuei ere.

Baiñan NORK gabeko hauetan ba dira, izan, JARRAI-k bezela NORI nahi eta ezko dutenak; hoiena honela idatziko nuke:

NOR NORI

JARRAI-rentzat adibidez honelako flesioak daudela adierazteko:

Ni bideaRI narraio (jarraitzen natzaio)
Gu Matxin-I garraizkio (jarraitzen gatzaizkio), e.a.

EKARRI, ERAMAN, ERABILLI, honako arau honi darraizkionak ditugu:

NOR	(NORI)	NORK

Hona hemen, orain, gerta ditezken murriztasunak:

HURA-HAIK	(NORI)	NORK

ERRAN eta JAKIN, adibidez, horietako dira:

Nik haik dakizkit
Zuk hari derrozu, e.a.

HURA	(NORI)	NORK

+ION aditzak, bere esanahia dela eta, HURA beste aditzgairik ez daramake; honela:

zuk hura diozu (NORI gabeko)
zuk neri hura diostazu (NORI-dun)

HURA	NORI	NORK

+IRAUTSI-k, murriztasun horretzaz gaiñera, ez daukake NORI gabeko flesiorik:

NIK ZURI HURA DIRAUTSUT

HURA-HAIK	.....	NORK

ERION-ek aditz-gaiz HURA-HAIK har ditzake baiñan, lehengoaren alderantziz, NORI-dunik ez dauka:

NIK ODOLA DARIOT
ZUK MALKOAK DARIZKIOZU

HURA	- - - - - -	NORK

IRUDI-k, berriz, HURA du aditz-gai bakar, eta NORI-dunik ez:

ZUK EUSKALDUNA DIRUDIZU

Lehen ere aipatu ditugun JARDUN-en flesioetara jo dezagun berriz ere.

Nik lanean dihardut
zuk etxegintzan diharduzu

esakunetan aditz-flesioak NORK-dun direla agerian dago, baiñan ZER dihardudan eta dihardugun galdetuz gero ezingo genuke iñolako erantzunik eman, ZERTAN dihardudan eta dihardugun baizik ez bait-da hoietan ageri.

Orain arte, beti, flesioen hasierako D- aurrizkia flesiotik kanpoko HURA baten adierazpide zela pentsatu izan dugu; nola diteke, beraz, oraingo hoietan kidetasun hori ezin aurkitu izatea? Azterketa sakonago bat beharrezko dela garbi dago.

NI	Nator	NI	Nakar
HI	Hator	HI	Hakar
hura	dator	hura	dakar
GU	Gatoz	GU	Gakartzi
ZU	Zatoz	ZU	Zakartzi
haik	datoz	haik	dakartzi

SAILLAK IKUSIZ GERO,

N- / NI G- / GU
H- / HI Z- / ZU

elkarrekin kidekatzea berez dator, bata besteari dagokiola argi ageri bait-da. Horrek ekarri bide du, araukortasunzurrean

DATOR eta DAKAR

flesioen hasierako D-ere, berdintsu, HURA aditz-gaiaren adierazpide zatekenaren ustea. Ba dira, ordea, uste hori oker izan ditekela pentsaarazten digutenak ere; hona batzu:

a) NI, HI, GU eta ZU direlakoetan, izenordeak eta flesiobarneko ezaugarriak hoskide ditugu. D- aurrizkiari legokioken izenorderik berriz ez dago.

b) Hasierako N-, H-, G- eta Z- orainaldikoetan eta orainaldiko ez diranetan berdin azaltzen dira. D- ez, ordea, besteen kide balitz hala behar lukela dirudienaren.

d) Orainaldiko ez diranen HURA aditz-gaia daukaten NORK-dunetan, NORK delako honen ezaugarriak beste aditz-gaidunetan ez bezela ematen dira:

DAKAR-egandik,	EKAR-egandik,
NIK hura dakarT	NIK hura Nekar
HIK hura dakarK	HIK hura Hekar
GUK hura dakarGU	GUK hura GENekar
ZUK hura dakarZU	ZUK hura ZENekar

Jokabide hau sistema berezi baten ezaugarri dugu.

Nere aburuz, honelako zerbait gerta zitekeen, agian: NOR delakoek flesioetan esku hartzen hasi baiño lehen, D- eta E- orainaldiko eta orainaldiko ez diranen aurre-ikur batzu edo izatea; orduan,

DAtor eta Etor

aditz-gaiaren iñolako adierazpenik gabeko aditz moduko batzu ziratekeen, gero, NI, HI, GU eta ZU aditz-gai gisa flesioetan sartu ondoren, HURA aditz-gaiaren esanahia bereganatu bazuten ere. Diodan, bidebatez, HOLMER-en iritziz D- aurrizkiak burushazki-z horrelako eginkizunen bat duela.

Nolanahi ere, JARDUN aditza egun NOR gabeko dela ezin uka diteke, eta ezta bere flesioak HURA aditz-gaidun bai-lira azaltzen zaizkigunik ere. Bi alderdiok nolabait agerian jartzeko, dagokion araua honela jar diteke:

HURA izuna	_ _ _	NORK

Era hortako flesioek nola sor zitekeen ikasteko, begizta ditzagun beste horrelako aditz batenak, IZEKI-renak alegia. Lardizabal-ek honela ematen ditu:

nik dizekat, hik dizekak, hark dizeka, guk dizekagu...

JARDUN-enak bezelakoxeak beraz. Larramendi-k, ordea,
HAR**K** DIZEKA ez, baiñan HA**RI** DIZEKA
darabil Mendiburu-i egindako eskutitz batean: Schuchardt-ek

neRI dizekat

dakar, eta Leizarraga-k ere

berroaRI (eta ez berroak) suz iexeki

dio. Beraz, dirudianez, egun NORK-en bidez ematen ditugun batzu iñoiz NORI erabilliaz eman zitezkeen. Uste horren baieztagarri, Larramendi-k berak

JainkoaK nahi dezala

NORK-dunaren ordez

JainkoaRI nahi DAKIOLA

NORI-duna idazten du, eta orobat, oraindik orain, Basarri-k eta Villasante-k ere.

Euskararik jatorrena darabillen herriari ere entzun dakizkioke

NI ASARRETU NAIZ-en ordez, NERI ASARRETU ZAIT,
HURA BELDURTU DA, nahiz HARI BELDURTU ZAIO,
GU IZUTU GERA beharrean GURI IZUTU ZAITU, e.a.

guztiak NORI-dunen esanahi zahar baten lekuko.

Lahovary-k dionez, Kaukaso-ko hizkuntzetan naitakoak eta nahitzekekoak bereizi egiten omen dituzte eta azkeneko hauek, nahitzekekoak alegia, beti NORI-dunen bidez ematen. IZEKITZEA, ASARRETZEA, BELDURTZEA,... ere nahitzekeko ditugu, hain zuzen, eta euskeraz ere, iñoiz, horrelako zerbait gerta zitekeela uste izateko bide ematen digute.

Beraz, IZEKI bezelakoak, jatorriz

HURA izuna	NORI	– – – –

NORI-dun huts izan, eta gero

neRI dizekat ⟶ niK dizekat
hiRI dizekak ⟶ hiK dizekak
haRI dizeka ⟶ harK dizeka

gertatu eta NORK-dun soil izatera aldatu zirela pentsatzeak bidezko dirudi.

ERAGON-ek eta INOTSI-k ere antzerakoren bat gertatu izanaren itxura osoa daukate.

Orainartekoak kuadro baten bildu baiño lehen, laguntzaillez NORK gabeek IZAN eta NORK-dunek UKAN darabiltzitela esan dezadan; hala

ere, NORK-dun aditzek ere har dezakete, iñoiz, IZAN laguntzaillea: NORK hori adierazi nahi ez danean, alegia. EKARRI, adibidez, NORK-dun dugu, eta

nik egurra menditik ekarten DUT

xuxen-xuxen dagokio, baiñan EKARTEA nork dagien adierazteke

egurra menditik akarten da

diogunean, UKAN laguntzaillea ez, baiñan IZAN darabilgu.

Hona, orain, aipatu dugun koadroa:

NOR gabeak	NORK gabeak	HURA izuna	NORI	--		izeki, eritzi (izena euki)
	(NORI-dun	HURA izuna	HARI	--		(euriari, elurrari,...) eragon, inotsi
	hutsak)	HURA izuna	--		NORK	izeki, irakin, jardun, iraun
	NORK-dunak	HURA izena	HARI		NORK	eragon, inotsi
NOR-dunak	NORK gabeak	NOR	(NORI)	--		izan, etorri, ibilli, joan, egon, etzan
		NOR	NORI	--		jarrai, ekin, eutsi, etxeki-atxiki, erin
		NOR	(NORI)		NORK	ukan, ekarri, eraman, erabilli, euki, egin, ikusi, entzun
		HURA-HAIK	(NORI)		NORK	erran, jakin
		HURA	(NORI)		NORK	ion, eritzi
	NORK-dunak	HURA	NORI		NORK	irautsi
		HURA-HAIK	--		NORK	erion
		HURA	-----		NORK	irudi

Nakion, bukatzeko, kuadroari dagozkion ohar eta xehetasunak emateari.

IZEKI.

Ikus ditekenez, kuadroan birritan azaltzen da, lehenbizikoari.

neRI dizekat

eta bigarrenari

niK dizekat

bezalako flesioak dagozkiela. Schuchardt-ek ere bitarikoak azaltzen ditu:

(ba) dizeka etxeaRI
(ba) dizekar niRI

eta Larramendi-ren

izeki zitzaien mendiaI

eta lehen aldiko

"(guRI) zizekagun" eta "(zueI) zizekazuten"

NORI-dunen ondoan,

"(niK) (ba) nizekan, (zuK) zenizeka" eta (zueK) zeñizaketen"

NORI gabeko NORK-dunak. Ikusi dugunez, jatorriz NORI-dun bide zirateken, gero

haRI dizeka harK dizeka, eta hortik { niK dizekat / hiK dizekak } .....

sortu zirela. Gaiñera, NORK gabe izatetik NORK-dun izatera aldatu izanak orainaldiko ez diranen era-araua berekin dakar:

neRI dizekat / zizekadan ; baiñan niK dizekat / nizekan
neRI dizekat / zizekadan ; baiñan niK dizekat / nizekan
hiRI dizekak / zizekaan ; baiñan hiK dizekak / hizekan
haRI dizeka / zizekan ; baiñan harK dizeka / zizekan
guRI dizekagu/zizekagun ; baiñan guK dizekagu/ genizekan

....

Bere esanahia dela eta IRAKIN IZEKI-ren kidekotzat jotzeak erabat bidezko dirudi; bestalde IRAUN-ek, tarteko bere -RA- horrek pentsa-arazten duenez, lehen NORI-dun izanaren antza dauka. IRAKIN. IRAUN eta JARDUN hiru aditzak IZEKI bezala lehen NORI-dun izanak direla uste izateak itxurazko dirudi.

ERITZI.

Hau ere bi aldiz azaltzen da; lehenbiziko hontan norbaiten izena adierazten du, eta

neRI Peru deritzat

erako flesioak dagozkio, NORI-dunak beraz.

ERITZI-ren beste esanahiaz gero jardungo dugu.

ERAGON, INOTSI.

Azkue-k dakartzien

euriaRI (haRI) daragoio
elurraRI (haRI) dinotsa

baizik ez ditut ezagutzen NORI-dun soil. Hoiekin ere, antza, IZEKI-rekin

haRI daragoio harK haRI daragoio { niK haRI daragoiot / hiK haRI daragoiok / harK haRI daragoio / guK haRI daragoiogu / ..... }

NORK eta HARI-dun bihuretu direla. Orainaldiko ez direnak, beraz, hauek izango dira:

{ niK haRI daragoiot / neragoion / niK haRI daragoiok / heragoion } { niK haRI dinotsat / ninotsan / hiK haRI dinotsak / hinotsan }

ERIN eta ERION

Hemen ere, ERION beste ERIN zaharrago bategandik bide dator, bien flesioak erabiltzen bait-dira; beraz,

haRI hura dario harK hura dario

baten ondorio ditugu ERION-enak. HURA aditz-gaidunak

neRI hura darit	/ zeridan	niK hura dariot	/ nerion
hiRI hura darik	/ zerikan	hiK hura dariok	/ herion
haRI hura dario	/ zerion	harK hura dario	/ zerion
guRI hura darigu	/ zerigun	guK hura dariogu	/ generion

....

ditugu, eta HAIK aditz-gaiari dagozkionak berriz

neRI haik darizkit	/ zerizkidan	niK haik darizkiot	/ nerizkion
hiRI haik darizkik	/ zerizkikan	hiK haik darizkiok	/ herizkion

....

ENTZUN.

Kuadroan dakarrenez, berez dagozkion flesioak

zuk ni nantzuzu (entzuten nauzu)

erakoak dira; hala ere, egun, erderazkoen NORI-dun itxurak edo ("Vd. ME oye") eraginda,

zuk neRI (hura) entzuten didazu

erabilli ohi da. Azkue-k dioskunez, erabil-era jatorrak oraintsurarte iraun du.

ADITZ-GAIZ MURRITZ DIRENAK.

Zenbait aditzek HURA dute aditz-gai bakar, eta beste batzuek berriz HURA nahiz HAIK har ditzakete. Murriztasun hoiek aditz bakoitzaren esanahiari darizkiola argi dago.

ERITZI.

"Izena euki" adieraztekoan, ikusi dugunez, NOR gabeko genuen, baiñan "zerbaitekiko nahiz norbaitekiko iritzia eukitzea" ematekotan HURA aditz-gaidun NORK-dun ageri da, aukeran NORI har dezakela; honela,

nik haRI on deritzat, derizkiot, deritxot
nik zuRI on derizut
zuek neRI on deriztazue

moduko NORI-dunen ondoan,

zuk hura miresgarri deritzazu
guk hura on eritzi dezagula

erako NORI gabeak ere erabil ditezke Iturriaga-ri, Uriarte-ri eta Leizarraga-ri bagagozkie behintzat. Jatorriz IZEKI bezelakoxe NORI-dun hutsa zela a-gerian dago.
Nolanahi ere, orain diodan esanahi hau daukanean beti NORK-dun behar du, eta erderazko NORI-dun itxurak ekarritako

neRI hura ongi deritzat

NORK gabeko NORI-dunak baztergarri dira.

BESTE BATZU

ASERRETU, BELDURTU, POZTU eta horrelakoez lehen ere jardun dugu. Orduan genionez, arima-giroari dagozkionok ETORRI eta bezela erabiltzen direnarren, NORI-duna huts gisa ere eman eitezke, honela:

ni asarretu naiz = neRI asarretu zait
hi poztu hintzan = hiRI poztu zitzaikan
hura izutu da = hari izutu zaio,
e. a.

Hoien antzera, lehen ere aipatu ditudan beste hauek ere:

jaunaK (hura) nahi bezala = JaunaRI (hura) nahi dakiola
zuK (hura) nahi dezazula = zuRI (hura) nahi dakizula
e. a.

***

Kuadrotik eta ondorengo oharretatik ateratzen denez, aditz-arau nagusienak hiru hauek ditugu:

NORI-dun hutsak

HURA izuna	nori	---

NOR-dunak
- NORK gabeak
- NORK-dunak

NOR	(NORI)	---
NOR	(NORI)	NORK

Beste guztiak hoiei darizkie, murrizte nahiz aldakuntzaren baten bidez.

Arruntenak NOR-dunak direnez gero, irakaskuntzarako hoiek direteke lehenbiziko, NORK gabekoentzat eta NORK-dunentzat eredu bana harturik (ETORRI eta EKARRI edo). Ondoren bi laguntzailleak erakutsi beharko lirake, gero NORI-dun hutsez jardun eta, azkenean, murriztasunen eta arau-aldaketen berri emateko.

Norbaitzuei, agian, erderaz egin ohi den TRANSITIVO / INTRANSITIVO bereizkuntza alde batera uztea zail gerta dakieke; euskal-aditza, ordea, erderetakoenez beste dugu, eta hoien arauak arrotz zaizkiola, ez direteke gurea behar bezela ulertzeko ez NOR gabekoekiko argitasunik emateko gauza.

Orain baiño lehen izan dira, noski, NOR—NORI—NORK direlako hoiek aditzaren zutabe eta adierazpide gisa hartu dituztenak, baiñan iñork ez du, nik dakidala behintzat, bide horren azken muturreraiño jo. Ni neu hortantxe saiatu naiz, hots, euskal-aditza (Lafon-ek zionaren arauera) beste hizkuntzetako gramatika-maillen billa jarduteke aztertzen.

J. Oregi

1974-7-26

ESTATU IZENAK

Sarrera

Ezagunegia da gure aldizkari eta liburuetan agiri den anarkia eta erizpiderik eza Estatu izen eta antzekoei buruz.

Batasun bideetatik abiatu garelarik, komenigarri ez ezik nahitaezko dugu Estatu izenok finkatzea, gure kazetaritza indartuz doalako batetik, eta ikastolan haurrentzako textugintza bizkortzen ari delako bestetik.

Estatu izenei soilki lotzeak badu mugatasunik: zenbait izen arraroegi gertatzen zaigu, eta beste zenbait, erabiliago den arren, ez da zerrenda honetan agiri. Eranskin batzuren bitartez bete beharko dugu hutsune hau, zerrenda eginagorik sor ez dadin bitartean.

Erabili dudan erizpideari banagokio, lehenik hauxe esan behar dut: Estatu izenotan batasun bat lortu nahi baldin badugu, oraindainokoan gaztelaniak eta frantsesak eskaini izan dizkiguten eredu mugatu batzu gainditu beharrean gaudela, eta gaindegi zabalago batetatik izenok ikustea eta hautatzea nahitaezko dugula, ortografiari dagokionean ez ezik, bai eta zenbait hitzen formari dagokionean ere.

Estatu izen eta adjektibo hauk proposatzerakoan, gaztelania eta frantsesezkoez gainera, ingelesezkoak, alemanierazkoak eta tokian tokiko izenen formak ere kontuan eduki ditut.

Mendebaleko kultur textuinguruan bizi garelarik, gutienez neurri hau haintzakotzat hartzeari derriorrezko deritzat.

Zenbait kasutan izen hauen hautapena aski erraza izan bada ere, beste batzutan nolabaiteko samarra izan denik ezin uka. Izen batzutan agiri den bitasuna, berriz, derriorrezkoa da gehienetan, usadioak horrela agintzuen duelako ez ezik, adierazkizun desberdinen batek edo literaturazko ñabarduraren batek besterik eskatzen duelako ere: hala nola: *alemaniar (germaniar), hungariar (magyar)* e.a.

Zehatzagora joaz, ortografiari dagokionean, "V" eta "K" letrak erabili behar eta alemaniarren erizpideari jarraiki natzaio gehienbat. Ene ustez, "V"-ren ordez "B" erabiltzeak gehiegi aldatuko luke hitzen irudia eta Estatu izenen kontu honetan erabilkera edo usadio zabalduenari errespetoa zor diogulakoan nago. "C"-ren ordez "K" erabiltzeak alemanieraz aurreko bat baduenez gero, hitzen irudia hainbeste alda dezakeenik ez dut uste. Arabierazko zenbait izenekin zer egin (Qatar e.a.) eztabaidagarriago litzateke.

"P" eta "B"-ren aurreko "M" horren hauzian, euskal ortografiak besterik agintzen badu ere, letra hori dagoen dagoenean gorde behar delakoaren eritzikoa naiz, lehen aipatu dudan arrazoi berberarengatik, hots, hitzaren irudia gehiegi aldatuko litzatekeelako. Puntu honetan, nazioartean zabalduagoa den usadioaren alde, euskal ortografiak amore eman behar duen eritzikoa naiz.

Latin eta grekotiko hitzen ortografia dela eta, "th", "y", "ss" eta antzekoak, bai eta beste hizkuntzaren batetatiko letra bikoitz eta hasperendúak ere errespetatzea hobe delakoan nago, hala nola: *Thailandia, Assyria, Sikkim, Bhutan* e.a.

Neronek proposaturiko Estatu izenen zerrenda Euskal Akademian aurkeztu ondoren, Oregi, Lizundia eta Zatarain jaunek zenbait ohar eta proposamen egin zuten zerrenda hau hobetu eta osatu nahiz, eta azkenik, Imanol Berriatuak oso laguntza garrantzitsua eskaini dit Estatu izenei buruzko ohar

eta argitasun ugari iradokiz eta emanez. Jaun guztiok, eta Berriatuak bereziki, har bitzate nire eskerrik beroenak. Ikastolak, kazetaritzak eta euskal kulturgintzak abegi ona egingo diola uste dut Estatu izenen zerrenda honi, komunikabideen aurrerakuntza egunean egunean bizkorragotzen ari den mende honetan.

Xabier Mendiguren

1974-7-26 eta 1974-10-11

ATZERRIKO ESTATUEN ETA LURRALDEEN IZENEN ORTOGRAFIA

Ingeles ortografia oinharritzat harturik, erregela hauen arabera idatz litezke Estatuen eta Lurraldeen izenak:

1. Ingelesezko *Ca, Co, Cu, Cra, Cro, Cru,* Ka, Ko, Ku, Kra, Kro, Kru bihurtzen dira. Adibidez: Kanada (Canada), Kalifornia (California). Kolombia (Colombia), Kuba (Cuba), Kreta (Crete), Krimea (Crimea), hala egiten dute alemanek.

Baina Ce, Ci, Cy ez dira aldatzen. Adibidez: Cebu, Celebes, Ceylan, Cykladak, Cypre. Hala egiten dute alemanek.

2. Ingeles izenen bukaerako *Cia* eta *Tia* **Zia** bihurtzen dira. Adibidez: Cilizia (Cilicia), Thrazia (Thracia), Dalmazia (Dalmatia), Helvezia (Helvetia).

3. Hastapeneko *S* kontsonanteari, beste kontsonante bat darraionean, **E** bokala jartzen zaio aurretik, oso edo aski ezagunak diren izenetan. Adibidez: Eskandinavia (Scandinavia), Escozia (Scotland), Eslovakia (Slovakia), Eslovenia (Slovenia).

4. **R** kontsonantearekin hasten diren nazio izen modernoei, ez zaie **E** bokala aurretik ezatzen. Adibidez: Rhodesia, Rwanda.

5. Ingelesezko *CH, Gui, LL, Sh, Tch (Cz),* euskarazko K, Gl, L, X, TX, bezala ahozkatzen direnean, pronuntziazioaren arabera idatziko dira, salbu Mendebaldeko hizkuntza nagusietan ezer aldatu gabe erabiltzen diren izenetan. Adibidez: Kaldea (Chaldea), Ginea (Guinea), Holanda (Holland), Walakia (Wallachia), Kaxmir (Cashmir), Txad (Tchad), Txekoslovakia (Czechoslovakia). Baina Washington, eta ez Waxington.

6. Inglesezko *Ch,* euskarazko **TX** bezala ahozkatzen denean, idatzi ere holaxe eginen da, oso edo aski ezagunak diren izenetan. Adibidez: Txile, Txina. Baina Chihuahua, eta ez Yxihuahua.

7. Arabiar Estatuen eta Lurraldeen izenek bokala hartzen dute adjektiborako. Adibidez: (Iraq) iraqiar, (Libano) libaniar, (Marokko) marokkiar, (Yemen) yemeniar.

8. Arabiar ez diren zenbait Estatu eta Lurralderen izenek ere / bokala hartzen dute adjektiborako, edo analogiagatik edo eufoniagatik edo eta beste hizkuntzatan hala egiten delako. Adibidez: (Afghanistan) afghaniar, (Bhutan) bhutaniar, (Iran) iraniar, (Nepal) nepaliar, (Vietnam) vietnamiar.

9. Bi silabatako estatu eta Lurraldeen izenek TAR atzizkia hartzen dute adjektiborako, hitzak bolumen gehiago izanik, Lurralde izenaren identifikazioa errazago gerta dadin. Adibidez: Kongotar (ez kongar), kubatar (ez kubar), togotar (ez togar), tongatar (ez tongar), txinatar (ez txinar), USAtar (ez USAr).

10. Arau hauek Estatuen eta oso edo aski ezagunak diren Lurraldeen izenetarako balio dute bakarrik. Lurralde guti ezagunek, hiriek eta hibaiek, gehienetan, ez dute jatorrizko izena aldatzen. Adibidez: Capua, Caracas, Colombo, Ellice, Guisando, Split, Valencia, Vic.

EUROPA

Estatua	Adjektiboa	Hizkuntza
ALBANIA	Albaniar (eskipetar)	Albaniera
ALEMANIA	Alemaniar Aleman Germaniar	Aleman Alemaniera
ANDORRA	Andorratar (1)	
AUSTRIA	Austriar	
BELGIKA (2)	Belgiar	
BRITAINIA HAUNDIA (3)	Britainiar Ingeles	Ingeles
BULGARIA	Bulgariar	Bulgariera
DANIMARKA (4)	Danimarkar Daniar	Daniera
ERRUMANIA	Errumaniar	Errumaniera
ESPAINIA	Espainiar Espainol	Espainiera

1. *Andorrar* gogorrago eta zailago da ahozkatzeko.
2. Nederlanderaz *Belgie*, ingelesez *Belgium*, alemanez *Belgien*.
3. Askok idazten dute *Britainia*. Hitz hau, *Britania* baino egokiagoa dela uste dugu, arrazoin hauengatik: Ingelesek *Britain* idazten dute, *Spain* (euskarazko *Espainia*) idazten duten bezala / bokal hori *bretoin* hitzean ere agertzen da.
4. Zenbaitek proposatu duen *Danmarka,* zailagoa da ahotzeko / bokal hori, *daniar* eta *daniera* hitzetan agertzen da. Italiarrek *Danimarka*, idazten dute.

FINLANDIA	Finlandiar	Suomiera
(SUOMI)	(Suomitar)	
FRANTZIA	Frantziar	Frantses
	Frantses	
GREZIA	Greziar	Greko
	(Heleniar)	
	Greko	
HOLANDA	Holandar	Nederlandera
NEDERLANDA	Holandes	
HERBEHEREAK	Nederlandar	
	Herbeheretar	
HUNGARIA	Hungariar	Hungariera
	Magyar	
IRLANDA	Irlandar	Irlandera
(EIRE)	(Eiretar)	
ISLANDIA	Islandiar	Islandiera
ITALIA	Italiar	Italiera
JUGOSLAVIA	Jugoslaviar	
LIECHTENSTEIN	Liechtensteindar	
LUXEMBURG	Luxemburgar	
MALTA	Maltar (5)	Maltera
MONAKO	Monakar	
NORVEGIA	Norvegiar (6)	Norvegiera
POLONIA	Poloniar	Polskera
PORTUGAL	Portugaldar	Portuges
	Portuges	
SAN MARINO	Sanmarinar	
SOVIETAR ERREPUBLI—	Sobietar	
KA SOZIALISTEN		
BATASUNA (SESB)		
SUEDIA	Suediar	Suediera
SUITZA	Suitzar	
TURKIA	Turkiar	Turkiera

5. Erregelen araberako *maltatar* baino eufonikoagoa dela uste dugu.
6. Ingelesez *norwegian,* frantsesez *norvégien.*

TXEKOSLOVAKIA	Txekoslovakiar Txekiar	Txekiera
	Eslovakiar	Eslovakiera
VATIKANOA (7)	Vatikandar (8)	

ASIA

Estatua	**Adjektiboa**	**Hizkuntza**
AFGHANISTAN	Afghaniar	Afghaniera
BAHREIN	Bahreiniar	Arabiera
BANGLA DESH	Bangladeshtar	Bengaliera.
BHUTAN	Bhutaniar	
BIRMANIA	Birmaniar	Birmaniera
BRUNEI	Bruneitar	Bruneiera
CEYLAN	Cingaliar (1)	Cingaliera
CYPRE (2)	Cypriotar	
FORMOSA (TAIWAN)	Formosar (Taiwandar)	
HONG KONG	Hongkongdar	
INDIA	Indiar	Hindiera (3)
INDONESIA	Indonesiar	Indonesiera
IRAN	Iraniar	Iraniera
IRAQ	Iraqiar	
ISRAEL	Islaeliar (4) Israeldar Judu Hebraitar	Hebraiera
JAPONIA (5)	Japoniar (Nipponiar)	Japoniera

7. Artikuluarekin, hizkuntza guztietan egiten den bezala.
8. *Vatikandar* eufonikoagoa da, *vatikanotar, vatikanoar* eta *vatikanar* baino. Bukaerako *O* bokala maiz desagertzen da euskaraz: adibidez, (itsaso) *itsastar*, (Nafarroa Behereko Unaso eta Magdalena) *unastar* eta *madalendar*.

1. Ingelesez *cingalese,* frantsesez *cingalais,* gaztelaniaz *cingali.*
2. Ingeles *Cyprus,* alemanez *Cypern.* Adjektiboa: ingelesez *cypriote,* frantsesez *chypriote* eta *cypriote.*
3. Indiako hizkuntza nagusia. Ingelesez *hindi.*
4. *Israeliar,* Israelen jaioa dena. *Israeldar* hitzari hedadura handiagoa eman lekiote zentzu honetan kristauak *israeldar berriak* lirateke.
5. Hala idazten dute iparraldeko euskaldunek.

JORDANIA	Jordaniar	
KAMBODIA	Kambodiar	
KOREA	Korear	Korear
LAOS	Laosiar (6)	Laosiera
LIBANO	Libaniar	
MALAYSIA	Malaysiar	
MALDIVAK (7)	Maldivar	
MALDIVAK IRLAK		
MONGOLIA	Mongoliar	Mongoliera
NEPAL	Nepaliar	
OMAN	Omaniar	
PAKISTAN	Pakistaniar	
QATAR	Qatariar	
SAUDI ARABIA	Saudiarabiar	
SIKKIM	Sikkimdar	
SINGAPORE	Singaportar (8)	
SYRIA	Syriar	
THAILANDIA	Thailandiar	
TXINA	Txinatar	Txinera
VIETNAM	Vietnamiar (9)	Vietnamiera
YEMEN	Yemeniar	Arabiera

AFRIKA

Estatua	**Adjektiboa**	**Hizkuntza**
ALGERIA (1)	Algeriar	
ANGOLA	Angolar	

6. Ingelesez *laotian,* frantsesez *laotien.*
7. Deklinabidean, Maldivak (Maldivek), Maldiven, Maldivei, Maldivetara, Maldivetan...
8. Bukaerako *E* bokala ez da ahozkatzen ingelesez eta frantsesez. Gaztelaniaz Singapur esaten da. Euskaraz izen luzeak laburtu egiten dira askotan: adibidez, (Basusarri) *basusartar,* (Sorapuru) *sorapurtar,* (Elizaberri) *elizabertar*... Bestalde, (Arrangoitze) *arrangoiztar*...
9. Frantsesez *vietnamien.*

BOLI KOSTA	Bolikostar	
BOTSWANA	Botswanar	
BURUNDI	Burundiar	
DAHOMEY	Dahomeytar	
EGYPTO	Egyptiar	
EKUATOR GINEA (2)	Ekuator ginear	
ERITREA	Eritrear	
GABON	Gabondar	
GAMBIA	Gambiar	
GHANA	Ghanatar	
GINEA	Ginear	
KAMERUN	Kamerundar	
KANARIAK (3)	Kanariar	
KANARIAR IRLAK		
KENYA	Kenyar	
KONGO	Kongotar	
LIBERIA	Liberiar	
LIBYA	Libyar	
LESOTHO	Lesothoar	
MADAGASKAR	Malgatxe	Malgatxera
MADEIRA	Madeirar	
MALAWI	Malawiar	
MALI	Maliar	
MAROKKO	Marokkiar	
MAURITANIA	Mauritaniar	
MAURIZIO	Mauriziar (4)	
MOZAMBIKE	Mozambikar (5)	
NIGER	Nigertar	
NIGERIA	Nigeriar	
RHODESIA	Rhodesiar	

1. Alemanez *Algerien,* frantsesez *Algérie.*
2. *Ekuatore* hitzaren bukaerako *E* bokala galdu egiten da hitz elkarteetan.
3. Deklinabidean, Kanariak (Kanariek), Kanarien, Kanariei, Kanarietara, Kanarietan...
4. (Lekeitio) *lekeitiar* bezala.
5. (Bidarte) *bidartar,* (Zuraide) *zuraidar,* (Mendibe) *mendibar* bezala.

RWANDA	Rwandar
SAHARA	Sahauriar
SENEGAL	Senegaldar
SIERRA LEONA	Sierraleonar
SOMALIA	Somaliar
SUDAN	Sudaniar (6)
SWAZILANDIA	Swazilandiar
TANZANIA	Tanzaniar
TOGO	Togotar
TUNISIA	Tunisiar
TXAD	Txadiar (7)
UGANDA	Ugandar
VOLTA GARAIA	Voltagaraitar
ZAMBIA	Zambiar

AMERIKA

Estatua	Adjektiboa	Hizkuntza
ANTILLAK (1)	Antillar	
ANTILLAK IRLAK		
ARGENTINA	Argentinar	
BAHAMAK (2)	Bahamar	
BAHAMAK IRLAK		
BARBADOS	Barbadostar	
BIRJINAK IRLAK	Birjinar	
BOLIVIA	Boliviar	
BRASIL	Brasildar	
COSTA RICA	Kostarrikar	

6. Arabiar izena da. Frantsesez *soudanien* ere esaten da.

7. Frantsesez *tchadien.*

1. Deklinabidean, Antillak (Antillek), Antillen, Antillei, Antilletara, Antilletan...
2. Deklinabidean, Bahamak (Bahamek), Bahamen, Bahamei, Bahametara, Bahametan...

DOMINIKAR ERREPUBLIKA	Dominikar
EKUADOR	Ekuadortar
ESTATU BATUAK	Estatubatuar
USA	USAtar
GUATEMALA	Guatelmaltar (3)
GUYANA (4)	Guyanar
HAITI	Haitiar
HONDURAS	Hondurastar
JAMAIKA	Jamaikar
KANADA	Kanadar
KOLOMBIA	Kolombiar
KUBA	Kubatar
MARTINIKA	Martinikar
MEXIKO	Mexikar
NIKARAGUA	Nikaraguar
PANAMA	Panamar
PARAGUAY	Paraguaytar
PERU	Perutar
PUERTO RICO	Portorrikar
SALVADOR	Salvadortar
TRINIDAD	Trinidadetar
TOBAGO	Tobagotar
TXILE	Txiletar
URUGUAY	Uruguaytar
VENEZUELA	Venezuelar

3. Gaztelaniaz *guatemalteco*. Euskaraz, bestalde, (Aiherra) *aihertar*, (Lekarra) lekartar... Eufonia gehiago.
4. Ingelesez *Guiana*, frantsesez *Guyane*, alemanez *Gu(a)yana*.

OZEANIA

Estatua	Adjektiboa
AUSTRALIA	Australiar
FIJI	Fijiar
GILBERT	Gilbertar
GINEA BERRIA	Neoginear
FILIPINAK (1)	Filipinar
FILIPINAR IRLAK	
GUAM	Guamdar
HAWAI	Hawaiar
HEBRIDA BERRIAK	Neohebridar
KALEDONIA BERRIA	Neokaledoniar
NORFOLK	Norfolktar
PAPUASIA	Papuasiar
SAMOA	Samoar
SALOMON	Salomondar
TASMANIA	Tasmaniar
TONGA	Tongatar
ZEELANDA BERRIA (3)	Neozeelandar

1. Deklinabidean, Filipinak (Filipinek), Filipinen, Filipinei, Filipinetara, Filipinetan...
2. Ingelesez *New Zealand,* alemanez *Neuseeland.*

ERANSKINA

AFRIKA	Afrikar	
IPAR AFRIKA	Ipar afrikar	
HEGO AFRIKA	Hego afrikar	
EKI AFRIKA	Eki afrikar	
MENDEBAL AFRIKA	Mendebal afrikar	
ERTAFRIKA (1)	Ertafrikar	
ALEMAN ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOA	Ekialdeko aleman	
ALEMAN ERREPUBLIKA FEDERATUA	Mendebaldeko aleman	
ALSAZIA	Alsaziar	
AMERIKA	Amerikar	
LATIN AMERIKA (2)	Latin amerikar	
AOSTA	Aostar	
ARAGOA	Aragoar	
ASIA	Asiar	
ASSYRIA	Assyriar	
AZOREAK (AZOREAK IRLAK)	Azoretar	
BALEARAK (BALEAR IRLAK)	Balear Baleartar	Baleartar
BAVARIA	Bavariar	
BRETAINIA	Bretainiar (Bretoi)	Bretoiera
CELEBES	Celebestar	
CHIHUAHUA	Chihuahuar	
CYKLADAK (CYKLADAK IRLAK)	Cykladar	
DALMAZIA	Dalmaziar	Dalmaziera
ERRESUMA BATUA	Britainiar	
ERRUSIA	Errusiar Erruso	Errusiera Erruso

1. Erdi + Afrika. *Ert* hori euskal hitz konposatu askotan agertzen da.
2. *Latino* hitzaren bukaerako *O* bokala galdu egiten da hitz elkarteetan.

EZKOZIA	Eskoziar	Eskoziera
ETHIOPIA	Ethiopiar	
EUROPA	Europar	
EUSKAL HERRIA	Euskaldun	Euskara
FLANDES (3)	Flandestar	Nederlandera
FRISIA	Frisiar	
FRIUL	Friuldar	Romantxera
GALES (4)	Galestar	Kymbruera
GALITZIA	Galitziar	
GALIZIA	Galiziar	Galego
	Galego	
GAZTELA	Gaztelau	Gaztelania
GEORGIA	Georgiar	Georgiera
	(Kartveliar)	(Kartveliera)
GROENLANDIA	Groenlandiar	
KATALUNIA	Kataluniar	Katalan
	Katalan	
KAUKASIA	Kaukasiar	
KAXMIR	Kaxmirtar	
KORSIKA	Korsiar	Korsiera
	Korsu	
KROAZIA	Kroaziar	Kroaziera
KURDISTAN	Kurdu	Kurduera
LAPONIA	Laponiar	Laponiera
OKZITANIA	Okzitaniar	Okzitaniera
OZEANIA	Ozeaniar	
PERTSIA	Pertsiar	Pertsiera
PIEMONTE (5)	Piemontar	
PROVENTZA	Proventzal	Proventzalera
		Proventzal
SARDINIA	Sardiar	Sardiera
	Sardu	
SAXONIA	Saxoniar	
SERBIA	Serbiar	Serbiera
SICILIA	Siciliar	

3. Deklinabidean, Flandesen, Flandesi, Flandes(er)a, Flandes(e)tik...
4. Latinez *Cambria,* bertako hizkuntzan *Kymru.*
5. (Bidarte) *bidartar,* (Zuraide) *zuraidar,* (Mendibe) *mendibar* bezala.

SORABIA	Sorabiar	Sorabiera
TXINAKO HERRI ERREPUBLIKA	Txinatar	Txinera
UKRAINIA	Ukrainiar	Ukrainiera
WALAKIA	Walakiar	
WALONIA	Waloniar	

BOSGARREN PENA TA NEKEA "GORUAN IPINI ETA HARIA EGIN"

Amukiko motoa prest daukagunez gero, iruten, hau da; haria egiten ikasi genezake bertatik.

Esan gabe doa, irutea emaztekien egitekoa zela. Gaztetandik ikasi beharreko lanbidea gainera; eskontza arreoa ere norberak hornitua izatea nahi zitekean. Polliki aski kantatu du Orixe-k:

"Neskak beretzat digu landu liñerria,
amaika urtetandik aitak berezia,
liño lanetan baida ain ongi ikasia,
bilduxea bide du ezkontzeko ornia"
("Euskaldunak")

Baina, hortarako, gorua behar, kiloa deitzen zioten beste zenbait tokitan, erroka Naparroan, Oskotz aldetik, linaia, berriz, gure eskualdeetan.

Linaia, makila bat zen, arba-sastraka luzexka bat. Eta punta aldera burutxo bat zeraman, bost edo sei altxuma, edo zimitzez, osatua gainera; gorostia edo ezpela izan zitekean. Urritza ere bai, batzuetan. Polita nahi zuketen behintzat. Lanabesa ezezik, ezkontzako arreo gurdian, pertika-gainetik ezarrita, mundu guztiari erakutsiaz, eramatekoa bait zen linaia, bere estalki zorro, txintxarri eta guzti, gainera.

"Gurdi erdian kutxa, aurrean ardatza,
ta linai muturrean amuko mataza."
(Orixe. "Euskaldunak")

Eta, jakina, linai dotorea nahi denek. Eta mutikoak bidali ohi zituzten gai bila.

—Ume, txorizo mutur bat emango dizut linai bat egiteko makila polita ekarten badidazu basotik.

Gero etxean moldatuko zuten, bere marrazki ta guzti, frankotan.

Iruleak hauzotik ere biltzen ziren. Lehenik norberaren etxean apari legea egin, ardatza eta amuko motoak otarre, edo saskitxoan, hartu eta linaia eskuan zutelarik, azalduko ziren aurretik aukeratutako etxeetara. Pitxartxo bat esne eramaten zuten lanaren gozagarri edo. Arratsaldeko zortzirak edo izaten ziren. Eta hiru bat orduz egiten zen irute-lana: gaueko hamabiak arteraino edo.

Hortik datorke Arantzazu-aldeko esaera zaharra ere:

"Aita guria zeruetan,
ama guria goruetan,
bihar ez dan orduetan..."

Gaueko lanbidea zenez, ordea, argia behar derriorrean.

Garai hartan ez bait zen ez errota argirik, ez elektrikarik. Errota argi hori zer da ba?, galdetu lezake norbaitek.

Behinola Iruiñan bizi zen napar koxkor batek bere herriko lagun batekin topo egin omen zuen Iruiñeko kaleetan. Ta galdetu ere bai:

—Zer berri duzute herri aldetik?

—Elektrika jarri dugula, erantzun omen zion berak.

—Lehendik ere ez zenduten ba elektrika hori?

—Elektrika? Bai! Errotakoa, motel, errotakoa iuan hura. Ta badakik zer gertatzen zen: euritean ur gehiegi zelakotz, eta lehortean urik ez zelakoz, ilunpean ibili behar ginukeen beti. Oraintxe, berriki, jarri zigutek Iberdueron argia.

Gure zaharrek, ordea, ez zuten horrelako aukerarik. Argizaia bai, bazen orduan ere. Baina sepultura eta arimen argitarako gordetzen zuten beti. Dirutik, berriz, erronka handirik ezin jo zezaketen gehienetan. Eta su argitan egiten zen irute-lana. Pagoa, batez ere, sugile ona da oso, ametza baino hobea. Eta pago-egurra, haizkora kolpez, zirpildu eta suari eman eta arrotu batzuk emanez gero, galda ederra sortzen zuen ondotik: "gir-gir-gir" egiten zuen argi bat gozogoa izaten zen pago-egurrarena, entzuten nion behin batez Naparroako aitatxi bati. Izan ere gizontto baten egitekoa genduen, gehienetan, lanbide hau, eta bien bitartean emaztekiak irute-lanetan ziarduten gogotik.

Urki azala "bil-bil" egin eta argi egiteko erabiltzen zutela, esan ohi zuen, berriz, nere amona zenak.

Nafarroan erretxinez ere baliatzen ziren. Piñu-erretxin ziriak paxotan sortatxotan, saldu ohi ziren garai hartan.

Lumera argia ere erabili ohi zuten zenbait tokitan. Balearen koipez egiten zena, noski. Koipe hau argitarako ezezik, sukalde gauzetarako ere ez zen txarra. Segurarrei, "lumera zopa-jaleak deitzen zitzaien" garai batetan.

Geroago, petrolio argia ere etorri zen. Kriseilu zeritzaien ontzi batzuetan ipiniko zuten petrolio hori. Ontzi honek argi zizkuak izan ohi zituen aldamenetan. Bat, bida edo hiru bat zizku. Edo gehiago. Legazpiko Zabaleta baserriko kriseiluak bost zizku omen zituen alde batetik, eta beste bost bestetik.

Kriseilua hornitu eta piztu eta argi mutilaren gainean ezartzen zutelarik, aldatu ederra, hartuko zuten sukalde baztarrak: argituta gelditzen bait zen

dena. "Hau da argia", esaten omen zuten harriturik, garai hartako jendeak. Beharrik guk baino begi-bista zorrotzagoa zutela nunbait. Gaurko elektrika eta beste izan balute!

Bien bitartean iruleak, hitz eta pitz, hantxe ari zitezkeen begiak eta atzaparrak urratzen. Irutea lanbide arrotea eta latza bait zen oso.

Lehenik gorua, linaia, linai mutiletik atera, eta prestatu ta hornitu egin behar zen lanerako. Amukiko edo muilosta motoak askatu eta eskuz berdindu ta gozatutxo bat eman ondoren, linaiaren buru aldeko altxumatan, zimitzetan, atxiki ta ezarri behar ziren, izpitxoak beheraka zituztela; gainetik, berriz, txapeltxo bat eman, ari gai horri hobetogo autsi zezakion. Kurua, edo kuru zorroa deitzen zioten txapel horri, linai estalkia edo goi-txapela beste zenbait tokitan; tuturrua zeritzaion puntatxo batez bukatzen zen txapeltxo hori. Estalki, edo txapel hori, moja komentuetatik ekarria izan ohi zen frankotan. Eta zeinek baino zeinek politagoa eraman ibiltzen ziren beti. Emaztekiak fantasia bere!

Eta irute-lanetan ere hasi zitezkean bertatik.

Lehenik, linaiaren kirtena gerrian, ezker aldetik, amantalean edo lotu ondoren, amukiko moltxoka bat, eskuz edo ortzez, aterako zuten, izpitxoak luzatu ondo, linai iturritik eten gabe, hori bai; eskerreko behatz muturrak txistuz busti gero, ez gehiegi, ordea bil-bil egin izpino guztiak, berdindu ongi, txori leporik gabe atera zedin haria, bihurri zerbait eman ondotik, eta ardatz ziriari ezarri puntatik.

Hortarako, aurrera jo aurretik, ardatza zer nolakoa zen ere ikasi beharrean gaude. Ardatza delako lanabes horrek, udare luzexka baten antza zeraman eta zurezkoa zen gainera. Eta ziri edo adartxo bat zeukan txorten aldetik sartuta, ortzez edo garrangatxoz betea gainera: burnizkoa izan ohi zen gehienean eta koka deitzen zioten zenbait tokitan adartxo horri.

Eta ziri edo adartxo punta hortan ezarri ta kokatu behar zen, hain zuzen, linaian prestaturiko amuko izpitxo edo albainu hura: moltxoka bat linai iturritik atera, luzatu ongi eta poliki aski prestatu ondoren, ardatzari eman kokatik. Esker eskuz linaiari lagundu behar zitzaion beti, pixkanaka

pixkanaka buelta emanaz eta harigaia ongi prestatuaz, eta eskuinez berriz, eskuin bihurrian eragin ardatzari, eta ardatza jolas hortan, biraka eta biraka zebilen bitartean, haria moldatzen zijoan eta "pirrin-pirrin" udare gisako pelota hortan bilduko zen dena polliki asko.

"Urun zan mehe", esaten omen zion bere ama zenak Pastora Anaud, Erronkariko azken euskaldunari.

Lanbide horrek, ordea, txistua, lerdea, erruz eskatzen zion iruleari: aho-gozoa deitzen zioten gure zaharrek. Ez daukagu hiru bat orduko lana izaten zela gogoratu besterik. Hori dela ta, txori sagarrak edo piku batzuk eramango zituzten poltzikoan, noizean beas, aho-gozoa sortu eta, mingaina ta beste, zerbait, bederen gozatzeko: mullostak, ta mukarrak batez ere, alezta asko izaten bait zuen oraindik, eta ezpainak laztuta ta zatarreria zeriotela gelditu ohi ziren frankotan. Eta amak esan ere bai: "Ume, garbitu zan alezta hori."

Behatzak berriz penatu ezezik, urratu ederrik ere jasotzen zuten gehienean. Horregatik, zenbait aldiz, narru-zatitxo batzuk erantsiko zizkien atzaparrei, gozagarri bezala. Elosuko neskatxa batek, ordea, eskola merkeagoa bilatu zuen beretzat, Zumarragako amona batek aitortzen zidanez: Sukaldeko suburni gorituan pasatzen omen zituen atzapar puntatxoak, azala zakartu ta sendotu zezakion, hurrengo gauean ere irute-lanari jarraitzeko asmotan. Ez zen nunbait gaur-eguneko guritasunik!

Ardatzaren ordez, dornua eta erabili ohi zen batzuetan. Lan erosoagoa ta txukunagoa izaki, behar bada. Naparroa-aldetik neskatxa batek honela esaten zion behintzat bere amari: —"Ama, zuk egin amukikoa "paarra-paarra" dornuan, nik, berriz, eskuz eginen dut muiloa. Neskato hasi berriei, berriz, mukarkia ematen zitzaien irute-lana ikasiaz joan zitezen.

Linai-iturria hustutzen zelarik, bete berriz ere amukikoz edo muilostaz, eta jarrai lanean gogotik. Ardatza betetzen zenean, berriz, ziriz, edo koka, atera, hustu dena eta dotore-dotore ipiniko zuten otarre edo saskitxoan: ardatzharia deitzen zioten gure irule zaharrek.

—Zenbait ardatzaria bezala moldatzen ziñuzten gau bakoitzean, galde-

tzen nion nik behin batez, Uharte Arakil-ko amatxi bat.

Eta berak bertatik:

—Bai ardatzari, bi ta erdi batzuetan, baino asko zen, gaueko hamabiak arteraino egonik ere. Gainera neskatoak jostaketan ibili nahi pixka bat, kartetan eta hola, eta zenbait aldiz, bezperako lanetik hartzen ginuen ardatzari bat, eta esan ere bai amatxori: ama, bi ardatzari egin ditut gaur ere.

Baina ama ohartzen zenean izaten ziren kontuak. —"Neskato soraioa, gehiago ez haiz joango etxe hortara".

"Irule onak lau ardatzari gau bakoitzeko", esan ohi zuten, gure zaharrek. Arrania, atzaparrak ezezik, gaua ere luzatu beharko zuten gaixoak!

Arestian erakusten genduenez, emaztekiei zegokien lana zen irutea. Baina giza-semeak neskatxekin hitz aspertu bat egiteko ere, ez zen egokiera txarra, eta aitzaki-maitzakiren bat bilatzen zutelarik, ez zuten galduko.

Fermina Elortza, Aramioko etxekoandre argiak, ipui polita eman zidan 1956. urtean.

"Hiru ahizta ziren tartamudak (nere amak titilipalak esan eban). Heuretako batek nobixoa eukon ta ikusten etorteko ei xan eta jarri ziren hiru ahiztak goruetan, eta amak esan eutsien ixilik egoteko mutille datorrenian, berak —amak— berba egingo ebala ta; ta gero etorri zan mutille, eta han egozen hiru neskak goruetan, eta gero goruetan egoala, apurtu yakon harixe ta gero batek besteari esan eutsen: —Titarixe tilt eten. Eta besteak esan eutsen: —"Emoixon tolapile tilin ton". Eta hirugarrenak esan eutsen: —"Hiri amak esan dun ixilik ooteko; baina hi ez ixilik ton".

Ta gero mutillek esan eutsien; —"Zuek hirurok zaree tartamudak"!

Ta neskak esaten deutso:
Gu hirurek not tatamudak, baiño hi ere bai anta otela".

Inoiz edo beste gure folklore zaharrean emaztekien ordea, eta lekuan,

giza-semeak ere bilatu izan ditugu irute-lanetan. Orain berean emango dutan ipui hau zabalduxea dago Euskal herrietan, bainan, Nafarroa aldetik, Nabarteko Bernardo Elizondok 85 urte zituan aitatxi jatorrak kontatu ohi zuen bezala dijoakizue bertatik:

NarbartekoPerunena etxian izaiten ziren sorginak, eta etxeko andria aritzen zen ardatzian. Eta etortzen zen sorgina tximinia beiti, eta eskatzen zion gantza, urina, ta gero bertze egunian etorri zen gizona, kanpotik bait zen.

Eta andriak erran zion bere gizonari, sorgina etortzen zela, eta izitu egiten zela bera. Ta gizonak orduan erantzuki:

Bera jarriko zela andriaren lekuan. Eta horrelaxe egin ere. Sorgina beti bezala, tximinia beiti, etorri eta erraten dio: "Bart "piirrin-piirrin", eta gaur "poordokan-poordokan", nor yaiz hi?

—Nor Nere Buru, erantzun gizonak. Eta zartaginean irakiten zedukan txerri gantza bota goitik sorginari. Eta egin zuen erre. Ta sorgina erreta, akelarrera joan zen. Ta han galdetu zioten bere lagunek: —Zer dun, zer dun nigarrez, nork egin din hori?

—Nork Nere Buruk, erantzun zien berak.

Eta bertzeak: —Nork Nere Buruk egin badin, nork zer eginen din?

Izan ere linai ta ardatzaren jolas ta soinuak batetik, eta iruleak, bi besoak aidean situztelarik, zerabilkiten dantzak besterik, akelarre polita sortuko zuen sukaldean. Ta pago suaren argi eta errainutan dena!.

Aldian behin, sorginak azaltzea ere ez zen harritzeko gauza, sukaldea zikin ta zarpiltsu utziz gero, batez ere.

Horregatik, irute-lanaren ondotik, amonak garbitu bat emango zion sukalde guztiari ta gero sua palatxo batekin edo bertzunekin bil-bil egin, eta hautsez tapatuko zuen dena: (sua itzali ez, sua hil edo emendau) gainean hiru gurutze egin ondoren, laratza jo, eta honela esaten zuten Napa-

rroako Sunbillan:

"Sandi Laurendi,
Nik sua estali,
umetxuak guhatzera,
aingeruak, gure etxera.

Ta tenazak ta burtzina gurutzaturik paratzen zituzten montonaren gainean. Gauza bera gogoratzen digu Orixek, Euskaldunak delakoan:

"Amonak sukaldea txukun du ekortzen,
aingeruk, ez sorginek, dantzatu ditezen

Aztiri

Julian Alustiza - "Aztiri"
1974-10-11

XVIIgarren MENDEKO IOANNES
HARANEDER FRAIDEA

Beti bada zer ikas euskal literaturan. Aldi huntan nahi dautzuet laburki salatu badirela bi Haraneder, eta ez bat bakarrik orai arte uste ginuen bezala.

Goazen ikus laburzki nola ikasi dugun berri hori.

Euskal eliza-liburu maizenik agertu dena da **Exercicio izpirituala.** Vinson-ek bere Bibliografian laurogoi edizione aipatzen dizkigu: zaharrena 1716-ekoa, berriena 1888-koa. Egia erran, Vinson-en lanaz geroztik bertze edizione zenbait agertu dira, hala nola 1910-ekoa, 1919-koa, 1922-koa, eta 1937-koa. Orotarat 85 edizione bederen.

Bainan badira XVII garren mendekoak ere, Vinson-ek bere bidean aurkitu ez zituenak.

Berriki bizi naizen Seminarioko euskal liburutegian eskuetarat lerratu zait liburu zahar itsusi funditu bat: titulurik ez, asko orri eskas.

Barnea doi-doia miatu orduko ohartu naiz **Exercicio izpirituala** zela.

To! huna besta aldakorren zerrenda! 1690-etik hasten da, eta 1717-an bururatzen. Beraz Vinson-ek aipatu edizione zaharrena baino zaharragoa dut hau.

Ba bainan noizkoa?

Hain xuxen, gelditzen den lehen orri-aldean, bada gutun bat, liburu-eskaintza bat, zorigaitzez ez osoa, eta bertzalde ez ulert-errexa, bazterretako hitz edo letra batzu falta izanez.

Beharrik garbiki emana baita lehen agurra. Hauxe irakur ditake:

TARBEKO ENE
Jaun Ipizpicuari
Erregueren estatu privatu
Conseilluan Conseillari,
eta Artusko abadeari
JOANNES HARANEDER
Fraideac baquea eta
Ossasuna

Pentsatzen duzuen bezala, artxibo eta liburu askotara jo dut argiketa: laguntzale jarri zaizkit Mangin, Goyheneche eta Romatet jaun ixtoriozaleak.

Eta huna zertaratu gaituzten gure ikerpenek.

Arthous-eko abadetan ez dira izan Tarbeko bi apezpiku baizik, biak izen-deitura berekilakoak, biak euskaldunak: Salvat Diharce, osaba-ilobak.

Zaharrena, Axular apeztu zuena, 1601-ean hil zen.
Gazteena 1648-an.
Joannes Haraneder fraideak lehenago behar izan du egin bere gutuna.

XVIII garren mendean orok badakigu izan dela Donibaneko apez bat Ioannes de Haraneder deitua. Nehun ez du bere burua fraidetzat eman. 1740-an bururatu zuen Testament berriaren bere itzulpena, eta 1749-an **Philotea** ager-arazi.

Oixtiko fraide hura izan balitz, ehun urteak ausarki gaindituak zituzken. Ezen fraide horrek, berak dion bezala, bere liburuaren "birberritzeko" mementoan, frango xahartua iduri du. Dio dela "flako eta nigarti, ecin balia oinez, escuez eta berze partez, norbaitec helduric baizen", ez duelarik

"borondate bezanbat botere".

Zer bilakatuko zen handik ehun urteren buruan?

Bixtan da beraz bi Haraneder konda ditzakegula gure literaturan.

Baina zer pentsa oixtion aipatu dugun besta aldakorren xerrendaz (1690-1717)?

Eskuetan dugun edizionea XVII garren mendeko azken urtetan jalgi dela, lehenagoko aintzin-solasarekin, argitaratzaleak besta aldakorren saila bere denborakotuz. Gure ustez, liburu horren hirugarren edo berdin laugarren ager-aldikoa dugu hainbertze lan eman daukun **Exercicio Izpiritual** zaharra.

Ez dakigu halere ez noizkoak ziren edizione horiek, ez eta zoin ordenakoa Haraneder fraidea.

Gauden beha, ea nonbaitik argi zerbait aterako den.

P. LAFITTE

1974-11-29

EUSKALDUNAK eta KOLOREAK

Kolorezalentzat, hiru kolore dira oinarrizkoak: gorria, urdina eta horia. Gainerateko koloreak dira hiru horietarik sortzen, salbu beltza... Beltza da koloregabetasuna.

Horiek hola, nere iritziz, euskal etorkiari sakonkienik lotuak diren koloreak dira hiru: beltza, xuria eta gorria.

Koloreen izenak

Euskalki guzietan, hitz **beraz** eta **bakarraz** izendatzen ditugu hiru kolore horiek: beltza, xuria, gorria.

Ez da berdin bertze koloreentzat. Edo euskalki arau, hitz desberdinak dauzkagu haien izendatzeko... Edo, kolore horien izenak erdaratik ditugu... Edo, izen eskasiaz, kolore horiek noren edo zeren antzeko diren azaltzen dugu.

Adibidez: Urdina, Azula, Bluia,
Horia, Amarilloa,
Bioleta, Morea,
Ferdea, Orlegia,
Ogi bihi kolore,
Hauts kolore,
Gaztain kolore.

Koloreen nola izendatzeak, ez ote dauku jada pixka bat erakusten, zoin ditazken, heien artean, gure-gurezkoenak!

Horia gorri dela

Euskaldunek "gorri" izendatzen ditugu, berenaz "hori" diren ikusgailu asko:

Adibidez: Arroltze gorringoa,
Gure mendietako behi gorriak,
Napar ardi mutur gorriak,
Ipar-gizon bilo gorriak.

Gure etxe zaharren izendegian

Hiru kolore horietaz bertzerik ez da kasik ezagutzen.

Adibidez: Etxexuria,
Etxegorria,
Beltzenea.

Euskaldunen deiturategian

Gure deituretan ere, hiru kolore horiek, eta horiek bakarrik, dira kasik bati, barnean sartuak.

Ez da harritzeko, gure deiturak direnaz geroz, maizenik leku eta etxeen izenetarik sortuak.

Euskaldunen deiturategian

81. Para que el padre lleve dos panes	"zu"	aittak bi ogi eraman ditzan
82. Para que yo lleve un pan	"zu"	ogi bat eraman dezadan
83. Para que yo llevase un pan	"zu"	ogi bat eraman nezan
84. Yo puedo llevar un pan	"zu"	ogi bat eramn dezaket
85. Yo podría llevar un pan	"zu"	ogi bat eraman nezake
86. Yo llevaría un pan	"zu"	ogi bat eramango nuke
87. Si yo hubiese llevado un pan	"zu"	ogi bat eraman banu
88. El padre habría llevado un pan	"zu"	aittak ogi bat eramango zukean
89. Yo pude llevar un pan	"zu"	ogi bat eraman nezakean
90. Lleva (tú) un pan	"zu"	ogi bat eraman (e)zazu
91. Lleve V. un pan	"berori"	ogi bat eraman beza
92. Lleve él un pan	"zu"	ogi bat eraman dezala
93. Yo he venido	"zu"	etorri naiz
94. Tú has venido	"i"	etorri aiz
95. Nosotros hemos venido	"zu"	etorri gera
96. Vosotros habeis venido		etorri zerate
97. El padre y el hijo han venido	"zu"	aitta ta semea etorri dira
98. Yo he venido a él	"zu"	etorri natzayo
99. Yo he venido a él	"i", h	etorri natzayok

76.a zidakan, zidaan, ziautakan, ziautaan, xadata, ziadakan, zidata, zietaken,.....

77. zidaten, ziden, zien, zautaten, zataten, zireten, zidate, zirate, zerete, zaten, zadate, zadayen, zuain, zain, zein, zieyen,.....

78. zidakaten, zidaaten, zidekan, zidean, ziean, ziautatekan, zireteken, zatateken, zidateta, zirateta, zeretek, zereteta, zatean, xateta, zadayekan, zietatekan,.....

79. zidanaten, zidenan, zienan, ziautatenan, ziretenen, zatatenen, zidatena, ziratena, zereten, zeretena,zaatenen, xadatena, zadayenan, zietatenen,.....

79.a ziñidaten, zinautazuen, zindadate, zinadayen, ziñein, zindidate . zinetazuen, zinetazen, zinatazen, ziñeeben, ziñeeyen, zinttidaten, zindirate, zendurain, zindain, zenduain, ziñeeten, ziñereten, ziñideten, ziñirate, zinirate, zindirate,.....

79.b ziñizkidaten, zinauzkidatzuen, zindazkidate, ziñaztayen, ziñittein, zinditidate, dazkitatzen, zazkiten, zenduzkirain, zendutzain, zindutzain, zinttereten,.....

80. dezan, zan,.....

81. ditzan, detzan, detxan, zkin, zkien,.....

82. dezadan, zadan, dezaten, zaten, dezaan, zatan,.....

83. nezan,.....

84. dezaket, zaket, doket,.....

85. nezake, noke,.....

86. nuke, noke,.....

87. banu, banau,.....

88. zukean, lukean, zuken, zuke, zukea, zukeen, zoken,.....

89. nezakean, nezaken, nezake, nezakeen, nuke, noken,.....

90. ezazu, zazu,.....

91. beza,.....

92. dezala, zala,.....

93. naiz, naz, nai, neiz,.....

94. aiz, iz, yaiz, yiz,.....

95. gera, gea, gare, gada, gara, gaa, ga, gira, gra,.....

96. zerate, zeate, zaate, tzeate, zadai, zai, zarete, zaizte, zarate, zate, zaazte, zaa, zaati, zeete, zarie,.....

97. dira, dire, dia, die, dere, dra, dee, dii,.....

98. nakio, natzayo, natzaio, naitzako, naitzaio, nazaio, nitzaio, nitzako, nitzio,.....

99. natzayok, natzaiok, nezaiok, niziakok, nitxaikok,.....

100. Tú has venido a él	"i", h	etorri atzayo
101. Nosotros hemos venido a él	"zu"	etorri gatzaizkio
102. Nosotros hemos venido a él	"i", h	etorri gatzaizkiok
103. El padre ha venido a mí	"zu"	aitta etorri zaitt
104. El padre ha venido a mí	"i", h	aitta etorri zaidak
105. El padre ha venido a mí	"i", m	aitta etorri zaidan
106. El padre y el hijo han venido a mí	"zu"	aitta ta semea etorri zaizkitt
107. El padre y el hijo han venido a mí	"i", h	aitta ta semea etorri zaizkidak
108. El padre ha venido a tí	"i", h	aitta etorri zaik
109. El padre ha venido a tí	"i", m	aitta etorri zaiñ
110. El padre y el hijo han venido a tí	"i", h	aitta ta semea etorri zaizkik
111. El padre ha venido (a la madre)	"zu"	aitta etorri zaio
112. El padre ha venido (a la madre)	"i", h	aitta etorri zaiok
113. el padre y el hijo han venido (a la madre)	"zu"	aitta ta semea etorri zaizkio
114. El padre ha venido a nosotros	"zu"	aitta etorri zaigu
114.a El padre ha venido a vosotros	"zu"	aitta etorri zaizute
115. El padre ha venido (a la madre y a la hija)	"zu"	aitta etorri zaiote
116. El padre y el hijo han venido (a la madre y a la hija)	"zu"	aitta ta semea etorri zaizkiote
116.a El padre y el hijo han venido (a la madre y a la hija)	"i", h	aitta ta semea etorri zaizkiotek
116.b El padre y el hijo han venido (a la madre y a la hija)	"i", m	aitta ta semea etorri zaizkioten
116.c El padre vino a mí	"zu"	aitta etorri zitzaidan
116.d El padre vino a mí	"i", h	aitta etorri zitzaidakan
116.e El padre vino a mí	"i", m	aitta etorri zitzaidanan
116.f El padre vino a tí	"i", h	aitta etorri zitzaikan
116.g El padre vino (a la madre)	"zu"	aitta etorri zitzaion
116.h El padre vino (a la madre)	"i", h	aitta etorri zitzaiokan
116.i El padre y el hijo vinieron (a la madre)	"zu"	aitta ta semea etorri zitzaizkion
116.j El padre vino a vosotros	"zu"	aitta etorri zitzaizuten
116.k El padre vino (a la madre y la hija)	"zu"	aitta etorri zitzai(ot)en
116.l El padre y el hijo vinieron (a la madre y la hija)	"i", h	aitta ta semea etorri zitzaizkio-tekan

100. atzaio, aitzaio, aitzako, akio, akiyo, aikio, yakio, yitzaio,.....
101. gatzaizkio, gatzaizkiyo, gazazkio, gaitzako, gaizko, gaizkio, gatzaizka, gitzazko, gitzaizkio, gitzio,.....
102. gatzazkiok, gatzaizkiok, gaitzekok, gaizkak, gaizkiok, gitziazkok, gitxaizkiok,.....
103. zaitt, zait, zat, zaida, dakit, zatt, zaat, zaut, dakie, dakida, zaira, zaide, zaire, zaie, zeida, zeira, zit,.....
104. zaidak, zatak, zaiatak, ziak, ziaidak, xaidak,.....
105. zaidan, zatan, ziaitan, zian, ziaidan, xaidan,.....
106. zaizkitt, zaizkit, zarat, zezkida, zezkia, zizkitt, zaizkida, zauzkit, zaizta, zazkit,.....
107. zaizkidak, zaizkiak, ziaizkidak, ziaizkiak, ziaiztak, xaizkidak,.....
108. zaik, zak, dakik, zauk,.....
109. zaiñ, zañ, zain, dakiñ, zaun,.....
110. zaizkik, zauzkik,.....
111. dakio, zayo, zaio, zako, zio,.....
112. zayok, zaiok, zakok, ziaikok, ziok, ziakok, xaiok,.....
113. zaizka, zaizkio, zaizko, zaizkiyo, zezkio, zizkiyo, zazko,.....
114. zaigu, zaku, dakigu, zaiku, zigu, zaukiu, zau,.....
114.a zaizute, zaitzue, zaizai, zatzue, zaizie, zaize, zauzii, zauzie, dakizubie, dakizie,.....
115. zayote, zaiote, zaie, dakioe, zai, ziote, zee, zakote,.....
116. zaizkate, zaizkie, zaizkiye, zezkiye, zaizkote, zaizkiote, zeztee, zaizte,.
116.a zaizkiotek, zazkiek, ziaizkotek,.....
116.b zaizkioten, zaizkione, zazkien, ziaizkone,.....
116.c zitzaidan, zitzaitan, zekidan, zaikiran, zitzaan, zaian, zaitten, zitsaitten,.....
116.d zitzaidakan, zitzaidaan, zitzaitakan, zitzaitaan,.....
116.e zitzaidanan, zitzaitanan,.....
116.f zitzaikian, zitzaikan,.....
116.g zitzayon, zitzayoen, zekion, zaikiyon, zitzakon, zaion,.....
116.h zitzaikiokan, zitzaikioan, zitzaikoan, zitzayokan,.....
116.i zitzaizkion, zitzazkion, zitzaizkoen, zezkion, zaizkion, zitzazkon,.....
116.j zitzaizuten, zitzaitzuen, zekizain, zaikizain, zitzauzien, zitzaizuen, zaizuen,.....
116.k zitzayoten, zitzayen, zekiain, zaikiyen, zitzeen, zitzaien,.....
116.l zitzaizkiotekan, zitzaizkiekan, zitzaizkotekan, zitzaizkotean,.....

117. Yo vine	"zu"	etorri nintzan
117.a Yo vine	"i", h	etorri nindukan (nitxian)
118. Nosotros vinimos	"zu"	etorri giñan
118.a Nosotros vinimos	"i", h	etorri gindukan (gitxian)
119. Vosotros vinisteis	"zu"	etorri ziñaten
119.a El padre y el hijo vinieron	"zu"	etorri ziran
120. Si yo hubiera venido	"zu"	etorri banintz
121. Yo vendría	"zu"	etorriko nintzake
122. Yo habría venido	"zu"	etorriko nintzakean
123. Para que yo venga	"zu"	etorri nadin
124. Para que nosotros vengamos	"zu"	etorri gaittezen
125. Para que el padre venga	"zu"	aitta etorri dedin
126. Para que el padre y el hijo vengan	"zu"	aitta ta semea etorri dittezen
127. Para que yo viniese	"zu"	etorri nendin

117. nintzan, nintzen, nitzan, nitzen, nitza, nitzen, nintze ,.....
117.a nindukan, ninduan, nitxian, niñuan, nittuan,.....
118. giñan, ginan, gindan, ginda, ginde, giñe, gintzan, giñen, gina, gine,..
118.a gindukan, gintukan, ginduan, gintuan, gitxian, giñuan, giñuzian,...
119. ziñaten, zindain, ziñeen, ziñien, ziñiien, zinate , zintzayen, zinaten, ziñazten, zineten, ziñezten, zinete ,.....
119.a ziran, ziren, zian, zien, zeen, zere, zire, zin,.....
120. banintz, banitz, banitza, banintza,.....
121. nintzake, nitzateke, nintzateke, ninteke, nitzeke, nitzake, nindaiteke, neinge,.....
122. nintzakean, ninteken, nitzeken, nindaike, nindaiteken, nindaitekeen, nindeike, neinge,.....
123. nadin, nayen, nain, nadien, naiten, nadeñ, naien,.....
124. gaitezen, gaitzen, giten, gattezen,.....
125. dedin, dayen, dain, dadien, daiten, dein, daien, dadin, deien,.....
126. ditezen, daitzen, diten, ten, daitezen, dittezen, dattezen, dein,.....
127. nendin, nindadien, nindayen, nindun, neiten, nedin, neiden, nindaien,.....

	Traitement	comment on dit à
1. Il má emporté	indef.	harek ereman...(neroni, nihaur)
2. Il má emporté (hi, homme)	masc.	harek ereman... (neroni, nihaur)
3, Il má emporté (hi, femme)	fém.	harek ereman... (neroni, nihaur)
4. Ils m'ont emporté	indef.	hèk ereman... (neroni, nihaur)
5. Il tá emporté (hi)	masc.	harek ereman... (heroni, hihaur)
6. Il nous a emporté	indef.	harek ereman... (geroni, guhaur)
7. Il nous a emporté (hi)	masc.	harek ereman... (geroni, guhaur)
8. Il vous a emporté	indef.	harek ereman... (zerok, zuhaurek)
9. Ils vous (sg) ont emporté	indef.	harek ereman... (zeroni, zuhaur)
10. Ils vous (pl) ont emporté	indef.	harek ereman... (zerok, zuhaurek)
11. Il a porté un pain	indef.	harek ogi bat ereman.....
12. Il a porté un pain (hi)	masc.	harek ogi bat ereman.....
13. Il a porté un pain (hi, femme)	fém.	harek ogi bat ereman.....
14. Il a porté deux pains	indef.	harek bi ogi ereman.....
15. Il a porté deux pains (hi)	masc.	harek bi ogi ereman.....
16. Vous (pl) avez porté un pain	indef.	zuek ogi bat ereman.....
16.a Vous (pl) avez porté deux pains	indef.	zuek bi ogi ereman.....
17. Ils ont porté un pain .	indef.	hek ogi bat ereman.....
18. Ils ont porté un pain (hi)	masc.	hek ogi bat ereman.....
18.a Ils ont porté un pain (hi, femme)	fém.	hek ogi bat ereman.....
18.b Ils ont porté deux pains	indef.	hek bi ogi ereman.....
19. J'ai porté un pain	indef.	nik ogi bat ereman.....
20. Nous avons porté un pain	indef.	guk ogi bat ereman.....
21. Nous avons porté un pain (hi)	masc.	guk ogi bat ereman.....
22. Il m'a donné un pain	indef.	harek ogi bat eman... (niri)
23. Il m'a donné un pain (hi)	masc.	harek ogi bat eman... (niri)
24. Il m'a donné deux pains	indef.	harek bi ogi eman... (niri)
25. Il m'a donné deux pains	masc.	harek bi ogi eman... (niri)
25.a Vous (pl) m'avez donné un pain	indef.	Zuek ogi bat eman... (niri)
25.b Vous (pl) m'avez donné deux pains	indef.	zuek bi ogi eman... (niri)
25.c Ils m'ont donné un pain	indef.	hek ogi bat eman... (niri)
25.d Ils m'ont donné un pain	masc.	hel ogi bat eman...(niri)
26. Il t'a donné un pain (hi)	masc.	harek ogi bat eman... (hiri)
27. Il t'a donné deux pains (hi)	masc.	harek bi ogi eman... (hiri)

1. nau, nu, nai,.....
2. niak, nik,.....
3. nian, nin,.....
4. naute, nute, nie, naye,.....
5. hau, hu ,.....
6. gaitu, gitu, gütü,.....
7. giaitik, gitik,.....
8. zaituzte, zütie, zuzte, ziuzte, zituzte,.....
9. zaituzte, zütie, zuzte, ziuzte, zituzte,.....
10. zaituzte, zütie, zuzte, ziuzte, zituzte,.....
11. du, dü,.....
12. dik,.....
13. din, diñ,.....
14. ditu, tu, dütü,.....
15. ditik, tik,.....
16. duzue, duzi, duzie, düzie, zie, duzii duzüi, duzüik.....
16.a ditutzue, dütüzie, tzie, tuzie, ditze,.....
17. dute, die,.....
18. ditek, die,.....
18.a diten, dine,.....
18.b dituzte, dütie, tie, tuzte,.....
19. dut, düt,.....
20. dugu, duu, dügü, düü, diu,.....
21. diagu, diagü, diau, diauk, diik, diuk,.....
22. daut, doot, daat, dat, dada, deit, data,.....
23. ziautak, ditak, diak, diautak, datak, dautak, diadak, diaak, zautak, xadak,.....
24. dauzkit, deizt, dait, dazkiat, dauzta, dazta, dazkida,.....
25. ziauzkidak, diztak, diazkiak, diaztak, xazkidak,.....
25.a dautazue, deitazie, daazie, dadazie,.....
25.b dauzkidatzue, deiztatzie, dazkiatzie, dazkidazie, daztazie,.....
25.c daute, dautet, deitaye, daate, dadate, dadaye,.....
25.d ziautatek, ditaye, xadatek, diadayek,.....
26. dik, dauk, deik, daik,.....
27. dizkik, dauzkik, deitzak,.....

28. Il tá donné deux pains	resp.	harek bi ogi eman... (zuri)
29. Il lui a donné un pain	indef.	harek ogi bat eman...(huri)
30. Il lui a donné un pain (hi)	masc.	harek ogi bat eman... (huri)
31. Il lui a donné deux pains	indef.	harek bi ogi eman... (huri)
32. Il leur a donné un pain	indef.	harek ogi bat eman... (heiei)
33. Ils lui ont donné un pain	indef.	hek ogi bat eman... (huri)
34. Ils leur ont donné un pain	indef.	hek ogi bat eman...(heiei)
35. Ils leur ont donné un pain (hi)	masc.	hek ogi bat eman... (heiei)
35.a Ils leur ont donné un pain (hi, femme)	fém.	hek ogi bat eman... (heiei)
36. Ils leur ont donné deux pains	indif.	hek bi ogi eman... (heiei)
36.a Ils leur ont donné deux pains (hi)	masc.	hek bi ogi eman... (heiei)
36.b Ils leur ont donné deux pains (hi, femme)	fém.	hek bi ogi eman... (heiei)
36.c Je lui ai donné un pain (hi)	masc.	nik ogi bat eman... (huri)
36.d Je lui ai donné deux pains (hi)	masc.	nik bi ogi eman... (huri)
36.e Vous nous avec donné un pain	indef.	zuek ogi bat eman... (guri)
36.f Vous nous avez donné deux pains	indef.	zuek bi ogi eman... (guri)
36.g Ils voux ont donné deux pains	indef.	hek bi ogi eman... (zuei)
36.h Je leur ai donné un pain (hi)	masc.	nik ogi bat eman... (heiei)
37. Je portai un pain	indef.	nik ogi bat ereman.....
38. Je portai un pain (hi)	masc.	nik ogi bat ereman.....
39. Je portai un pain (hi, femme)	fém.	nik ogi bat ereman.....
40. Tu portas un pain (hi)	masc.	hik ogi bat ereman.....
41. Tu portas un pain (hi, femme)	fém.	hik ogi bat ereman.....
42. Il porta un pain	indef.	harek ogi bat ereman.....
43. Il porta un pain (hi)	masc.	harek ogi bat ereman.....
44. Il porta un pain (hi, femme)	fém.	harek ogi bat ereman.....

28. dizkizu, dauzkitzu, deitzü, daitzu, dauzkizu,.....
29. dio, diyo, deio, deo, dau, dako,.....
30. ziok, diok, dauk, diakok, dakok, dakek, zakok, xakok,.....
31. dizkio, diotza, diozka, deitzo, dazko, daizko, daiko, dazkio,.....
32. diote, dabe, deyie, dee, daie, dakote,.....
33. var. égales 32 plus deiue, dioie, dakoie,.....
34. var. égales 32 plus deie, deete, daiete, daiote,.....
35. ziotek, z(i)oe, dieye, xayetek, diabek,.....
35.a zioten, zione, dieñe, xayene, diaben,.....
36. dizkiote, diotzate, deitze, deztee, deezte, deizte, daizte, dauzte, diotzite,.....
36.a zizkiotek, ziotzatek, ditzeye, xaiztek, diauztek,.....
36.b zizkione, ziotzane, ditzeñe, xaiztene, diauzten,.....
36.c zioat, dioyat, xakotat, diakoat, dakoat,.....
36.d zizkoat, ziotzat, diotzat, xazkiotat, diazkoat, dazkoat,.....
36.e diguzue, daukuzue, deiküzie, dauguzie, daukuzie, daukiuzie,.....
36.f dizkiguzue, dauzkigutzue, deizkützie, dauzkiguzie, dauzkuzie, dauzdiutzie,.....
36.g dizkizuete, dauzkitzuete, deitzie, dauzkiziete, dauzkizie, dauzkitziete,
36.h zioet, zioteat, dieyat, dayet, dabet,.....
37. nuen (nizun) (niezun), nuyen, niin, nian (nizin), nüin,.....
38. nikan, nian, nia,.....
39. ninan, niñan, niña,.....
40. hüen, ian, yue, hiin, hien,.....
41. hüen, ian, yue, hiin, hien,.....
42. zuen, zuben, züin, zian, zien, ziin, zin,.....
43. zikan, zian, zia,.....
44. ziñan, zinan, ziña,.....
45. zituen, zituben, zitin, zütian, zütin, ztien, zitue, zitiin, zitüin, zitien,.....
46. ginuen, gindue, diniin, ginüin, gindie, ginduben, ginin, günian, güniin,
47. ginikan, ginian, ginia,.....

48. Nous portâmes deux pains	indef.	guk bi ogi ereman.....
49. Vous portâtes un pain	indef.	zuek ogi bat ereman.....
50. Ils portèrent un pain	indef.	hek ogi bat ereman.....
51. Ils portèrent un pain (hi)	masc.	hek ogi bat ereman.....
51.a Ils portèrent deux pains	indef.	hek bi ogi ereman.....
52. Tu me portas (moi-même)	masc.	hik ereman... (neroni, nihaur)
53. Tu me portas (moi-même) (hi, femme)	fém.	hik ereman... (neroni, nihaur)
54. Il me porta (moi-même)	indef.	harek ereman... (neroni, nihaur)
55. Il me porta (moi-même) (hi)	masc.	harek ereman... (neroni, nihaur)
56. Je te portai (toi-même)	respect.	nik ereman... (zuhaur, zeroni)
57. Je te portai (toi-même) (hi)	masc.	nik ereman... (heroni, hihaur)
58. Je te portai (toi-même) (hi, femme)	fém.	nik ereman..... (heroni, hihaur)
59. Il te porta (toi-même) (hi)	masc.	harek ereman... (heroni, hihaur)
60. Tu nous portas (nous-même) (hi)	masc.	hik ereman... (geroni, guhaur)
61. Il nous porta (nous-même)	indef.	harek ereman... (geroni-guhaur)
62. Il nous porta (nous-même) (hi)	masc.	harek ereman... (geroni, guhaur)
63. Je vous portai (vous-même)	resp.	nik ereman... (zerok-zuhaurek)
64. Il lui donna un pain	indef.	harek ogi bat eman... (huri)
65. Il lui donna un pain (hi)	masc.	harek ogi bat eman... (huri)
66. Il lui donna un pain (hi, femme)	fém.	harek ogi bat eman... (huri)
67. Il lui donna deux pains	indef.	harek bi ogi eman... (huri)
68. Ils lui donnèrent un pain	indef.	hek ogi bat eman... (huri)
69. Ils lui donnèrent un pain (hi)	masc.	hek ogi bat eman... (huri)
69.a Je lui donnai un pain (hi)	masc.	nik ogi bat eman... (huri)
69.b Je leur donnai un pain (hi)	masc.	nik ogi bat eman... (heiei)
69.c Tu leur donnas un pain (hi)	masc.	hik ogi bat eman (haiei)

48. ginituen, giñituben, gintuben, gintin, güntian, güntin, gintien, gintuin, ginitiin, ginduze, gintiin, gindituen, gintzan,.....
49. zinuten, zünein, zinien, zinduten, zenduten,.....
50. zuten, zute, zien,.....
51. ziteken, zieya,.....
51.a zituzten, zituzte, zütien,ztien, zuzten,.....
52. nindikan, nindian, nündia, nindita, nintzakan, nintian,.....
53. nindinan, nindiñan, nündüña, nindina, nintinan, nintzanan,.....
54. ninduen, ninduben, nindin, nündian, nündin, nindien, nindue, nindiin, nintüin, nintiin, nintzan,.....
55. nitxiokan, nindikan, nindian, nindia,.....
56. zintudan, zintuan, züntúdan, zinituan, zinduzta, zindituan,.....
57. hintudan, ündüdan,.....
58. hintudan, ündüdan,.....
59. yindue, hintuen, ündian, iñuan,.....
60. gintukan, güntia,.....
61. gintuen, güntian, ginduze, gintzan, ginitiin, gintien,.....
62. gintikan, gintia,.....
63. zintuztedan, zinduztedan, züntüztedan,.....
64. zion, zioen, ziyoen, zeyon, zakon, zako, zioin,.....
65. ziokan, zioan, zioya,.....
66. zionan, zioña,.....
67. zizkion, ziozkan, ziotzan, zizkan, ziyotzon, ziyotzan, ziyozkon, ziyozkan, zeitzon, zition, zazkon, zaikon, zaizkon, ziotzin,.....
68. zioten, zeiuen, zakoten,.....
69. zioaten, ziotekan, zieuya,.....
69.a niokan, nioya, ñakota, niakokan, naba,.....
69.b niotekan, nieya, ñayeta, niabekan, nabeya,.....
69.c hioten, eyen, yaye, aben, yabein,.....

70. Nous lui donnâmes un pain	indif.	guk ogi bat eman... (huri)
71. Nour lui donnâmes un pain (hi)	masc.	guk ogi bat eman... (huri)
71.a Vous lui donnâtes un pain	respect.	zuek ogi bat eman... (huri)
72. Je te donnai un pain (hi)	masc.	nik ogi bat eman... (hiri)
73. Il te donna un pain	resp.	harek ogi bat eman... (zuri)
74. Il te donna un pain, (hi)	masc.	harek ogi bat eman... (zuri)
75. Il te donna un pain, hi, femme)	fém.	hárek ogi bat eman... (hiri, giz.)
75.a Nous te donnâmes deux pains	resp.	guk bi ogi eman... (zuri)
75.b Nous te donnâmes deux pains (hi)	masc.	guk bi ogi eman... (hiri)
76. Il me donna un pain	indef.	harek ogi bat eman... (niri)
76.a Il me donna un pain (hi)	masc.	harek ogi bat eman...(niri)
77. Ils me donnèrent un pain	indef.	hek ogi bat eman... (niri)
78. Ils me donnèrent un pain (hi)	masc.	hek ogi bat eman... (niri)
79. Ils me donnèrent un pain (hi, femme)	fém.	hek ogi bat eman... (niri)
79.a Vous me donnâtes un pain	resp.	zuek ogi bat eman... (niri)
79.b Vous me donnâtes deux pains	resp.	zuek bi ogi eman... (niri)
80. Pour qu'il porte un pain	indef.	harek ogi bat ereman.....
81. Pour qu'il porte deux pains	indef.	harek bi ogi ereman.....
82. Pour que je porte un pain	indef.	nik ogi bat ereman.....
83. Pour que je portasse un pain	indef.	nik ogi bat ereman.....
84. Je peux (puis) porter un pain	indef.	nik ogi bat ereman.....
85. Je pourrais porter un pain	indef.	nik ogi bat ereman.....
86. Je porterais un pain	indef.	nik ogi bat eremanen.....
87. Si j'eusse porté un pain	indef.	nik ogi bat ereman.....
88. Il aurait porté un pain	indef.	harek ogi bat eremanen.....
89. Je pus porter un pain	indef.	nik ogi bat ereman.....

70. giñion, ginion, genion, geniddon, ginioen, geneyon, ginakon, gindakon,.....
71. giñiokan, giniokan, ginioya,.....
71.a ziñioten, zinioten, zeneyuen, zindakoten, zindakote, zinakoyen,.....
72. nian, naukan, neya, nauyan,.....
73. zizun, zautzun, zatzun, zeizün, zauzun,.....
74. zian, zaukan, zakan, zeya, zaken, zauyan, zautan, zauta,.....
75. ziñan, zinan, zaunan, zauna, zanan, zeña, zanen,.....
75,a giñizkizun, ginaukitzun, geneitzün, gindaukitzun, gindauzkitzun, ginaitzun, gindauzkizu, ginauzkizun,.....
75.b giñizkian, ginauzkikan, geneitzaya, gindauzkita, ginauzkan, ginayaz,.
76. zidan, zautan, ninduen!, zatan, zeitan, zaan, zauntan, zadan,.....
76.a zidakan, zidaan, ziadakan, ziautakan, zitaya, xadata, zaitaya,.....
77. zidaten, zautaten, zataten, zeitayen, zaaten, zautetan, zadayen,.....
78. zidakaten, zidaaten, ziautatekan, zatateyan, zitadieya, zaitateken, zaatean, zauntateyan, zautatean, xadateta, ziatean, zatatekan, zautateyan zadayekan.
79. zidanaten, ziautatenan, zatatenan, zitadieña, zatatenen, zaatenan, zauntenan, zauntetenan, xadatena, ziatenan, zadayenan,.....
79.a ziñidaten, zinidaten, zinautazuen, zeneitayen, zindadate, zindaaten, zinadayen,.....
79.b ziñizkidaten, zinauzkidatzuen, zeneiztayen, zindazkiaten, zindazkidate, zinaztayen,.....
80. dezan, zan,.....
81. ditzan, detzan,.....
82. dezadan, dezaan, zatan,.....
83. nezan,.....
84. dezaket, zaket, doket,.....
85. nezake, noke,.....
86. nuke, nüke, noke,.....
87. banu, banü,.....
88. zukean, lukean, zuken, zükian, zukeen, zukeyen, zoken,.....
89. nezakean, nezakian, nezaken, nezakeen, noken,.....

90. Portez un pain	"zu"	ogi bat ereman... (zuk)
91. Portez un pain	"berori"	ogi bat ereman... (berorek)
92. Qu'il porte un pain	indef.	ogi bat ereman... (harek)
93. Je suis venu	indef.	ni etorri.....
94. Tu es venu (hi)	masc.	hi etorri.....
95. Nous sommes venus	indef.	gu etorri.....
96. Vous etes venus	indef.	zuek etorri.....
97. Ils sont venus	indef.	hek etorri.....
98. Je lui suis venu	indef.	ni etorri... (huri)
99. Je lui suis venu (hi)	masc.	ni etorri... (huri)
100. Tu lui es venu (hi)	masc.	hi etorri... (huri)
101. Nous lui sommes	indef.	gu etorri... (huri)
102. Nous lui sommes (hi)	masc.	gu etorri... (huri)
103. Il m'est venu	indef.	hura etorri... (niri)
104. Il m'est venu (hi)	masc.	hura etorri... (niri)
105. Il m'est venu (hi, femme)	fém.	hura etorri... (niri)
106. Ils me sont venus	indef.	hek etorri... (niri)
107. Ils me sont venus (hi)	masc.	hek etorri... (niri)
108. Il t'est venu (hi)	masc.	hura etorri... (hiri)
109. Il t'est venu (hi, femme)	fém.	hura etorri... (hiri)
110. Ils te sont venus (hi)	masc.	hek etorri... (hiri)
111. Il lui est venu	indef.	hura etorri... (huri)
112. Il lui est venu (hi)	masc.	hura etorri... (huri)
113. Ils lui sont venus	indef.	hek etorri... (huri)
114. Il nous est venu	indef.	hura etorri... (guri)
114. Il vous (pl.) est venu	indef.	hura etorri... (zuei)
115. Il leur est venu	indef.	hura etorri... (heiei)
116. Ils leur sont venus	indef.	hek etorri... (heiei)
116.a Ils leur sont venus (hi)	masc.	hek etorri... (heiei)
116.b Ils leur sont venus (hi, femme)	fém.	hek etorri... (heiei)
116.c Il me vint	indef.	hura etorri... (niri)
116.d Il me vint (hi)	masc.	hura etorri... (niri)
116.e Il me vint (hi, femme)	fém.	hura etorri... (niri)
116.f Il te vint (hi)	masc.	hura etorri... (hiri)
116.g Il lui vint	indef.	hura etorri... (hiri)

90. ezazu, zazu,.....
91. beza,.....
92. dezala, zala,.....
93. naiz, naz, naix, niz,.....
94. aiz, haiz, iz, hiz,.....
95. gera, gare, gai, gaa, gira, gia, gie,.....
96. zarete, zaizte, ziraye, zidie, ziezte, zite, zizte, zirate,.....
97. dire, die, dira, dia, dji, dra,.....
98. natzaio, nitzaio, nitzako,.....
99. natzaiok, nitzok, niziakok, nitxaikok,.....
100. hatzaio, itzaio, hitzaio,.....
101. gatzaizkio, gaizko, gaizkio, gitzaio, gitzaitzo, gitzazko,.....
102. gaitzaizkiok, gaizkak, gitzok, gitziazkok,.....
103. zait, zaitt, zaida, zaat, zaut,.....
104. zaidak, ziaitak, zitak, ziak, ziaidak,.....
105. zaidan, ziaitan, zitan, zian, ziaidan,.....
106. zaizkit, zaizkitt, zaizt, zaitzat, zauzkit, zait, zazkit,.....
107. zaizkidak, ziaizkidak, ziztak, ziazkiak, ziaiztak,.....
108. zaik, zauk,.....
109. zain, zaun, zañ,.....
110. zaizkik, zaitzak, zauzkik,.....
111. zaio, zayo, zako,.....
112. zaiok, zayok, zakok, ziaiok, ziok, ziakok,.....
113. zaizkio, zaizko, zaitzo, zazko,.....
114. zaiku, zaikü, zaukiu, zau, zaigu,.....
114.a zaizute, zaitzue, zaizie, zauzie, zauzii,.....
115. zaiote, zayote, zaie, zee, zakote,.....
116. zaizkiote, zaizkote, zaitze, zitzaitze, zaiztete, zeztee, zaizte, zeeztete,.
116.a zaizkiotek, ziaizkotek, zitzek, ziaiztek, zezteek,.....
116.b zaizkione, ziaizkione, zitzen, ziaizten, zezteen,.....
116.c zitzaidan, zitzaitan, zeitan, zizaidan, zitzaan,.....
116.d zitzaitaan, zitaya, ziziaidakan,.....
116.e zitzaidanan, zitzaitanan, zitaña, ziziaidanan,.....
116.f zitzaikan, zizaikan, zeiya,.....
116.g zitzaion, zizaion, zeyon, zitzaioen, zitzakon,.....

116.h Il te vint (hi)	masc.	hura etorri...(huri)
116.i Ils lui vinrent	indef.	hek etorri... (huri)
116.j Il vous vint	indef.	hura etorri... (heiei)
116.k Il leur vint	indef.	hura etorri... (heiei)
116.l Ils leur vinrent (hi)	masc.	hek etorri... (heiei)
117. Je vins	indef.	Ni etorri.....
117.a Je vins (hi)	masc.	ni etorri.....
118. Nous vinmes	indef.	gu etorri.....
118.a Nous vinmes (hi)	masc.	gu etorri.....
119. Vous vintes	indef.	zuek etorri.....
119.a Ils vinrent	indef.	hek etorri.....
120. Si je eusse venu	indef.	ni etorri.....
121. Je viendrais	indef.	ni etorriko.....
122. Je serais venu	indef.	ni etorriko.....
123. Que je vienne	indef.	ni etorri.....
124. Que nous venions	indef.	gu etorri.....
125. Qu'il vienne	indef.	hura etorri.....
126. Qu'ils viennent	indef.	hek etorri.....
127. Que je vinsse	indef.	ni etorri.....

116. zitzaizkion, zitzaizkoen, zizaizkon, zeitzon, zitzazkon,.....
116.j zitzaizuten, zitzaitzuen, zeizien, zizaizien, zitzautzien,.....
116.k zitzaien, zitzayoten, zitzaioten, zeyen, zizayen, zitzeen,.....
116.l zitzaizkiotekan, zitzeya, zitzaizkotekan, ziziaiztekan,.....
117. nintzan, nitzan, nintzen, nitzen,.....
117.a nindukan, nündia, nintzakan, ninduan,.....
118. giñan, ginan, giñen, gintzan,.....
118.a gindukan, gintukan, güntia, gintzakan, ginduan,.....
119. ziñaten, ziñeen, ziñien, ziñiien, zintzayen,.....
119.a ziran, ziren, zian, zien,.....
120. banintz, banitz,.....
121. nintzake, nintzateke, nintzate, nindaiteke, naiteke,.....
122. nintzakean, ninteken, nintzatekian, nindaitekeen, nindaiteken,.....
123. nadin, nain, nadien,.....
124. gaitezen, giten, gitian,.....
125. dedin, dadin, dain, dadien,.....
126. ditezen, diten, ditian,.....
127. nendin, nindadien, nindun,.....

"GAVON-SARIAC"
GURE ILUSTRAZIOAREN SARRERA

Nire mintzabide labur honetara ez dut ezer berririk ekarriko, garaiko giroz gure literatura Europako kultur mugimenduari erantsi baizik.

Ilustrazionismoa, literaturan XVII. mendearen bukaeretan indartu zen, inprimerietan brontzezko plantxak zurezkoen ordez jartzean. Baina batez ere XVIII.ean hedatu zen, liburuak apaingarriz hornituaz. Era berean, idazkerak ere aldatu ziren, edergarri hoien araberaz, mugimendu honetan Frantzia buru zelarik.

Ekintza horren ondotik etorri ziren ideien aldakuntzak, eta XVIII. mendeak ekarri zuen Ilustrazioa (argien mendea), arrazoizko jakintzaren filosofietan oinharritzen dena, jitez-gaineko edo grazizko maila jerarkikoek arrazoizkoen azpitik jarriaz. Hontatik zientzien aurrerapenak, erlijio era berritzeak, etika eta politika bizkortzeak, eta abar. Ordutik, gizartea natura legeetan oinharrituz, gauzak arrazoibidez konprenitu nahia sartu zen, naturaz goragoko zerbaiti begiratu gabe.

Aurtengo irailean sortu da "Elhuyar" izeneko aldizkaria, zientzi gaiak euskaraz emateko asmoz, Amigos del Pais Elkartean ikertzaile ospetsua izan zenaren ohoretan. Nonbait, orain dela berrehun urte baino gehiago, gure Ilustrazio garaian, atzean utzi genituen ekintzak berriz piztu nahirik. Orduko ekintzari buruz, aldizkariaren laugarren orrialdean, hara zer esaten duen: "Mugimendu honek (Ilustrazioak) berebiziko indarra hartu zuen eta Euskal Herriraino ere heldu zen. 1746.ean Xabier Maria de Munibe, Peñafloridako konte jaunak Frantziatik itzultzean, bere etxean, Azkoitian, lagunarteko batzarrak antolatzen zituen Matematika, Fisikà eta garai hartako berriei buruz elkarrizketak izateko asmoz".

Xabier Mª Munibe, Peñafloridako kondeak, Frantziatik haize berriak ekarri bazituen ere, garai hartarako hemen zen Joannes Etxeberri Sarakoa (1725tik 1749ra bitartean Azkoitiko mediku zena), Axular eta ondorengoak hain maite zituen euskaltzale borrokatua. Bestalde, baita ere bazen Larramendi eta bere ingurukoen eraginaren itzala. Beraz, ez zuen giro txarra bere nahien hastapenetarako, literaturagintzari dagokion partetik.

Insaustiko etxe hau izan zuten akademia gisa eta hemen loratu zen euskal Ilustrazioa. Esan beharra dugu, hasiera bateko giroa oso euskalzalea izan zela, baina gero, zoritxarrez, erdaraz landu zituztela beren gaiak, bai artegintzakoak eta batez ere zientziazkoak. Baina, gaur bereziki aipatu nahi nukeana, zera da, "Gavon-sariac" izeneko agerraldia, gure literaturan Ilustrazioko lehen izpia. *Otsaldi* haiek Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País deitu elkarte hura baino lau urte lehenagokoak dira: 1762koak.

"Gavon-sariac" lanaren egileaz oraintsura arte zalantzak izan dira. Joan zen mendean Jose Manterolak Peñafloridako kondearena zala esanarren, J.I. Arana jesuita azkoitiarrak Luisa Miserikordiakoa bezala eta honen izenean argitaratu zenez gero erlijiosa honena izango zala esan zuenez, zalantza haundiagoak sortu ziren. Eta Manuel Larramendirenak ote ziren susmoa ere zabaldu zen (1).

Hala ere, Julio Urkixoren liburutegian aurkitzen den ale batean, Aizkibelen esku-izkribuz hau irakurtzen da: "Aunque en el prólogo dice que son de la Luisa, sabemos por el Sr. Marqués de Narros, D. Francisco X. de Aguirre, que el autor fue el Sr. Conde de Peñaflorida". (2). Luis Mitxelenaren begi eta adimen erne eta zoliarentzat, Munibe zen "gavon-sariac" obraren egilea, bere *Historia de la Literatura Vasca*-n agertzen duenez (3).

Eta, azkenik, zalantza guziak uxatuko zituen agiri argia etorri zen Telletxea Idigorasi esker, berak aurkitutako Larramendiren gutun batek egi zihurra ematen digulako (4). Geroztik, duda gabe, "Gavon-sariac" izeneko obra X.M. Munibe, Peñafloridako kondearena da. Hala jarri dute beren literatura historietan Bernardo Estornés Lasak eta Aita Santi Onaindiak (5).

Hau ezaguturik, lan horretan beste inork parterik izatekotan, liburuxkaren hitzaurrean aitortzen duenari jaramon egingo badiogu: Martin Beltz izeneko agure bertsolari bat izan zitekean laguntzaile *Segidillak, Aria eta Kopra handietan.*

Teatro antzera egindako obra honek, ikasi batek egindako kanta herrikoiak ditu. Estilo jolaskorra, baina batez ere erudiziozkoa, jakintzaz hornitua, eta hau da hain zuzen Ilustrazio garaiko agergarririk bereziena.

Bertan, lehen aldiz, kontseptu berriak agertzen dira gure literaturan. Ez du Barrutiaren bezalako herri teatro antzik. Behar bada jenero bereko beste era bat da. Gai eta erudizio aldetik hurbilago dago Joannes Etxeberri Ziburukoaren *Noela*-tik (1630), biak iturburu Biblia dutenez gero. Auspoa Liburutegiak 1965ean egin zuen argitalpen berria dugu errezen eskuratu dezakeguna (6), eta lanak orrialdeen azpikaldean daramazkian dei-oharretatik konturatuko gara Biblia oharrez aberats datorrela.

Guk hemen, egizko egilearen alde argitasunak tinkoago jartzeaz batera, Ilustrazioaren kutsua daraman zatitxo bat bakarrik aipatuko dugu, muestratxo baten gisa -hirugarren hotsaldiko azken partetik hartua- ; Jesukristoren jaiotza ondorean, bakezko denboren adierazpenez kantatzeko eginak. Kontu izan gizarte krisis handien inguruan idatzia zela (7). Honegatik, Peñafloridako kondeak, giroaren eta bere asmo handien aurrez-aurre, zortziko txikiaren hitz-neurtuetan bakearen alde kantatzen du, hirugarren hotsaldiko "Artzai kanta"n. Parte hau, Mitxelenaren ustez, Virgilio-ren eglogak-ren IV. partearen hizkera gozoan ez-ezik, etorrizko parafrasisik honena dirudi (8). Baina bertso hoietako zati batean, nere iduriz, egileak Isaiasen profeziako ideiak (9) erabili zituen bi bertso hauek osatzeko:

Ezpatak, lantzak eta
Beste arma guziak
Erositzen dituzte
Errementariak;
Ta alperrikan ez dediñ

Galdu burni ura,
Enpleatzera diaz
Gure probetxura.

Atxur, burdiñara ta
Golde bihurturik,
Nekazari langiñak
Ongi giaturik,
Emango digu lurrak
Garia eta artoa,
gaztaña, sagardoa
Ta ardo naikoa

Zientzia berriak sartuko zituen Peñafloridako kondeak, "Gavon-sariac" obrarekin kanta epiko bat eskaintzen digu Jesus Salbatzailearen ohoretan; baina baita ere, neurri handi batean, bere gogoko gizartegintza ere, lanaren eta jakintzaren bidez esperantza kantatuaz. Bergarako Mintegia sortzeaz ez ote zituen asmo hoiek? Bai horixe. Eta bere idealen poema bihurtzen zaigu hotsaldien azken parte hau. Era berean, gure literatura mugetan zedarria hausten du, bide berri bat idekitzeko, eta bide berri honetatik XVIII. mendean Bizkai-Gipuzkoetako idazle berriak ditugu gogoan, iturburu haietatik edanaz ekintza bizkortu zutenak. Geroko urte latzak oztoporik aski jarri bazuten ere.

Obra beraren azken parte hortan aurkituko ditugu bi urte geroago Bergaran errepresentatuko zen "El borracho burlado" irri-operaren lehen izpiak ere:

Abogadu eskribau
Eta merioak,
Mediku, barbero ta
Botikarioak,
Ez dira bear; ta argatik
Izango da sarri
Hipokrates gaxoa
Saguen janari.

***

Ez da onezkero esango
Gezurrik batere,
Egia esango dute
Dendariak ere:
Juan da emendik tranpa
Ta pede gaistoa
la ur bage saltzen da
Tabernan ardoa.

Paradisu hoberik nork espero? Hartuko genuke!

Gure herriaren alde asmo handiz eta ekintza sendoz ihardun ziren gizon haiek Insaustiko etxe hau izan zuten beren hasiera; teilape honetan egosi zen Ilustrazioko euskal literatura markatzen duen lehen obra ere: "Gavon-sariac". Gaur biltzen garanok arnasberritu dezagun haiek zuten jakin mina hizkuntza zaharrari bide berriak idekiz.

OHARRAK:

(1) José Manterolak "Euskal-Erria" aldizkarian (1883 urtea), "Gavon-sariac" Peñafloridako kondearenak bezala jarri zuen. Aldizkari berean, liburuxkaren bigarren argitalpena ematean ("Euskal Erria", 1889) J.I Aranak jarri zion hitzaurrean, Luisa Miserikordikoa jartzen zuen egiletzat. José Ignacio Arana-ren eskua ikusten dugu Henao-ren **Complemento a la obra Averiguaciones Cantábricas**-en argitalpen berrian ere (Tolosa, 1895), seigarren tomoaren 92. orrialdean dionez: "la poetisa y cantora Azcoitiana de las **Otsaldiac** Doña Luisa, directora de la casa Misericordia en 1762". Joakin Azpiazu jesuitak ere uste berean jarraitzen zuen, ikus "Euskera zarraren apurtxoak", **Bigarren Euskalegunetako Itzaldiak** (Bermeo, 1926) 128 orr. Hala ere, J. de Aralar-ek, **El Conde de Peñaflorida y los Caballeritos de Azcoitia** (Buenos Aires, 1942) liburuaren 119 orrialdean agertzen duenez, J. Manterolari jarraituaz noski, Peñafloridako kondea jartzen du egiletzat. Baina, geroago, M. Lekuonak uste du Manuel Larramendi dala egilea edo lanean parte hartu zuenetako bat, ikus "Egan", 5-6 zenb., 1956, 31/32 orr.

(2) L. de A., "Testimonio de Aizquibel sobre el autor de "Gavon-sariac".- ¿Otra obra teatral mas del Conde de Peñaflorida?". Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País, XVIII, 1962, 430/432 orr.

(3) L. Michelena, **Historia de la Literatura Vasca** (Madrid, 1960), 105 orr.

(4) J.I. Tellechea Idigoras, "Gabon-kantak" de Guernica. Bol. R.S.V. Amigos del País, XXII, 1966, 162 orr.; eta **Papeles Viejos** (San Sebastian, 1968), 193/196 orr.

(5) B. Estornés Lasa, **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco**.- Vol. I, **Literatura** (San Sebastian, 1969), 265 orr. Eta S, Onaindia, **Euskal Literatura-I**, (Bilbao, 1972), 225/226 orr.

(6) **Teatro zaarra**. Auspoa Liburutegia, 48 (Tolosa, 1965), 47/77 orr.

(7) Europan zazpi urteko gerrateen garaia (1756-1763), Luis XV.aren denboran, kolonietako gerrateak ziren, ideen iraultza eta ondorioz laster piztuko bigarren Matxinada (1766), ekonomia krisisak eraginik; eta, geroago, Ifar Ameriketako independentzia (1775-1783), eta Frantziako iraultza (1789-1792).

(8) L. Michelena, aipatutako obra, 105 orr.

(9) **Testamentu zaharra**. Isaias, II, 4.

Juan San Martin

Azkoitian, 1974-12-27

Euskaltzaindiaren agiriak

DATORREN URTE BIKOARI BEGIRA

GURE EGOERA ETA LANEN KONTU ERRENDATZEA

Bi urtez behin, esku artean darabilzkigun zereginen kontu emateari beharrezkoa derizkiot. Beharrezkoa gure egoera aztertzeko, egiteko ditugun lanak aitzinatzeko eta elkargoaren alde guztion laguntza eskatzeko. Eta hori da gaurko txosten honetan hitz gutiz egin nahi dudana.

1.- Arautegiaren eta Barne-Erregelen berriztatzeaz Euskaltzaindiaren barneko estrukturazioari buruz urrats garrantzitsu batzuk eman direla uste dut. Gure ibilpide-legeak gaurkotzea, eta lege hoietan guztion eskubide eta eginbideak argi neurturik egotea, denontzako da babes, mesede eta era berean pizgarri, eta elkargoarentzat, berriz, oinarri sendoa.

2.- Beste urrats handi bat ere egin da: Aditz laguntzaile batuaren onartzea. 1973ko Euskera-n agertu zen aditz laguntzaile batu hori.

Han, ordea, aditz soila, hezur hutsean agertu da. Zerbait gehiago ere nahi litzateke, ene ustez, batez ere gerorako. Batzordeak, alegia, bere lan hori burutzean, bere aukerak egiterakoan eta abar, zer-nolako arrazoiak izan zituen, zergatik hautatu zen forma bat eta ez beste bat, eta abar. Nik konprenitzen dut hiru urtetan zehar egindako bilera eta eztabaida guztien xehetasunak eta ipi-apak ematea ez dela posible; baina hartu den bidea hartzeko zein izan diren kriterio eta arrazoi nagusiak, hori oso jakingarri da, eta hortaz halako dossier bat egitea eta Euskera-n argitaratzea, komenigarri izango litzatekeela uste dut. Aita P. Altunari, batzorde idazkaria den aldetik, hortaz txosten moduko zerbait presta zezala eskatu nion, eta baietz, egingo zuela edo erantzun zidan. Beraz, egindako lanaren osagarri bezala ondo baino hobeto etorriko da.

3.- Aditz laguntzaileaz ez dira aditz kontu guztiak bukatzen, ordea. Hor da orain aditz sintetikoen saila. Horri heldu beharko dio batzordeak.

Batzorde buru den Mitxelena jaunarekin mintzatu naiz hortaz, eta hasteko, bide hau proposatzen du berak: Batzordeko direnek (eta batzordeko ez direnek ere egin dezakete, nahi baldin badute), nahiz bakoitzak bere aldetik, nahiz taldeka, egin ditzatela beren proposamenak; "anteproyecto" edo aitzin-asmo bezalako bat, alegia (edo bat baino gehiago, nahi bada); gero hoien gainean batzordea lanean has dadin. Hutsaren gainean lan egitea baino errazago da beti ere oinarri bat edukitzea. Beraz okasio hau aprobetxatu nahi dut eske hau egiteko. Euskera batuan erabiliko diren aditz sintetikoei buruz oinarriko lanen bat egin nahiko duten guztiei eta batez ere batzordeko direnei, beren proposamen hoiek bidal ditzaketeela eta pozik eta esker onez hartuko direla esan nahi diet. Gero hoien gainean batzordeak egindo du bere lana.

4.- Herri eta herritarren Izendegi ofizial bat burutzea, horra Euskaltzaindiak aspaldidanik esku artean darabilen beste lan bat. Lizundia batzorde-idazkariak esan didanez, gaiak, neurri dexente batean bildurik daude, baina ez osoki. Eta gai guztiak bildu arte aztertze eta onartze lanean hasiko ez bagina, beharbada lan hau sekula ere ez litzatekeela egingo ikusiz, erabaki dugu zatika aztertzen eta onartzen hastea... Badira, alegia,

eskualde batzuk dokumentazio guztia prest eta gertu dadukatenak, eta hoiena aztertu eta onartu ezinik ez dago. Eskualde hoiena aurrera doala ikustean, lokarturik diren biltzaileak eta berri emaleak ere iratzarriko dira agian. Hain zuzen ere, gaurko batzarrean egiten dugu lehen zerrenden aurkezpena.

5.- Zortzi urte arteko ikastola hiztegia. Hona hemen Donostiako gure Ordezkaritzak guztion laguntzaz aurrera daraman lana. Atzera-aurrera asko, neke eta tirabira asko kostatzen ari den hiztegia; eta hala ere guztion gustora gauzak egiterik ez dago, hori badakigu. Gure hizkuntza dadukagun egoeran edukiz, gauza erabatekoak, soil perfektoak ateratzea gaurkoz ez da posible. Baina lan-tresna on-baliotsua izango dela uste dut, eta denborak eta azturak hobeagotuko du. Lan hau, bada, oso aurrera doa, eta laster bukatuko da. Lana bukatzen den bezain fite Euskaltzaindiak argitaratzaile bat bilatuko du (Gipuzkoako Diputazioari edo eskea eginez,) argitara dezan.

Langile zintzo eta neka-ezinak izan diren Donostiako Ordezkaritzako jaunei neure esker ona agertu nahi diet.

6.- Lehen mailako eskola-hiztegi hau bukatutakoak, eta beste maila goragoko batekin hasi baino lehen, komeniko da agian orain arte eginik dena eta barraiaturik dagoena biltzea eta aztertzea. Esate baterako, gramatika gaiak euskeraz azaldu dituztenek zer leksiko erabili duten kontuan eduki (Etxeberri Sarakoak, Harrietek, Lertxundik, Mendizabalek, etab.) zer leksiko enplegatzen duten jakin beharra dago. Berdin, edozein jakintza saili buruz ateratako leksikoak ezagutu behar dira. Esate baterako, Euskaltzaindiak, gerra aurreko garaian inoiz onartu edo erabaki zituen honelako hitz batzuk, eta Euskera-n jasoak daude; gerra ondoko Euskera-n ere azaldu dira leksiko batzuk. Eta Euskaltzaindiaz kanpo ere agertu dira ikastola hiztegiak eta testuak.

Gure nekeak eta besteak alfer-lan bihur ez daitezen, edo nahaspilak kendu beharrean ugari ez ditzagun, behar-beharrezkoa da orain arte egin denaren ezagutzea eta kontuan edukitzea, ez itsu-itsuan segitzeko, noski. Bestela beti egin eta desegin ibiliko garen beldurra izan genezake.

Horregatik, oraingo hiztegia bukaturakoan, beste batekin hasi baino

lehen, orain arte irakaskintza arloan egin denaren azterketa eta bibliografia bat osatu beharko litzateke, eta lan hoiek denak edo behintzat kontuzkoenak eskumeneau eduki, eta orduan hasi goi mailako hiztegigintzan.

7.- Etxegintza hiztegia. Horra beste lan bat batzorde baten eskuetan dena. Hemen, orain arte, hitzak biltzen lan gaitza eta eskerga burutu du J.M. Zumalabe batzordeko idazkari jaunak, Azkueren hiztegia, Lhanderena eta beste zenbait sakonki aztertuz. Bilketa horren fruitua batzordekoen artean zabaldu da, behar diren aukerak, gehitze edo gutitzeak egin ditzaten. Gero, beti bezala, proposamen formala Euskaltzaindiari aurkeztu beharko zaio, honek erabaki dezan.

8.- Euskaltzainditik kanpora ere gaur-eguneon badabil zenbait talde hiztegi espezializatuak egiten. Ez arrazoi gabe. Euskera, kultur-tresna izango bada, maila horretan duen hitz eskasia nolabait erremediatu beharra daduka. Hainbeste ideia, gauza, kontzeptu daude gaurko kulturaren munduan euskeraz nola esan ez dakizkigunak. Erderatikoez edo gure sustraietatik eratutakoez baliatu beharko dugu, baina nolanahi ere hitz horiek euskeraz hartu behar duten itxura, forma, grafia, eta abar finkatu beharra dago.

Beste aldetik, mundu hau izugarri zabala eta neurgea da, eta Euskaltzaindiak ezin egin dezake dena. Gainera jakintza sail denetan espezialistak ezin eduki ditzake.

Horregatik, talde hoiek egiten duten lana pozik ikusten dugula esan behar dugu.

Jakin taldeak badakit honelako hiztegiak egiteko asmoa dadukala. Elhuiar aldizkariaren inguruan dabiltzanek ere zientzietako izendegiak egin nahi dituzte. Donostiako zuzen-Fakultatea hiztegi juridikoa egin nahiean dabil, Leioako Medizina Fakultateak bere sailekoa egin nahi luke, Sarrikok ere berea, eta.

Ene ustez, Euskaltzaindiak lan egiten utzi, bai, baina halako haremanen bat ere eduki beharko luke hoiekin denokin. Beharbada ez da erraza izango, baina ahalegindu behar luke horretan. Hainbeste talderen artean koordinazio zerbait behar da, elkarren berri zerbait jakiteko, alferriko lanetan indarrak ez galtzeko, eta oinarriko gauzetan batasun orokor

bat egon dadin ere bai. Neronek ere ez dakit nola, baina talde hoiekin har-eman zerbait behar dugula garbi ikusten dut. Gure eskuan den laguntza eta aholkua emateko prest egon behar dugu. Besterik ez bada, bibliografia zerbait eskainiz, oinarriko puntu nagusi batzuk argituz, etab.

Ensaio lanak dira, noski. Guk onartu eta erabaki beharrik ez dute. Baina gidatu eta laguntza, ahal dugun neurrian, eman, hori bai.

9.- Euskaltzaindiko liburutegia, hemen Bilboko gure etxean dena, behar den ordenan eta itxuran jartzea eta apailatzea, hori dugu beste asmo zahar bat. Jakin dudanez, Alf. Irigoien liburuzaina, Berrio Otxoa Anaiaren laguntzaz, badoa ordenazio lan hori eginez. Agian, geroago, langileren bat ere beharko da fitxak egiteko, eta abar.

Liburutegirako liburuak doharik bialtzen dizkigunei ere zerbait egin beharko genieke gure esker onaren agergarriz. Badakit liburu hoien aipamena egiten dela Euskera-n, baina atzerapen handiz agertzen da aipamen hori. Liburua hartzen denean, lerro batzuk eskerrak emanez emaleari idaztea, ez ote da bidezkoa?. Gizalegeak horrenbeste eskatzen duela uste dut. Eta emalea hurrengoan ere emateko gogoaz gelditzen da.

10.- Azken batzar-agirian ikusten dudanez, 284 izan dira euskal irakasle titulua urte hauetan Euskaltzaindiaren eskutik hartu dutenak. Horrek esan nahi du titulu horrek baduela arrakasta, eta badela gur kezka, batez ere gazteen artean, euskarari buruz, eta Euskaltzaindia haintzat hartua dela, arlo honen gidari eta arduradun bezala.

Euskal irakasleak sortzea guztiz premiatsua eta garrantzitsua da euskerarentzat. Beraz alderdi honi kontu eta axola handia eman behar dio Euskaltzaindiak.

Orain arte eman diren tituluok behereko mailakoak ziren. Ez ote da garaia heldu bigarren mailako titulua ere, gai direnei, ematen hasteko?

Horretarako kurtsilo bat edo antolatu beharko lizateke. Bigarren maila hontan zer eskatuko litzatekeen 1972ko Euskera-n jarririk dago (220 or,) Pazko astean edo, eta Mondragoen beharbada, gainera, irakasleek elkarren berri jakin dezaten, elkarren artean har-emanak izan ditzaten, dara-

bilzkiten metoduak elkarri jakin erazitzeko eta batak besteari bere esperientziaren berri emateko.

11.- Mitxelena jauna Euskaltzaindiaren aginduz egiten ari den Hiztegi handiari buruz ere, berri onak ditugula esan nezake. Nevada-ko Unibertsitateak proposamen bat egin dio urte oso baterako hara joan dadin, eta han, behar diren bide, erreztasun eta laguntza guztiak izanik, lan handi hori buka dezan. Eta bera joatekotan dago. Jakina xehetasunak eta baldintzak bere garaian garbituko ditu Euskaltzaindiarekin.

Nik uste dut berri hau guztiz pozgarria dela guretzat, eta euskaltzaindiak bere aldetik bere baimena eta on iritzia eman behar dioela. Hiztegi horretarako gaiak pilaturik dauzka Mitxelenak, baina lanari azken bultzada eman ahal izateko ere behar bezalako giroa behar du, eta hemen, hainbeste arazoz lanpeturik, giro hori eta asti hori nekez har lezake. Horregatik, eta proposamen hori izan duenaz geroz, baiezko osoa eman behar diogula uste dut. Gauza handia izango da, guztiok amets dugun hiztegi hori noizbait euskaltzale guztion eskuetan ikustea. Oinarriko tresna, behar beharrezkoa izango da. Beronen premiaz ez noa ezer esatera, zeren guztiok konbentziturik bait gaude.

12.- Iker-Cinsa taldeak baimenak eskatu zizkigun gerra-aurreko Euskera-tik zenbait lan, gaur ere beharrezko edo baliotsu diruditenak, argitara emateko. Baimen hori eman zaio. Eta oraingoz, eta hasteko, Severo Altube jaunaren "Erderismos" liburua argitaratuko da. Agian geroago beste zenbait gauza ere agertuko ditu delako talde horrek.

13.- Aparteko aipamen berezia merezi du Euskaltzaindiak, Lan Kide Aurrezki Kutxari (Caja Laboral Popular) erantzunez, hartu duen erabakiak: euskeraren azterketa sozio linguistikoa egitea. Egia esateko, asmo hau ere zaharra dugu, eta aurrera eramatea Gaur taldeari gomendatu zitzaion. Baina dirua falta zen, eta, dena dela, arrazoi bategatik edo bestegatik, lan hau bertanbera utzi du. Orain, berriz, diruaz denaz bezan batean, Lan Kide Kutxak erantzungo du; eta azterketa egitea Siadeco-k hartu du. Guri, berriz, Caja Laboral Popular eta Siadeco-ren artean bitarteko izatea eskatzen zaigu; eta Siadeco horri, dagokigun euskera arloan, kontseilu eta gidaritza ematea.

Batzuek uste dute jakintza hutsezko lana dela hau, praktikarako ondorio gabekoa, alegia; baina ez da hala. Bizitzean gauzak kateatuak egon ohi dira. Eta lan honek ere (hala uste dugu behintzat), fruitu bikainak ekar ditzake euskerarentzat. Euskeraren hazkundea da gure elkargoaren azken xede edo helburua; baina xede hortara tiroa zuzen aurtikitzeko, oinarriak ondo jarri behar dira, lurrean oinak finko eduki behar dira, egungo egoera ongi ezagutu behar da. Hori jakinik, xede hurbilak, eskuratzen errazak jar daitezke, eta hoiek erdietsi ondoan, beste batzuk, eta hola.

Beraz, Lan Kide Aurrezkiari esker hartu den erabaki hau axola handikotzat jotzen dugu.

Joan den irailaren 23an bilera bat egin zen Mondragoen Euskaltzaindiko eta Lan Kide Aurrezkiko jaunen artean, asmo honen xedea eta zertzeladak mugatzeko. Aurrezki Kutxaren aldetik J. Erdozia eta J.M. Ormaetxea jaunak egon ziren. Euskaltzaindiaren aldetik euskaltzainburua, idazkaria eta idazkari ordea.

Euskaltzaindiak, berari dagokion sailean lan honi gidaritza ematea onartu du. Eta halaber Lan Kide Aurrezkiak diruz ordaintzea erabaki du. Lana epeka egingo da. Bi urteren buruan bukatua egonen dela uste dugu.

14.- Aspaldion bertsolarien txapelketak ez dira egin. (Gipuzkoako Goi herrin bakarrik uste dut egiten dela zerbait). Beharbada Euskal Herri guztiko Txapelketa nagusi eta ospetsuak egiteko, oztopoak egon daitezke. Lehendik konsagratuak diran bertsolariek, dirudienez, ez dute gogo handirik. Baina eskualdeetan, landare berriak sortzea nahi baldin badugu, horrelako aukerak eta bideak jartzea beharrezkoa dela uste dut. Bestela peril da iturria agor dadin. Eta hau da nik galdetzen dudana: Nork hartuko luke bere gain ardura hau? Hor dago koxka. Beti bezala, langileak, eragileak, antolatzaileak behar. Badakit lan neketsua dela. Irabazpiderik ez, denbora asko gal, eta askotan esker txarra beste ordainik ez du jasotzen lan hoietan sartzen denak. Baina euskerarekin hain estuki loturik den sail hau utz ote dezakegu horrela?

Landare berri hoiek, ontzeko, plazaren beharra izaten dute. Plazarik ematen ez baldin bazaie, hor ihartuko dira, fruiturik ekarri gabe. Beraz

sujerentzi hau airean uzten dut, inork harrapatuko balu.

15.- Euskararen Atlas Linguistikoa.- Horra beste asmo zahar bat, eta orain ere asmo bezala segitu beharko duena, aurrera eramateko biderik ez dugun bitartean.

Azkeneko bi urteotan eskutitz bat egin izan diet euskaltzain oso guztiei eta laguntzaileetarik askori gure batzarreetarako txostenak eskatuz. Eske honek erantzun guztiz ona izan du. Erantzun honi eskerrak, hileroko batzarretan beti izan dira txostenak (ez guztiak, zeren batzuek ez bait zuten eskiributan eman). Nolanahi ere, ikusi dugu bide ona dela hau guztiek gure batzarreetan parte gehiago har dezaten.

Aurten ere, aurreko urteetan bezalaxe, eske berbera egitera nator. Txostenen bat egin nahiko luketen guztiek badakite zabalik dela atea. Garaiz eman diezagutela parte, eskatzen dut bakarrik, era hortara aurretik batzar deian sar dadin. Batzuetan, jakina, hilabete hontako edo hartako deian ezingo da sartu, baina kontuan edukiko dugu, ahal den bezain laster sartzeko. Eta oraindanik eskerrak ematen dizkiet parte hartuko duten guztiei.

Halaber, gure Euskaltzaindia hobetzeko, lan-tresna bizkorragoa eta trebeagoa bihurtzeko, nunahitik etor daitezkeen ideiak, sujerentziak eta proposamenak gogo onez hartuko dira. Baina praktikara eraman daitezkeenak baldin badira, jakina. Samurra da ideiak, asmoak eta ametsak egitea. Behar duguna da obratzeko moduzkoak izan daitezen. Ideiak emateaz batera, nik eskatuko nuke bakoitzak esan dezala berak zertan parte hartuko lukeen, zer egiteko prest den.

Askotan entzuten ditugu hunelako edo hunen antzeko leloak: Ez da ezer egiten. Hau edo hori egin bear litzateke, etab. Geure burua ere sar dezagun lanean, eta orduan zerbait gehiago egindo da.

Geure Euskaltzaindiaren egoera eta mugak denok ezagutu behar genituzke. Era askotako mugak ditugu. Diru eskasiaren muga, bizi ahal izateko bakoitza bere lanbideari loturik egotearen muga, eskaltzainak barreiaturik, bata besteaganik aparte bizitzearen muga, etab. Muga hoiek kondizionatzen gaituzte, eta gure lanari halako galga pisua ezartzen diote.

Baina egoerak permititzen duen neurrian, ahalik eta gehiena egitera ere beharturik gaude. Eta hori da nik neure buruari lehenik, eta gero zuei denoi ere eskatzera ausartzen naizena.

Bilbon, 1975, urtarrilak 31
L. Villasante - Euskaltzainburua

1975 URTEKO BATZAR EGUTEGIA

1973 urtean egin genuen lehenengoz batzar egutegi bat. Ospakizun bi egin genituen Gipuzkoan, bata Elgoibarren Urruzunoren omenez eta bigarrena Arrasaten, bertako Udalak, Ayuntamentuak deiturik; Bizkaian beste bat, Lekeition, Eusebio Mª de Azkueren mendeurrean eta Araban beste bat, Juan Bautista Gamizen bigarren mendeurrean. Gainera Euskal Unibertsitatearen aukerarekin baliaturik Donibane Lohizunen, Unibertsitatean bertan egin genuen beste batzar bat.

Igaz, barka, aurten, bukatzen dugun arte honetaz ez dugu izan mendeurrenik, baina gorasarre bi programatu ziren,bata, Ekainean, Erriojako San Millan de la Cogolla-n, Instituto de Estudios Riojanos-ekin batera. Benetan egun atsegina, lehendabizi Euskal Herriko erakunde batek irteera bat euskal herrialde ohi haretara eginaz. Gero irailean Urdazubin batzar irekiak, aspaldiko hiru euskaltzainek, Erkiagak, Irigoyenek eta san Martinek, beren protokolozko sarrera hitzaldia egiteko balio izan dute. Gero

aurtengo Apiril-ean Arantzazun egin zen batzarra, herri eta herritarren izendegiko batzordearen bilkuren ondoren. Azkenik, gaurko bilkura hau bilbon, Euskaltzaindiaren Etxean egitea programatu genuen, baina datorren hilerako uzten dugu, zeren Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País delakoak, beren Etxe honetara gomitatu gaituenez gero bidezko zen anai dei hori pozik onartzea.

Eta goazen datorren urteko batzar agutegira. Hiru mendeurren ditugu, nik aurkitu ditudenatik behintzat. 1775ko abuztuaren 17an jaio zen Okendon, Araban, Jose Paulo Ullibarri, garai haretako euskaltzalerik interesgarrienetarikoa, bidezko zaio, gorasarre bat egitea, bidez batez, euskara galdu duten eskualdeetara ostera bat egiteak ere bere kultur eta sinbolu balio baitu. 1875ko Irailean, Donibane Garazin jaio zen beste euskal idazle bat Jean Barbier, bere omenez batzar bat egitea, gainera ez dakit Donibane Garazi ez den euskal hiriburu bakarra behin ere batzarrik Euskaltzaindiak egin ez duenetarikoa. Baita ere batzar honekin baliatuko da seguru asko Emil Larre euskaltzain baxenafarra, bere sarrera hitzaldia egiteko, bere herrialdearen hiriburuan. Azkenik, 1875ko Azaroaren 28an Euskaltzaindiaren hasierako euskaltzain bat jaio zen Lemoan, Juan Eguzkitza. Beragatik ere aipamen bat egiri beharra du Euskaltzaindiak, batzar akademiko bat eratuaz. Bestalde 284 dira, Euskaltzaindiaren irakasle titulua beheko mailakoa irabazi dutenak, hiru urtetan. Harrera hain onak, gure esker onaz gainera, zerbait gehiago eskatzen du noski, eta hau da berentzat jardunaldi batzuk antolatzea ahal bada Oinatiko Unibertsitatean edo bestela Arantzazun. Zertarako ordea: elkarren esperientzien berri jakiteko azken aurrerapenak hizkuntza irakaskintza arloan aztertzeko: metodu audiobisual eta abar; elkarren arteko lokarriak Euskaltzaindiaren bidez sendotzeko eta azken baten erdiko mailako titulua, B mailakoa eskuratzeko, hantxe bertan etsamina batzuk eginaz. Honetarako garairik egokiena Bazko Astean, Aste Saindu osteko astea izango dela pentsatu dugu, Martxoaren 31tik, Apirilaren 5era bitartekoa. Azken egunean klausura bezala Euskaltzaindiak, jardunaldiak egiten diren leku berberean batzarra eginaz.

Herriari eta euskal kultur munduari begira ere egin beharrak ditugun batzar hauetatik landa, baita ere azalduko dugu barneko batzarren egutegia, ere, Urtarrilekoa izan ezik, ohi den bezala Donostian egingo direnena.

Beraz, 1975 urteko batzar egutegia honela geldituko litzateke:

Urtarrilaren 31n, azken ostiralean, Bilbon, Euskaltzaindiaren Etxean.

1975 URTEKO BATZAR EGUTEGIA

Otsailaren 28an, azken ostiralean, Donostian, Diputazioan.

Martxoaren 31tik, Apirilaren 5era bitartean, Oinati edo Arantzazun.

Apirilaren 25ean, azken ostiralean, Donostian, Diputazioan.

Maiatzaren 30ean, azken ostiralean, Donostian, Diputazioan.

Ekainaren 27an, azken asteazkenean, Donostian, Diputazioan.

Uztailaren 30ean, azken asteazkenean, Donostian, Diputazioan.

Abuztuaren 17an, hirugarren igandez, Okendon, Ullibarriren gorasarrez.

Irailaren ?, Donibane Garazin, Jean Barbier-en gorasarrez.

Urriaren 31n, azken ostiralean, Donostian, Diputazioan.

Azaroaren 28an, azken ostiralean, Bilbon edo Lemoan, Eguzkitzaren gorasarrez.

Abenduaren 26an, azken ostiralean, Donostian, Diputazioan.

Azkoitian, 1974 Abenduaren 27n.
Jose Luis Lizundia, idazkari-ordeak

B MAILAKO IRAKASLE TITULUDUNAK
(1975 URTEKOAK)

1.- José Ramón Etxeberria Bilbao,
Lana: "Euskara Teknikoari buruzko eritzi batzu"

2.- José Llerandi Salinas,
Lana: "Izenorde demostratiboak Bernat Etxepareren hizkeran"

3.- Juan Antonio Letamendia Perez de San Roman,
Lana: "E.G.B.-ko 6. maila"

4.- Koldo Izagirre Urreaga,
Lana: "Zenbait ohar Gabriel Arestiren lan literarioaz"

5.- Andolin Eguzkitza Bilbao
Lana: "Haur besoetakoa Egilearen inguruan"

6.- Ana Elgezabal Legarreta,
"*Euskaldun fededun* asmoa Kresalan"

7.- Gonzalo Fontaneda Orrille,
Lana: "Euskal gramatikarako zenbait asmo"

8.- Juan José Uranga Segurola,
Lana: "Gasteizko ikastola"

9.- Juan Maria Vélez de Mendizabal Azkarraga,
Lana: "Pedro Ignacio Barrutiaren *Gabonetako ikuskizuna*-ren azterketa ttipi bat".

10.- Inmaculada Murgoitio Ugaldea,
Lana: "Haur hizkuntzaren prozedura aintzin-eskolan"

11.- Juan Mari Artola Kortajarena,
Lana: "Pedagogi lanak"

12.- Rikardo Badiola Uriarte
13.- José Agustin Arrieta
14.- Jazinto Iturbe
15.- Juan Luis Goikoetxea Arrieta
16.- Erramun Gerrikagoitia Rodriguez
17.- Hendrike Knörr Borrás
18.- Xalbador Unzueta Mitxelena
19.- Antxon Narbaiza Azkue
20.- Mikel Ugalde
21.- Jon Urrujulegi Agirre
22.- Juan Martin Elexpuru Arregi
23.- Jerardo Elortza
24.- Antton Aranburu Bengoetxea
25.- Jesus Maria Mendizabal Iraola
26.- Iñaki Lerga Idozin
27.- Mikel Zuazabeitia Errasti
28.- Julian Anjel Zabalo Bilbao
29.- Andres Alberdi Gorostiaga

D MAILAKO IRAKASLE TITULUDUNAK

(1975 urtekoak)

285.- Ixidor Iribar

286.- Elena Nabarro Loidi
287.- Lourdes Ugarabe Olañeta
288.- Idoia Lizarralde
289.- Pili Urizar Azkarate
290.- Arantzazu Narbaiza Erdabide
291.- J.Jokin Gallastegi
292.- Nekane San Miguel
293.- Mª Rosario Lasa
294.- Begoña Iturbe
295.- Xabier Arzeluz
296.- Izaskun Pujana
297.- Xabier Agirre Artola
298.-Ramon Autenetxe Marko
299.- Andoni Arrizabalaga Basterretxea
300.- Anjel Amigo Kinkozes
301.- Jabier Armendaritz Tainta
302.- Jesus Abrisketa Korta
303.- Antton Carrera Agirrebarrena
304.- Xabier Ibañez Ortuzar
305.- Jesus Mª Muñoa Galarraga
307.- Patxi Biskert Manterola
308.- Iñaki Maneros Aginagalde
309.- Josu Bilbao Kos
310.- Arantza Idiazabal Gorrotxategi
311.- Teresa Oleaga
312.- Julian Beloki Gerra
313.- Pedro Ormaetxebarria
314.- Juan Mª Etxebarria Arankua
315.- Euken Enziondo Batarrita
316.- Ana Mª Ugarte Bengoa
319.- Mª Karmen Iztueta Jauregi
318.- José Ramón Ayastui Agirre
319.- Dionisio Amundarain
320.- Begoña Azpiroz
321.- Luis Mª Arantzeta
322.- Mª Jose Lasa Barandiaran
323.- Arantza Kortabarria

324.- Jone Ajuria Leyaristi
325.- Irune Etxeberria Barrenetxea
326.- Arantzazu Haranburu Bengoetxea
327.- Edurne Bilbao Atxutegi
328.- Josetxo Iturrioz Amundarain
329.- Edurne Gallastegi Bilbao
330.- Mª Luisa Lizarralde
331.- Pilar Etxeberria Murua
332.- Mª Eugenia Garai
333.- Itziar Gurtubai Iturbeormaetxea
334.- Mª Teresa Zugaza-Artaza Linaza
335.- Ana Murua Mujika
336.- Margarita Gorrotxategi Mujika
337.- Mª Isabel Astoreka Zamalloa
338.- Maite Madariaga Iriondo
339.- Joseba Zarate
340.- Mª Karmen Eizagirre Izagirre
341.- Rosario Itziar Narbaiza Erdabide
342.- Xabier Gurrutxaga Azpiolea
343.- Agustin Amasorrain Linazasoro
344.- Esther Aranzibia Gerrikabeitia
345.- Mari Kruz Intxausti Mallukiza
346.- Jone Etxabe Garate
347.- Lourdes Lasa Barandiaran
348.- Jesus Atxa
349.- Mitxel Kalzakorta Mentxaka
350.- Patxi Haranburu Etxaburu
351.- Mª Franziska Zabaleta
352.- Iñaki Zabaleta
353.- Manoli Peña Elorriaga
354.- Marian Arin
355.- Fco. Jabier Iñigo
356.- Lutxi Uribeetxebarria Flores
357.- Argiñe Otxoa de Txintxetru
358.- Martin Goenaga Irastorza
359.- Rikardo Lopez Agirre
360.- Mª Dolores Otxandorena Mikelarena
361.- Mª Anjeles Remiro Ijueko

362.- Jose Luis Haranburu Bengoetxea
363.- Mikel Argiñarena
364.- Gotzon Lizaso Rezabal
365.- Jose Luis Gorostidi
366.- Jon Lezamiz Konde
367.- Josu Iñaki Larrabaster Lezamiz
368.- Jose Juan Gonzalez de Txabarri Miranda
369.- Jose Antonio Sarriegi
370.- Jose Ignacio Pikabeaga
371.- Luis Mª Sarasola Oyarzabal
372.- Jose Luis Barrenetxea Gaztelua
373.- Mª Jesus Ugarte Epelde
374.- Pello Altuna
375.- Jose Ramon Zubimendi Imaz
376.- Felix Ezama Esnaola
377.- Jose Mª Zelayeta Errandonea
378.- Aitor Argarate Epelde
379.- Nekane Otegi
380.- Jose Ramon Oregi Laskurain
381.- Mª Jesus Zumeta Iraolagoitia
382.- Jose Luis Perez Badiola
383.- Asier Etxeberria Kanales
384.- Itziar Etxaburu Arantzamendi
385.- Fernando Arriola Egiluz
386.- Esther Urbina Amezaga
387.- Jon Mikel Bujanda Onederra
388.- Jose Ramon Bikario Zearsolo
389.- Dabid Urbistondo Plazaola
390.- Jon Karla Ostoikoitxea Harrarte
391.- Jose Manuel Erzilla Urizarbarrena
392.- Jose Luis Muguruza Guarrotxena
393.- Iñake Unanue Bereziartua
394.- Migel Mª Iriarte Ansorena
395.- Jose Lizarralde Altuna
396.- Xabier Mujika Casares
397.- Maite Murua Mujika
398.- Mª Rosario Otaegi Urrozola

399.- Mª Ines Genua Martinez
400.- Agurtzane Maiz
401.- Ignacio Lazkano Labaka
402.- Esperanza Aranibar Elzaurdia
403.- Begoña Aranibar Elzaurdia
404.- Edurne Arrizabalaga Arrizabalaga
406.- Karlos Otegi Lakunza
407.- Patxi Otamendi Egiguren
408.- Ana Mari Ugalde Ugarte
409.- Miren Urrutia Lekuona
410.- Pakita Baleztena Baleztena
411.- Jose Genua Gebara
412.- Mikel Garmendia Ugarte
413.- Jose Ramon Garcia Garmendia
414.- Jose Antonio Garaialde Manterola
415.- Andres Fraile Sarasola
416.- Jose Mari Etxaburu Etxaburu
417.- Jose Mari Etxaburu Igiñiz
418.- Iñaki Etxaburu Igiñiz
419.- Lourdes Elosegi Arregi
420.- Antxon Erkizia Almandoz

1974 Urteko BATZAR-AGIRIAK

1974 - I - 25

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1974ko urtarrilaren 25ean, arratsaldeko lau ta laurdenetan, bildu dira: L. Villasante buru, A. Arrue, X. Diharce, A. irigoyen, P. Lafitte eta J.M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. Fernandez Setien, J. Garmendia, S. Garmendia, J.L. Lizundia, J. Zaitegi, A. Zatarain eta J.M. Zumalabe laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dala.

Haritschelhar, Erkiaga eta Irigaray jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Abenduko agiria onhartzean, euskaltzainburuak aditzera ematen du bertan dagoen huts bat. San Millan de la Cogolla-an egiteko asmoa dugun bilkura ez dela Berceo-ren gorasarrez, baizik "Glosas Emilianenses"en milagarren urteburua delako.

a) **HAR-EMANAK:**

Uwe Joachin Moritz jaunaren gutuna, esperantoz eta euskaraz argitaratu dituen lanen berri emanez, "Etnismo" du izentzat eta etnia txikien alde mintzatzen da bertan. Nahi dutenei bialtzeko gertu omen da zuzenbide honetara eskatzen bazaio: Uwe Joachim Moritz. Blumenstr. 7. **D-511 Alsdrf. F. R. Germanio.**

Colonia-ko Unibersitateko gutuna, Georg Andres Bachem jaunak **Keltoromanisch im Gau Köln-Aachen** izenburudun liburu bat argitaratu duela esanez, Eifel hizkuntzak euskararekin duen kidetasuna, edo euskara handikakoa dela teoriaz agerrarazten duena.

Caracas-ko Euskera Lagunen Elkartea "ELE" delakoaren gutuna, 1973ko Andima Ibiñagabeitia sariaren berri emanaz. Bost lan presentatu omen ziren irakaskintza liburuendako sariketa honetara, eta Luis Rezola jaunak irabazi zuela **Aljebra edo Arau-iztia** izeneko lanarekin.

X. Kintana jaunaren gutuna, TVE, Espainiako telebistari euskarazko saioa jartzeko egin behar genioken eskariari buruz. Baina, euskarari buruzkoan ministerio berriak zer jokaera duen ikusi arte itxarotea hobe dela adiarazi da.

J.M. Satrustegi jaunak ematen digu berria, Nafarroako Foru Diputazioak 25.000 pezeta ematen dituela 1973ko laguntzaren osagarri (lehen beste hainbeste emana bai zuen).

Idazkariak, 1973an Euskaltzaindiko batzarretara etorri diren euskaltzain eta laguntzaileen zerrenda irakurri du, hilerokoetara zenbat etorri diren eta zenbat batzar berezietara. Guztiz, euskaltzain osoetatik batzarretara agertuak, 14 izan dira, eta beste 4 beren etorri ezina adiarazi dutenak. Beraz, 24 euskaltzainetatik 18k eman diete deieri erantzuna. Beste 3 herbesteraturik bizidirenak aspaldiko urtetan ez dute har-eman esturik izan. Euskaltzain laguntzaileak, ehun da berrogetahamar inguru diralarik, 49 dira batzarretara etorri direnak, baina idazkariak aditzera ematen du, Euskaltzaindiko laguntzaileetatik erdiak baino gehiago direla batzarretara inoiz etorri ez direnak. Eta, izen listaren kopia bat uzten du artxiborako.

HARTU DIREN LIBURUAK: Lekarotzeko Aita Donostiaren Artxibotik bidalia, A. Jorge de Riezu-ren **Nafarroa-ko Euskal-kantu zaharrak. Viejas canciones vascas de Navarra**; Gerediaga Elkarteak argitaratua eta emana, Veitia-Echezarretaren **Noticias históricas de Tavira de Durango**; Banco de Bilbao-k argitaratua eta emana, **Panorama económico. Guipúzcoa**; P. Lafitte jaunak, 1974ko **Gure Almanaka**. Eta, horiez gainera beste honako separata lan hauek: P. Lafitte, jaunak, "Erlisione paganoak eskualde hauietan", **Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra**, 1973; P. de Irizar jaunak, "Los dialectos y variedades de la Lengua Vasca", **Boletín R.S.V.A.P.** 1973; L.Mitxelena jaunak, "Guillaume de Humboldt et la Langue Basque", **Lingua e Stile**. 1973; eta J. Thalamas Labandibat jaunak, "Las creencias gentílicas de los vascos, según Resurección Mª de Azkue", **Boletin R.S.V.A.P.**, 1973. Guziei zorionak eta eskerrak batzarkideen eta Euskaltzaindiaren izenean.

1973ko urritik abendura bitarteko diru kontuen berri ematen da: Diru-etxeetan zegoan, 95.587,18; gehitua, 221.676,71; urritua, 202.752,49; **dagoena, 114,511,40 pezeta**. Sar-irtenen zertzeladarik aipagarrienak irakurtzen dira eta abenduaren bukaeran, diru-etxeetan, non-zenbat dagoenaren xehetasunak.

Bilboko Caja de Ahorros Municipal-aren gutun bat irakurtzen da, urtarrilaren hamabikoa, 50.000 pezeta sartzen digutela gure kontuan urteko laguntzarako. Eskerrak ematea erabaki da.

b) **GOIZEKO BILKURAREN KONTU EMATEA;**

Euskaltzainburuak aditzera eman du euskaltzain osoak eta bereziki deituak egin dutela goizeko batzarra, barne araudiak egunera jartzeari buruz. Idazkariak, 1920 eta 1954ko barne araudieri zer eratako ikutuak egin zaizkienaren berri ematen du. Azken orraztapena eman ondoren itzulpenekin argitaratuko da.

d) **AURTENGO SARIKETEN PROGRAMAKETA BAT EGITEAZ:**

Aurtengo literatura sariak, "T. Altzaga" antzerki saria, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren diruz, bi urterik behin ohi den bezala (igaz, sariketa hau atzeratu zen, aurten egiteko, bere ordez Eusebio Mª Azkue-ren olerki sariketa antolatu zalako); "Xenpelar" bertso-paper saria, Donostiako C.A.T.-ren diruz; horiez gainera, Euskaltzaindiak antolatzen ez baditu ere, euskarazko beste sariketa garrantzitsu batzuk ere izango direla, Irun Hiriaren saria, Agora saira eta Basauriko Udaletxearen saria, poesia, ipuinak, saiakerak gaiez, eta Euskaltzaindikoekin batéan esku-programa bat argitaratzea merezi duela, liburuxka eraz, Institut d´Estudis Catalans-ek egiten duen bezala, sariak noiz, non eta beren araudiak argitaratuaz, bakoitzaren berri bereziak emanaz euskal kultura giroa duten elkarteetara eta euskarazko aldizkarietara zabaltzeko.

e) **JOSE KRUZ ETXEBERRIA IDAZLEAREN OROIGARRIZ:**

A.L.Villasante jaunaren txostena, 1973an Jose Kruz Etxeberria (1773-1853) idazlearen berrehun urteburua bete zalako. Oihartzuar idazle honek, joan zen mendearen lehen partean bost liburu argitaratu zituen. Beren arteko aipagarrienak, Salesko Frantziskoren **Deboziozko bizitzarako sarrera** (1821) eta Kempis-en **Jesusen Imitazioa** (1829) mugazemendi lehena, eta horrez gainera **Ongi bizitzeko ta ongi iltzeko laguntza** (1829) ta beste, Herritar euskara errezean idatzi zituen. Bere oroitza gogoangarria dugu.

f) **BAKOITZAK DAKARRENETIK:**

A. Arrue jaunak aditzera ematen du, igazko maiatzez, Aita Emiliano Ozaeta Romero jaunak Asteasuko J.B.Agirre-ren **Erakusaldiak** gaitzak harturik berrehun folioko tesisa euskaraz irakurri zuela Gastoizen.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1974 — II - 22

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1974ko otsailaren 22an, arratsaldeko lau ta laurdenetan, bilbu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buru-ordezko, A. Arrue, A. Irigoyen, P. Lafitte, eta J.M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. Berrojalbiz, N. Etxaniz, J. Fernández Setien, Salbador Garmendia X. Kintana, J.L. Lizundia, J.A. Loidi eta J. Zaitegi euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dala.

Dassance, Diharce, Eppherre, Erkiaga eta Larzabal jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Urtarrileko agiria onhartzen da.

Euskaltzainburuak René Lafon Euskaltzain jaunaren hil-berria eman du. Piarres Lafitte jaunak, René Lafon zenak gaixotegitik egin zion azken gutuna irakurtzen du, eta Lafon-en bizitza eta lanen berri laburra adierazten du. Otsailaren 4an, astelehen arratsaldez, hil zen. Bere lanen bibliografia osatu baten berri ematen du, bilduma baten premia adiaraziz. Ondorean Haritschelhar jauna, Lafon-en lekuko bezala mintzo da. Hark egindako linguistika lanak goratzen ditu eta hark Bordeleko Unibertsitatean sortu zuen euskal ikasgoaren oroiz. Haritschelhar jaunari euskaltzain sarreraz eskaini zizkion hitzak gogorazten ditu "Gure Herria"n (1963) argitaratu zen hitzaldiaren zati bat irakurriaz.

Ondorean, euskaltzainburuak euskaltzain baten hutsunea adierazten du. (Hola jakinarazten da, Arautegiaren 33. artikuluak eskatzen duen bezala).

a) **HAR-EMANAK:**

J.M. Lojendio jaunaren gutuna, jaso dituen doluminen eskergarri.
Bihar, Iruñan, Banço de "La Vasconia"k argitaratu digun **Merkatalgo izendegia**-ren agerpena egingo dela aditzera ematen da. Joan nahi duenari dei egiten zaio.

José Cerio Ogeta jaunaren gutuna, Gerona-tik, Larramendiren hiztegia eskaintzen du 10.000 pezetan, norbaitek nahi balu.

Caja de Ahorros Vizcainak, "Toribio Altzaga" antzerki saria 50.000,- pezetara jasotzen du.

Bizkaiko Diputazioak Departamento de Estudios Vizcaínos sortzea erabaki duela, Deustuko Unibertsitateari erantsirik, aditzera eman da. Bertan izango diren ikasgoak: Euskal linguistika, Bizkaiko historia eta Bizkaiko Foruak izango dira. Gai honi buruz, A. Irigoyen jaunak zenbait xehetasun eman ditu. Bizkaiko Diputazioari erabaki honegatik, Euskaltzaindiak zorionak bidaltzea erabaki da.

HARTU DIREN LIBURUAK: Gero argitaldariak emanak, Lourdes Iriondoren **Hego haizearen ipuiak** eta Mikel Ugalderen **Langileria historian zehar (II);** Cinsak-k Irakasle Talde Batek gertatutako **Euskalduntzen - 3;** J.M. Satrustegi euskaltzain jaunak bere **Solsticio de invierno**, "Diario de Navarra" argitaldariak agertua; J.M. Satrustegi jaun berak Lewis Carrol-en **Alizia** izeneko ipuiak, berak itzuliak, Albert Rué-ren marrazkiz Abadia de Monserrat-ek argitaratuak; eta Piarres Lafitte euskaltzain jaunak bere "Le Père Blaise de Mendionde, capucin et auteur basque (1873-1914)", **Gure Herria-k** argitaratua.

b) **GOIZEKO BILERA, "EUSKERA" ALDIZKARIKO BATZORDEARENA:**

1973 alea inprimerian dago, laster argitaratzeko zorian.

1974ko "EUSKERA" alearen antolaketaz era honetara hornitzea erabaki da: I - **Gai nagusiak**, P. Lafitteren "René Lafon", E. Erkiagaren euskaltzain sarrera hitzaldia "Eusebio Mª Azkue"ri buruz, J. Gorostiagaren erantzuna eta J. Amurizaren "Aurrizkiak". II - **Gai laburrak**, J. Garateren "Carta de citra-tumba a don B. de Etxegaray", A. Zatarainen "-i letraz bukatzen diren itzak", "**ar** bukaerak" eta "Edur, erur, elur, zein zaarrena?", eta 1973ko batzar hitzaldiak eta txostenak kronolojia ordenaz. III - **Euskaltzaindiaren agiriak**, a) Barne erregelak (hiru hizkuntzaz),

b) Eskola hiztegia, d) Irakasle titulua lortu dutenak, e) Batzar-agiriak (1973). IV - **Berriak**, Sabandon Gamiz-en gorasarrez, Donibaneko Euskal Unibertsitatean, Axularri gorasarrea Iruñan, **Hil-berriak.**

Euskaltzainburuak, geroagorako, Lafon jaunari omenezko bilduna bat egiteko asmoa agerrerazten du.

d) **"ALDE, OSTE, GARAY eta USA"**, hitzen jatorriaz A. Irigoyen jaunak irakurtzen du txostena. Alde, Aldairen beste zentzu bat agerrerazten du; Oste denborazko eta lekuzko bezala; garai, Kala, Calagurris, Kalamendi-ren arteko kidetasunak; eta Usa, Usie-ren jatorriaz edo agiri zaharrak agerrerazten ditu.

e) **GIPUTZ EUSKARAREN TESTU ZAHAR BAT**, XVI. mendeko poema filo-heroiko baten zatia eta adiarazpena, Salinasko kondeari Donostiako itsas gonbateaz, G. Arestiren txostena, bere ezin etorriagatik A. Irigoyen jaunak irakurtzen du. A. Otazuk aurkitua da 1626ko esku-izkribu batean eta 1500garren urte ingurukoa dela uste da. Laburra da, baina oso garrantzitsua bere laburtasunean.

f) **BAKOITZAK DAKARRENETIK:**

Donostian beren ikasketak egiten ari diren gazte talde batek, Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País elkargoaren Boletinaren eraskin bezala "Elhuiar" izeneko teknika aldizkari bat argitaratzeko asmoa dute eta Euskaltzaindiari bere babeseren eskaria egiten diote. Ontzat hartu da.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua	Idazkaria
LUIS VILLASANTE	JUAN SAN MARTIN

1974 - III - 29

Donostian, gipuzkoako Diputazioan, 1074ko martxoaren 29an, arratsaldeko lau ta laurdenetan, bilbu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buru-ordezko, A. Arrue, P. Lafitte eta J.M. Satrustegi euskaltzain jaunak: I. Baztarrika, J. Fernández Setien, B. Gandiaga, Salvador Garmendia, J.L. Lizundia, J. Zaitegi, A. Zatarain eta J.M. Zumalabe euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dala.

Dassance, Diharce, Eppherre, Erkiaga, Irigaray, Irigoyen, Larzabal, Lojendio, eta Zavala jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Otsaileko agiria onhartzean, euskaltzainburuak dio, euskaltzain baten hutsunearen adiarazpena jartzen den tokian, Arautegia ipintzen dela eta Barne Erregelak behar dutela, ez Arautegia.

Eta, ondorean, berriz adiarazten du euskaltzian baten hutsunea.

a) **HAR—EMANAK:**

EUSKERA, XVIII. tomoa, 1973ko alea, argitaratua dela aditzera ematen da, eta batzarkideen artean ale bana zabaltzen da.

Tolosako (Toulouse) Académie des Jeux Floraux elkargoak gomitezko gutuna, aurten antolatuko dituen 650. urteburu jaialdietarako. J. Alliéres jaunari ematen zaio ordezkaritza.

Salamanca-ko Unibertsitateak aurtengo maiatzaren 27tik 31ra bitartean antolatu duten "Primer Coloquio de Epigrafía y Lingüistica prerromanas de la Peninsula Ibérica"ra gomitatzen gaituzte. Antolakizun ordezkaritzakoa dugu L. Mitxelena euskaltzain jauna. Joan nahi aditzera ematen zaie.

HARTU DIREN LIBURUAK: Cinsa argitaldariak ikastoletarako atera dituen liburuxkak, **Mini katua; Mikelen baserria; Elurra; Mikel, Miren eta txantxagorria** (Udazkena, Negua eta Udaberria zenbakiak); eta **Ipuinak eta Olerkiak eta...**: Gero argitaldariak J. Erzibengoa eta P. Erkiagaren **Euskal-Literatura II** (XVIII.mendea); Jakin argitaldariak Larresororen **Euskera batua zertan den;** Cinsa argitaldariak **Euskalduntzen III** Bizkaiko Alfabetatze Taldeko irakasleak gertatua; Editorial Txertoa-k Luis Mitxelenaren **Apellidos vascos**; Luis Mitxelenak bidaliak, "Sobre la

posición lingüistica del Ibérico", **Homenaje a D. Pío Beltrán**-en separata; L. Mitxelena berak emana "Catálogo de voces y frases de la lengua gallega", de Fr. Martín Samiento (edición y estudio de J.L. Pensado), **Acta Salmanticensia**; "Colección de voces y frases gallegas", berdin dena: "Andalán" Aragoiko hamabosterokoaren 36. zenbakia, Mitxelena berak bidalia hau ere, eta bertan bere artikulu bat dakarrena, "Andalan y Botorrita" izenekoa; Antonio Tovar-ek bidaliak "Sprachen und Inschriften-Studien zum Mukenischen, Lateinischen und Hispanokeltischen"; R. Ciérvide-k "Códice de Olite", **Principe de Viana**-ko separata.

Guztiei eskerrak ematen zaizkie.

b) **GOIZEKO BILKURA BEREZIAREN BERRI:**

Euskaltzainburuak ematen du goizeko bilkuraren berri, Barne Erregelari, Arautegiarekin egoki jartzeko, egin behar izan zaion zuzenketa agertuaz, bere 36. artikuluan.

d) **OTS-IZENEZ OHARMEN ZONBAIT:**

Larzabal jaunaren ezin etorriaz, Haritschelhar jaunak irakurtzen du haren txostena. Otsetik hitza moldatzeko aiherak dituen joerak et bereizketak, herritik-herri, agertzen du bere aurkezpen honetan. Axemplu zenbait ematen du, era jatorrak eta ez hain jatorrak eta beste hizkuntzetatik kutsatuak. Azkenean, jatortasunari heustea eskatzen du, eta molde horietan berriak sortaraztea ere bai.

e) **HIRU ERROMANTZE ETA GORAZARRE BAT:**

Arantzazuko artxiboan "Romances euskéricos de Aránzazu" izenburuzko kuadernu batetik jaso dituen kanten berri ematen du B. Gandiagak. Egituraz baino espirituz erromantze erakoak direnak: **Bergelok aidez aide, Adios dama gaztia, Adios Alejotxo**. Eta azkenik hamairu bertsoko (estrofa) "Bertso berriak", **Gipuzcoaco istoriyaren sustanciya, jende gustiac icasi dezan berso guchtan jarriya** izenburuduna. Lehenengo biak heuren doinuz magnetofonoz agertu ditu, zenbait ohar erantsiaz, eta bertan orain jarritako doinuz. Guziak Arantzazun esku-izkribuz agertzen dira.

f) **EUSKALTZAINDIARI LAU GALDERA:**

Oregi eta A. Zatarain jaunek izenpetutako txostena irakurri du Zatarain jaunak, zenbait hitz, bi edo hiru eraz eta elkarren hurbilak batasunerako zelan hauta galdetuz. Hitz berbera itxura batez euskalki guztietan erabiltzen bada, eta beste itxura batez euskalki batean edo batzuetan bakarrik, zein itxuraz hartu behar dugu?, galdez, eta zenbait hitzen formak adibidez agertuaz. Gaia oso interez handiarekin hartu da, baina bat-batean erantzutea baino hobe lasai pentsatzea eta urrengo batzarrerako uzten da.

g) **BAKOITZAK DAKARRENETIK:**

X. Gereñoren gutuna, kontabilidade hiztegiaz. Eta Txistulari Biltzar nagusiaren eskaria, musika gaiak euskaraz erabiltzeko hitzen premia gorria adiaraziaz.

Hiztegi batzordeak bere lana aurrera daramala baina premia guziak batean bete ezina agertu da.

Euskaltzainburu-ordeak aditzera ematen du, Donibane-Lohizuneko II Udako Euskal Unibertsitatea Irailaren 3tik 13ra izango dela. Igaz bezala Euskaltzaindiaren eta beste erakunde batzuen babesean eratuko da.

Euskaltainburua — LUIS VILLASANTE

Idazkaria — JUAN SAN MARTIN

1974- IV - 19

Arantzazun, Seminario berriko gelan, 1974ko apirilaren 19an, goizeko 11 t'erdietan, bilbu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, X. Diharce, A. Irigaray. A. Irigoyen, P. Lafitte eta J.M. Satrustegi euskaltzain jaunak; G. Aresti, B. Gandiaga, J. Intxausti, J. Kerexeta, J.M. Lekuona, J.L. Lizundia, J. Zaitegi eta A. Zatarain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dala.

Herri eta herritarren izenen batzordean lankide eta batzar honetan entzule daude: E. Gerrikagoitia, J.L. Intxaurraga, H. Knörr eta J.J. Zearreta jaunak.

Ezin etorria adierazi dute: Dassance, Eppherre, Larzabal, Lojendio eta Mitxelena jaunek.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Martxoko batzar agiria onhartu da.

a) **HAR—EMANAK:**

Instituto de Estudios Riojanos-en gutuna, San Millan de la Cogolla-n egitekotan

garan batzarrari buruz, bere babesa emanaz. Batzar honetarako ekainaren 15a hautatzen da.

b) **HERRI ETA HERRITARREN IZENAK:**

J.L. Lizundia jaunak, Nomenklatorgintza honen batzordeko idazkari bezala, hemen Arantzazun bertan atzo ata gaur Euskaltzaindiko eta batzordeko lankideak egin dituzten lan bilkuren berri eman du. 31 lankidek parte hartu dute fitxagintza lanetan; irizpide arazoak banan aztertu dira: **n** galtzearena, **e** epentetikoarena, hirien sortze agiriena, neologismoena, santu izenena, analogia bideena, forma zaharregiena, jentilizioena, t.a.; izendegia nola eratu ere ikusi da; fitxak ahalik osatuen bete beharra, "dossier"ik hornituena egiteko ere bai. Orainarte zer eginda dagoen ikusi ondoren, bakoitza bere arloarekin jarraitzeko gelditu zen eta gero Uztailean berriz biltzekotan. Lan guzti honen arduran, batzorde idazkariari Hendrike Knörr-ek lagunduko dio.

d) **PERRETXIKU IZENAK EIBARREN:**

J. San Martin-en txostena. Hogetahamaika izenen xehetasunak ematen ditu, perretxiku familia motak eta mota bakoitza zelan bereizten den, jakiak eta jateko ez direnak Eibarko herriak zelan bereizten dituen, eta abar. Euskerazko izenaren ondotik zientziako izen teknikoa jarraiz, honetarako Telesforo Arantzadi, H. Romagnesi eta J.E. eta D.M. Lange-ren katalogazioak oinharri harturik. Inoiz, zenbait adiarazpen emanaz Euskal Herriko zenbait herritan erabiltzen diren izenen bidez.

e) **ZENBAIT IDEIA ESTRUKTURALISTA ETA E.G.B.:**

Joseba Intxaustiren txostena. Enseñanza General Basica-n hizkuntza estruktural ez zer eskatzen den. Batzarkideei ematen zaie eskema idatzi bat, bakoitzak bere aldetik aztertu nahi baldin badu, iritziak ematen laguntzeko. Eskema idatzi hortan ematen da azterketa sintatikorako azterbidea, bi esalnalditan oinharriturik: izen Sintagma (Sujetua) eta aditz Sitagma (Predikatua) direlakoen exenploak agerraraziaz.

f) **J. OREGI ETA A. ZATARAIN JAUNEN GALDEREI BURUZ ELKAR-HIZKETA:**

Oregi eta Zatarain euskaltzain laguntzaile jaunek euskarak eztituen eta behar dituen hitz asko sortzen edo asmatzen ari direnez gero, beren hautapenen argibidez lau galdera egin zituen aurreko batzarrean. Erantzun eske idatzirik zabaldu dira galdeak batzarkideen artean.

Mitxelenaren idazki bat irakurtzen du Haritschelhar jaunak, bere iritziak agertuaz. Hitzen aldaeraz ihardun da batez ere, baina ezta hartu ezertariko erabakirik.

Ohi den otoitzarekin bukatu batzarra.

Euskaltzainburua — Idazkaria

LUIS VILLASANTE — JUAN SAN MARTIN

1974 - V - 24

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1974 maiatzaren 24an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru. A. Arrue, J.M. Lojendio eta J.M. Satrustegi jaun euskaltzainak; S. Garmendia. J. Goikoetxea Maiza, J.M. Lekuona, J.L. Lizundia eta J. Zaitegi euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dala.

Haritschelhar, Dassance, Diharce, Eppherre, Erkiaga, Irigaray, Lafitte, Larzabal, Mitxelena, eta Zavala euskaltzain jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Apirileko batzar agiria onhartu da.

a) **HAR-EMANAK:**

Madrid-etik, Manuel Fernández-Galiano jaunaren gutuna, **VI Congreso Internacional de Estudios Clásicos** biltzarretara dei eginaz. Biltzar hoiek aurtengo irailean 2tik 6ra izango dira Nazioarteko Etudes Classiques erakundeak antolatua U.N.E.S.C.O.-ren babespean. Luis Mitxelena izendatzen da Euskaltzaindiaren ordezkari, biltzar horietara joan dadin.

A. Arrue jaunak Donostiako alkate jaunagandik hartu duen gutun baten berri ematen du, Euskaltzaindiari aurtengo laguntzaz 100.000 pezeta ematea erabaki dutela esanez.

Lankideen Aurrezkiak (Caja Laboral Popular) delakoak, bere aldetik, aurtengo laguntzaz 100.000 pezeta.

Donostiako Udaletxeari eta Lankideen Aurrezki etxeari eskerrak ematea erabakitzen da.

Idazkariak aditzera ematen du Alemaniako Koloniako telebistakoen bizita izan dugula Bilboko etxean eta Euskaltzaindiaren historia eta ekintza lanen berri eman zaiela.

Datorren igandean, hil honen 26an, Azkoitiko Insausti jauregian izango den III Festival Inter-escolar de Danzas-erako deira Joan Goikoetxea Maiza izendatzen da Euskaltzaindiaren ordezkari.

HARTU DIREN LIBURUAK: A. Plazido Mujika euskaltzain laguntzaile jaunak bere **Diccionario Castellano - Vasco** (Bigarren argitalpena) eskaintzen du; Gero argitaldariak "Orixe"ren **Santa Kruz apaiza** eta G. Garate-ren **Marxen ondoko errebisionismoa. Rosa Luxemburg. Leninen bizitza;** E.K.A.k bidalia Leizaola-tar J.M.-ren **"Jainkoaren Billa" gutuna zer da?** J.B. Merino Urrutia jaunak "Vocabulario de la cuenca del Rio Oja", **Berceo** aldizkariko separata; Gipuzkoako Caja de Ahorros Provincial-ak honako liburu hauek, A. Cillán apalategui-ren **La Foralidad Guipuzkoana,** M. Lekuona-ren **La parroquia de San Pedro de Lasarte,** I. Linazaroso-ren **Caserios de Guipúzcoa** eta I. Barandiaran-en **Guipúzcoa en la Edad Antigua.** Guzieri zorionak eta eskerrak ematea erabakitzen da.

b) **GOIZEKO BILKURA BEREZIAREN BERRI:**

Burugoak ematen du goizean euskaltzainak izan duten bilkura bereziaren berri. Zortzi euskaltzain oso bildu dira eta beste zenbaiten gutunak jaso dira, botoa edo poderioa emanez euskaltzain berria izendatzeko. Bi izen aurkeztu dira eta botoara jo. 15 euskaltzainen botoak jaso dira eta Emile Larre "Herria" astekariaren zuzendari jauna izendatu da. Larre jauna 1926an Baigorrin sortua da, Aiherrako erretora, "Sokorri" izen-ordearekin idatzi du **Gaste** hilabetekarian, Bertsolarien gidari eta eskolatzale, Liturgia euskaratze lan guztietan parte hartua, oraintsu zenbait lagunekin Testamentu berriko itzulpen berri bat egin du, astero idazten du "Herria"n, kantika berri egile eta bertsolaria da. Arautegiaren arabera aurkeztua zen.

Bestalde Euskaltzaindiko burugoak aurkezturik, J. Juan Bautista Merino Urrutia euskaltzain laguntzaile jauna, Errioxako euskara zaharrari buruz eginak dituen estudioak aintzat harturik, Euskaltzaindiari zenbait aldiz eman dizkion laguntzagatik, eta ekainaren 15ean San Millán de la Cogolla-n egingo dugun bilera gogoan dutelarik, euskaltzain ohorezko izendatzea erabaki da.

Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos-en, XIX (1973), 95 zenbakiaren 147/153 orrialdeetan A. Bonifacio Ataun jaunaren hitzaldi bat agertu

da, Euskaltzaindiko erabagieri buruzkoan zenbait uste oker agertzen dituena, eta Boletin berari argitasunak ematea erabaki da.

d) **URDIAINGO ZIZEN IZENAK:**

Jose Maria Satrustegi euskaltzain jaunak irakurri du Urdainen erabiltzen diren ziza izenen txostena. "Perretxiku" izenik ez omen da erabiltzen Urdiainen, Zizak eta Ointoak bezala erabiltzen dute izen orokorra. Herriko zaharregandik jasotako izenen klasifikazioa R. Lotina Benguria eta T. Aranzadi-ren lanetan oiharritua du. Hogeitabost izenen xehetasunak ematen ditu, zientzia izenekin batean. R. Lotina "La Gran Enciclopedia Vasca"ko lanaren egileak dionez, ez omen du euskal Herrian ziza hauen izenik arkitu: **Lengua de Vaca, la Platera** eta **la Pardilla**-rekin. Baina, Urdiainen, **La Platera**, Clitocybe geopatra, "Urriziza zuria" da; eta **La Pardilla**, Clitocybe nebularis, "Urriziza beltza".

e) **TXIRRITA ETA BASARRI: MINTZALDI BATEN ERANSKUNA:**

Juan Maria Lekuonaren txostena, Txirrita eta Basarri bertsolarien arteko joerak aztertuaz. Lehenengo, orain arte kulturaz eta arte-estetikaz erabili diren metodologiak ikertzen ditu, lehenagoko denboretatik gaurkora nabaitzen diren aldakuntzak adieraziaz eta elkarren arteko diferentziak agertuaz. Txirritak berezko herritasuna zuen iturri bakarra, eta Basarrik Pello Mari Otaño bere maisu eredugarritzat, Kepa Enbeitagandik zerbait badu ere. Bi bertsolariok, bi eskola desberdinen ordezkaritzat jotzen ditu. Eta gainerako xehetasun jakingarri askoren argia emanaz mintzatu da.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1974 - VI - 15

Kukullako Donemiliagan (San Millán de la Cogolla), "Monasterio de Yuso"n, eguerdiko hamabietan bildu dira batzar irekian: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A Arrue, X. Diharce, A. Irigoyen, P. Lafitte eta J.M. Satrustegi euskaltzain jaunak N. Altzola Gerediaga, I. Berriatua, Y. Etxaide, J.F. Setien, X. Gereño, J. Goikoetxea Maiza, X. Kintana, J.L. Lizundia, J.J.B. Merino Urrutia eta J. Zaitegi euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dala.

Errioxako agintarien partetik: Diputazioko buruordezko den Fernández Sevilla jauna, Instituto de Estudios Riojanos-eko zuzendari den Rodríguez Maimón jauna, eta Instituzio bereko buruordezko den Escudero Ortuño jauna eta Monasterio de Yuso-ko priora den Aita Rafael Euba Agustinos Recoletos ordenakoa.

A. Irigaray, J.M. Lojendio eta L. Mitxelena jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Euskaltzainburuaren agurrezko hitzak. Zergatik biltzen garen eta euskaldunontzat Donemiliagak zer errepresentatzen duen, J.J.B. Merino Urrutia jaunaren aurkezpena eta bere inguru horietako ikertze langitzak zer diren. Hauegatik ohorezko euskaltzain izendapena duela Euskaltzaindiaren partetik. Bere agurra, lehenego erdaraz eta gero euskaraz. Ondorean, Latxagaren **Errioxako San Millan, euskal iturri** liburu argitara berriaren aurkezpena egiten du. Eta, azkenik, A. Irigoyen euskaltzain jaunak bere sarrera hitzaldia egingo duela aditzera ematen du.

Arrue eta Satrustegi euskaltzain jaunak lagundurik sartzen da A. Irigoyen jauna batzar gelara.

"Donemiliaga Kukulla eta euskera" du hitzaldi gaitzat. Haseran erdarazko agurra batzartuei. Errioxa, Donemiliako Glosen garaian Nafarroakoa zala aditzera ematen du, eta Glosetan dauden esaldi biak aztertzen ditu historian ezagutzen dugun euskararekin eta egunotan oraindik erabiltzen dugun euskara biziarekin konparatuz. Esaldiok, "Jzioqui dugu" eta "Guec ajutu ez dugu" dira. Bestalde Irigoyen jaunak dionez, berak aurkitu duen Xgarren mendeko agiri batean, glosak idatzi ziren garai berean, Garzia Santxonis Nafarroako erregeak kapera batzuk eman

zizkiola Donemiliagako monasterioari, "qui vulgo dicitur **Cella alboheta**" (= kela alboheta), eta argi dagoela glosak idatzi ziren garaian inguru hauetan euskaraz egiten zela, eta Nafarroak arabeak hemendik botatzearen ondorioz euskaldundu zela inguru hau ustea okerra dela, zeren agiri hauen argira aurretik ere euskalduna zela ikusten baita. Bukatzean hitzaldiaren erdarazko laburpena adiarazten du.

L. Villasante jaunak ematen dio erantzuna. Irigoyen jaunaren dohaiak eta gloseri buruz duen iritzia agertzen ditu, batez ere "Guec ajutu ez dugu" esaldiaren inguru bildu dituen agiriegatik. Eta, ondorean, euskaltzainburu bezala, euskaltzain osoaren diploma ematen dio.

José Juan Bautista Merino Urrutia jaunak Errioxako euskarari buruzko hitzaldi labur bat ematen du, **la presencia del vascuence en la Rioja y Burgos** gaiaz agiri zaharretan eta toki-izenetan oinharriturik.

Euskaltzainburuak Merino Urrutia jaunaren nortasuna agertzen du, eta Euskaltzaindiaren azken batzarrean erabaki zen araura ohorezko euskaltzain izendapenaren diploma ematen dio.

Ondorean oroitharria agertzea. Gelako horman, marmolezko losan hau irakurtzen da: "**Lehen euskal esaldien mila urtehurrenaren oroitzapenetan. JZIOQUI DUGU. GUEC AJUTU EZ DUGU. La Academia de la Lengua Vasca el Instituto de Estudios Riojanos y la Orden de Agustinos Recoletos en conmemoración del milenario de las primeras frases en lengua vasca. San Millan de la Cogolla 1974 - 6 - 15**".

Bukatzeko, Instituko de Estudios Riojanos-eko buruordezko den Escudero Ortuño jauna mintzatzen da, batzartuak agurtuaz eta bilinguismoaren alde azalduz, medikuneurologo den aldetik, kalterik ez-ezik bentajarik aski duela bi hizkuntza edo gehiago mintzatzeak eta psikologiaren aldetik onuragarri dela.

Honela bukatzen da batzarra.

Euskaltzainburu
LUIS VILLASATE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1974 - VII - 26

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1974ko uztailaren 26an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: Villasante buru, Haritschelher buru ordezko, A. Arrue, A. Irigoyen eta L. Mitxelena euskaltzainjaunak; P. Altuna, G. Aresti, J. Berrojalbiz, S. Garmendia, X. Gereño, J. Intxausti, X. Kintana, J. L. Lizundia, J. Oregi, C. Santamaria, P. Uribarren, J. Zaitegi, A. Zatarain eta J. M. Zumalabe euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martín idazkari dala.

Dassance, Diharce, Eppherre, Irigaray, Lafitte, Larzabal eta Zavala jaunek ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Maiatzeko eta ekaineko batzar agiriak onhartu dira.

a) **HAR-EMANAK:**

Kukulla-ko San Millán-en ekainean egin genuen bilera bereziaren laguntzaile izan genituen Instituto de Estudios Riojanos, Logroño-ko Diputazioa eta San Millan-go Agustinos Rekoletosei eskerrak ematea erabaki da.

Irakasle tituluen esaminen berri eman da, Loiolan eta Paris-en esamina ongi pasatu dutenen zerrenda agertuaz: Juan José Agirrezabalaga, Azkue, Xabier Irigoyen, Jesús Mari Haranburu Oiharbide, José Antonio Ormazabal, Mari Karmen Arostegi Tellería, José Agustin Ozamiz Ibinarriaga, Mª Angeles Agirrezabalaga Alustiza, Karmele Urdanpilleta Urdanpilleta, Iñaki Zubeldi Otegi, Agustina Pôntesta, Belen Aizpuru Zubitur, Erramun Balenziaga, Jon Sudupe, Arantxa Alberdi Urzelai, Jose Larrañaga, José Antonio Etxezarreta Sudupe, Joseba Idoyaga Astelarra, Kontxi Zabaleta Labayen, Maria Jesus Arriola Agirre, Gorka knörr, Mª Lourdes Sistiaga, Gabino Zubeldia Gaztañaga, Olatz Olarte Lasa, Luis Mª Satrustegi Galdona, Edurne Garmendia Garmendia, Sabina Arruabarrena Sukia, Libe Sarasua Gastesi, Arantza Zugazagasti Alberdi, Gurutz Larrañaga, Loreto Etxarri Danborenea, Ester Aizpuru Aizpuru, Eustasio Egües Aizpiolea, Miguel Barandiarán Iztueta, Jon Oyarzabal Zubeldia, Pepi Arraubarrena Sukia, Izaskun Arrue Goikoetxea, Maite

Zumalde Zumalde, Elena Aleman Hiribarren, Felisa Etxeberria Balerdi, Jesus Mari Sagarna, Edurne Agirre Zurutuza, Jose Ramon Beloki Zapirain, Natxo Mendialdua Lekue, Imanol Añon Albizu, Mª Isabel Irizar Aranburu, Jesus Belaustegi Urionabarrenetxea, Pilare Baraiazarra, Mikel Zuazabeitia Errasti, Luis Mª Aristegi Etxabe, Andres Alberdi, Joseba Camino, Pantxiko Larrañaga, Mikel Usabiaga Sukia, Mª Amaia Andonegi Egurbide, J. Antonio Leunda, Kontxi Ibarraran, Jose Llerandi, Pilar Sarasola Bulman, J.M. Larrazabal, Iñaki Arrarte, Peru Baratchegaray, Arantza Senosiain, José Ramón Eizagirre Garmendia, José Ramón Aizpurua, Resurrección Berasategi, Koxe Etxebarne, Josu Aranburu, Karmelo Arroiabe.

Gai honi buruz, urrengo etsamina urriaren bigarren larunbatez izango da.

Zatarain eta Oregi jaunei erantzunez, hitzak hautatzeko aburuzko solasa izan da.

Arrue jauna mintzatu da ekainaren 16an Madriden "Educación y Ciencia"ko ministro jaunarekin izandako elkarrizketari buruz adiarazpenez, batez ere Euskaltzaindiaren nortasuna oraingo legeen aurrean bideratzeko. Batzordeari jestioetan aurrera jarraitzeko eskaria egiten zaio.

Aditzera eman da, biharko egunez, Lafitte euskaltzain jaunaren ordenatzearen urre-eztaiak betetzen direla eta zorionak emanez telegrama jartzea erabakitzen da.

VII. "Toribio Alzaga" antzerki sarirako lanak hartu dira eta epai-mahaia izendatzen da: G. Aresti, I. Beobide eta P. Larzabal jaunak.

"Xenpelar" bertso-paper sarirako beste honako epai-mahaia izendatzen da: A. Zavala, A, Irigoyen, J.M. Lekuona, F. Artola "Bordari" eta J.M. Aranalde jaunak.

Urrengo batzarra, Udako Euskal Unibertsitatearen garai ingurua aprobetxaturik, Urdazubin izango da Axular-en omenez, irailaren 14an (iraileko bigarren larunbatean). J. San Martin-ek egingo du sarrera hitzaldia, "Literatura landuaren sorrerako giroa, Axularren garaira arte" gaiaz eta J. Haritschelhar jaunak emango dio erantzuna. Egun berean, Nafarroako Foru Diputazioaren Institución "Principe de Viana" eta Urdazubiko Udalaren babes eta laguntzaz, Axularri oroitarria jarriko zaio.

HARTU DIREN LIBURUAK: Cinsa-k emana, Daniel De Foe-ren **Robinson Crusoe** (X, Kintanak euskaratua); A. Irigaray jaunak emana A. Apat-Echebarne-ren **Una geografía diacrónica del Euskara en Navarra**;J. Chacón Sabaté jaunak

emanik **Lengua Española y Literatura** (Segunda etapa de E.G.B. - Libro de consulta 8°), E. Soler, A.J. Pulpillo Ruiz, J. Chacón Sabaté eta M. Ramírez Valentín jaunek egina eta Barcelonako "Editorial Prima Luce, S.A."k argitaratua; J. San Martin jaunak emana P. B. Villareal de Bérriz-en **Máquinas hidráulicas de molinos y ferrerías y gobierno de los montes y árboles de Vizcaya;** J. L. Lizundia, idazkari-ordezkoak Galicia-tik ekarriak, R. Piñeiro-ren **A lingoaren i as lingoas,** M.T. Barro, X. Toubes, C. Durán, M. Fernandez - Gasalla eta F. Pérez Barreiro Nolla egileen **Plan pedagóxico Galego,** X.X. Santamaria Conde-ren **O Problema Galego de fala** eta G. Anaya Santos-en **la despresión cultural gallega;** eta idazkariak Archivo General de Guipuzkoa-tik atereak **Discusión sobre los Fueros de las Provincias Vascongadas**, Gipuzkoako Diputazioak eta Junta Generalak 1864-an argitaratua, eta Juan V. Araquistain-en **Tradiciones Vasco-Cántabras** 1866-an argitaratua. Guziei zorionak eta eskerrak ematea erabakitzen da.

b) **8 URTE ARTEKO IKASTOLA HIZTEGIARI BURUZKO BILERA BEREZIAREN BERRI:**

Euzkaltzainburuak goizeko batzar bereziaren berri eman du, euskaltzain osoak ikastola hiztegiko batzordearekin bildurik 10, 11, 12. zerrenderi egin zitzaizkien oharrak aztertuaz eta iritzien arauera zuzenketak eginaz. Beraz, 12garren zerrendara arte bukatutzat ematen da eta adiarazten du laster banatuko direla 13, 14, 15. zerrendak, azken oharreri orraztapenak emateko.

A. Irigoyen jaunak aditzera ematen du, berak "metro-barna"ri jarritako oharra nonbait huts egin dela, aztertzerakoan agertu ez delako. Puntu hau hiztegi batzordeak ohargilearekin osatzea erabaki da.

d) **"GORPUTZ ETA SOIN" GAIEZ MITXELENA JAUNAREN TXOSTENA:**

Hainbeste zalantza jarri den Gorputz eta Soin hitzeri buruz Arriandiaga zenak zuen iritzia agertzen du, eta baita Arriandiaga ustez. S. Aranak hontaz uste zuena ere, eta argi jartzen du bi hauentzat "gorputz" zala hitz jatorra eta ez "soin", erderazko **cuerpo** adieraztean, eta beren ustez "soin" beste gauza bat zala, **acuestas**-en kidekoa.

e) **"EUSKAL-ADITZEN SAILKAKERA JATOR BATEN BILLA", J. OREGI JAUNAREN TXOSTENA:**

Nordun eta nor gabe aditzak zer erizpiderekin erabili behar ditugunaren adierazpen luzea agertu du Oregi jaunak bere txostenean, eta bere adierazpenok

oso interesantetzat hartu dira.

f) **"ESTATU IZENAK", X. MENDIGURENEN TXOSTENA X. KINTANAK IRAKURRIA:**

Sarrera batean "Estatu izenak" bateratzeko jarraitu duen kriterioa agertzen du, eta ondorean Estatu izenen zerrenda luze bat. Azkenik lanaren kopiak zabaldu dira, batzarkideei urrengorako oharrak eskatuaz.

g) **"IKASTOLETARAKO E.G.B.-KO TESTUGINTZA, IDAZKARIAREN TXOSTENA:**

Gipuzkoa Ikastola Elkarte Batzak deiturik Elgoibarren izan zen batzar batera agertu zala eta Euskaltzaindiari eskari hau egiten diotela, bere testugintza Casals eta Santillana argitaldariekin hornituko dutela, E.G.B.-rako testu onhartuak, itzultzaile talde bat osatu dutela euskara idatzi batuan egiteko eta Euskaltzaindiak orraztapena ematea eskatzen dutela, eta era berean Esukaltzaindiaren babesa eman testugintza honi.

Ontzat hartu da. Eta testuon orraztapenak Ikastola Histegiaren eta Aditz Batuaren batzordekoen esku ustean, kasu bakoitzean gaiaren espezialitateari begira lana banatzeko. Orraztapenok egiteko Larresoro (J.L. Alvarez), X. Kintana eta S. Garmendia aipatzen dira.

Lehen bi liburuak, "Gipuzkoa Ikastola Elkarte Batza"gandik jasoak, **Matematikak** 2 eta 3 maila, Larresororen esku uztea erabakitzen da.

h) **BAKOITZAK DAKARRENETIK:**

Mitxeleña jaunak Reno-n **Hiztegi** nagusigintza, euskara-ingles, egiteko asmoa duela agertzen du.

Bizkaiko Diputazioak Deustuko Unibertsitatean euskal linguistikako katedra sortu duela aditzera ematen da.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

(Batzar irekia Axularren omenez)

1974 - IX - 14

Urdazubin, 1974ko Irailaren 14an. Salbatore elizan elkar-mezaren ondorean, goizeko hamabietan kalostrean anitz jende bildu da, mahaiburuan Julio Iturralde nafar diputatua, Daniel Castro herriko alkatea, V. Galbete "Principe de Viana" elkargoko zuzendaria, Zalbalza jaun kalonjea, euskaltzainburua eta buruordezkoa. L. Villasante euskaltzainburua eta J. Haritschelher buruordezkoaz gainera, A. Arrue, X. Diharce, A. Irigaray, A. Irigoyen, P. Lafitte, L. Mitxelena, J. San Martin eta J.M. Satrustegi euskaltzain jaunak; N. Alzola Gerediaga, G. Aresti, F. Artola, J. Bilbao, M. Etchehandy, J.A. Etxebarria, J. Fernández Setien, M. Garde, J. Goikoetxea Maiza, J. Intxausti, M. Itzaina, M. Izeta, X. Kintana, J.L. Lizundia, J. Oleaga, S. Onaindia, J. Oregi, I. Sarasola, P. Xarriton eta J. Zaitegi euskaltzain laguntzaile jaunak.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

J.M. Satrustegi euskaltzain nafarrak batzarraren berri eman zuen. Ondorean, Castro jaunak, herriko alkate bezala ongi etorrizko hitzak. Gero, Villasante euskaltzainburu jaunak, bildu ziren guziei Euskaltzaindiaren izenean agurra eta eskertzea. Axularren omenez zenbait hitz bere izena goraipatuz, Nafarroako hizkuntza zaharraren gordailu eta euskal literatura landuaren idazlerik gogoangarriena den aldetik. Eta Axularren omenaldi hau bide, J. San Martin jaunak egingo duen euskaltzain sarrera hitzaldia aipatzen du.

Arrue eta Diharce euskaltzain jaunek, ohitura den bezala, Juan San Martin eraman dute mahaiburura. Eta, honek irakurtzen du bere sarrera hitzaldia, euskal literatura landuaren sorrerako giroa Axularren garaira arte. Bere tesisean aztertzen ditu garai hartako ideologia borrokak, erlijiozkoak batez ere, Nafarroak bere erregetza galtzetik sortuak garaiko ekonomia mugimendua artegintzaren argira emanak eta abar, nola sustraitu zuten literaturagintzaren hastapena Axularrek goren mailara eraman arte.

Jean Haritschelher euskaltzain eta Euskaltzaindiko buruordezko jaunak irakurtzen du erantzunezko hitzaldia. **Gero**-ren pasarte bat gogoraziaz, esaten dio San Martini, egitekoa gerorako utziaz zertan luzetu den horrenbeste hamar urteren buruan hitzaldia egin gabe. Baina, bestalde, San Martinen aspalditikako merezimenduak aipatzen ditu eta honen hitzaldiari zenbait osagarri erantsi ere bai.

Luis Villàsante jaunak, euskaltzainburu bezala, izendapenezko diploma ematen dio San Martin jaunari, zorionak eskainiaz eta ongi-etorria emanaz.

Vicente Galbete "Principe de Viana" Erakundearen zuzendari jaunak eta Jose Maria Satrustegi, Erakundè bereko eta euskaltzain jaunak, "Fronts Linguae Vasconum" aldizkariaren Axular-i buruzko zenbaki bereziaren aurkezpena egiten dute. Ondoren batzarkideen artean ale bana zabaltzen da.

Julio Iturralde diputatu jaunak, Nafarroako Foru Diputazioaren izenean egiten dituen hitz batzuekin batzarre irekiari amaiera ematen zaio.

Ondorean, bildutako jendetza, Axularenia etxera urbiltzen da, Pedro Dagerre Azpilkueta "Axular" zenaren sortetxea, eta **Gero** liburuaren egile honen izenean oroitarria agerrarazi: 1974.-Axular euskal idazle nagusiaren sort-etxea. 1556 - 1644. Ayuntamiento de Urdax. Diputación Foral de Navarra. Academia de la Lengua Vasca" jartzen duena, herri bereko etxeetan agertzen den grafia eta apaingarri eraz.

Baztandarrak mutil-dantza egin dute eta Xalbador eta Mattinek zenbait bertsoen eskaintza.

Azkenean, bazkaria Herriko Etxean.

Euskaltzainburuz
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1974 - X - 11

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1974ko urriaren 11n, arratsaldeko lauretan, Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruoedezko, A. Arrue, E, Erkiaga, A, Irigoyen, P. Lafitte eta J.M. Satrustegi euskaltzain jaunak; I. Berriatua, J. Berrojalbiz, J. Bilbao, J. Fernández Setien, S. Garmendia, X. Gereño, X. Kintana, J.L. Lizundia, C. Santamaria, J. Zaitegi, M. Zarate eta A. Zatarain euskaltzain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dala.

Barandiaran, Dassance, Diharce, Eppherre, Gorostiaga, A. Intza, A. Iraizoz, Irigaray, Krutwig, Labayen, Larre, Larzabal, Lekuona, Lojendio, Mitxelena, eta Zabala jaunak ezin etorri adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Uztaileko eta Iraileko batzar agiriak onartu dira.

Haritschelhar jaunak berri latza ematen digu, Bost-sei egun dela hil zela Gregoire Eppherre laguntzaile jauna.

a) **HAR - EMANAK:**

Nafarroako Foru Diputazioko buruordeari, "Principe de Viana" Instituzioko zuzendariari, eta Urdazubi eta Zugarramurdiko Udalei, Irailaren 14an Udazubin Axularren omenezko bilera irekia antolatzen eman ziguten laguntzagatik eskerrak ematea erabaki da.

Iruñako Artzapezpiku jaunari, euskarari buruzko pastoralagatik (Boletin Oficial de las Diocesis de Pamplona y Tudela, Septiembre 1974, N° 9, 545/550 orrialdeetan dakarrenagatik) zorionak ematea erabaki da.

Idazkariak aditzera ematen du, hil honen 7an Madrid-eko Ateneoan euskal katedra iriki dela, eta irikitze honen sarrera hitzaldia euskaltzainburuak egin duela. Katedraren arduradun R. Bozas-Urrutia euskaltzain laguntzaile jauna izendatua dela eta euskarazko irakaskintzetan Ganix Larratxe jaunak lagunduko diola. Astelen guztietan hitzaldiak antolatuko dituztela eta euskaltzaindikoei dei egiten zaie, hitzaldirik gertatu ahal lezanak bertara eskaintza egiteko.

HARTU DIREN LIBURUAK:

Abuztuko hilean hartuak: J.J. Zearreta jaunak emana, **Etxahun Koblakari**, Etxaun Irurik huntü pastorala ziberotarrez; Jakin argitaldariak emanak, elkar lanean osatutako **Lur eta gizon, Euskal Herria** eta Albert Memmi-ren **Kolonizatuaren ezaugarria;** Gipuzkoako Artxibo Probintzialeko Julio Rekalde jaunak idazkariari emanik, **Discusión sobre los Fueros de las provincias Vascongadas en el Senado en 1864**; eta J.V. Arakistainen **Tradiciones vasco-cántabras**; Marcelino Oreja Aguirre jaunak bere "Reflexiones sobre sociedad y cultura", discurso de ingreso en la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País; **La saudade en el renacimiento de la literatura gallega**, de Ricardo L. Landeira, **Cancionero popular galego**, de Ramón Cabanillas, id. id.; **Contribución al Dcc. Gallego**, Anibal Otero, id.id.; **Sobre lingua e literatura galega**, Ricardo Carballo, id.id; Revista "Grial" N° 23, "Sobre os dialectos do galego, id.id.; Rev. "grial" n°26, "Carta sobre da unificación lingïstica", por Xavier Rodríguez Baixeras, Editorial Galaxia, Vigo L. Villasante jaunak emana, **Guión manual de tipografía vasco-navarra** eta **Catálogo de la Exposición Tipográfica vasco-navarra;** Y. Isigaki jaunak bere **To the peoples of Ethiopia the only Chistian Country in Afrika.**

Irailean hartuak: Donostiako Librería Graphos-ek emanak, J.A. Arze "harzabal"en **Insturitzetik Tolosan barru**, Ramón Zulaikaren **Ipui jatorrak - Cuentos liberales** (R. Muruak euskeratua), Bitañoren **Bigarren atalak**, Domenique Peillenen **Itzal gorria** eta Santos T. Rekalderen **Deunor. Idahon artzain eta euskaldun;** J. San Martin-ek emana, Marcel Mauss-en **Introducción a la Etnografía;** Gero argitaldariak emana, Edorta Kortadiren **Artegintza, artista, gizartea (Espiralean gogoetaka);** "Principe de Viana"k Aita Damaso Intza-koaren **Nafarroako euskal esaera zarrak**; Pedro Irizar jaunak bere **Los dialectos y variedades de la lengua vasca. (Variedades amenazadas de rápida extinción. Su evoluzión en el transcurso de un siglo**, Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", tomo VII (1973) liburuko separata.

Urrian hartutako liburuak: Mikel Zarate euskaltzain laguntzaile jaunak emanik, bere **Haurgintza minetan, Meza-liburu txikia** (Bizkaieraz), **Meza-liburu txi-**

kia (Gipuzkeraz), **Bizkaiko Euskal idazleak:** Derioko Seminario Ikastetxeak, Gure **Salbaziño Egintza;** Bilboko Obispaduak, Pio Parsch-en **Gure Meza-Deuna;** eta M. Zarate berak **El elemento vasco en el hable coloquial del Chorierri (Gran Bilboa);** M. de Neristain Humphrey-rena, berak bidalia, **El elemento euskaldun en el léxico de Bilbao;** R. Lafonek bere **Structure de la Déclinaison Basque.**- Actes duxe dongrés internationak des linguistes.- **Die Baskische Literatur von ibren Anfängen bis 1900** eta **Pour la comparaison du Basque et des Langues Caucasiques - Bedi Kartlisa revue de kartvélologie;** Luis Mitxelenak bere **Las Lenguas y la Política;** eta Zatarain jaunak emana, **Vernünftiger schreiben reform der rechtschreibung.**

Guztiei eskerrak ematea erabaki da.

b) **GOIZEKO EUSKALTZAIN OSOEN BILKURA BEREZIAREN BERRI:**

A. Irigoyen jaunak eman du bileraren berri, kargu berritze deiak eginak zirenez, batzartu diren euskaltzainez eta heuen artekoak hartu dituzten poderioen bidez, 23 boto bildu direla. Botoetara joaz, izendapen hauek egin dira: Buru, Villasante, 13 botokin; buruordeko Haritschelhar, 14 botokin; idazkari, San Martin, lehen botoetan 12 eta bigarrengoan 13 botokin; eta diruzain, Erkiaga, 14 botokin.

d) **EUSKALTZAINDIAREN SARIKETAK: "T. ALTZAGA" eta "XENPELAR"**

"Xenpelar" bertso-paper saria: lehenengoa Jean Pierre Mendiboure Iheletakoari bere "Arrosako zubien" eta "Sedimendu batzu" izeneko bertso sortagatik; bigarren saria Mattin Treku Ahetzekoari "Baserri hauzo zenari" izeneko bertso sailagati; eta hirugarren Segundo Kalonje Donostiakoari "Zar geienak pipiak jota" izenekoegatik.

Fernando Artola, Juan Mari Lekuona, Jose Maria Aranalde eta Antonio Zavalak osatzen zuten epai-mahaia.

"Toribio Alzaga" izeneko antzerki saria, "Gernika" izenekoari. Egilea, Luis Haranburu-Altuna.

Epai-mahaikoak, P. Larzabal, G. Aresti eta I. Beobide ziren.

e) **ESTATU IZENAK:**

Uztailean irakurri eta zabaldu zen txostenari egindako oharren berri eman da. Oregi, Berriatua eta Lizundia-k eginak. Ondorean, gaiari buruz luze jardun da

baina ezertariko erabakirik hartu gabe. Iritzien desberdintasuna ikusirik, mahain gainean uzten da.

f) **"LIÑUAREN PENAK", A. JULIAN ALUSTIZAREN TXOSTENA;**

Villasante jaunak irakurtzen du Julian Alustiza jaunaren txostena, "Liñuaren penak" izenekoa. Liñuaren lanak euskal folklorean aztertzen ditu, langintza, giroa, hitzak ta abar. Gogoz entzun da.

g) **BAKOITZAK DAKARRENETIK:**

M. Zarate jaunak bere txostena eskaintzen du beste batzar baterako, Asturias-ko **La xiriga** hizkeran egin dituen bilketari buruz.

P. Lafitte jaunak, berak ekarri duena hurrengo batzarrerako uzten du.
J. Bilbao jaunak Ifar-Ameriketako euskaldunei buruzkoa eskaintzen du.
Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1974 - XI - 29

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1974ko azaroaren 29an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, Arrue, Diharce, Erkiaga, Irigaray, Lafitte, eta Satrustegi euskaltzain jaunak; Berrojalbiz, J. Bilbao, Fernández Setien, S. Garmendia, X. Gereño, Goikoetxea Maiza, Lizundia, Zaitegi, Zatarain eta Zumalabe euskaltzain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Irigoyen, Larre, Larzabal eta Lojendio jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Euskaltzainburuak G. Eppherre euskaltzain jaunaren hil-berria eman du, eta J. Haritschelhar jaunak Eppherre zenaren bizitza eta lanak laburki adiarazi ditu.

Euskaltzainburuak arautegiaren 33 eta 34. artikuluak agintzen dutenaren arabera, aulki baten hutsunea agertzen du, eta berria izendatzeko, izkribuzko proposamenduaren deia egiten du.

Urriko agiria onhartzen da.

a) **HAR - EMANAK:**

A. Irigoyen jaunaren gutuna, ostiraletan Deustuko Unibertsitatean klaseak eman behar dituelako bere ezin etorria adiaraziz, eta batzarrak larunbatetara igarotzea ahal den galdeaz. Deustuko Unibertsitateko zuzendaritzara gutun bat idaztea komeni ote den aipatu da, bere klaseak ostiraletik asteko beste egun batera igarotzea eskatuaz.

Valencia-ko Unibertsitatetik Antonio Ubieto Arteta jaunaren gutuna, gure bibliotekari eta euskaltzainei "Textos medievales" liburuak eta honen inguru hasiko duen "Monumenta Hispaniae Historica" sail berria eskainiaz.

Antonio Tovar jaunaren gutuna, bera ohorezko izendatu zalako eskerrak emanaz.

HARTU DIREN LIBURUAK:

Xabier Kintanak emana, bere lizentziaturako tesina lana, **Estudio fonológico del Gero de Axular**; Patxi Goenagak, bere tesina lana, **El prefijo bait y las proposiciones causales en Axular; Nota Pastoral sobre el euskera** (separata del Boletin Oficial de las Diócesis de Pamplona y Tudela, N° 9, septiembre de 1974): Gero argitaldariak emanak, J. Erzibengoa eta P. Ezkiaga-ren **Euskal Literatura - III**, J.M. Arrietaren **Antso Gartzeiz** eta X. Leteren **Bigarren Poema liburua;** P. Lafittek emana, P. Ithurralderen **Idek eta Zabal** 7Gogo-Bihotzak); A. L. Villasantek bere **Palabras vascas compuestas y derivadas;** R. Bozas-Urrutiak bere **Francisco Amoros y el antiguo juego de pelota**; A, Irigarayk **Axular-en berri gutti ezagunak**, "Fontes"en separata, Etorkizuna argitaldariak Grimm-en **Hansel eta Gretel**. I. Ayerbek itzulia; eta aldizkari berri hauek, "Elhuyar" I zenbakia (iraila, 1974) eta "Saioka" I Iker-ek emana.

b) **GOIZEKO BILERA BEREZIAREN BERRI:**

Euskaltzain osoek eta hiztegi batzordekoek 8 urtera artek hiztegi begiratu dute eta 13. zerrenda onhartu; 14 eta 15garrenak urrengorako uzten dira.

Euskaltzainburuak eta idazkariak, Caja Laboral Popular-eko zuzendarien deira bildurik, elkarren artean izan dituen asmoak agertzen dituzte. C.L.P. gerturik dago euskaren sozio-linguistiko estudio bat finanziatzeko. Lan hau Hego Euskal Herriko lau probintzietan egingo litzake bi urteren epean, Euskaltzaindiaren zuzendaritza eta babespean Siadeco etxeak egiteko. Estudio honekin, non zenbat euskara egiten den, zer mailatan, zer adin, euskara ustean zer aburu duten, eutsi nahi dutenen aburuak, non eta zelako laguntzak edo eragozpenak, eta abar, tokiz-toki aztertuko lirake, gero, estudio agirien araberaz zenbait erabaki hartu eta zenbait bide jokatu ahal izateko. Lan hau aurrera eramateko, lehendik antzerako lan baterako Gaur etxearekin genituen tratuak utziko dira, zeren hauek diru laguntzaren faltan lana geldi dutelako.

Siadeco S.C.I.-ekin har-emanan lana egiteko bi batzorde izendatzen dira. a) Plangintza eta lanaren ardurapena eramateko, beren kargu eta bizilekuak kontuan izanik: Villasante buru denez, San Martin, idazkari denez, Gipuzkoa-ko har-emanetarako, Lizundia, Euskaltzaindiko bulegoko arduradun denez, Bizkaiko eginkizunetarako, Satrustegi Nafarroako eginkizunetarako eta Ruiz Urrestarazu Arabarako. b) Linguistika, informazio eta teknika arazoetarako, Mitxelena linguistikaz, Pedro Irizar geografia - linguistikaz, Mikel Lasa informatikaz eta Jon Bilbao bibliografiaz. Jaun hauek, behar den orduan, kontseilari edo laguntzaileak aurkitzen ahaleginduko dira Euskaltzaindikoen artean.

Cinsa eta Iker etxeak Sebero Altube zenaren lan hautatuak argitaratzeko prest daude, **Erderismos** eta EUSKERA aldizkariko gerra aurreko beste zenbait lan. Euskaltzaindikoak izango lirake lanen hautatzaile. Cinsa eta Iker etxeen esku argitaratzea eta banaketa lana. Euskaltzaindiari, bere laguntzaren ordainez, salmenten ehunetik hamarrekoa gordeko digute.

J. J. Zearreta jaunak Euskaltzaindiaren alderako egin dituen diru eskarien lanen kontua agertu du.

Burugoak, urtearen lehenetik Euskaltzaindiko langile alogeratuen irabazpena begiratuko du egungo egoerara jartzeko. Era berean, aseguratu gabeak nola jarri ere bai.

d) **XVIIgarren MENDEKO IOANNES HARANEDER FRAIDEA, P. Lafitte jaunaren txostena:**

Gure literatura landu zaharrean bi idazle dira Haraneder izenekoak eta ez bat, orain arte uste genuen bezala. Bata fraidea eta bestea apeza. **Ejercicio Izpirituala-k**, Vinson-ek bere bibliografien dakarrenez, laurogei edizione bazituen: zaharrena 1716koa, berriena 1888koa. Geroztik 1910, 1919 eta 1922an berriz argitaratuak. Baina Vinson-ek bere bidean aurkitu ez dituenetarik badira XVIIgarren mendekoak ere. Lafitte jaunak 1690eko bat atzeman du. Lehen orrialdean aurkitzen den eskaintzazko esku-izkributik agertzen denez eta urtea kontuan izanik, ez duela ikustekorik orok dakigun XVIIIgarren mendeko Donibaneko Ioannes de Haraneder deitu apezarekin, 1749an **Philotea** agerrarazi zuenarekin.

e) **NEVADA-KO UNIBERTSITATEAREN "BASQUE STUDIES PROGRAM", Jon Bilbao-ren txostena:**

Nevada-n artzai eta unai euskaldunen sorrera California-ko meatokietan hasten dela. California-ko meatokietara Hego-Ameriketako zenbait lekutatik langileak joan zirela meari, eta hoien artean euskaldun asko, batez ere Argentinatik joan zirenen artean. Mea-lanetetik irtetzen ziren euskaldunak zer lanbidetzuk hartzen zituzten, zer bizi molde eta zertan jolasten ziren, garai hartako zenbait idazlek kontatu zutela. Irabazpenak onak zituztenez, dirua aurreratzen zutenetarik anitz, abere taldetxo bat erosi eta artzaintzara jotzen zutela meari izatea utziaz. California aldean lurrak garezti jartzeak ifarraldeko larretara eraman zituela eta Nevada aldean finkatu. Tarteka, J. Bilbao jaunak, zenbait pertsonaren adibideak jartzen ditu. Azkenik, Lasalt senadore euskaldunarena. Lehen herri jolasak, dantzak eta musikak bakarrik zirela, baina denborarekin eta gutti batzuen ahaleginez, azken urte hauetan kulturaz ere arduratzen direla, eta kulturagintzari ere emanak direla, batez ere gazteagoak goragoko maila bateko gaiak eskatzen hasi zirenetik. Boiseko Euskal Kulturaren Elkargoa 1971tik lanean ari dela bertan euskal kulturazko heziketak errotzeko. 1972ko udaran Ustaritzen eta Arantzazun egin zituela Unibertsitate ikasketak eta aurten Oinatira etorriak direla urte beteko ikasgoak egitera. Mitxelena jauna ere hara joateko omen da,ikastaro bat ematera.

f)**ABENDUAREN 27an BILLERA IREKIA AZKOITIKO INSAUSTI JAUREGIAN:**

Euskaltzainburuak aditzera ematen du, Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País elkartekoekin hitz eginak ginen bezala, abenduaren 27.an batzar berezi irekia izango dela, programa honen barnean: 10,30etan meza, Insaustiko elizatxoan: 11-etan Eustaltzaindiaren hileroko batzar arrunta, gai hontaz. "Herri

eta herritarren izenen lehen zerrenda onartzea". 12-etan Batzar irekia, gai hauekin: Euskaltzainburuaren agurra, "R.S.B.A.P., Azkoitiko zalduntxoak eta euskara"; Pedro Irizar-en txostena, "Aditza, euskalki guztietan", Jean Haritschelhar, "Joannes Etcheberry Sarakoa Azkoitian"; J. San Martin, "Luisa Miserikordiakoa eta euskal ilustrazioa" J.L. Lizundia idazkari ordekoak Euskaltzaindiaren helduden urteko programaren berri emango du; Alvaro del Valle Lersundi-ren agurrezko hitzak. Ondorean, Valle Lersundi jaunak, hiru probintzietako euskaltzain ohorezkoei diplomak ematea: Odón Apraiz arabarrari, Isaac López-Mendizabal gipuzkoarrari eta Gabriel Manterola bizkaitarrari. Gero, 1974an esaminatuei Euskal irakasle tituluak ematea, eta ondorean, 14, 30-etan, anaitasunezko bazkaria.

g)**EUSKALDUNON KOLOREAK, P. Larzabal jaunaren txostena:**

Pierre Larzabal jaunaren txostena J. Haritschelhar jaunak irakurria, euskaldunen koloreei buruz. Esaera zaharretan, folklorean eta euskaldun ororen gogoetan hiru kolore direla soilik, beste gutti batzuen gainetik: zuri gorri eta beltz. Eta hontaz adibide ugari eman ditu.

h)**BAKOITZAK DAKARRENETIK:**

Julia Berrojalbiz euskaltzain laguntzaile andereak Portugaleteko euskaltzaleen eskaria agertzen du, beren herriko alkateari eskertzeko dutun bat idaztea ikastolen alde egiten ari den lanagatik. Kunplimenduzko gutun bat idaztea erabaki da.

Irakasle tituluen etsaminen berri eman da, Deustuko Unibertsitatean ongi pasatu dutenen zerrenda agertuaz: Patxi Erkiaga Lasa, Kristina Usobiaga Guisado, Bittor Egurrola Albizu, Francisco de Broja Barandiaran Prado, Jesus Migel Zabalo Bilbao, Julian Angel Zabalo Bilbao, Iñaki Lerga Idozin, Joseba Agirreazkuenaga, Ana Elgezabal Legarreta, Guillermo Etxebarria Garitazelaia, Fernando Etxeberria Mariezkurrena, Markos Olabarri Zurinaga, Imanol Olabarri Zurinaga, Arantza Allur Zunzunegi, Alfredo Herbosa López, Miren Azkarate Villar, Hendrike Knörr Borrás, Josu Cepeda Olalla, Xabier Bilbao Barrena, Adolfo Arejita Oñarte-Etxebarria, Juan Felix Elorrieta Arronategi, Koldo Zuazo Zelaieta, Jexux Aipurua Barandiaran, Joseba Etxeberria Uriarte, Begoña Urrutia Zallo-Etxebarria, Mikel Alkorta Andonegi, Karmen Etxebarria Uriarte, Jose Antonio Iñurritegi Beristain, Juan Luis Urmeneta Galparsoro, Luzio Agirre Enparan, Xanti Garmendia Olano, Joxe Antonio Agirretxe Arruti, Jose Antonio Arin Agirre, Gema Larrañaga Juaristi, Mª Dolores Aginaga Gezuraga, Erruben Egaña Zumeta, Javier Ortuzar Uribe (hau Basaurin etsaminatua), Asun Rekalde Basterretxea.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua,
LUIS VILLASANTE

Idazkaria,
JUAN SAN MARTIN

1974 - XII - 27

Azkoitin, Insausti jauregian, 1974ko abenduaren 27an, goizeko 11 t´erdietan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, A. Irigaray, A. Irigoyen, P. Lafitte eta J.M. Satrustegi euskaltzain jaunak; G. Manterola ohorezko euskaltzain jauna; L. Akesolo, N. Altxola, G. Aresti, Mª F. Arregi, J. Berrojalbiz, K. Esnal, J. Fernández Setien, J. Goikoetxea Maiza, J. Intxausti, X. Kintana, J. L. Lizundia, I. Sarasola, P. Uribarren eta A. Zatarain laguntzaile jaunak, J. San Marin idazkari dala.

O. Apraiz, Dassance, Dihárce, I, López-Mendizabal, Larzabal eta Larre jaunak ezin etorria adiarazten dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Azaroko agiria onhartzen da.

a) **HAR-EMANAK:**

Bilinguismoa Institutoetan erabiltzeko, Bilboko Nesken Institutoan bilkura bat eratu zuen bertan irakasle den Borja Berandiaran jaunak, Bilkura haretan X. Kintana eta Julia Berrojalbiz egon ziren, eta azkehengo honek zenbait xehetasun eman ditu. Urtarrilean berriz batzartuko dira, eta hauk biok eta J.L. Lizundia izendatzen dira Euskaltzaindiaren izenean agertzeko.

HARTU DIREN LIBURUAK:

Jakin argitaldariak emanik, Bergiarmenen **Sei idazle plazara. I. Mitxelena, Aresti, Larresoro;** J. Fernández Setien jaunak emanik, **3 ipuin,** Usurbilgo ikastolako haurrak eta Gordailu-k argitaratutako **Haurrentzako Liburuak** eta **Idazketa hiztegia;** P. Lafitte jaunak "Gure Herria"n argitaratu duen lan baten separata. **Mende huntako Euskaldun idazleen pentsa-bideak,** J. M. Satrustegi jaunak "Fon-

tes"en argitaratu duen lan baten separata, **Axularren itzala**; J. M. Satrustegi jaun berak, **Leyendas de Vasconia**. Brujo /2/ gizasorgina, 1975-eko egutegia; **Clavijo** N°7 aldizkaria (San Millán de la Cogolla-n egin genuen bileraren berri ematen duena) Erriojako Diputazioko lehendakari jaunak bidalia; Julián Olabarria jaunak "Sancho el Sabio"n argitaratu duen lan baten separata, **Linaje de Zárate - Fundación y Genealogía**. Guziei eskerrak ematea erabakitzen da.

b) HERRI ETA HERRITARREN IZENEN LEHEN ZERRENDA.- Gai honi buruz xehetasun batzuk ematen ditu, horretarako izendaturik dagoen batzordeko idazkari den Lizundia jaunak, eta hurrengo batzarrerako uzten da bera tratatzea.

BILERA IDEKIA

Ondorean, herriari begira, bilera idekia izan da Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País-koekin elkarturik. Alvaro del Valle y Lersundi jauna mahaiburu, Luis Villasate, Jean Haritschelhar, Juan Ignacio Uria (R.S.V.A.P. elkarteko idazkaria) eta Juan San Martin mahaiko direla; gela nagusia jendez beterik.

Euskaltzainburuak, agurrez, Real Sociedad Bascongada, Azkoitiko zalduntxoak eta euskarari buruzko txostena irakurriaz.

Euskatzain-buruordezkoak, Joanes Etxeberri Sarakoa Azkoitian mediku, euskaltzale eta euskal izkribatzaile bezala agertuaz, txostena.

Pedro Yrizar euskaltzain laguntzaile azkoitiarrak (aspaldiko urteetan Madriden bizi dena) bere ezin etorria agertu du, eta bere txostena J.L. Lizundia jaunak irakurri du: Aditza euskalki guztietan.

Juan San Martin idazkari jaunak, beste txosten labur bat: "Gavon sariac" gure Ilustrazioaren sarreran. Eta bukaeran, Conde de Peñaflorida-ren **Misa de 6° tono** musika ez-ezagunaren kopia bat ematen dio A. Valle Lersundi jaunari, Eibarko parrokiako artxiboan aurkitu zuenetik.

Alvaro del Valle y Lersundi jaunak, agurrezko hitzak, euskaraz eta erdaraz, beren elkartearen euskal-kulturagintza adiaraziaz, euskararen alderako gogoa agertuaz eta biltzar hontara etorri direnak eskertuaz.

Ondorean, Valle Lersundi jaunak, hiru probintzietako euskaltzain ohorezkoei beren bazkide diplomak banatzen dizkie: Gabriel Manterola bizkaitarrari, Odón

Apraiz erabarrari eta Ixaka López Mendizabal gipuzkoarrari. J.I. Uria jaunak adierazten du I. López-Mendizabal eta O. Apraiz jaunen etorri ezina, biak gaixorik daudelako.

Euskaltzaindiko idazkari-ordeak 1975. urteko batzar egutegiaren berri ematen du: Urtarrilaren 31ean, Bilbon Euskaltzaindiko etxean; Otsailaren 28an, Donostian, Diputazioan; Martxoaren 31-tik apirilaren 5era bitartean, Oinatin edo Arantzazun; Apirilaren 25ean, Donostian, Diputazioan; Uztailaren 30ean, Donostian, Diputazioan; Abuztuaren 17an, Okendon Ullibarriren gorasarrez; Irailean, oraindik jartzeke gelditzen den egun batean, Donibane Garazin Jean Barbier-en gorasarrez; Urriaren 31an, Donostian, Diutazioan; Azaroaren 28an, Bilbaon edo Lemoan Eguzkitzaren gorasarrez; Abenduaren 26an. Donostian, Diputazioan.

Zabala jauna mintzatzen da R.S.V.A.P.en saileko den Bergarako "Juan Irigoyen" elkartearen lanak adiaraziaz.

Aurtengo esaminetan onhartu diren D mailako 104 Euskal Irakasle titulu banatzen dira. Aurreko urte bietakoak. Elgoibar eta Lekeition banatutakoak kontaturik, guztira 284 irakasle titulu.

Beste gabe, batzarra bukatu da eta Insaustiko jauregi berean anaitasunezko bazkaria egin da.

Euskaltzainburuz
LUIS VILLASATE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

Berriak

(EN EL ACTO INAUGURAL DE LA CATEDRA DE LENGUA VASCA DEL ATENEO DE MADRID, 7-10-1974)

Jaun-andreak, gau on digula Jainkoak!
Señoras, Señores, buenas noches nos dé Dios!

Es para mí motivo de la más íntima satisfacción asistir a este acto inaugural y tomar parte en él.

Esta bella realidad que contemplamos, ha sido posible gracias al empeño e interés que en pro de esta iniciativa han desplegado en todo momento tanto el Ateneo de Madrid y su presidenta Ilma. Sra. Llorca, como el Excmo. Sr, Marcelino Oreja, Subsecretario del Ministerio de Información y Turismo, la Academia de la Lengua Vasca, y, en fin —lo que en este caso no significa en último lugar— el Sr. Rodolfo Bozas Urrutia,

que, como residente en Madrid y miembro de la Academia de la Lengua Vasca, va a ser el profesor titular de esta Cátedra de lengua vasca que hoy se inaugura.

Poniendose uno a buscar antecedentes, en seguida nos viene a las mientes la cátedra Padre Manuel de Larramendi, creada en Salamanca por el entonces rector de aquella Universidad D. Antonio Tovar, quien es también académico honorario de la Academia de la Lengua Vasca.

Hoy, y en estos momentos, se abre esta nueva Cátedra aquí, en el Ateneo de Madrid, en la propia capital de España. Además de impartir la enseñanza de la lengua vasca, la nueva cátedra será sin duda como una ventana abierta para difundir los avances de los estudios vascos, ya en el campo de la Lingüística, ya en el de la literatura en esta lengua.

Yo no puedo olvidar que, si bien la creación de esta Cátedra en Madrid es una novedad, no lo es en absoluto la presencia de lo vasco en la villa del oso y del madroño. Esta presencia es bien sensible e ininterrumpida desde que los Austrias asentaron aquí la capital de España. Baste recordar la casta de los secretarios, escribanos, y calígrafos "vizcaínos" —los Idiáquez, Ercilla, Madariaga, Isunza, Ipeñarrieta, etc..., — hecho bien notorio, que ha dejado su huella y eco hasta en el Quijote.

El P. Anselmo de Legarda, en su documentadísima monografía **Lo vizcaíno en la literatura castellana** (1953), y últimamente el Sr. Julio Caro Baroja —también miembro correspondiente de la Academia de la Lengua Vasca— en su obra **Los Vascos y la Historia a través de Garibay** (1972), acumulan un material verdaderamente impresionante acerca de la presencia de los vascos en el viejo reino de Castilla y particularmente en Madrid, desde que esta villa se convirtió en capital.

Pero volvamos al tema de la Cátedra que hoy se inagura.

Casi resulta ocioso el decirlo: la Academia de la Lengua Vasca está dispuesta a prestar su colaboración a la misma, ya corporativamente o como entidad, ya también a través de charlas o lecciones que esporádicamente puedan dar sus miembros.

CATEDRA DE LENGUA VASCA EN EL ATENEO DE MADRID

Como Vds. muy bien saben, la Academia de la Lengua Vasca o Euskaltzaindia —a la que vengo refiriéndome— es una institución creada para tutelar, investigar, promover y desarrollar la lengua vasca.

Allá por los años 80 de la pasada centuria se deja sentir en el país un como malestar, inquietud o despertar de conciencia respecto al futuro o supervivencia de este legado recibido por tradición ininterrumpida. Una lengua que ha sobrevivido a la oleada indoeuropea y a la del romanismo, ¿va a sucumbir ahora ante el acoso de la civilización moderna, técnica, urbana e industrial? Se quiere hacer algo por salvarla del naufragio, pero ¿qué? Arístides de Artiñano, en los Juegos Florales celebrados en Durango en 1886, lanza la idea: crear una Academia, es decir, una corporación que se dedique ex professo a la lengua vasca, que con sus normas y orientaciones sirva de guía a los escritores, promuevan el estudio y cultivo de la lengua, etc.

La idea flotará en el ambiente, pero pasarán aún bastantes años hasta que se convierta en realidad.

Fué en el año 1918 cuando se dió el paso decisivo.

Este año las cuatro Diputaciones de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya acordaron crear, respaldar y subvencionar esta institución, y encomendaron a la Sociedad de Estudios Vascos que elaborara un anteproyecto de Estatutos para la misma. Así lo hizo ésta en el Congreso celebrado dicho año de 1918 en Oñate, en el marco de su antigua Universidad. Por cierto que S.M. el rey D. Alfonso XIII acudió en persona a inaugurar dicho Congreso, realzándolo así con su presencia y animando y alentando sus propósitos e iniciativas.

En su discurso inaugural S.M. el rey pronunció, entre otras, estas memorables palabras:

"Consagraos al estudio y fomento de todo cuanto pueda contribuir al adelanto y al progreso del País, cultivad vuestra lengua, el milenario y venerable euskera, joya preciadísima del tesoro de la humanidad, que habeis recibido de vuestros padres y debéis legar, incólume, a vuestros

hijos; estudiad vuestra historia para que no degenere nunca, para emular con noble empeño las hazañas de vuestro antepasados; mejorad vuestros campos, acrecentad vuestras industrias, dilatad vuestro comercio, enriqueced el emporio de vuestros valiosos haberes en artes y ciencias, y tonificad, cada vez más, vuestro vigoroso carácter, con las santas austeridades de la moral. Para tan nobles fines, pedid los auxilios del cielo cuando estéis prostrados ante la Bendita Patrona de Guipúzcoa, la Santísima Vírgen de Aránzazu, y, en esta labor, contad siempre con mís simpatías más vivas, con mi decidido apoyo, con todo el entusiasmo de vuestro Rey, que os aplaude y felicita como os aplaude y felicita España entera".

A partir del mencionado Congreso de Oñate empieza, pues, a existir la Academia de la Lengua Vasca o ***Euskaltzaindia,*** la cual completa sus cuadros en el año siguiente de 1919.

No vamos a hablar aquí de sus trabajos y vicisitudes a partir de esta fecha. Solo vamos a mencionar los nombres de dos de sus miembros más conspicuos en ésta su primera época, a saber: S. Resurrección Maria de Azkue [1864 -1951], director de la institución, a quien D. Antonio Tovar ha podido calificar como el "el gran testamentario de la tradición popular de los vascos" por la ingente labor de recogida de materiales que él ha llevado a cabo en el campo lexicográfico, morfológico, dialectológico, folklórico etc. El otro nombre es el de D. Julio de Urquijo (1871-1950), creador de la revista Internacional de los Estudios Vascos, que editó y dió a conocer múltiples textos de la literatura vasca antigua, que practicamente eran desconocidos o inencontrables por la larga incuria o desidia pasada. D. Julio, en efecto, reeditó - y, a veces, editó por primera vez - a autores relativamente antiguos, tales como Etxeberri de Sara, Oihenart, Tartas, Axular, Dechepare, el Refranero Vasco, etc. De este modo puso las bases para la obra de reconstrucción de la lengua literaria, de la que la generación siguiente - la nuestra - iba a beneficiarse en gran medida. Ambos señores, Azkue y Urquijo, en 1927 fueron además nombrados miembros de número de la Real Academia Española.

En la actualidad Euskaltzaindia se esfuerza por estar a la altura de su misión, si bien no se le oculta la desproporción que existe entre su misión y sus realizaciones, debido a los cortos medios de que dispone. De todos

modos, a la Academia interesa mucho ayudar a esta nueva plantita, a esta Cátedra que se crea hoy en el Ateneo de Madrid. Que a este acto inaugural siga un curso y muchos cursos cargados de prometedores frutos.

El colofón del primer libro vasco, el de Dechepare, impreso en 1545, reza así: ***Debile principium melior fortuna sequatur.*** Se me ocurre que el adagio viene hoy al caso como nunca. Que el voto del primer poeta vasco tenga su cumplimiento en esta Cátedra de lengua vasca que hoy inicia su andadura.

He dicho.

L. Villasante

EN LA PRESENTACION DE D. RODOLFO BOZAS URRUTIA

Rodolfo Bozas-Urrutia, nació en san Sebastián, el 19 de noviembre de 1913. Hijo del periodista renteriano Evaristo Bozas Urrutia, director de "El País Vasco" de San Sebastián, y autor del libro **Andanzas u mudanzas de mi pueblo.** Fué criado en Astigarraga, barrio de la periféria de la capital guipuzcoana, pero tuvo que marchar con su familia muy de niño al Uruguay, donde olvidó su lengua nativa.

Comenzó en Buenos Aires sus estudios de Filosofía y Letras, que los abandonó para dedicarse a la música. Entre los años 1935 y 1943 dió varios conciertos de piano en Sud-América y en Cataluña. Estudió el canto con el tenor Canalda y el barítono Aguirresarobe. Actualmente es organista titular de Santa María de la Cabeza, de Madrid.

En 1937 sintió el anhelo de recuperar la lengua materna. Trasladado a Barcelona, los azares de la guerra y la postguerra le impidieron continuar sus estudios eúskaros, pero a partir de 1942 se entregó a ellos de una manera constante. Es autodidacta del vascuence. sus maestros han sido los libros de Zabala-Arana, Arrigaray, López-Mendizabal, Azkue y Zamarripa principalmente.

Tiene preferencia por las traducciones. Sus trabajos han aparecido en "Euskera" y en el Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País, en castellano, con temas de lexicografía y de bibliografía sobre todo. En "Egan", "Jakin" y "Zeruko Argia" ha publicado trabajos originales en vascuence y traducciones en ésta lengua.

Ha traducido del italiano a Boccaccio, De Amicis, Guareschi; del francés a J. Vinson, J. Verne y George Duhamel del castellano, a Muedra, A. Cuyás, a su propio padre Evaristo, I. Fagoaga, Pelay Orozco, etc.; del catalán a R. Llull. Algunos de estos trabajos están inéditos.

Hace diez años publicó en "Euskera", órgano de la Academia de la Lengua Vasca, su interesante trabajo "Contribución al diccionario vasco", con palabras recogidas en Arano ("Euskera", VIII-IX, 1963-64, pp. 213/221).

En la antología titulada **Hegatsez**, compuesta con muestras de prosistas contemporáneos en lengua vasca, libro de lectura publicado en 1971, se incluye una bella narración del señor Bozas-Urrutia, "Gamelua", el camello (Hegatsez,pp. 111/118), donde se describe con magistral estilo la naturaleza, vida y costumbres de éste animal.

Recientemente, en la obra enciclopédica sobre cultura vasca, **Lur eta gizon, Euskal Herria** se publica "Euskal-kirolak", deportes populares vascos (pp. 199/233 del aludido libro), que, además de logrado estilo como escritor en vascuence, muestra sus profundos conocimientos de los deportes tradicionales del país.

Estas citas en libros antológicos del país vasco, de trabajos escritos en euskera, ponen de manifiesto el dominio alcanzado por Bozas-Urrutia en las letras éuskaras. Pero a ésto hemos de unir sus dotes de investigador.

Y su residencia en Madrid no ha transcurrido estéril, pues ha sabido aprovechar su tiempo libre para escudriñar en archivos y bibliotecas, y sus frutos hemos visto reseñados en el Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País. Uno de sus descubrimientos, en la Biblioteca Nacional, fué la localización de una edición desconocida de la **Doctrina** en vascuence de Materre, y que hoy constituye el único ejemplar que se conoce de una quinta edición en 1704 en Bayona (la primera edición se hizo en 1617, y por ésta temprana fecha guarda su interés para los estudios lingüísticos). El trabajo de investigación se puede leer en el mencionado Boletín de la R.S.V.A.P. (XXIV, 1968, pp. 191/205).

En 1970, con motivo del centenario de la primera novela en vascuence, **Atheka gaitzeko oihartzunak** (Los ecos del Paso de Roldán) de L.B. Dasconaguerre, se ocupó de la reimpresión con traducción al castellano, revisión cotejada con la edición príncipe, a la que además de traducción le hizo un prólogo, notas, léxico y estudio como apéndice. Anteriormente habia mostrado gran cariño por ésta novela costumbrista y en 1967 tradujo del francés al vascuence la historia de la misma de J. Vinson ("Egan", vol. XXVI, 1967, pp. 69/82), historia que dos años más tarde puso en versión castellana y fué publicada en el Boletín de la R.S.V.A.P. (año XXV, 1969, pp. 557/574).

Sus meritorios trabajos le han hecho acreedor de los títulos de Socio de número de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País y miembro correspondiente de la Academia de la Lengua Vasca.

Referente a la laboriosidad de R. Bozas-Urrutia, recordaré al traductor de **Atheka gaitzeko oihartzunak**, a mi entrañable amigo Rodolfo, aquel párrafo de Dasconaguerre en la primera novela en vascuence: "Una sola cosa sobrevive al hombre: el recuerdo del bien que hizo en este mundo; ese recuerdo se transmite de generación en generación, siguiendo la rápida carrera de ese tiempo despiadado que sacrifica todo lo demás".

Hace podo tiempo hemos leído otro trabajo suyo de investigación, en torno a "Francisco Amoros y el antiguo juego de pelota" (Boletín de la R.S.V.A.P., año XXIX, 1973, pp. 419/532, y que continuará).

Y actualmente trabaja en la preparación de un amplia y bien docu-

mentada historia del juego de pelota, con la colaboración de Luis Bombín, Secretario general de la Federación Internacional de Pelota Vasca.

La presencia del eúskara en el Ateneo debe significar una apertura de intercomunicación; sin duda, muy provechosa para todos. Recordemos a don Ramón Menéndez Pidal, que con su autorizada voz dijo: "No hay documento histórico más venerable que este documento vivo, esta lengua conservada sobre este territorio desde época incalculable,..., la importancia de esta lengua, sin cuyo estudio profundo jamás podrán ser revelados del todo los fundamentos y los primitivos derroteros de la civilización peninsular, ni podrá ésta ser esencialmente comprendida."

Esta docta institución ha encomendado su misión eúskara en muy buenas manos, y es de esperar que esta aula que hoy se abre para cuantos deseen participar en ella, tendrá la oportunidad de tomar contacto fraternal a través de los lazos culturales y espirituales con la lengua milenaria; y yo al igual que el mismo Bozas-Urrutia en el prólogo a la novela de Dasconaguerre, al dirigirse a los lectores, haciendo mias aquellas palabras, diré a mi vez, que los "ecos dormidos despertaran para tí, y quizá —yo así lo deseo— alcanzando tu corazón, te harán sentir, si eres vasco, la agri-dulce añoranza del pasado de tu pueblo; y si no lo eres, el vehemente deseo de conocerlo mejor y de penetrar en su espíritu. "Ese espíritu que va unido a la lengua y que en este solemne acto reitera los anhelos del poeta Lizardi:

Baina nik, hizkuntza larrekoa,
nahi haunat ere noranahikoa:
jakite-egoek igoa;
soina zahar, berri gogoa;
azal orizta, muin betirakoa.

"Pero yo, habla campestre, quierote para todo; que las alas del saber te eleven; viejo el cuerpo, nuevo el espíritu; bajo la piel amarillenta, fibra de eternidad".

J. S. Martin

ATENEO DE MADRID. Apertura del Curso. 7-X-1974

Después de la exposición hecha por el digno Presidente de nuestra Academia Vasca P. Luis Villasante Cortabitarte, queda suficientemente definida la tarea que ésta Aula de cultura vasca pretende llevar a cabo a lo largo del curso académico (ateneista), en lo que respecta a difundir el conocimiento de nuestra milenaria lengua, y a las grandes posibilidades que el funcionamiento de aquella nos ofrece. No dudamos que nuestra flamante Aula podrá llegar a ocupar un lugar destacado dentro de la labor similar que otras entidades de tipo semejante desarrollan en diversos lugares de Europa y de América en favor de los vàlotres más relevantes de nuestra ancestral cultura.

Los más destacados investigadores irán turnándose ante esta mesa para explanar los aspectos más interesantes y dignos de conocer dentro de su particular disciplina. La literatura vasca en general; los problemas que suscita la conservación de la lengua misma, los esfuerzos que se hacen para su unificación con vistas al mejor entendimiento mutuo de los vascos; y también estudios de dialectología, de geografía lingüística, de historia del idioma, poesía popular y poesía culta, más otros temas que sería prolijo enumerar aquí.

Pero naturalmente este es sólo un fragmento, aunque muy importante desde luego, del cuadro general. No sólo el estudio teórico del vascuence ocupará nuestra atención. Deseamos igualmente fomentar en todo lo posible el conocimiento práctico del euskera, para lo cual se impartirán clases a cuantos manifiesten interés en ello. Procuraremos atender los diversos aspectos de esa enseñanza dando no sólo lecciones a los principiantes, sino también a los que, sabiendo hablar en vasco deseen hacerse prácticos en su lectura y en su escritura. Opinamos que hoy día se escriben en nuestra lengua y sobre multitud de materias, numerosas obras que presentan el suficiente interés como para estimular el deseo de leerlas

y apreciarlas. Conseguir esto, es decir, que llegue un vasco parlante e iletrado en euskera a dominar su lectura, puedo asegurar que es cosa de poco tiempo y pequeño esfuerzo, ya que posee lo fundamental, que es el conocimiento práctico del idioma. Un poco de buena voluntad basta.

Igualmente, para los ya iniciados, se darán clases de historia de la literatura vasca, crítica literaria, análisis de textos clásicos, etc. Contamos para todo esto con la colaboración de amigos competentes y bien dispuestos, al frente de los cuales hemos puesto a D. Juan Ramón Larrache, joven vasco-navarro tan idóneo como entusiasta. Deseamos contribuir con nuestra modesta aportación a que el euskera llegue a ser, para los vascos que lo conocen pero que con demasiada frecuencia dan la impresión de que lo ignoran, algo más que el símbolo sentimental de una raza decadente, algo más que un vehículo de expresión, circunscrita, pongamos por caso, a alguna misa dominical, con los consabidos adioses en la lengua vernácula, para arrinconarla a continuación hasta el siguiente Oficio divino, como si su empleo sólo fuera parte de un rito, o el pretexto comodo para dar público testimonio de nuestra vasquía circunstancial.

Es evidente que para conseguir esto necesitamos del apoyo caluroso de todos los vascos. Aquellos que, por circunstancias personales no se deciden a abordar el estudio de nuestro idioma ni a completar el conocimiento que de ella puedan ya poseer, pueden con todo colaborar eficazmente dentro de sus posibilidades en la noble tarea que hoy emprendemos, y que pretende ser un eco, lo más fiel posible, de lo que en ese sentido se está llevando a efecto en la misma Vasconia, con acogida cada vez más firme de las clases ilustradas.

Ya que hablamos de las clases de euskera me creo en el deber de dar desde quí (públicamente) las gracias a la Presidencia del Ateneo por la deferencia que ha tenido de permitirme la desiganción del Sr. Larrache como profesor de vascuence. Se ha debido ello al deseo de evitarme el penoso esfuerzo físico que en estos momentos representaria para mi el tener que hacerme cargo personalmente de las clases. Esto, naturalmente, en tanto duren mis impedimentos actuales, que Dios quiera no se prolonguen excesivamente. Pero esto no debe preocupar a nadie; las clases se hallarán en buenas manos, y es muy probable que los alumnos no pier-

dan nada con mi temporal marginamiento, antes al contrario, estoy seguro de que saldrán ganando. Pero, sea como sea, marginamiento no significa inhibición ni retracción, y por otra parte, la Academia de la Lengua Vasca, nuestra Euskaltzaindi, se hallará constantemente detrás de nosotros para respaldarnos, asesorarnos y resolvernos cuantos problemas técnicos se nos presenten. Ella es nuestra máxima autoridad idiomática y con su guía segura el camino se nos hará más fácil a los otros.

En fin, todo cuanto vengo diciendo se refiere al euskera y a su temática. Este es punto que, aunque en principio afecte a todos los vascos y que también conmueve a una grán mayoría de ellos, no siempre interesa directamente a todos, quiero decir que interesa particularmente a los vascos de habla vasca, a los euskaldunes. Será pues, conveniente aclarar que, pese a la denominación aparentemente exclusivista de nuestra Aula, en esta no nos limitaremos a las conferencias sobre lengua y literatura, por más que éstas gocen de nuestra preferencia. Las manifestaciones más destacadas de la cultura vasca serán tambien abordadas, cada cual en su momento oportuno. Tampoco ahora voy a entrar en detalles, pero citaré algunos de ellos: la tierra vasca, su geografía, su historia, su etnia, su prehistoria, su historia, sus antiguas instituciones, su arte, su música, sus deportes, sus modos de vida pasados y actuales...su participación en las grandes empresas interiores y exteriores... en fín, todos los elementos que constituyen su personalidad. También para esta actividad contamos con la colaboración de los más idóneos especialistas en cada rama de ese saber.

Me creo en el deber de insistir sobre la gran importancia que tiene para esta Aula y para el éxito de sus ulteriores actividades, la presencia y el apoyo de los vascos en estos actos culturales. Que asistan cada vez que les sea posible, he aquí nuestro ruego, y que difundan y hagan conocer su existencia en los medios sociales que ellos frecuentan.

Y ahora una breve reflexión de tipo práctico. Deseo que sepan que, si para este primer acto de nuestro ciclo no han sido cursadas tarjetas de invitación, ello se ha debido a simples dificultades materiales de última hora. Pero en lo sucesivo la recibiréan todos aquellos que lo deseen. Bastará para ello que nos faciliten sus nombres y direcciones. Y esto

pueden hacerlo, bien personalmente en la Secretaría de este Ateneo, bien a través de los teléfonos que se les indican en los carteles colocados a la entrada. Muchos son ya los que conocemos, pero muchos más aún los que desconocemos. Ante la dificultad de llegar hasta todos, les rogamos sean ellos quienes se acerquen a nosotros, para lograr así una mayor eficacia.

Y nada más, sino dar las gracias más sinceras a todos por su asistencia, que confiamos en ver repetida una y otra vez, un lunes y otro -pues el lunes es precisamente el día señalado para nuestros actos, y la hora aproximadamente la de hoy.

Y como sé que se hallan entre vosotros un buen número de vasco-parlantes voy a pediros, a cuantos no lo seáis, que me permitais dirigirles un saludo particular en nuestro entrañable euskera, que para casos como éste me parece el más adecuado para recalcar y remachar los principales conceptos vertidos hasta este momento.

R. Bozas-Urrutia

OINATIKO ARRAZOLA ETXEKO MANUSKRITOAK

1.- "Errectore Jaun baten instruccinuac ezconduric vizi dan Adisquide batentzat bere eta bere Familiaren gobiernu oneraco Jaungoicoaren Legue santubagaz conforme".
Eskuz idatzitako 478 orrialde (239 folio),
220 × 140 mm.
larruzko azalez ornitua.

2.- "Osaba baten instruccinuac bere Illoba Ezcondu eta Necazari batentzat bere eta bere Familiaren gobiernu oneraco Jaungoicoaren Legue santubagaz conforme".
Eskuz idatzitako 440 orrialde (220 folio),
220 × 140 mm.,
larruzko azalez ornituta.

Liburu hauek Oinatiko Olabarrieta hauzoko Arrazola etxean aurkitzen diren bi manuskrito ditugu. Orain dela berrogei ta hamar bat urte gorago aipatutako etxe horretan Aita J.A. Lizarraldek kausitu zituen. Gerra aurretik Leonardo Zabaleta apaizaren eskuetara iritsi ziren; harrez gero, euskal idazle eta ikertzaile batzuk idaztiok ezagutu ahal izan dute. Gerratea baino lehentxoago Aita Olabide zenak — Arantzazun bizi izan zenean — erabili zituela badakigu. Gerra ostean esku-izkribu horietako bat Donostiaratu egin zitzaigun, Zabaletak Fausto Arozenari utzi bait zion. Erretorearena ibili zen Donostia aldetik, eta Mitxelenak orduan aztertuko zuen seguraski, Errenderiakoak bere "Fonética Histórica Vasca" liburuan, Erretorearena sarritan aipatu arren, Osabarenaren berririk ez bait digu ematen. Zabaleta hil ondoren, manuskritoen jabeak — Luis Arrazola jaunak — biak bereganatu egin zituen, eta beste behin edo bakarrik atera omen ziren haren etxetik. Aita Villasantek ere bat eskuratu zuen, bainan, berak esan zigunez, ia berehala itzuli behar izan zion Arrazola jaunari.

Ihaz Oinatiko Herri Liburutegiko batzordeak Arrazola jaunari eskabide bat egin zion, manuskritoen fotokopia batzuk ateratzeko baimena eman zezan. Baimena lortu ondoren, Lankide Aurrezkiak dohan atera zituen fotokopiak eta batzordeak Euskaltzaindiko eta Arantzazuko liburutegietara bidali zituen fotokopiatutako liburuok, beste bi Oinatiko Herri Liburutegian gordeaz.

Oraindik ezin da idazti hauei buruz berri zehatzik eman, ez bait dakarte egilearen izenik, non idatzi edo noiz burutu zirenik. Dena den, gehienbat Oinatiko euskalkia darabilenez gero, egilea oinatiarra izanen zen edo Oinatin bizi izan zena behintzat. Eliza gizona bezala agertzen da beti eta ikasketak Oinatin egin zituela aitortzen du. Beraz, apaiz edo praileren bat dugu egile ezezagunori. Bestalde Frantziako Iraultza gertatu berri den gauza bat legez aipatzen da; hortik XVIII-garren mendearen ondarrean edo XIX-garrenaren hasieran idatzi zirela pentsa dezakegu. Halere, biak batera osatutakoak ala bata bestea baino zaharragoa ote den aratu beharko litzateke, liburuetan zehar azaltzen diren beste xehetasun batzuk horrelakorik adierazten dute eta.

Gai berdintsuz osaturik daude liburu biak. Gehienetan, ordea, batak dakarrena ez dator hitzez hitz bestean. Hildo nagusi bati jarraituz, tajukera desberdin xamarra dute; idazkeraz ere bata bestea baino txukunago moldatuta dagoela esanen genuke. Gaia, jakina, erlijioari buruzkoa dugu: "Religinua", "Martirio Santuba", "Guizonaren azquen Fina", "Animaco Etsaiac", "Diabruba", "Araguia", "Orazinua" eta antzeko gaiak darabilte liburu biak. Baina hainbeste orrialdeetatik beste zerbait ere atera daiteke: garai hartako ohiturak, sineskeriak, pentsamoldeak, mundu-ikuskera eta abar. Hizkuntza aldetik ere esku-izkribuok garrantzi haundikoak direla esan behar, Oinati inguruko euskalkian tajutu diren zaharrenak eta luzeenak direlako. Beraz, Arrazolako manuskrito hauetan euskal teologo, etnologo, hizkuntzalari, soziologo eta historiagileek harrobi bikaina dutela uste dugu.

J.E.

J. Elorza

UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

Udako Euskal Ikastaroak, guk antolatu eta egin ditugun eran, Israeleko eskoletan erabiltzen duten hezkuntzarekin badute zerikusirik.

Lehen Ikastaroa Israeleko eskoletako eta "kibutzin" delakoetako bizitzaren esperientziak kontutan harturik, euskara bizia, begi-belarrietatik ikasia irakasteko bidearen bila abiatu zen.

Asmo hau aspaldikoa zen talde batzuetan, baina azkenez Madriden eta Salamancan ikasten ari ziren euskal ikasle batzuek bereganatu zuten.

Harreman ugari izan zituzten bai batzuekin eta bai besteekin. Bizkaia aldean begi onez ikusten zen asmo honen helburua, baina azkenik, eta toki egoki baten faltagatik, ezin zen egin Bizkaian EUSKERAZALEAK elkartearen babespean.

Denboraren premiak eraginik, Aita Pasiotarrek Gabirian (Gipuzkoan) zuten ikastetxe zaharra jo zuten egokitzat. Probintziz aldatzean, beste elkarte batzuengana jo behar izan zuten, eta Euskaltzaindiarengana joan. Euskaltzaindiak bere babespen eta laguntza guztia eskaini zien.

Baimenak lortzeko eragozpen ugari izan zituzten eta baita ere pentsatu ezingo zutela ikastaroa aurrera atera. Baina Euskaltzaindiko Idazkari zen Juan San Martin jaunaren laguntza trebeari eta antolatzaileek Ikastaroa egiteko zedukaten gogo biziari esker, ikasle haien lehen asmo hura egia bihurtu zen.

1968 urteko UDA

Lehen ikastaro hau Uztailaren 15ean hasi zen. Eskolak, berriz, 17an. Ikastaroa Agorrilaren 15erarte egiteko izan ziren, baina hil horren 3an Gipuzkoako Gobernadoreak telegrama bat bidali zien ikastaroa amai araziaz. Garai hartan Gipuzkoako probintzia "Ley de excepción" delakoaren agindupean baitzegoen.

Ikastaro honek, 1968.eko Udan gaude, 45 ikasle izan zituen. Hauen artean maila ezberdinak zeudenez, hiru taldetan banatu ziren. Euskara ondoen menderatzen zutenekin MONITORES talde bat sortu zen. Arduradun hauek, heuren euskara landu eta behe mailakoei laguntzen aritu ziren.

Igandez eta jaiez ez zuten eskolarik. Etxeko lanak eginez gero, inguruetako herrietara irtetzen ziren bertakoekin hitz egiteko asmoz.

Eskoletan P. Altunaren EUSKERA HIRE LAGUNA liburua erabili zuten, aditza, atzizkiak eta irakurgaiak beste liburu batzuetatik harturik.

Egungo euskal abestiak ere lagungarri izan ziren ikastaro hartan, batez ere ahozkatzen irakasteko eta belarria hizkuntza berriaren joskera egokitzeko.

Irakasleak

Ikastaro honetan: Xabier Mendiguren, Jose Lizarralde eta Jon Iraola, izan ziren irakasle.

IKASTAROAREN ONDORIOAK

Ikastaroak bere akatsak izan zituen, baina hala eta guztiz ere, ikasle haien asmoak bete eta xitu egin zituen. Ikastaro honetako esperientziaz baliaturik urrengo urtekoa hobeto eratzeko aukera izan zuten.

Begi bistan dago, halako Ikastaroak direla egun euskara bizia ikasteko biderik labur eta onena. Ikastaro hauetako ikasle batzuk euskara nola ikasi

zuten ikusiz, ez dago honetaz zalantzarik.

Ikastaro hauk egoki egokiak dira aldez aurretik -ikastaro aurretik- euskara dakitenentzat, batez ere, euskara nahiko dakitenentzat, baina hitz egiteko erraztasunik ez dutenentzat. Bestalde, behar beharrezko ikusten da era honetako ikastaroetara ez dutela etorri behar ezer ez dakitenek, hau da, euskara hitz egiteko gai ez direnak, ikastaroan erdaraz egitea debekaturik baitago.

Diru arloan, nahiko gaizki atera ziren. Eskerrak Iruineko Foru Diputazioaren "Institución Principe de Viana-ren 10.000 pezetatako laguntzari, ordaindu zituzten egindako gastuak. Ikasle bakoitzak 1.500 pezeta ordaindu zuen.

1969 UDA

Aurreko urteko Ikastaroaren ondorio onuragarriak ikusi ondoren, Madrideko ikasleak berriro ere, hasi ziren bigarren Ikastaroa eratzen.

Iragarki bat atera zuten ikastaroaren zenbait berri eta aldakuntza agertuz. Iragarki honetan, argi eta garbi ikusten zen aurreko urteko Ikastaroaren eraginagatik edo, hiru maila ezberdin eskaini zirela, ezer ezer ez dakitenei ateak itxirik:

1)-zerbait dakitenak
2)-nahiko gramatika dakitenak
3)-nahiko ongi mintzatzen direnak

Ikastaro honetan bi euskalki erakutsi ziren:

-Bizkaiera
-Giputza

Ikastaro Uztailaren 14ean hasi zen, Agorrillaren 23an amaitzeko.

Aukeraturiko tokiak: Urretxu, Markina eta Leitze, baina bi azken hauetan ezin izan egin, agintariek ez baitzuten baimenik eman. Horregatik Markinan egiteko zen Ikastaroa Eubako Aita Pasiotarren ikastetxean egin zen eta Nafarroan eguneriko eskolak eratu, nolabait ikastaroaren hutsunea betetzeko. Eskola hauk Iruineko REAL SOCIEDAD DE AMIGOS DEL PAIS elkartekoek utzitako ikasgeletan eman ziren.

URRETXU

Ikastaro honetan 60 bat ikasle izan ziren; irakasleak berriz, bost: bi andereño eta hiru irakasle. Irakasle hauen izenak, tamalez ezin izan ditugu argitu eta badirudi galdu bide direla.

Ikastaroko ikasleen artean, Unibertsitateko ikasle asko nabarmentzen zen. Euskara aldetik, iragarkietan eskatzen ziren mailak bete erazi ziren. Ifarraldeko bostpasei ikasle izan ziren Ikastaro honetan.

Erabilitako metodoa, P. Altunaren EUSKERA HIRE LAGUNA, I eta II, irakurgai, idazlan eta besteekin osaturik.

URRETXUKO IKASTAROAREN ONDORIOAK

Ikastaro honetatik bi ondorio atera ziren:

1.-Ikastaro mota hauk direla euskara bizia ikasteko erarik onena.
2.-Ikastaro mota hauk eratzeko diru asko behar dela eta edo laguntza batzuk lortzen dira edo, bestela, ikasleek asko ordaindu beharko dutela.

Ikastaroak ahalik eta jende gehienari hedatzeko asmotan, eta txarto eraturik edo eratu gabe gelditzen den hainbat eginbehar zuzentzeko, eratzaile trebe eta langileen beharrizana dago eta baita ere, irakasle gertu eta prestuena. Baina guzti hau egiteko, diru asko behar, eta aurrera jarraitzeko akats hau konpondu behar...

EUBA

Ikastaroa hau Markinan egitekoa izan zen baina gorago aipaturiko arozoegatik, ikasle guztiak Eubako Aita Pasiotarren ikastetxera abiatu ziren Uztailaren 13an.

Uztailaren 14ean hasi zen ikastaroa ondoko egitarau honekin:

7,30	jeiki	15,30	eskolak prestatu
8,00	eskolak prestatu	16,40	eskola
9,00	gozaria	18,00	atsedenaldia
10,00	eskola	19,00	eskola
11,45	eskola	20,30	afaria
13,00	bazkaria	22,00	kultur gaiak

Bi talde egin ziren; bata Patxi Elguezabal irakasle zuela eta bestea Kepa Mallea zuelarik.

Erabilitako metodoa P. Altunaren EUSKERA HIRE LAGUNA liburua.

EUBAKO IKASTAROAREN ONDORIOAK

Ikasleen artean maila ezberdinak zeudelarik bi talde sortu ziren. Bi talde hauek ia ia bizitza ezberdina egin zuten. Hala ere, gehien zekitenek beste taldekoei laguntzen eginahalak egin zituzten.

Hitzaldiren batzuk ere pentsaturik zeuden baina gorago aipaturiko arrazoina zela eta ez zen aurrera eraman idea hau.

Egituraua nahiko betea eta lotua zenez gero, ikastaroaren azkenaldira jendea nekatu nekaturik agertzen zen. Zer esanik ez irakasleak, heuren gain baitzegoen eskolak eta arazo guztiak konpontzeko ardura.

Beste ikastaroan bezalatsu, hemen ere ekonomi arazoak larri eta hestu jarri zituen irakasle eta ikasleak.

1970ko UDA

Aurreko bi Udako Euskal Ikastaroak izan zuten erantzunaz eta ikasle jendea euskalduntzeko garrantzi handiaz oharturik, eratzaileek hirugarrenez ekin zioten eratzeari.

Horretarako 1970ko Ekainaren 13an Urretxun elkartu ondoren, ikastaro bat ondo ateratzeko behar beharrezko diren pedagogia, ekonomia, eta erakundea aztertu zituzten, eta pedagogia hobetu zen neurrian, ekonomi arazoa ere hobetu beharra zegoela ikusi zuten. Hau honela izanik, erakunde ofizialei eta partikularrei diru laguntza eskatzea erabaki ondoren, ikasle bakoitzak eman behar zuena 5.000 pezetatan jarri zuten.

Aurrera joan baino lehen, aipa dezagun diru laguntza eskari hau CAJA DE AHORROS Provincial de Guipúzkoa, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián eta Caja Laboral Popular-ei bidali zitzaiela, baina CAJA LABORAL POPULAR-ek bakarrik erantzun zuen, 25.000 pezetatako laguntza bidaliz.

Uda honetan hiru Ikastaro egin ziren:

1.-Markina.....47 ikasle (4 talde) Bizkaieraz
2.-Oinati..... 23 ikasle (2 talde) Giputzez
3.-Leitze..... 30 ikasle

Hirugarren Ikastaroa-Leitzen egiteko zena - hainbat gora behera gertatu ondoren Lamiarrita-ra jo beharra izan zuten, eta azkenez han bertan egin zen.

Ikastaro hauetako irakasleak: Kepa Mallea, Patxi Elguezabal, David Zabala, Juanjo Zearreta, Belen Oleagordia, Juanjo Uranga.

Ikastaro hauetan, euskaltzain batzuen bisita izan genuen eta euskararen inguruko gaiez mintzatu zitzaizkigun.

1971ko UDA

Uda honetako Ikastaroak egiteko, Zizur Gutia-ko VERBO DIVINO ikastetxea eta Leitze-ko ESCUELA AGRARIA delakoak aukeratu zituzten eratzaileek.

Uda honetan hasten da Bizkaiko Alfabetatze Batzordea Ikastaro hauen eratze ardura bere gain hartzen.

Aukeratu esan dugu, baina hau ez da egia osoa. Aukeratu beharra izan genuen zeren eta 50 ikastetxe baino gehiagotara joan baiginen ate joka, batez ere, fraile eta monja ikastetxeetara baina alferrik. Azkenez, VERBO DIVINOkoei eskerrak Ikastaro hau aurrera atera genuen. Bihoazkie lerro hauetan eratzaile, ikasle eta irakasleen partez, gure esker-onik zintzoenak eman ziguten laguntzagatik.

Aipatu dugun VERBO DIVINO ikastetxean 65 ikasle hartu zuten parte, 5 taldetan banaturik. Egunero 8 bat ordu eskola izan zuten, Patxi Elgezabal, Jose Bernardo Jauregi, Jose Ramon Tapia, Juan Ignacio Intxaurraga, Sabino Egileor eta Juanjo Zearreta irakasle zirelarik.

Ikastaro honetan bi euskaltzainen bisita izan genuen: Aingeru Irigaray jaun euskaltzaina eta Alfabetatze Batzordeko Burua dena, eta Jose Luis Lizundia Euskaltzaindiko Idazkariordea dena.

Ikastaro honetara etortzeko ikasle bakoitzak 5.000 pezeta ordaindu behar izan zuen. Diru hau asko izanik Ikastaroa amaitzean oso pozik zeunden ikasleak bai ikasi zutenagatik, bai eta oso toki on, garbi eta paketsua zelako VERBO DIVINO ikastetxe berria.

Bigarren Ikastaroa egiteko, gorago esan bezala, Leitzeko ESCUELA AGRARIA delakoa aukeratu genuen eratzaileek. Horretarako Iruinako Foru Diputazioko "Principe de Viana"ko Diputatu arduradunari eskari bat egin zitzaion Ikastaroan jarraikiko genuen egitaraua bidaliz. Diputaziotik baitza jaso ondoren, ikasleak Leitzera abiatu ziren, baina azken orduko ezbehar batzuen erruz, ezin zen egin ikastaroa Leitzen.

Zer egin?. Harantz eta honantz ibili ondoren, Donostiako SEMINARIO an lortu genuen tokia. Beraz, Agorrilako Ikastaro hau Donostian egin

genuen, Agorrilaren 2an hasi eta 30ean bukatuz.

Ikastaro honetan 57 ikasle izan ziren, 6 taldetan banaturik. Irakasleak: Patxi Elgezabal,-Jose Ramon Tapia, Rikardo Badiola, Juan Luis Goikoetxea, Aniceto Ajuriagogeaskoa, Juanjo Zearreta, Sabino Egileor, Lola Ingelmo eta beste bi andereño: Mari Isabel eta Mª Carmen.

Aipatu beharrezkoa da, bai eta ere, uda honetan 27 neska MAGISTERIO tituludunak izan zirela euskara ikasten edo hobetzen, honez gero ikastoletan zabaldurik irakasten arituko diratekenak.

1972ko UDA

Aurreko urteotan bezala, Udako Euskal Ikastaroak eratu genituen. Baina uda honetan, aurreko ikastaroetako ikasleen ideiak eta eskariak kontutan harturik, bi eratako Ikastaroak antola genituen:

-Barrukoa edo Internado
-Eskolak edo Externado.

Otsailan hasi ginen ikastaro hauk eratzen. Horretarako larunbatero elkartzen ginen Euskaltzaindian eta ere honetako Ikastaro bat ondo ateratzeko behar diren alderdi guztiak banan banan aztertu ondoren eginahalak egin genituen ondo eratzen.

Tokiaren arazorik ez genedukan aurreko urtetik, Irailetik, hitza eman baikenuen VERBO DIVINO ikastetxeko nagusiari, uda honetan ere ikastetxe hortantxe emanen genuela ikastaroa.

Irakaskintza ere hobetu nahiean, lanean aritu ginen Otsailaren haseratik, eta lan asko zela ikusirik, irakasle taldeak Aste Santu osoa eman zuen elkarturik, ikastarorako testoak prestatzen.

Ikastaroen iragarkia atera genuenean, bi eratako Ikastaroak aurkezten genituen:

ESKOLAK edo Externado

A.-**Uztaila** 5etik.....**Agorrila** 5era.
Arratsaldez.....4etatik 7etara.
Ordaina.....2.500 pezeta.

B.-**Agorrila** 6tik.....31ra.
Arratsaldez.....7etatik 10etara
Ordaina.....1.500 pezeta.

Ikastaro hauk emateko Begoñatik Aita Karmeldarrek utzitako tokiak erabili genituen.

INTÉRNADO

Internado hauk Zizur Guttiago "VERBO DIVINO" ikastetxean egitea programatu zen. Uztailaren 5etik Agorrilaren 5era. lehendabizikoa. Eta Ikastaro hau osoa egin genuen.

Bigarrena, ordea, Nafarroako Gobernadoreak gutun bat bidali zien "VERBO DIVINO" ikastetzeko fraideei jendea edukitzeko ostatu baimenik ez zutela esanez. Aitzaki horrekin ezin izan genuen Agorrileko ikastaroa bertan egin.

Baina aipatu beharra da, egia baita, Euskaltzaindiak ahalengin guztiak egin zituen ikastaro hau aurrera ateratzeko. Horretarako Idazkari-ordeak Iruinako Foru Diputaziora jo zuen, eta bertako Deputatu zen eta den Irazoki jaunerekin mintzatu zen. Geroago Gobernadore ordezko zegoen jaunarekin ere mintzatu zen, baina ez zen aurrera atera gure lehen asmo hura.

Denbora aurrera zihoala eta Iruinekoa beltz ikusirik, beste tokiren baten bila aritu ginen. Azkenik, Bilboko COLEGIO SANTIAGO APOSTOLeko zuzendariak eman zigun tokia eta hantxe bertan eratu Agorrilako gure Barruko Ikastaroa edo Internado, izango zena, argitarau honekin:

9 - 10 ekola	16 - 17 eskola
10,15 - 11,30 eskola	17,30 - 19 eskola
12 - 13 eskola	

Ikastaro hau gure iragarkietan aurkezten zen bezala, Agorrilaren 10ean hasi genuen hasera hitzaldia Jose Luis Lizundia euskaltzain laguntzaile eta Idazkariordea denak emanaz; eta amaiera hitzaldia Alfonso Irigoyen jaun euskaltzainak.

Bi ikastaro hauetan irakasle izan zirenak: Juan Luis Goikoetxea, Jesus Legarreta, Lola Ingelmo, Juanjo Zearreta, Rikardo Badiola, Sabino Egileor, Juan Ignacio Intxaurraga, Gregorio Martikorena.

Uda honetako ikasleei buruz zenbait zehaztasun gehiago eman nahirik, hona hemen ondoko koadroak:

UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

	UZTAILA		AGORRILA		ORO
	Iruinea	Bilbo	Bilbo	Bilbo	
Gizonezkoak	21	10	15	22	68
Emakumezkoak	28	11	35	24	98
OROTARA	49	21	50	46	166

	UZTAILA				*AGORRILA*				
	Iruinea		*Bilbo*		*Bilbo*		*Bilbo*		*ORO*
Urteak	*Giz.*	*Emak.*	*Giz.*	*Emak.*	*Giz.*	*Emak.*	*Giz.*	*Emak*	
20	*3*	*6*	*–*	*2*	*1*	*6*	*1*	*1*	*20*
20 - 25	*14*	*11*	*1*	*8*	*5*	*15*	*4*	*12*	*70*
25 - 30	*3*	*7*	*3*	*–*	*2*	*5*	*13*	*4*	*37*
30 - 35	*–*	*–*	*4*	*–*	*5*	*2*	*1*	*4*	*16*
35 - 40	*1*	*3*	*1*	*–*	*1*	*1*	*3*	*3*	*13*
40 - 50	*–*	*1*	*–*	*1*	*–*	*4*	*–*	*–*	*6*
50	*–*	*–*	*1*	*–*	*–*	*2*	*–*	*–*	*4*
OROTA.	*21*	*28*	*10*	*11*	*15*	*35*	*22*	*24*	*166*

	UZTAILA				*AGORRILA*				
	Iruinea		*Bilbo*		*Bilbo*		*Bilbo*		*ORO*
	Giz	*Emak.*	*Giz.*	*Emak.*	*Giz.*	*Emak.*	*Giz.*	*Emak.*	
MINTZATU	*3*	*8*	*3*	*2*	*4*	*8*	*7*	*4*	*39*
Ulertu eta Zailtasunez Mintzatu	*10*	*10*	*4*	*1*	*6*	*12*	*9*	*11*	*63*
Zerbait ulertu eta ia ezer ez mintzatu	*9*	*9*	*3*	*8*	*6*	*14*	*6*	*9*	*64*
OROTARA	*22*	*27*	*10*	*11*	*16*	*34*	*22*	*24*	*166*

1973ko UDA

Uda honetan, aurreko urteko gora beherak oraindik ahantzi gabe genituelarik eta behingoz udako euskal Ikastaroak zihurtasun batera eraman nahiean, Bizkaiko Alfabetatze Batzordekoek eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultur Mintegiakoek eratu genuen Ikastaroa Deustuko Unibertsitateko ikasgeletan.

Bi eratako Ikastaroak izan ziren:

Uztaila

1 etik.....30era
Goizez.....etatik..... 13etara
Arratsaldez...4etatik.....7etara
Ordaina:.....2.750 pezeta

Agorrila

7tik.....31ra
Arratsaldez:..4 atik..... 8etara
Ordaina:.....2.500 pezeta.

Ikastaro hauetako ikasleak 132 izan ziren 10 taldetan banaturik. Irakasleak: Rikardo Badiola, Sabino Egileor, Juan Luis Goikoetxea, Juan Ignacio Intxaurraga, Jon Aurre, Xabier Oleaga, Juanjo Zearreta eta Joseba Tobar.

Ikasleei buruz zehaztazun gehiago emateko, hona hemen ondoko koadroak:

UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

	UZTAILA	AGORRILA	ORO
Gizonezkoak	32	21	53
Emakumezkoak	37	42	79
OROTARA	69	63	132

	UZTAILA		AGORRILA		
Urteak	Gizon	Emak.	Gizon	Emak.	ORO
20	7	11	6	13	37
20 - 25	13	12	4	19	48
25 - 30	6	5	8	5	24
30 - 35	7	2	1	1	11
35 - 40	–	2	2	1	5
40 - 50	1	1	1	1	4
50	–	2	–	1	3
OROTARA	34	35	22	41	132

	UZTAILA		AGORRILA		
	Gizon	Emak.	Gizon	Emak.	ORO
Hasi	4	12	2	12	30
Zerbait					
Ulertu	16	16	11	15	58
Ulertu eta					
zailtazunez	6	7	1	9	23
mintzatu					
Polliki					
mintzatu	6	2	7	6	21
OROTARA	32	37	21	42	132

1974ko UDA

Uda honetan ihaz bezala, Bizkaiko Alfabetatze Batzordekoek eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultur Mintegikoek antolaturik eman dira udako euskal Ikastaroak.

Aurton ere bi Ikastaro izan ditugu:

Uztaila

1tik.....30era
Arratsaldez... 4tik.....8,30era
Ordaina..... 3.500 pezeta

Agorrilla

5etik..... 31ra
Arratsaldez... 4etatik..... 8,30ra
Ordaina..... 3.500 pezeta

Aurtengo ikasleak 159 izan dira. Zehaztasun gehiago eman nahirik, hona hemen beste zenbait dato.

Gizonezkoak.....	86
Emakumezkoak.....	73
OROTARA.....	159

Urteak	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	OROTARA
20	20	19	39
20-25	30	29	59
25-30	21	19	40
30-35	4	3	7
35-40	5	1	6
40-50	6	2	8
50-—	—	—	—
OROTARA	86	73	159

Eta azkenik, ikasleak nola banatu ziren taldetan.

	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	OROTARA
IV Maila	11	9	20
III Maila	13	15	28
II Maila	30	24	55
I Maila	32	25	57
OROTARA	86	73	159

Ohar ttiki bat koadro honi. Lehen maila esatean ezerezetik hasten direnak esan nahi dugu. Beste mailak ikastaroko jakinduriaren arauera egin behar banaketa izaten dira.

J. J. Zearreta

"Guillaume Eoghorre eta Louis Dassance euskaltzainak Iehendabizikoaren sarrera egunean"

HIL BERRIAK

JOANES CHABAGNO
(1881 — 1975)

1975eko apirilaren 11-an zendu zitzaikun Aita Joanes Chabagno euskaltzain-laguntzailea, Montbéton-eko apez xahartegian.

Baxenabartarra zen, Aldude - Xobroenean sortua 1881-eko abenduaren 10-ean.

Larresoroko Seminarioko ikasle ohia zen.

Ikasgoak bururatu zituen Paris-eko "Missions Etrangères" deitu lagundian.

1906-ean apeztu-eta Japoniarat joan zen missionest (1) gazteak ahaide-adizkideri egin adioak.

Tokyo-tik Aita Chabagno-k ez zuen Euskal-herria ahanzten. **Eskualdun ona** eta **Eskualduna** astekarietan asko berri ager-arazten zuen euskaraz bere mintzaira aberats eta garbian.

Iparreko euskal-herrietan eritasun gaixtoak gaztain-ondoak funditu zituelarik, harek igorri zituen Japoniako gaztain zailak hunarat hel-arazi hazitako, gaztaina ez zadin ondarra gal gure lurretan.

Zortzi urte Japonian iragan-eta, Paris-eko buruzagiek beren arterat bildu zituen, morala erakasle gisa, bai eta lagundiko sekretario jeneral gisa.

(1).- Urriaren 28-an. Etchepare jaun miriku zenak bere "Buruxketan" aipatu zituen haren lehen meza eguneko bazkari eta misionest.

Pariseko **Eskualzaleen Biltzarrak** euskararen erakasteko kursoak antolatu zituelarik, Aita Chabagno-k on hartu zuen maisu jartzea eta hainitz urtez jarraiki zen lan horri. Hortakotz ere Euskaltzaindiak laguntzale izendatu zuen, ikusirik nolako jakitate eta karrarekin ari zen bere sailean.

Xahartu-ta itzuli zen bere sortherrirat, hain maite zuen Aldude-Eznazu xokorat, eta han egon ibiltzeko on zena. Liburu eta paper zaharretan ikerka laket zuen, bereziki Kintu-ko eta Baigorriko eskualdeko ixtorioaz ezin asea eta non nahiri gogotik mintzo.

Indarrak juaitearekin, Tarn-eko Caponne departamendurat jo zuen, La Vill-Dieu du Temple herriaren ondoan bizitzeko, Montbeton-eko apez Xahartegian.

Han itzali da pollikiño, arta onez eta otoitzez inguratua.

Adinbatetakoek ez dute ahantziko apez eta euskalzale suhar hori.

P. Lafitte

MONS. IGNACIO LARRAÑAGA
ALDABA-KO OBISPOA (G.B.)

Larrañaga ta Lasafar Inazio Gotzai Jaun Agurgarria (G.B.), Aldabako elizatxo politean eortzi dute, Aralar-i begira bertako aldare nagusipean sartuta. Guk geienok gotzai agurgarri ezagutu degu. Abiño etzan beti obispo izandakoa. Aldabako Martin-motzaneko baserri ederrean jaio zan 1892-go Urria-ren 4-an. Apaiztu zan, berriz, 1919-go Apirilla-ren 10-an eta Riveri jaunak gotzai sagaratu zun 1950-go Garagarrilla-ren 25-an. Azkenik Ondarrabi-ko Kaputxinotarren lekaidetxean azken-arnasa eman du, joan dan Otsailla-ren 18-an. Jaunak berekin beza.

Ikasle ta irakasle Altsatsu-n, Lekaroz-en, Ondarrabi-n, e.a. ibillitako gizona. Oraindik praille gazte, Kaputxino-bizardun-sasoikoa zala, ain zuzen 36 urte zitula, 1926'an, China'runtz itsasoz zijoan misiolari. Eta bere ustez betiko zijoalarik, (emen utzirik guraso-senideak, jaiotetxe, sorterri, adiskide, oitura, Euskalerri e.a.) geroko orren berri eztakigu-ta, bere aitari itxasontzitik karta bat egin zion lau bertsotan. Ara emen lauak:

—I—

Agur, nere biotzeko
Aitatxo maitea,
Nere gogoaz noa,
Konzola zaitea.
Jainkoak, bada, nai du
Ni urez joatea...
Aita, zertarako da
Negar egitea?

—II—

Jaungoikoak deituta
Nintzala gaztea,
Aspaldi utzi zindudan
Naigabez betea.
Jainkoari zenion
Eman zuk semea.
Bera da nere Jabe...
Alaitu zaitea.

—III—

Agur, nik maite nuan
Euskaldun erria...
Agur nere senide...
Agur baserria...
Zuk emanak nituan,
Jainko maitatia,
Pozik Zuk eskatuta,
Damaitzut guztia

—IV—

Zuk ordaiñez betiko
Semetzat ar nazu.
Nere senide, aita,
Ta ama bakarra Zu.
Bakartasun aldian
Nere ondoan Zu;
Eriotzako orduan
Nitzaz errukitu.

Joan Bautista

GREGOIRE EPPHERRE (1929 - 1974)

Gregoire Eppherre, Euskaltzain laguntzailea, Gilen Eppherre jaun kalonje eta euskaltzainaren anaia zen.

Altzühürün sortua 1929-ko urtarrilaren 22-an, Mauleko ikastegian eta Baionako apezgaitegian eskolatua. 1952-ko ekainaren 29an apez egina. Ondoko irailaren 23-an Baionako "Saint Louis de Gunzague" ikastegirat izendatua. 1953-ko abuztuan, "Institut Catholique de Toulouse" delakorat igorria. 1958-an "licenciè ès sciences" itzultzen da Tolosatik eta irakasle ezartzen dute Mauleko ikastegian. Bihotzeko gaitz batek eraman du 45 urtetan 1974-ko urriaren 5-ean. Ehurzte ederrak ukan ditu; jaun kargudun hainitzekin, ehun apezez goiti bazen, jaun apezpikua buru, kantu guziak eskuaraz.

Gregoire Eppherre, bere apez dohainak bestalde, gizon argitua zen bai matematiketan, bai filosofian, bai musikan; alemanez ederki mintzatzen zen; astero biltzen zituen Xubero-ko berriak eta "Herria" astekarian "üskaraz" emaiten. Mauleko ikastolan laguntzale herriz-herri **üskal kantore** xahar biltzale eta erakusle, euskara batuaren sustatzale, asmatzen ginuen euskaltzaindiak lagun langile sukar bat ukanen zuela urte askorentzat.

P.Lafitte

GUILLAUME EPPHERRE (1911-1974)

Altzuhuru-Etxeberriko seme. Guillaume Eppherre 1911-n sortu zen, urrielaren 19-an, hameka haurrideetako bigarrena.

Lehen mailako eskola sort-herrian iraganik, bigarren mailakoa Mauleko eta Uztaritzeko ikastegietan eman zuen, Baionako apezgaitegi handian sartu artean. Apeztua izan zen 1936-eko uztailaren 5-ean, eta matematika goienen ikastera igorri zuten Tolosako Unibertsitaterat. Bainan Baionako apezpikutegian laster sar-arazi zuten idazkari bezala. 1949-an ohorezko kalonje izendaturik, Sant-Bernard ikastegian arima-zain ezarri zuten. 1967-an tituluzko kalonje egina zen. Eritasun luze eta oinazetsu baten ondotik hil zen 1974-eko urrielaren 17-an, 12 egun Grégoire bere anaia apezaren heriotzetik landa.

Apez argitu eta goxo bat zen, itzal handiko: apezek gogotik dei egiten zioten beren arteko predikari gisa, eta jende asko joaiten zitzaion etxera kontseilu galdez: alabainan famatuak ziren haren gixakotasuna ezagutzale ona, nahiz "manexa" ere, hala beharrez, bazerabilan. Haatik, hego-aldeko euskalkiak frango arrotz zitzaizkon.

"Gure herria" aldizkaria zuzendu du, Saint-Pierre jaun apezpikua hilez geroz, (1951) bere biziaren azkeneraino.

"Eskualzaleen Biltzarra" batasuneko buruzagietarik izana da asko urtez.

"Herria" astekarian beti laguntzale eta sustatzale, ez bazuen ere maiz idazten.

Bazuen alabainan bertze euskal-lanik: zenbait urtez, aste oroz Xuberoko apezentzat apailatzen zuen euskaraz igandetako meza eta polikopiaturik banakatzen.

Haren eskutik jalgi ziren Xuberoko eliza-liburu hauk:KATEXIMA (1941) BOTZEZ ETA BIHOTZEZ (1949), ELIZAKO LIBRIA (1943); HAURREN KATIXIMA (1956).

Euskal-literaturari buruz, bereziki ikertu zituen Etxahun-Barkoxe, Ligueix, eta Aita Lhande.

Azken hau hil-eta Euskaltzaindian hartua izan zen Guillaume Eppherre, haren ordain; eta batasun huntan sartzeko hitzaldiaren gaia izan zen "Aita Lhande ziberotar euskalzaiñaren orhitzapenez".

P.Lafitte

"Entidades y Personas que contribuyeron al sostenimiento económico de la Academia año 1974".

1974 URTEKO DIRU-LAGUNTZAK

1.- Donostiako Ayuntamentua
2.- Gipuzkoako Diputazioa
3.- Bizkaiko Diputazioa
4.- Lankide Aurrezkia
5.- Ularco
6.- X. X.
7.- Bilboko Aurrezki Kutxa
8.- Nafarroako Diputazioa
9.- Agirre, Tomas
10.- Arabako Diputazioa
11.- Enparantza, Miguel
12.- Sociedades Unidas de Mondragon
13.- Altuna Arregi, Ignacio
14.- Ceberio Olabarria, Enrique
15.- Danok

16.- Gasteizko Ayuntamentuak
17.- Junta de Cultura de Vizcaya
18.- Arriola Arana, Jose Mª
19.- Aya Goñi, Andres
20.- Azkarate, Xabier
21.- Bizkaiko Bankuetxeak
22.- Hernaniko Ayuntamentua
23.- Arzua, Alberto
24.- Danona S.C.I.
25.- Lasuen Solozabal, Valentin
26.- Zubillaga Trecu, Iñaki
26.- Arana Lopez, Baldomero
28.- Aranguren, Roque
29.- Aurre Arteagabeitia, Jose Mª
30.- Gereño, Xabier
31.- Imaz Goikoetxea, Jose Mª
32.- Lotina Benguria, Roberto
33.- Talleres Alejandro Altuna
34.- Ugarte Guridi, Juan
35.- X. X.
36.- Galarraga, Venancio
37.- Lopategi, Miren
38.- Ortiz de Pinedo, Aitor
39.- Abando Mugica, Juan Mª
40.- Aldazabal, German
41.- Aldazabal Bastida, Martin
42.- Arana, Jose Ramon
43.- Beitia Ayastuy, Jose Mª
44.- Bengoetxea Zabala, Jose Mª
45.- Bilbao Arbeloa, Unai
46.- Ceberio, Calixto
47.- Cotera Gorostiza, Ignacio
48.- Diaz, Roberto
49.- Echano Uranga, Jesus
50.- Elguibar, Arantxa
51.- Elosegui, Paulino
52.- Escalza, Carmelo Mª
53.- Fuica Marquinez, Luis

54.- Galparsoro, Venancio
55.- Goya Zubiri, Juan
56.- Industrias Alzuaran
57.- Mugica Lasagabaster, Jon
58.- Otalora Galdos, Juan Jose
59.- Paramo, J. Salvador
60.- Queralto, Josep, Nuria, Jordi
61.- Quintana Santamaria, Jose Antonio
61.- Ribera, Jose Ramon
63.- Sarasola Martinez, Kelmen
64.- Sopelana, Jose Luis
65.- Ulacia, Jose Mª
66.- Unzueta, Salvador
67.- Uranga Iturrioz, Mikel
68.- Ureta Belaustegi, Tomás
69.- Urreisti Iturrioz, Jon Mirena
70.- Verges i Albertos, Antoni
71.- X. X.
72.- Zumalabe, Ricardo
73.- Bengoetxea Zabala, Daniel
74.- Aguirre Odriozola, Fernando
75.- Aranburu Arrieta, Jose
76.- Atxa Laburu, Jesús
77.- Arza, Antonio
78.- Bastida Aranguren, Iñaki
79.- Beltran, Vicente
80.- Celayeta, Julián
81.- Covián Uriarte, Juan Mª
82.- Dorronsoro Esnaola, José Antonio
83.- Etxeandia Zamalloa, José Luis
84.- Echezarreta, Carmelo
85.- Elorza Izeta, Gregorio
86.- Esnal Salaberria, Lazaro
87.- Glual Hidraulica
88.- Guijarro Burro, Alfredo
89.- Inchausti, Jose Luis
90.- Irastorza Barandiaran, Francisco Mª
91.- Jauregui Aguirre, Eugenio

92.- Marcaida Zarraga, José Ignacio
93.- Merino Zarandona, Juan José
94.- Olano Segurola, Carmelo
95.- Ormazabal Lasa, Victor
96.- Rementeria Arrascada, Iñaki
97.- Ugalde Mugica, José Ramón
98.- Yagüe, Carlos
99.- Zuazua Fonturre, Miren
100.- Zubiarrain Urquia, Joaquin
101.- Menchaca Libano, Cesareo
102.- Arnaiz Esquibel, Raimundo
103.- Boveda Oxinaga, Perfecto
104.- Elorza Izeta, Eugenio
105.- Hormaza, José Ramón
106.- Lorena, Dionisio
107.- Viar Bayo, Juan
108.- X. X.

AURKIBIDEA 1.975

ZORTZI URTE ARTEKO IKASTOLA HIZTEGIA 7
EUSKALTZAINDIAREN IZEN ETA BIZILEKUAK 155
A. Irigoyen – DONE MILIAGA KULUKAKOA ETA EUSKARA. 161
P. Villasante – IRIGOYEN JAUNAREN SARRERA-HITZALDIARI . . . . . .
ERANTZUNA 187
J.S. Martin – LITERATURA LANDUAREN SORRERAKO GIROA . . . . . .
AXULARREN GARAIRA ARTE. 195
Haritschelhar – SAN MARTIN JAUNAREN SARRERA-HITZALDIARI. . . . . .
ERANTZUNA 209
Txillardegi – LA STRUCTARATION DU CHAMP SEMANTIQUE. . . . . .
DE LA COULEUR 221
J. Garate – XIV CONTRIBUCION AL DICCIONARIO VASCO. 239

GAI LABURRAK

D. Etxenagusia – APOSTILLA DE LA CARTA DE CITRA-TUMBA DEL Dr. . .
JUSTO GARATE A D. BONIFACIO ECHEGARAY 259
Iratzeder – LEHEN EUSKAL HITZAK. 263
L. Villasante – SAN MILLAN-GO EGUNEAN EUSKALTZAIN BURUAREN . .
AGURRA 265
L. Villasante – EUSKALTZAIN BURUAREN AGURRA (URDAZUBIKO . . . .
BATZAR EGUNEAN) 269
L. Villasante – EUSKALTZAINDIAK ETA HERRI-ADISKIDEEK . . . . . .
ELKARREKIN EGINDAKO BATZARREAN (AZKOITIAN, ABENDUAK, 27, .
1974) EUSKALTZAINBURUAREN AGURRA 273

BATZAR TXOSTENAK

L. Villasante – JOSE KRUZ ETXEBARRIA IDAZLEAREN OROIGARRIZ . . .
1773 - 1973 281
P. Larzabal – OTS-IZENEZ OHARMEN ZENBAIT 293
B. Gandiaga – HIRU ERROMANTZE ETA GORAZARRE BAT 301
J.S. Martin – PERRETXIKO IZENAK EIBARREN. 317

J.M. Satrustegui – URDAINGO ZIZEN IZENAK 325
J. Intxausti – AZTERKETA SINTATIKORAKO AZTERBIDEA 330
J.M. Lekuona – TXIRRITA ETA BASARRI 333
L. Villasante – NOMBRAMIENTO DE ACADEMICO DE HONOR DEL . . . . . Sr. MERINO URRUTIA 341
J. Bta. Merino Urrutia – HISTORIA DE LA PRESENCIA DEL EUSKERA . . . . EN LA RIOJA 343
Mitxelena – GORPUTZ ETA SOIN 353
J. Oregi – EUSKAL-ADITZEN SAILKAKERA JATOR BATEN BILA 359
X.Mendiguren – ESTATU IZENAK 373
Alustiza – BOSGARREN PENA ETA NEKEA "GORUAN IPINI ETA HARIA. . EGIN" 389
D.Lafitte – XVII garren MENDEKO JOANNES HARANEDER FRAIDEA . 397
P. Larzabal – EUSKALDUNAK ETA KOLOREAK 401
P. de Irizar – "ADITZA EUSKALKI GUZIETAN" 407
J.S. Martin – "GAVON-SARIAC" GURE ILUSTRAZIOAREN SARRERA . 453

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

GURE EGOERA ETA LANEN KONTU ERRENDATZEA 461
1975 URTEKO BATZAR EGUTEGIA 471
IRAKASLE TITULUDUNAK (1975 URTEKOAK) 475
BATZAR AGIRIAK 481

BERRIAK

EN EL ACTO INAUGURAL DE LA CATEDRA DE LENGUA VASCA DEL . . .
ATENEO DE MADRID (7 - 10 - 1974) 515
OINATIKO ARRAZOLA ETXEKO MANUSKRITOAK 529
UDAKO EUSKAL IKASTAROAK 531
HIL - BERRIAK 545